

Goseak akabatuak

ANIMALIEN ESKUBIDEEN EKONOMIA POLITIKOA

Bob Torres

Jatorrizko izenburua:

Making a killing. The Political Economy of Animal Rights.

argitalpena eta edizioa 2007 AK Press (Oakland, Edinburgh, West Virginia)

Itzulpena: Nor

Azalaren diseinua: Nor

Edizioa: ochodoscuatro

Argitalpenaren lehen edizioa 2023ko udazkenean kaleratua

ochodoscuatro ediciones

Lege gordailua: **M-32128-2023**

ISBN: 978-84-122658-9-7

Liburu honen onura guztiak ideia antiespezistak zabaltzera bideratuko dira.

Guztiz gomendagarria da obra hau osorik edo zati batean zabaltzea, baldin eta merkataritzakoak ez diren helburuetarako erabiltzen bada. Beste edozein erabileratarako, argitaletxearen batzarraren baimena behar da.

Jennari

eta

Emmyri, Michyri eta Moleri

AURKIBIDEA

Nor hitzaurrea	7
ochodoscuatro argialetxearen hitzaurrea.....	11
I. Berdintasuna serio hartzea.....	15
II. Kontsumogai kateatuak	37
III. Jabetza, indarkeria eta zapalkuntzaren erroak.....	107
IV. Animalien eskubideak eta okerrak.....	157
V. Ezin duzu iraultza erosi.....	209
Notak.....	259

NOR HITZAURREA

Ez dugu hasteko beste era bat ikusten eskertarena ez bada. Gure lehenengo proiektu editoriala izan da eta zailtasunak zailtasun hemen duzue lan askoren emaitza. Hasteko eskertu nahiko genuke itzulpen lanean aritu direnei: zuen lana eta buruhausterik gabe ez ginen hemen egonen. Baina honelako proiektu batean esku eta begi asko egon dira, gure beste jarduera edo ekintzen kasuan bezala, elkarlanean eta kolektiboan lan egiten dugulako. Batzuetan motel goaz, baina Zapatistek dioten bezala, urrun goazelako da!

Esker bereziak ere Ochodoscuatro argitaletxeari, proiektu hau haiekin partekatu dugulako eta haien itzulpen eta difusio lanak egungo egoera ahalbidetu duelako. Elkarlanean aritu dira azken urteetan liburu hau eta beste hamaika liburu itzuli eta zabaltzeko. Hainbat formatuetan (testuak, audioliburuak...) zabaldu dituzte tesi antiespezista anitzak: ezagutza eta eztabaida politikoak eskuragarri eginez.

Nola ez eskertzekoa da ere gizakiz besteko animaliekin dugun harremana ikertzeaz arduratu izana, bizitzari gerra deklaratu dion zibilizazio honetan. Horregatik Bob Torresen lana funtsezkoa iruditu zaigu: ekonomia politikoaren ikuspegitik gizakiok gure artean eta gizakiz besteko animaliekin dugun harremana aztertzen duelako. Bere globaltasunean eta era sistematiko batean. Hala ere, kontziente gara beste hainbat lan interesgarri daudela eta zentzu horretan ulertu behar dira gure blogean irakurgai dauden iritzi artikulua, berri, bideo, kronika eta fanzineak.

Ideen guda ezinbestekoa iruditzen zaigu, batez ere, gaur egungo borroketan gizakiz besteko animaliak kontuan hartzeko, borroka-ekuazioan. Euskal Herria borrokan bizi den herria izanda inertzia lagungarriak aurkituko ditugu. Baina espezismoa tamalez oso errotuta dago eta ibilbide historikoa eta testuingurua ongi aztertu beharko dugu. Horretarako analisi estruktural eta integralak ezinbestekoak izango dira, baina beti ere ulertuz nolabait osatugabeak izango direla nahitaez.

Bob Torresek sistema kapitalistaren logika aztertzen du liburuan, hainbat pentsalarien ekarpenak kontuan hartuz. Marxen merkantzien fetitxizazioaz abiatuta, produkzio sistemaren logikatik pasata eta alienazio motak agerian utziz. Gizakiz besteko animalien kategorizazio zehatza proposatzen du: merkantzia superesplotatuak (ez langileak, ez esklaboak). Egunerokotasuneko errealitate edo egoeren analisi interesgarria aurkezten du (etxekotatutako edo produkziarako animaliak alderatuz, dominazio prozesuak azalduz...) desnormalizatzeko helburuarekin. Hala ere, Ochodoscuatroren hitzaurrean aipatzen den moduan, ez ditugu gureak egiten berak aurkezten dituen ideia guztiak (mugimenduaren nozioa edo ekintza mota batzuen balorazioa besteak beste).

Lehen aipatu den moduan, analisisiek beti izango dute alderdi osatugabea edo inperfektua, bai liburu honetan baina baita talde moduan egiten ditugun irakurketetan ere. Zentzu horretan, kontuan izan testua 2007 urtean eta testuinguru jakin batean idatzi zela. Liburu honetan erantzun unibertuala edo konponbidea bilatzen baduzu ez

duzu topatuko. Sistema honen logika ulertu nahian hartu baduzu liburua orduan erantzun interesgarriak topatuko dituzu dudarik gabe.

Askotan uste da antiespezistok arazo guztietarako erantzunak ditugula. Eta ez, ez gara orojakileak. Ezin diogu eraldaketaren ibilbideari ziurtasun finkoekin ekin, historiak irakasten duen moduan halako ziurtasun egoskorrek bide okerretara eraman gaituztelako. Iparra galdu gabe malguak izan behar gara eta erantzunak bidean agertuko dira, hori da izan dezakegun ziurtasun bakarra.

Sistema hau eraldatu nahi duen ororentzat zuzenduta dago liburua, zintzotasunez eta umiltasunez. Egoeraren konplexutasunaz jabe gara eta argi dugu sistema honen eraldaketa ez dela soilik desiratzen dugun zerbait, baizik eta behar materiala. Krisi garai honetan inoiz baina gehiago espezismoa eta antropozentrismoa desagerrarazi behar-ko genituzke, horrela agertuko baitira praktika eta bizitza era askatzaileagoak.

Gehiago luzatu gabe, espero dugu irakurketaz gozatzea.

OCHODOSCUATRO ARGITALETXEAREN HITZAURREA (2014)

Saiakera honen ingelesezko lehen ediziotik (2007) zazpi urte baino gehiago igaro diren arren, gaztelaniaz hitz egiten dutenengana hurbiltzea erabaki dugu, izan ere bertan garatzen diren hausnarketek eta analisiak indarrean jarraitzen dutela uste baitugu, eta aletxo bat gehiago jar dezaketela gure iritziak eta estrategiak lantzerako orduan, animalien ustiapenaren aurrean dugun kontzeptuari eta jarrerari dagokionez. Hala ere, bai itzulpen-taldeak bai argitalpen-taldeak uste dugu baliagarria dela hitzaurre honetan liburuaren edukari buruzko hurbilketa bat egitea eta hura irakurtzean kontuan hartu beharreko gogoeta batzuk gehitzea.

Garrantzitsua da azpimarratzea liburua gurea ez bezalako testuinguru soziopolitikoan idatzia izan zela, eta planteamendu hori kontuan hartu behar dela testu osoan zehar, bai zuzeneko adibideak ulertzeko, bai egilearen iritzi batzuk kritikoki aztertzeko.

Ondoren datozen bere hausnarketetan sakondu ahal izateko, Bob Torres “berdintasuna” bezalako kontzeptu bat definitzen hasten da, lehen begiratuan oso konkretua dela eman dezakeena, nahiz eta oso hitz anbigua dela eta erabiltzen duenaren interes subjektiboetara erantzuten diela garbi geratzen den. Horregatik da garrantzitsua kontzeptu horien esanahiak zehaztea, berdintasunaren bidez ezberdintasunak zeintzuk diren zehazten baita. Desberdintasun

horiei ematen zaien garrantzian (edo desberdintasun horien garrantzi ezan) garatzen du egileak bere gogoeten azterketa nagusia: kapitalismoak horiek nola aprobetxatzen dituen, gainerako animaliak merkantzia bilakatzen dituen eta jabetza bihurtzen dituen (eta, Proudhonek zioen bezala, jabetza lapurreta bat da).

Kapitalismoak esplotazio dinamika beldurgarri bat sortzea lortu du, non animaliak eskulan eta baliabide diren, eta non etekinak beste edozein arrazoibidek baino pisu handiagoa duen. Hori dela eta, Bob Torresek “bizirik dauden merkantzia superustiatuak” kontsideratzen ditu, analisi berri honek dakarren guztira hurbilduz eta animaliek berezko eskubideak dituztela eta errespetatu eta defendatu egin behar direla gero eta zabalduago dagoen ideia hurbilduz.

Hortik aurrera, eta animalien ustiapenaren dinamika kapitalista argiago horrekin, egileak animalien eskubideen aldeko mugimendu bat aurkezten digu, dinamika horrekin estuki lotuta, bai oharkabea, bai horretaz oso jabetuta. Puntu honetan zehaztu nahi genuke liburu honetan animalien eskubideen aldeko mugimenduaren kontzeptualizazio laxo samarra egiten dela, eta ez gatozela bat horrekin; izan ere, eskubide horiek sinesten edo errespetatzen ez dituzten pertsonak eta taldeak sartzen ditu liburuan, eta orokortze hori egitean, pertsona edo kolektibo horien jarrera diskriminatzaileak mugimenduari egozten dizkio, bidegabeki.

Amaitzeko, Bob Torresek, ikuspegi antiautoritario argi batetik, estrategia eta norabide desberdinen jarraipena egiten du, mugimendua, inplikazioak, akatsak eta asmatzeak

hartzen dituena. Amaitzeko, gogoeta pertsonalak eta proposamenak egiten ditu, gai interesgarriak planteatzeko eta irakurtzen duenari jarrera gogoetatsu eta kritikoa izatera, bere gaitasunetan konfiantza izatera eta animalien eskubiak beste era batera defendatzera gonbidatzeko.

Ezin dugu hitzaurre hau amaitu, legez kanpoko ekintza zuzena etikoki eta estrategikoki baloratzeko orduan egilearekin ditugun desberdintasun handiak aipatu gabe. Indarkeria tresna politiko gisa erabiltzeari buruzko eztabaida etengabea da aldaketa soziala lortu nahi duten mugimenduen baitan. Eztabaida horrek mendeak daramatza irekita, eta ez dago adostasun orokorrik. Argi daukagu Torresek biolentziazat jotzen duen guztia ez dela liburu hau argitaratzen dugunontzat. Tortura-tresnak erabili eta suntsitzea edo animaliak kaiioletatik ateratzea eta ustiapenetik salbu uztea ez ditugu inoiz terrorismotzat edo indarkeriazat jo daitezkeen ekintzatzat hartuko. Eta “horrelako ekintzen” eraginkortasun estrategikoari dagokionez (guztiak berdinak balira bezala legez kanpokoak izateagatik), uste dugu badagoela informazio, datu eta bibliografia nahikoa iritzi propio, sendo eta ñabartuagoa osatzeko liburu honetan isurtzen dena baino.

Besterik gabe, espero dugu Bob Torresek helarazten dizkigun hitzek guri eman diguten ekarpen bera edo gehiago egitea.

I. BERDINTASUNA SERIO HARTZEA

Onartu beharra dago espezie gisa harreman bitxia daukagula gainontzeko animaliekin. Zenbait telebista-katek 24 orduz ematen dituzte animaliei buruzko programak, eta, ipar hemisferioan behintzat, animalia-lagunak jabetzan izatea gure kulturetan barru-barruraino sartutako instituzio bat da. PetSMART moduko dendak sortu zirenetik, askori eguneroko ohitura bilakatu zaie animalia-lagunarekin erosketak egitea. PetSMARTen, esaterako, txakurra dendara sar dezakezu jostailuen saila miaztera eta txakur-janariaren korridoretan usainka aritzera. Animalia-lagunok gure bizitzetan hartu duten rola haurrenaren antz handia du. Ipar Amerikan, urtero milioiak eta milioiak gastatzen ditugu animalia-lagunentzako saritxoak, jostailuak, kalitatezko jakiak eta altzariak erosten. Ohean ere sartzen ditugu txakur asko.

Animalia-lagunen batekin bizi den edonork badaki izakiok sentitzeko eta pentsatzeko gauza direla. Edozein txakur- edo katu-jabek ez du adimenari buruzko eztabaida filosofiko luze eta mamitsurik behar jakiteko txakurrek eta katuek badutela beren buruaren kontzientzia. Ulertzen dute beren ingurunea. Nahiak dituzte. Plazera eta mina senti ditzakete, eta aldartea ere mudatzen zaie. Gutako ugarik badakigu hainbeste egunerokoan bizikide ditugun animalia horiei buruz, baina gehienoi ia inoiz ez zaigu bururatzen beste animaliak ere badirela horretarako kapaz. Zer gertatzen da behiekin, oiloekin, txerriekin eta ardiekin? Jakintzat eman dezakegu ez dutela nahi konpainiarik, kontsolamendurik eta plazerik, ederki dakigun arren gure animalia-lagunek baietz, nahi dituztela? Dikotomia faltsu

bat sortu dugu gure animalia-lagunei eta besteei egotzita-ko portaeren artean, eta horren ondorioz ezin ditugu ikusi animalia guztien berezko balioa eta beharrak.

Arazoa zera da, eratu dugun gizartean normalki ez digutela pentsarazten kontsumitzen dugun hori nondik datorren, eta horrek gure kontsumorako hazten ditugun animaliei ere eragiten die. Animalia batzuk mimatu egiten dugu, eta besteak, janari bilakatzen. Diferentzia nagusia da animalia-sorta bat ezagutu egiten dugula, eta bestea, berriz, beste inork hazi eta hiltzen duela, eta plastikotan eta bigungarritan bilduta iristen zaigula guri, afaritarako. Horrek ezkutatu egiten du kultura gisa animalien inguruan dugun kontraesan moral sakona. Nolatan ditugu txakurrak familiako kide, eta txerriak, berriz, txerriki? Eta nola justifikatzen dugu diferentzia?

Liburu honetan, irekia izateko eta galdera horiek kontsideratzeko eskatzen dizut. Erraza da animaliez arduratzen den jendea sentimental mengeltzat jotzea, edo tentel moralista eta gogaikarrizat —badakit, neuk ere halaxe pentsatzen nuen-eta—, baina datozen orrialdeotan garatuko dudana analisia gure ekonomiaren eta gizartearen ulerkerari argi batean bermatzen da. Kontsumogaiak nola ekoizten diren aztertuta, abeltzaintza eta horri lotutako industriak esplotazio kapitalistaren dinamika zabalagoan kokatzen ditut. Ekoizpen- eta kontsumo-sistema garatu horrek ezkutatu egiten ditu kontsumitzen ditugun animalia-jatorriko produktuen atzeko prozesu eta metodoak, beste produktu gehienak bezala. Eskatzen dizut gogoeta egiteko kondizio horiei buruz, eta pentsatzeko ea benetan

justifikatzeko modukoa den eguna joan eta eguna etorri milioika eta milioika izaki sentitzailerri egiten dieguna.

Eszeptikoak zaretenontzat: ulertzen dut zuen eszeptizismoa, eta pazientzia izateko eskatzen dizuet. Onartzen dut nik neuk hamar urtetik gora behar izan nituela liburu honetako hainbat ideia onartzeko, eta bide horretan aurka egin nion neure kontzientziari, adimenak esaten zidanaren kontra borrokatuz bide luze horren pauso bakoitzean. Duela urte batzuk, urtebetetze baten ostean, neure bizi-tzaren inguruan pentsatzen hasi nintzen, eta gauza batez konturatu nintzen: nire balio etikoak eta printzipioak serio hartuko banituen, eta benetan bizi nahi banuen menderakuntza eta hierarkia auzitan jartzen zituen mundu batean, bada, aukera bakarra neukan: animalien aurkako krudeltasuna baztertzea ahalik eta gehiena. Hautu hori egin nuen ez bakarrik ikusten nuen sufrimendua eten nahi nuelako; baita, anarkista sozial modura, nire bizitza kritikoki bizi nahi nuelako ere. Ziur aski anarkistak adina anarkismo existituko dira, baina nik neuk desira orokor batean sustraitzen dut nire anarkismo soziala: askatasunaren alde eta hierarkiaren, menderakuntzaren eta zapalkuntzaren kontra ekiteko desiran. Anarkismo sozialak erantzukizun kolektiboaren indarrera jotzen du gizarte hobe, bidezkoago eta berdinzaleago bat egituratzeko, baina nik neuk halaber pentsatzen dut anarkista izatea, lehenik eta behin, hierarkiari buruz kritikoki pentsatzea dela: zergatik existitzen den, norik ateratzen dion etekina, eta zergatik ez den bidezkoa. Gure kulturaren naturalizatutako beste menderakuntza-forma batzuk aztertuta, hala nola sexismoa eta

arrazakeria, argi geratzen da menderakuntza ez dela gizarte humanoaren artefaktu natural bat, baizik eta hartu-eman historikoen multzo bat, zeinak klase edo jende-talde bati mesede egiten baitio beste talde batzuen kaltetan. Animaliekin ditugun harremanei era horretan erreparatzen hasi nintzenean, zur eta lur geratu nintzen, ezinbestean, ikusita animaliekiko harremanak hierarkia berberekin egituratzen ditugula, eta makina bat sufrimendu gertatzen dela, izan etekina sortzeko, izan bestela ere ase zitezkeen giza desira eta beharrak asetzeko.

Labur esanda: horri buruz luze eta zabal pentsatu eta neure buruarekin zintzo jokatzea erabaki nuenean, jabetu nintzen neure sinesmen politiko eta etikoez ezin zutela justifikatu halako menderakuntza bat, «espeziearen» kategoria hutsaren arabera, ezin justifikatu nituen bezala sexuan, arrazan edo jaioterrian oinarritutako menderakuntzak. Aztertu nuenean nola esplotatzen diren animaliak kontsumogai gisara, ikusi nuen gizakiak ere oso antzera esplotatzen direla, eskulan gisa. Serio gogoetatu nuen ea sufrimendua sortzen segituko nuen, erraza zelako eta bizitza erosotzen zidalako bakarrik —nahiz eta baneukan bestela egiteko modurik—, eta konturatu nintzen ezin nuela, kontzientzia garbi edukita behintzat.

Azkenean, kontua hauxe da: serio hartzen badugu justizia sozial eta ekonomikoa, eta gure mundu-ikuskerak uko egiten badio indarraren nagusikeriari, bada, ikuskera hori guztiongana zabaldu behar dugu, batez ere gure arteko ahulenengana. Ahulenei justizia apurrak botatzen badizkiegu, justiziak zentzua galduko du, eta indartsuenak

agintzen duen mundu batean biziko gara. Anarkista sozial gisa, Piotr Kropotkin eta Emma Goldman bezalako pentsalarien lanetan zurkaizturiko tradizio zabal batean hazia naizenez, kontu zail horietaz pentsatzen hasi nintzen, zapalkuntzan daukadan rola kritikoki aztertzen, eta ondorioztatu nuen ezin nintzela horren parte izan “beti halaxe izan delako” bakarrik. Liburuan aurrera egin ahala, eskatzen dizut prest egon zaitezela azterketa kritiko berbera egiteko, kontuak ateratzeko zure posizio etikoan inguruan, eta erabakitzeko ea zuk ere justifika dezakezun hori, hots, gure kultura garaikideko menderakuntza-formarik sakon eta sarkorrenetako batean parte hartzea.

Liburu honek sarritan jotzen du anarkismoaren teoriara, batik bat Murray Bookchin lanetara eta hark *ekologia sozial* esaten dionari buruzko ideietara, baina halaber bermatuko naiz ekonomia politiko marxistaren marko zabalago batean, adierazte aldera nola zabaltzen, sakontzen eta mantentzen diren animalia-esplotazioaren harremanak kapitalismoaren dinamiketan. Aurrez ere erabili dira analisi marxista eta soziologikoak animalien zapalkuntza ulertzeko; adibide nabarmenena David Niberten *Animal Rights / Human Rights* liburua da (Animalien eskubideak / Giza eskubideak)¹. Niberten analisisia funtsezkoa da, animalien esplotazioaren historia luzea aletzen baitu, eta zapalduen lekutik idazten baitu historia. Interesgarriena, ordea, zera da: lanaren hasieran, Nibertek zapalkuntzaren analisi soziologiko bat egiten du, zeinak erakusten baitu zapalkuntzak egiturazko kausak dituela, guztiak ere gizarte baten ekonomian, ideologian eta praktiketan bermatuak.

Niberten ideiek erakusten dute gizarte baten aldagai ideologikoek dimentsio material bat daukatela ezinbestean. Edo, sinpleago esateko: gure sozializazioak zer mundu-ikuskerara sortzen duen, horrek eragina daukala gure jardunean. Gehienbat sozializazio horri esker birsortzen dira jende-animaliak zapalduen posizioan mantentzen dituzten prozesu sozial eta ekonomikoak. Motzean, analisi hori lagungarria da bi gauza ulertzeko: batetik, zergatik ez diguten sarriago pentsarazten kontu horietan, eta, bestetik, nola guk horietaz ez pentsatzeak botereari eusten dion.

Ikuspuntu horretatik, animaliekiko ditugun harremanei erreparatzen die Nibertek, ulertu nahian nola menderatzen ditugun animaliak hala maila ideologikoan nola materialean. Lehenik, adierazten du funtsezko teoriarari ugarik —horien artean animalien askapenerako mugimenduaren “aita”, Peter Singer— ez dutela asmatu kritikoki pentsatzen zapalkuntzak egiturazko osagai bat duela, harreman ideologiko eta ekonomikoetan oinarritua; jarraian, Nibertek analisi soziologikora jotzen du, zapalkuntzaren teoria orohartzaileago bat osatze aldera. Arraza, klasea, generoa, espeziea eta halako kategoriak zapalkuntzaren “sistema lotu” eta “interaktibo” gisa aztertu ditu Nibertek, eta marko horrek aitortzen du zapalkuntza horiek guztiak erlazionatuta daudela, eta elkar indartzen dutela. Hau dio:

Gizarte humanoetako talde gutxietsien zapalkuntzak ez dira independenteak eta erlaziorik gabeak; aitzitik, hainbat zapalkuntza-formaren egiturak halako moduan daude

integratuta, non talde bat esplotatzeak bestearen kontrako tratu txarrak ere ugaritu egiten baititu askotan.²

Nabarmentzekoa da Niberten iritziz zapalkuntza-egitura horiek aldatzeko beharrezkoa dela gizartearen egitura eta ideologia aldatzea, ez soilik norbanakoen jarrerak. Gizarte baten egitura ekonomikoek eta prozesuek berebiziko garrantzia dute analisi horretan, norbanakoaren inentzioak onak (ala txarrak) izanagatik ere. Sozializazio luzearen bidez, mundu-ikuskerak partikularrak gure psikearen parte bilakatzen dira, gidoi ikusezin baina beti presente bat balira bezala, zeinak ulertarazten digun nola heldu behar-ko geniokeen munduari, eta hura ulertu eta kategorizatu, talde zapalduak ere barne.

Egungo mundu-ikuskerari eustea funtsezkoa da kapitalismoaren barruko botere-harremanak sostengatu eta erreproduzitzeko. Kapitalismoa klase-banaketak ezau-garritzen du: klase batek dauka ekoizpen-bideen jabetza pribatua, eta bestea bere eskulana saltzera behartuta dago bizitzeko. Langileen eskulana erabilia, ekoizpen-bideen jabeek —burgesiak— balioa ateratzen dute ekoizpenean, langileei haiek ekoiztako balioa baino gutxiago pagatuz. Oinarritzko klase-banaketa hori funtsezkoa da kapitalarentzat: kontsumogaiei balioa eransten dien lan-indarririk gabe, ugazaben klaseak ezingo luke haren balioarekin irabazirik atera. Ekoizpen kapitalistaren sistemaren barruan, lehia ezinbestekoa da, bi modu nagusitan: lehenik, langileak elkarrekin lehiatzen dira, klase kapitalistak botatako moka-duren bat nork ahoratuko; horrek ahuldu egiten du talde

zapalduen arteko elkartasuna, eta kapitalaren indarraren kontrako erresistentzien garapena pitzatzen du. Bigarren, merkatu-lehiak eta “hazi ala hil” pentsaerak behartu egiten ditu produkzio-bideen jabeak ekoizpena etengabe eta hainbat modutara birpentsatu eta berrantolatzerara. Horrek, lana porrokatu ez ezik, ekonomialariek “kanporatzeak” deitzen dietenak ere badakartza: planeta finitu batean infinituki hazteko desiraren albo-kalteak. Ekosistema intzirikada dago kosta ahala kosta hazi beharra daukan sistema baten zamapean, eta “kanporatzeak” argi geratzen dira: gure ekosistema zabor gisa jaurtitzen dizkiogun toxinekin zamatzen da, ozeanoak husten ari dira sarekada sarekadaren³ atzetik bota ahala, eta kutsadurari ihes egin ezin diotenak ingurumen-klasismoaren edo -arrazakeriaren biktima dira. Sistema horrek egundoko sarraskia egiten du gizakien, animalien eta ekosistemen artean. Gu bezalako gizakiak eta animaliak lanerako makina gisa debaluatuta gaude, sine-tsarazita hori dela aukera bakarra gizakien iraupenerako eta zorionerako. Eta bost axola ondorioak.

Gizakiak mundua eraldatzeko gai diren izaki jaiotzetik sortzailatzat hartzen zituenez gero, Karl Marxek argudiatzen zuen ezen, bizitzan aurrera egin ahala, gizakiok gizaki gehiago egiten ditugula bizi mota berbera zabaltzeko, eta munduaren gure kontzientzia materialtasun⁴ horretan oinarritutako produktu sozial bat dela. Marxek idatzi zuenez, “Kontzientziak ez du bizitza determinatzen, bizitzak kontzientzia baizik”⁵. Horri dagokionez, beraz, munduan bizibidea ateratzeko dugun *moduak* besteekin materialki konektatzen gaitu, eta prozesu hori humanitatea bezain

zaharra da. Gizateriari eta haren bizitza mentalari buruzko argudio teoriko horiek eginez, gure bizi-forma materialak forma ideologikoekin lotzen ari da Marx.

Ideologia —pauta sozialen eta kulturalen sorta bat, munduari zentzua emateko erabiltzen duguna— da egu-nean-egunean mundua berregiten duen erreminta. Ideologiak esplikatzen digu munduan zer toki daukagun, eta munduak nola funtzionatzen duen ulertzeko tresnak ematen dizkigu. Heredatu dugun ideologiaren arabera biziz, birsortu egiten ditugu mundua instituzio eta praktika sozialen bidez erreproduzitu ahal izateko baldintzak⁶. Hori dela eta, ideologia inoiz ez da neutrala, aitzitik baizik: gure gizartean agintzen duten botere-harremanez blai dago. Marxen iritziz, gizarte baten indar material nagusia indar intelektual⁷ agintaria ere bazen. Gizarte baten ekoizpen-bideak edo medioak funtzionarazten dituzten horiek gauza dira, halaber, ideien ekoizpen-bideetan agintzeko, gu guztiongan ideiak sortuz zeinak “ez baitira nagusi diren harreman materialen adierazpide ideala besterik”, edo agintari-klase jakin baten nagusitasuna justifikatzen duten ideiak⁸. Kotsideratuta ekonomia kapitalistarekin funtzionatzen duen gizarte kapitalista batean bizi garela, geure buruak ezinbestean daude kapitalismoaren berezko menderakuntza zuritzen duen ideologiaz beteta. Gutako askorentzat, ideologia hori guztiz ezaguna da, eta mundua azaltzen diguten eguneroko pautak osatzen ditu. Nire soziologiako sarrerako klase askotan, sarritan hasten ditut pobrezari buruzko eztabaidak ikasleei galdetuz zergatik den jendea pobrea. Saihetsezina da erantzutea jende txiroa alferra dela

edo ez-inteligentea, eta nolabait ere merezi dutela beren pobrezia. Ordea, pobreziari buruzko soziologian arakutzen hasita, argazki konplexuagoa azaleratzen da. Pobrezia eta langabezia ezinbestean dira gure ordena ekonomikoaren parte. Haiek gabe, kapitalismoak ez luke behar bezala funtzionatuko, eta, funtzionatzen segitze aldera, sistemak berak sortu behar du pobrezia eta enplegurik gabeko edo gaizki enplegatutako jende-saldoa. Lanerako jarrera-faltari buruzko mantra txiki sinple horiek, gutako askok eta askok buruan flotatzen bezala ditugunek, ez digute balio gure ordena ekonomikoaren funtsezko parte bat azaltzeko.

Halarik ere, ikasleek –eta beste askok, baita pobrezian bizi den jende ez gutxik ere⁹– argudiatzen dute pobrezia norbanakoaren jarreran bermatzen dela osoki, eta ez gure ordena ekonomiko eta sozialak sortzen duela. Pobreziaren adibideari erreparatuta, ikusten da ideologia izugarri kaltegarria izan daitekeela, gizarte-ordena bidegabeak justifikatu eta berresten baditu. Pobreziari dagokionez, ideologiak ematen digu makineria mental hori, ordena ekonomiko sarraskijale baten biktimei berei egozteko beren biktimitasuna, aldi berean ondasunaren eta kapitalaren pribilegioa babestuz. Guztioi sinestarazten badigute pobrezia, ergelkeria edo alferkeria dela arazoa, edo beste edozein justifikazio okurrizten bazaigu, orduan segurua aski ez gara egongo posizio egokian arazoaren sakon-sakoneko arazoei aurre egiteko. Ondasun sozial eta ekonomikoak banatzeko sistema justuago bat eskatu beharrean, biktimari egozten diogu errua. Zitala da oso, ideologia aldean baitaramagu beti, eta horrek osatzen du munduaren gure eguneroko ulerkeria.

Antonio Gramsci italiar marxistak argudiatu zuen indar ekonomiko eta sozialen konstelazio bakan batek sortzen zuela ordena hegemonikoa, etengabe berridazten ari zena kapitalaren bulkada jazartzaileen eta haren aurkako askapen-indarren arteko gatazka gisa¹⁰.

Gramscirentzat, hegemoniaren bilakaera horrek gure eguneroko “zentzu komuna” zizelkatzen du, posible eta sinesgarri zaigunaren mugak definitzen, bizitzeko eta mundua ulertzeko erabiltzen ditugun mapen topologiak zehazten. Hori da menderakuntzaren teknologia mentala, zeinak, guri gustatu ala ez, gu guztiok bizi baikaitu. Pobrezia ulertzeko bezain garrantzitsua da sexismoa, arrazakeria, baita espezismoa ere ulertzeko. Zapalkuntzak mar-ko ideologiko horretan funtzionatzen du, non bat egiten baitute gizarte-instituzioen bidez *statu quo*-a mantentzeko lan egiten duten indar fisiko eta mentalak. Harreman hori ulertzeko, Nibertek hiru adarreko teoria bat garatu zuen, esplikatze aldera nola gertatzen den zapalkuntza elkar indartzen duten mekanismo sozial eta ekonomikoen bidez. Zapalkuntza sustengatzeko lehen faktorea zera da, esplotazio ekonomikoaren edo lehiaren ideia, diferentziak bultzatua. Gizartearen interes ekonomikoekin bat baldin badator, gizarte horrek “bestetzat” jotako talde bat esplotatu edo kanporatzera jotzen du orokorrean. Horretarako, talde dominatzaileak benetan boterea eta gaitasuna izan behar du “bestea” kanporatu edo ekonomikoki esplotatzeko, eta horrek Niberten teoriaren bigarren adarra dakar: botere-desberdinkeria behar da, bai eta estatu kapitalistak ezarritako kontrol neurri zorrotzak ere. Botereak eta indarkeriak,

estatuak debekatuak eta hornituak, talde dominatzaileari permititzen dio lehen adarrean garatutako esplotazioa betearazten, eta jada gertatzen den beste edozein esplotazioa betearazten. Hirugarren, formularen lehen bi partean ezarritako ordena ekonomikoan oinarritutako manipulazio ideologikoa lagungarria da esplotazioaren gidari eta indargarri diren jarrerak, sinesmenak eta aurreiritziak sortzeko.

Idea horiek kontsideratuta, esplotazioa gure sistema ekonomiko eta ideologikoen parte bilakatzen da, eta ez soilik aurreiritzi indibidual soilei egotz dakiekeen zerbait. Arrazakeria, adibidez, erraz pentsa daiteke Nibertek proposatutako marko horren barruan. Kapitalismoaren historian, arrazakeriak indar manipulatzaile eta errentagarri gisa funtzionatu du, langile-klasea banatuz eta eskulan merkea emanez sistema kapitalistari. Arrazakeriaren mugak alda litezke, kasuan kasuko gizartearen arabera, baina forma konstantea dauka, eta rol funtsezkoa dauka ekonomia kapitalistaren hierarkia sozial eta ekonomikoei mantentzeko. Zuribidea ematen dienez ekonomiaren sektorerik ez-desiragarrienetan lan egiten dutenei eta gutxien ordaintzen dietenei, arrazakeriak gure ordena ekonomikoaren parte askori batuta eusten dien kola ideologikoa ematen du. Arrazakeriak emandako logikaren arabera, Aeriketa-ko Estatu Batuetako gizartean zuriak ez direnek dituzte lanik okerrenak, ez baitira horren inteligenteak eta hain lanerako prestatuak, eta, horren ondorioz, gutxiago merezi dute. Aldi berean, arrazakeriak jende-klaseak egituratzen eta sozializatzen ditu Wallersteinek “rol egokiak” deitzen dituenak jokatzeko ordena ekonomiko esplotatzaile

batean¹¹. Bien bitartean, arrazakeriak jende klase oso baten esplotazioa eta zapalkuntza zuritzen du *benetako* justifikaziorik gabe, salbu eta arraza bezalako kategoria sozialki eraiki baten kide izatea. Esklabotzaren, zapalkuntzaren eta esplotazioaren historia ikusi beharrean, “beste” arrazializatu bat ikusten dugu, zeinak merezi baititu bere egiturazko desabantailak.

Arrazakeriaren oinarri ekonomiko eta egiturazkoa kontuan izanda, garrantzitsua da gogoratzea: nahiz eta jende kopuru esanguratsu batek adjektibo arrazistak erabiltzeari utzi bihar, arrazakeria gidatzen duten oinarritzko kausak eta egitura ekonomikoak indarrean egongo lirateke oraindik; arrazakeria instituzionala izango genuke oraindik, “beste” arrazialen kontrako injustizia ekonomiko eta sozial kaltegarri eta tematia, zeina, AEBetan behintzat, ehunka urtetako esplotazioaren bidez ezarri eta mantendu baita. Era berean, bihar bertan sexistak izateari utziko bagenio ere, emakumeen lana debaluatzen duen sexismo sistematikoa izango genuke oraindik, zeinak, gainera, presioa ezartzen dien emakumeei lana egin dezaten –etxea mantentzea, esaterako– kapitalismoaren subsidio ikusezin gisako zerbitzuetan.

Nahiz eta jende askok ez ikusiarena egin nahi izan, espezismoak ere antzera funtzionatzen du. Ez dira animaliak animalia izateagatik hain kontra ditugun aurreiritziak bakarrik; espezismoa bilbatua dago gure makineria mental, sozial eta ekonomikoarekin, eta parte horien interakzioaren bidez erreproduzitzen da; gure ordena politiko-ekonomikoaren egiturazko aspektu bat da. Niberten hiru adarreko marko teorikoa erabilita, nahikoa da oinarri-oinarritzko analisi bat

egitea animaliak gure bizitzan, kulturetan eta ekonomietan integratuta dauden moduari buruz argi ikusteko zapalduta daudela. Niberten teoriaren lehen partea hartuta —zapatkuntza mantentzea esplotazio- edo lehia-ekonomikoan bermatzen dela— argi dago geure interes eta apetetarako esplotatzen ditugula animaliak. Zuzen-zuzenean kontsumitzen ditugu haien gorputzak janaritarako, baina esnea, arrautzak eta halako produktuak lortzeko fabrika gisa ere erabiltzen ditugu; animalien larruekin janzten gara; esperimentu mediko eta zientifikoetarako erabiltzen ditugu; eta gu entretenezko eta guri konpainia egiteko esplotatzen ditugu. Animaliek zuzeneko rola izan dute kapitalismo industrialarik garapenean ere, gure jabetza gisa —gure jabetzako esklabo gisa— eta, horri dagokionez, langile klasearen partetzat jo beharko lirarteke¹². Hirugarren kapituluan azalduko dudanez, animaliak jabetza hutsa dira legearen pean, eta estatus horrek ematen digu animaliak esplotatzen segitzeko modua. Tradizioa, nahia eta etekina, ez da besterik.

Niberten teoriaren bigarren atala —talde menderatzaileak botere-abantaila daukala bestearen gain, bai eta hura menderatzeko gaitasuna ere, kontrola estatuan bermatuta— ezinago argi dago animalien kasuan. Animaliak katean lotzen ditugu, giltzapean eta karioletan, eta hori egiten dugu jabetza gisa ditugulako, legea lagun. Mundu industrializatuaren gehienean animalien krudeltasunaren kontrako neurriak dauden arren, horiek nekez aplikatzen zaizkie etxaldeko animaliei, eta behar baino gutxiagotan eta behar baino gutxiago ezartzen dira gainerakoetan.

Esplotaziorako marko legal hori lagungarria da esplotazioa indartu eta zabaltzeko.

Azkenik, manipulazio ideologikoak sinestarazten digu zapalkuntza-ordena hori naturala dela, desiragarria eta guztiontzako onuragarria. Horrek, bestalde, estali egiten ditu Niberten teoriaren lehen bi ataletako esplotazio prozesuak. Ulertzeko zein naturala iruditzen zaigun animalien zapalkuntza, ez dugu edozein denda baino urrutirago begiratu beharrik. Animalien gorpuekin edo haien eskre-zioekin egindako produktuak lerrokatzen dira apaletan; larruz eta ilez egiten ditugu berokiak, bai zapatak ere. Gutako gehienontzat horrek normal-normala dirudi. Gutako gehienok ez dugu askorik pentsatzen animaliak eta haien produktuak kontsumitzean, ez behintzat arnasten dugun oxigenoan baino gehiago. Zuri izateko pribilegioa duten zuriak gutxitan pentsatu behar dute, inoiz baldin bada, zertan den beren pribilegioa. Ez dute haren historia ulertu behar, haren jatorria, edo dakartzan abantailak, eta natural gisa onartzen dute. Ez dute jakin behar *existitzen* denik ere. Gure gizarteko zuriak zuri izatearen abantaila ekonomiko eta sozialak dituzten bezala, gizaki guztiok ditugu gure espeziaren abantaila ekonomiko eta sozialak. Era berean, ez dugu askotan pentsatu behar haren historiari, jatorriei edo ondorioei buruz gozatze aldera, askok nire beganismoaz eztabaidatzean gogorarazten didaten bezala, “elikadura-katearen gainaldean” gaudela¹³. (Kontu horietara guztietara bueltatuko naiz bigarren atalean).

Jendea esplotatzeko egituratuta dagoen ordena ekonomiko eta sozial batean bizi garen bezala, animaliak

esplotatzeko egitura batean bizi gara. Pentsarazi nahi digute biak naturalak eta saihetsezinak direla, baina ez da hala. Bi esplotazioek historia luze eta gatazkatsuak dituzte gure ordena ekonomiko modernoaren garapenean. Ordena hori ulertzea, bai eta haren baitako zapalkuntzaren erroak ere, funtsezkoa da ulertzeko nola indar zapaltzaile guztiak kapitalismoaren dinamika ekonomikoetan oinarritzen diren. Zapalkuntza borrokatuko badugu –dela arraza, klasea, espeziea edo genero identitateari buruzkoa–, zapalkuntza horiek eramaten dituen ordena ekonomikoaren bihotza borrokatu beharko dugu. Kapitalismoa borrokatu beharko dugu¹⁴.

Nire aurrekoen pausoei jarraikiz, kapitalismoa kritikoki aztertuko dut orrialde hauetan. Gaurko eguneko ordena ekonomiko gisa, kapitalismoa indar alienatzaile eta esplotatzaile bat da, kapitalaren ekoizpena beste ororen gainetik jartzen duena. Egia da, bai, animalien esplotazioa existitu ahalko litzatekeela kapitalismorik gabe ere, baina oraingo kapitalaren egiturak eta izaerak sakondu, zabaldu eta okerragotu egin du animalien eta mundu naturalaren kontrako gure menderakuntza. Animaliek kapitalismoan sufritu beharreko kontsumogai-sistema bereziki nekagarria da, eta bigarren kapituluan gehiago sakonduko dut ideia horietan. Nahiz eta sarri askotan ez ikusiarena egin diezaiekegun animaliak gure plateretan edukitzeko behar den sufrimenduari, nabarmendu beharrekoa da zera: gaur egun ipar hemisferioan dugun abeltzaintza intentsibo eta oso industrializatuan, animaliak helburu bakarrrik bilakatu direla, kapital gehiago produzitzeko bide. Funtsean, animaliak

ez dira makina bizidunak besterik, ez beren buruarentzako bizi diren izaki, baizik eta kapitalarentzako bizi diren izaki. Kapitalak arrastoa utzi du, literalki, animalia horien azalean, ez bakarrik jabetza adierazteko etiketa eta tatuajeak egiteagatik, baizik eta baita haien gorputzak ere aldatu direlako –kontsumogai hobeak izan daitezen–, gurutzaketa-
ren bidez, batik bat azken hamarkadetan. Liburu honetan, nire helburua da garapen horien analisi bat egitea, ulertzea nondik datozen eta zer rol daukaten kapitalaren harreman politiko-ekonomikoetan. Murray Bookchinen teoria ere erabiltzen dut, defendatze aldera hierarkiak auzitan jarri behar direla, ez bakarrik animalien gainekoak, baita elkarren artekoak ere.

Kapitalismoak animalien esplotazioa sakontzeko, zabalteko eta bere burua mantentzeko dituen moduetatik abiatuta, kritikoki disekzionatuko ditut azken hamarkadako animalien aktibismoaren egungo joera batzuk, erakusteko ez dituela ulertzen horren azpian dautzan kapitalismoaren dinamikak. Testua amaitzeko, anarkismo sozialaren historiari erreparatuko diot, iradokitzeko beste norabide bat hartu behar dutela egungo gizartean animalien egoera hobetu nahi dutenek. Nahiz eta anarkista sozialak ez diren beti oso azkarrak izan animalien sufrimenduari kezka bere lanean eta bizitzetan integratzeko, sinesten dut anarkismoaren beraren tresnak erabil daitezkeela bere kontra ere, hutsune historiko hori ulertu eta zuzentzeko. Ezkerraren tradizio politiko guztien artetik, anarkismo soziala da lurrik emankorra berdintasunaren politiken

haziak landatzeko, baita espezieko kide izateak dakarren berdintasuna ere.

Azkenik, ohar bat egiten dut “eskubideen” auzian. Izenburuan “eskubide” hitza dauka liburu honek, eta anarkista batentzat bitxia irudi lezake horrek. Izan ere, eskubideak estatuek ematen dituzte, eta estatuak ez dira instituzio askatzaile edo desiragarriak anarkistentzat. Gainera, gaur egungo estatu ia denek barru-barruraino sartua dute kapitalismoaren logika, edo behintzat elite bat dute buruzagi, edo kapitalista, edo kapitalismoarekin zorpetua. Halatan, argudia daiteke nik “eskubideak” aldarrikatzeak estatua aldezteko arriskua duela, batez ere izatez legala den zerbaiten alde ari banaiz. Ez nuke ukatuko, ikuspegi praktikotik, legezko eskubideak –baita kapitalismoak emandakoak ere– lagungarri izan daitezkeela animalien esplotazioaren parte bat apaltzeko, baina inportanteagoa den beste zerbait espero dut nik: aitortzea errespetatu beharreko interesak dituztela animaliek. Ideia horretan, “eskubide” hitza erabiltzen dut zentzu zabalean, interes horien aitortza aipatzeko. Kontsideratuta zenbat inbertitu duen estatuak berak menderakuntza harreman horiek mantentzeko, animaliangandik etekina ateratzeko esplotazioa barne, ez dut espero estatua indar progresibo bat izango denik animaliei eskubideok emateko (ez eta, adierazgarria den bezala, gizakiei ere). Horren orde, badirudi eskubideok iturri bakarria izango dutela: gizartean zabal aitortzea animalien interesek inporta dutela, eta, ondorioz, animaliarik ez litzatekeela esplotatu behar. Giza pentsamenduaren marea-aldaketa hori behar du mugimendu sozial baten aktibismoaren base

zabalak, eta ez estatu-aparatuen esku hartzeak, horiek enpresen interesekin bat baitatoz. Espero dut liburu hau erabilgarria izango dela ez bakarrik analitikoki, baizik eta baita gure arteko gutxiengoen aldeko justizia soziala eskatzen duten ahots-sorten arteko beste bat den heinean ere.

II. KONTSUMOGAI KATEATUAK

Aspaldi ez dela, *lifestyle center* delako batean ibiltzeko aukera izan nuen. Azalduko dizut, agian ez dituzu-eta eza-gutuko Ameriketako Estatu Batuetako auzune aberatsak. *Lifestyle center* delako bat aire zabalean dagoen luxuzko merkataritza-zentro bat da, merkataritza-auzo txiki bat imitatzeko diseinatua: eserleku erosoak ditu, paisaia politak, antigoaleko farolak, eta akaso baita adreiluzko hormaz inguratutako kaleak ere, aspaldiko egunen oroigarri. Nik bisitatutako *lifestyle center*-ak fondoko musika ere jartzen zuen, osagarri gisa, irudikatzeko beste edonon aurki dezakezun edozein luxuzko denda-katetan erosten ari zarela.

Inoiz ez naiz izan Jean Baudrillardaren zale handia, baina segituan ulertu nuen zer esan nahi zuen errealitatearen desagertzea aipatzen zuenean.

Modu arraro batean, *lifestyle center* horiek helburu dituzten kontsumitzaileek atsegin dute komunitate-sentsazio intimo hori. Niri, ordea, txango xeble bat iruditu zitzaidan garai bateko AEBetako herri txikiak ziren bezalako Disneylandia bezalako batean, benetakoa ezagutzen ez zuten norbaitek diseinatu balu bezala. Birsortu nahi den herrixka-giro hori, hain zuzen ere, *lifestyle center* horretako kateek bezalakoek suntsitu zuten. Bai, korporazioen AEBek nahiko luke herrietako giro intimoen bizi-estiloa, baina beren era. Zertarako behar dugu merkataritza txiki eta lokalaren heterogeneotasun arazotsua, baldin eta Starbuckseko *triple mocha grande* berbera eska badezakezu munduko edozein txokotan? Zertarako behar ditugu txikizkako saltzaileak korporazio batek irribarre batekin mendera zaitzakeenean, beste 200 puntu gehituta zure erosketa-txartelari?

Kontua da gure gizarteak maite duela kontsumitzea. Gure kontsumoak, ordea, kostu erantsiak ditu. *Lifestyle center* horien eta AEBetako aldirien eraikuntzan, komunitate gehientzako kostu erantsi eta berehalakoa zera izan zen, bertakoen jabetzako merkataritza-eremuak ia guztiz galtzea. Hori, halaber, AEB korporatiboaren dinamika politiko eta ekonomikoen adierazpen jakin bat bilakatu da, hautu jakineko autoetan oinarritutako garapenerako, baita desira baten adierazpena ere: kontsumitzaileek aukera-aniztasuna izateko deserosotasuna saihestea. Halatan, gure kontsumozalekeriak eta produkzio-sistemak baditu bere alde materialak eta ondorioak. Akaso ez dugu ondorio horietan pentsatzen kontsumitzen dugunean, baina, halere, hortxe daude ondorio horiek, eta sakonera ailegatzeko dira, bide horretan bizitza askori eraginda.

Bizitzeko kontsumitu beharra daukagunez, gehienok ez diegu askorik erreparatzen ondorioei. Geure burua mantentzeko behar ditugun gauzak erosteko moduan gaudenok gutxitan pentsatzen dugu (edo inoiz ez) zertan ari garen, zerbait erosteaz harago. Dakiguna hauxe da: zer nahi, bada, huraxe erosi, zaborretatik hartu, egin edo lapurtu behar dugula. Aukera horiek ematen dizkigute, eta, benetan, gutako askok aukera *erreal* bakarra ikusten dute (ez da zaborretatik hartzea, edo egitea, edo lapurtzea).

Gauzak erosten ditugunean, prozesu zikliko batean sartzen gara, non produkzioa eta kontsumoa elkarren baldintza diren, bakoitzak momentu bat adierazten baitu ekoizpen kapitalista osoa gidatzen duen prozesu batean. Horretan, zerbait erostea ez da kontsumo-nahi bat asetzea

bakarrik: prozesu handi batean parte hartzea da, zeinak eraginak dituen kulturaren eta ekonomian. Kontsumoan, balioa itzultzen diegu ekoizpen-bideen jabeei, eta gehiago produzitzea ahalbidetzen. Gure kontsumotik ateratako balioa erabiltzen dute gehiago ekoizteko, eta hori ere kontsumitzen dugu berriz. Prozesu horri eusten diogu lan-indarra salduz (ekoizpena), eta gero hori behar ditugun gauzak lortzeko erabiltzen dugu (kontsumoa). Gutako gehienontzat prozesu hori gehienbat gardena da. Gure bizitzan zehar ez dugu askorik pentsatzen zer dagoen kontsumitzen dugunaren atzean. Arinki erosten ditugu iPodak, txuleta, liburuak, ordenagailuak, eta bestelako hainbat ondasun, pentsatu gabe atzean zer produkzio-harreman konplexu dauden; *lifestyle center* horretan kontsumitzen dugu pentsatu gabe zer eragin dituen gure hautuak gure bizitzan. Bizirik irauteko ondasunak behar ditugu (janaria), edo entretenimendurako (iPodak), eta, nahikoa baliabide baldin badaukagu, produktuak geure egiten ditugu, askorik pentsatu gabe haien produkzioan.

Soziologoek, ordea, gogoeta handia egin dute harreman horien gainean. Soziologiaren eta gizarte zientzien barruan, analisi-eskola oso bat bat dago “kontsumogai-kateak” azalratzea helburu duena, edo ondasun baten bizitza produktiboaren arrastoari jarraitzea hasi eta buka. Ondasun sinpleen analisiak ere oso konplexuak izan litezke. *Tangled Routes: Women, Work, and Globalization on the Tomato Trail* liburuan (Bide matazatuak: emakumeak, lana eta globalizazioa tomatearen bidean), Deborah Barndtek tomateaz aztertzen du, itxuraz gauza sinplea dena,

Mexikoko erro historiko eta garaikideetatik azkenean janari azkarraren jantokietan eta saltokietan kontsumitzen den arte. Produktu bat hala aztertuta, ondasunen kontzeptu sinplea zalantzan geratzen da. Ekoizletik kontsumitzailearengana doan lerro zuzen bat ikusi beharrean, ikusten dugu nola ekoizpen-prozesu osoa lotua dagoen politikarekin, boterearekin, generoarekin, teknologiarekin eta ingurumenarekin. Supermerkatuko tomate bat bezalako sinplekeria baten ekoizpena botere sozialaren dinamikei buruzko lezio bat bihurtzen da, milaka kilometro zeharkatzen dituen. Genero-bereizketen arabera lanaren erretratu bat azalerraten da, ez soilik Mexikon, tomatea ekoizten den tokian, baita AEBetan eta Kanadan ere, tomatea saltzen eta kontsumitzen den tokietan. Barndten liburuak tomatearen arrastoari segitu ahala, erraz ikusten da era horretako ondasunen bizi-istorioak konplexuak direla, alde askotakoak eta gure ulerkeria sinplistik baino handiagoak. Argi ikusten da ondasunen ekoizpena *gizarte-harremani* buruzkoa dela. Ez da klimaren kapritxo AEBetako eta Kanadarako tomateak Mexikon ekoiztea; aitzitik, erakusten digu nola eta zergatik den errazagoa tomateak Mexikon ekoiztea, eta botere ekonomiko nazionalen zer-nolako harremanek permititzen dieten Ipar Hemisferioko kontsumitzaileei era horretako ekoizpena hegoaldeari uztea.

Kapitalaren prozesu sozial eta ekonomikoen pean —zeintzuei *globalizazio* esaten diegun gaur egun—, ekoizpena gero eta geografikoki pluralagoa bilakatu da. Halere, gehienok pozik eta erru-sentipenik gabe bizi gara, eta gutxitan pentsatzen dugu gure kontsumoaren

atzeko gizarte-harremanetan. Egoera hori pagotxa ederra da ekoizleentzat. Horren gustura jango al zenituzke toma-teok, jakinez gero, adibidez, emakume eta haur nekazariak pixkanaka pozoitzen ari direla horiek ekoizteko? Ez jakitea hobe da oro har, nahi bezala kontsumitu baitezakegu kontzientziaren nekerik gabe.

Baina, tarteka, gutako batzuek izaten ditugun zenbait esperientziak hautsi egiten digute gure gizarte kapitalistaren aparatu ideologikoak inposatutako ezjakintasun zorionekoaren murrua. Akaso, nire elikadura-ikasgaiko ikasle ugari bezala, *Fast Food Nation* liburua irakurriko duzu, eta erabakiko duzu berriz haragirik ez jatea, edo akaso ingurugiro-arrazakeria edo -klasismoa pairatuko duzu, eta zure lurra, ura edo airea kutsatuko dituzte ekonomistek “kanporatze” deitzen dioten horiek. Milaka bide daude kontzientzia hartzeko zer kontsumitzen dugun, eta, nahiz eta gutako askok nahiago dugun dena primeran doalako mito erosoari eutsi, batzuetan ezin dugu gure aurreko disonantzia kognitiboa jasan, eta behartuta gaude aitortzera nolako esplotazio-dinamikak dauden gure ordena ekonomikoaren atzean.

Halako momentu ugari izan ditut nire bizialdian, eta, atzera begiratuta, behar baino askoz ere luzarago eutsi diot nire iritzi erosoari. Baina bizi gaituzten mito horiek kontsolatu egiten gaituzte, eta horiek banaka-banaka begien aurrean suntsitzea ez da erraza. Hara nola birrindu zen mito horietako bat niretzat.

AEBetako jende gehienak bezala, nik, hazi bitartean, haragia jaten nuen, eta asko, gainera. Egunero haragia eta

animalia-jatorriko produktuak kontsumitu ez ezik, denbora asko pasatzen nuen Filadelfiako Chinatownen, gertu samar bizi nintzenez gero, eta era guztietako produktuak jaten nituen jatetxe kantondarretan. Lau hanka zituen edozer jaten nuen, mahaia kenduta. Atzera begira, gogoan dut nire platerik gogokoena *Hunan* erara prestatutako antxumea zela; baina, benetan, edozer jaten nuen. Garai hartan, oso lausoki pentsatzen nuen animaliairen bat jaten ari nintzela. Haragia zen, noski, baina “haragia” eta “arnasa hartzen duen izaki biziduna” lotzen zituen haria ezdeus samarra egiten zituzidan. Ahuldade-istant batean haragia jatearen etika zalantzan jartzen banuen, imajinatzen nuen haragitarako hiltzen zituzten animaliak zoriontsu bizitzen zirela. Zergatik ez ziren, bada, hala biziko?

Hori guztia nahiko bortizki hasi zituzidan aldatzen institutura eta unibertsitatera joan nintzenean. Filadelfiako eskola tekniko batean joan nintzen institutura, non ikasleak abeltzaintzan, nekazaritzan eta halakoetan trebatzen zituzten. Negutegiak genituen, etxalde txiki bat, soro batzuk, makineria-denda bat, harakintza “laborategi” bat, animalia “laborategi” txikiak, baita arrain-haztegi txiki bat ere. Eskola hartan, nire bizitzan lehen aldiz, bertatik bertara ezagutu nituen “baserriko animalia” esaten diegun horiek. Txakurrak bezala portatzen ziren txerriak genituen, bai eta pertsona batzuk ezagutzen zituzten behiak ere, nabarmen pozten zirenak pertsona horiek gertu zituztenean. Hango bizitzan, *haragi-zientziako* deritzonaren eta abeltzaintzako eskolak hartu nituen, baina landareek zuten garrantzirik handiena. Halere, artean

sinesten nuen AEBetako abeltzaintza garaikidean animalia gehienak zaintzaile onen eskuetan zeudela, eta ahalik eta baldintzarik onenetan. Sarritan entzuten genuen abeltzainek hobeto zaintzen zituztela haziendak seme-alabak baino, eta hori “inbertsioa” zela; artaldea funtsezkoegia zela bestela tratatzeko.

Titulua eskuratuta, beka bat eman zidaten Penn estatu-unibertsitatean ikasteko, nekazaritza-zientziak ikasteko baldintzapean. Aukera ederra zen, eta, nahiz ez nuen bizitza osoan nekazari izateko asmorik, ergela izango nintzatekeen unibertsitateak eskainitako aukera ukatuz gero. Bi gradu hautatu nituen: filosofia eta nekazaritza-zientziak. Filosofiak nire alde analitikoa aberastu zuen, eta nekazaritzak nire alde praktikoa lantzen zuen, eta institutuko esperientzia aprobetxatzen uzten zidan. Nekazarizientzietan, diziplina ugaritako ikasgaiak hartu behar izan nituen. Landareekin lotutakoak errazak eta atseginak egiten zitzaizkidan, baina animaliekin lan egitekoak geroratu egin nituen. Ez neukan irrika handirik animalien “produkzioari” buruzko eskoletarako, baina halako batean ezin izan nuen gehiago atzeratu, eta, graduatze aldera, esne-ekoizpeneko eskola batean izena eman nuen ikasketak bukatu ahal izateko.

Eskola hartako ikaskide gehienak estatu osoko etxaldeetatik zetozen, eta gehien-gehienek esperientzia zeukaten familiako ganaduekin lan egiten. Klasera sartzerako bazeukaten esnearen grasa-edukiaren, prezioen eta esne-zikloen berri. Ni, berriz, laktosarekiko intolerantzia zeukan kalekume flako bat nintzen, eta ez nekien halakoei buruzko

ezer, institutu tekniko batean pasatu nuen denbora gora-behera. Klase hartan, baina, asko ikasi nuen esne-produkzioaren ekonomiari buruz. Behiak ekoizletzat hartzen irakatsi zidaten, baita ekoizle horiek zenbait baliabide behar zituzten ere. Etorkizuneko esne-nekazari gisa, nire lana zen ahalik eta gehien murriztea esnea produzitzeko beharrezko baliabide guztiak. Ekoizpen-kostuak murrizteak esan nahi zuen elikadura-ratioak ulertzea, ahalik eta merkeen lortzea behientzako bitaminak eta pentsua, eta jezte-sistema mekanizatuak ulertzea, irrati bidezko identifikazio-etiketak zituztenak, behin bakoitzaren ekoizpena neurtze aldera. Ikasi genuen zenbat espazio eman (edo kendu) dakiokkeen esnetarako behi bati, eta espazio bateko behi-kopurua handitzeak etekina handitzen zuela, muga batzuen barruan. Ikasi genuen, halaber, nekazaritza-produkzioan arrakasta izateko modu bakarra “haztea edo uztea” zela. Orduan ere pentsatzen nuen zer pentsatzen zuten etxaldeko mutikoek “haztea edo uztea” leloari buruz, beren familia-etxalde txikiak gertuago zeudenean “uzte”-tik “hazte”-tik baino. Halere, lezioak argiak ziren: tratatu animaliak ekoizle gisa, horixe baitira, ahalik eta baliabiderik merkeenak eman, eta azken tantaraino zukutu haien produkzio-gaitasuna. Hori ez egitea suizidio ekonomikoa omen zen, industriak etekin-marjina estua zuenez gero. Ekonomikoki zentzuzkoa ez ezik, behar gorria zen horrela jokatzearo ekonomiko hain lehiakor hartan, batez ere esnearen prezioa hain agudo beheratzen delarik.

Interesgarria iruditu zitzaidan oso antzekoak zirela animalia-produkzioaren logika ekonomikoa eta berriki

filosofia politikoko klasean *Manifestu komunista*-n irakurri nuen produkzio logika. Ez dut uste abeltzaingai asko joaten zirenik letretako fakultatera —eta alderantziz—, baina ni bi munduen artean nenbilen, eta elkarren arteko loturak gero eta argiagoak egiten zitzaizkidan. Animaliak produkzio-makineria gisa erabiltzen ziren, eta ni haiek esplotatzeko modurik efizienteena ikasten ari nintzen. *Ganadua proletarioritza zen, eta ni, berriz, burgesia!*

Huraxe izango zen, seguru asko, animalien esplotazioaz serioski pentsatzen ari nintzen lehen aldia. Produkzio-abeltzaintzako eskolak baino lehen, iruditzen zitzaidan animaliak zorion bukoliko batean biziko zirela, larrean saltoka, hausnarrean lasai, eta gogo onez jeztoki batera joaten zirela egunean birritan beren esnea borondatez partekatze-ra. Ideia hori agudo asko birrindu zitzaidan jasotako trebakuntzarekin, animalien esplotazioaz eta (animalien bizkar ateratako) etekinaren gehikuntzaz. Ikusi nuen nolako botere-harremanak dauden gauza arrunt askotzat jotzen dugun zerbaiten azpian; esaterako, baso bat esne, txuleta bat, oiloki bat. Animalia-produkzioaren ekonomiaren berri izateak erabat txikitu zidan animalia-jatorriko produktuak beste edozein kontsumogai bezalakoak izan daitezkeelako mitoa. Esnea jada ez zen edari soil bat, edo kafearen gozagarria, baizik eta animalien lanaren emaitza, eta lan horretara behartuta zeuden animalia esplotatuak baldintza ezin txarragoetan. Ikasi nuen animaliek aldi berean hainbat kontsumogai ekoizten zituztela (hala nola esnea, arrautzak, larrua, artilea...), eta haiek ere kontsumogai zirela gero (haragitarako hiltzen zituztenean). Are gehiago, esklabotzaz

pentsatu ohi dugun manera oso-oso antzekoetan gertatzen zitzaien hori. Animaliak ez dira laneguna bukatu eta etxera itzul daitezkeen langileak, aitzitik baizik: zuzen-zuzenean norbaiten jabetzakoak dira, aldagarriak eta suntsikorrak, beste edozein gauzaki bizigabe bezala.

Beste injustizia-forma ugariarekin gertatzen den bezala, bazirudien inork ez zuela hori dena zalantzan jartzen, ez bost axola ziela denei. Baina, beste injustizia-forma ugariarekin gertatzen den bezala, denbora behar dugu gure inguruko zapalkuntza-geruzez jabetzeko, batik bat zapalkuntza hori “normaltzat” edo are desiragarritzat jotzeko hazten bagaituzte. Are okerragoa da geu bagara zapalkuntza horren *onuradunak*, edo hain baldin badago gure egunero-koan josita ia ikusezina baita. Beganoa ez bazara, ziurrenik animalia bat izango duzu jantzita orain, larru edo artile gisa, edo animalien gorputz-atalak edo animalia-jatorriko produktuak jango zenituen gaur. Egin zure animalia-kontsumoa bider hala jokatzeko duen jendea, eta hasiko zara ikusten noraino diren animaliak gure ekonomiaren erdigune. Inguru guztian ditugu animalia-jatorriko produktuak, etengabe, modu agerikoenetan (arrautzak, esnea, haragia, larrua, esnekiak-eta) baina baita ez hain ageriko moduetan ere, hala nola prozesu industrialetan erabiltzen diren hilkin-tzako produktu eratorrietan. Gure ordena ekonomikoa animalien esplotazioaren inguruan ardaztuta dago, eta, erraza den arren animalien inguruko kezkak baztertzea esanez jende mengelaren masturbazio mentalak direla eta jende horrek ez dituela ulertzen zapalkuntza eta benetako giza miseriaren sakona, espero dut lortuko dudala zuk desberdin

pentsatzea sufrimenduaz eta minaz, konbentzitzea animaliek axola dutela, eta zera argudiatzea: menderakuntza eta dominazioa amaiarazteko intentzio serioa duten guztiek kritikoki pentsatu behar dutela animaliak kontuan hartzeaz. Horixe da egin dezakegun gutxienekoa esaten badugu benetan axola zaizkigula gure arteko ahulena.

Animalien eskubideen sarrera: zure umea ala txakurra? lanean, Francionek aintzat hartu beharreko hipotesi bat planteatzen du. Demagun badugula Simon izeneko tipo bat, zeinak atsegin duen —bere nahia beste motiborik gabe— bere txakurra erregailu batekin erretzea. Galdetuz gero zergatik erretzen duen txakurra, Simonek erantzuten du disfrutatzen duela, plazer handia ematen diola eta arratsalde-pasa entretenigarria iruditzen zaiola. Demagun, horrez gain, Simonen bizilagunak kexatu egiten direla egiten ari den horretaz. Polizia Simonen kasua ikertzen hasten da, eta mundu guztiaren arreta pizten du; shock betean, krudelkeria alferrikakoa eta izugarria deritzote denek. (Halako kasuek zabalkunde handia izaten dute; kapitulu hau idazten ari nintzela, bi anaia neraberi hamar urteko kartzela-zigorra ezarri zieten Atlantan txakurkume bat bizirik kozinatzeagatik). Seguru asko jende dezentez izango luke notiziaren berri afaldu bitartean, albistegia ikusten ari direla. Baliteke, halaber, afari horietan animalien eratorririk edo haragirik izatea. Oilasko-bularkien, xerren eta saihekien artean, estatubatuarrek sumindura adieraziko lukete beharrik batere gabeko krudelkeria hori dela eta. Azken finean, Simonen defentsa bakarra zen “gustatu” egiten zitzaiola esatea.

Egoera imajinatu horretan, ikus dezakegu nolako “eskizofrenia morala” daukagun animaliekin, Francioneren hitzetan. Nahiz eta gehienok bat etor gaitzkeen ez geniekeela animaliei alferrikako sufrimendurik inposatu behar, gizarte gisa mina ematen diegu animaliei, zer, eta benetako beharretik urrun dauden arrazoiak direla medio. Simonen kasuan, denok ikus dezakegu (hala espero dut behintzat) txakurra erregailuarekin erretzea erabat beharrik gabekoa dela, eta krudela. Inork ez luke animalia bat hala sufriarazi behar norbere plazer hutserako. Ez hori bakarrik: uko eginen diogu txakurra horrela sufriarazteari badakigulako, oso maila oinarrizko batean, txakurra sentitzailea dela; tortura hori amaiaztertera behartuta gaudela sentitzen dugu, eta bat gatoz Simonen plazera ezin dela baliozko arrazoi bat izan animalia gaixoa horrenbeste sufriarazteko.

Albistegia ikusten ari diren afaltiar estatubatuar gehienek, ordea, animaliei eragindako kalte moralak justifikatuko dituzte esanez “beharrezkoak” direla gu elikatzeko. Gehienok asumitzen dugu animaliak hil egin behar zuela gu elikatzeko. Batzuei tristea ere irudituko zaigu, baina beharrezko kaltetzat jotzen dugu halere, eta hala erosiko dugu, agian, oximoron betean “gizatasunez hazia” jartzen duen etiketa dakarren haragia, kontzientzia baretzeko. Eta gutako askok —horretaz pentsatzen badugu behintzat— argudiatuko dute elikadura-katearen goialdean gaudela, eta natura halakoa dela. Akaso pentsatuko dugu “Halakoxea da mundua, eta, tristea izanagatik ere, ezin dugu aldatu”.

Baina haragia eta animalia-jatorriko produktuak behar al ditugu, benetan, ondo bizitzeko? Ez, noski. Gero eta

froga gehiago daude —horietako asko ikerketa epidemiologiko eta kliniko luzez babestuak¹— erakusten dutenak animalia-jatorriko produktuak dietatik kanpo uztea aukera osasuntsuagoa dela luzera begira. Klinikoki frogatuta dagoenez gero ez dugula animalia-jatorriko produkturik behar osasuntsu bizitzeko, nola justifikatzen dugu animaliak jatea? Gehienek, tartean jende gogoetatsu eta buruaragi ugari, esaten dute “hala izan dela beti”, gure “kultura” eta “tradizioa” dela, eta, gainera, atsegin dutela produktu horien zaporea. Baina animalia-jatorriko produktuak ez badira beharrezkoak osasuntsu bizitzeko, eta aukera baldin badugu animaliarik sufriarazi gabe elikatzeko, galdera hauxe da: zertan dira diferenteak Simonen erregailu-jolasak eta guk milaka milioika animalia indarkeriaz tratatzea janaritarako? Bi kasuetan, indarkeriaren inposizioa ez da inondik ere beharrezkoa, eta, azken buruan, biak daude plazerarekin lotuak. Bata, ordea, zeharo onartezina iruditzen zaigu, eta bestea, berriz, arrunt-arrunta. Zure buruarekin erabat zintzoa bazara, disonantzia kognitibo txiki bat behintzat eragin beharko lizuke.

Horrek zuzen-zuzenean eragiten dio Francioneek “eskizofrenia morala” deritzonari. Edonork onartuko luke ez geniekeela beharrik gabeko sufrimendurik ezarri behar animaliei, baina hori esan bitartean hanburgesa bat jaten aritu litezke, konturatu gabe nolako ironia tragikoa darion egoera horri. Simonen txakurraren tortura-saioari erreparatuta, ikusten dugu txakurrak sufrimendua saihesteko interesa daukala, mina sentitzeko gai denez gero. Hortaz, sufrimendu hori amaiarazteko betebeharra sentitzen dugu;

ez txakurraren inteligentziaren arabera edo gure hizkuntzan komunikatzeko gaitasunaren edo gaitasun-faltaren arabera, baizik eta jakin dakigulako animalia *sentitzailea* dela. Sentitzaile izateak esan nahi du “esperientzia mental subjektiboak” izateko gai dela, baduela minaz eta plazeraz kontziente den “ni” baten zentzua^{2*}. Izaki sentitzaile guztiak —gizakiak, primateak, behiak, txerriak, oiloak, karraskariak— “elkarren antzekoak dira eta munduan sentitzailea ez den beste guztiaren bestelakoak”³. Behiak, oiloak eta txakurrak, denak badira sentitzaile, eta ametitzen baldin badugu, inplizituki bada ere, ez geniokeela premiarik gabeko minik eragin behar ezein izaki sentitzailei, bada, orduan, berdin dira baztergarriak afarian jango dugun oiloari pairarazten diogun sufrimendua eta Simonek bere txakurrari plazer hutsez pairarazten diona, batez ere ederki bizi gaitzkeenean dieta begetal batekin.

Hona iritsita, baliteke batzuek landareei buruzko zalantzak izatea⁴. Animaliak premiarik gabe sufriaraztea baztergarria bada, zergatik eman diezaiekegu min landareei? Eta nola dakigu ez direla sentitzaileak? Jenna Torresekin batera idatzi nuen liburuan (*Vegan Freak: Being Vegan in a Non-Vegan World* —Begano frikia: beganoa izatea beganoa ez den mundu batean—)⁵, erantzun hipotetiko hauxe ematen diogu ohiko kritika horri: hartu brokoli-buru bat eta txerri bat, eta jarri bakoitzari su-makil bero bat. Brokolia erreko da, bai, baina ez da oihuka eta iheska hasiko, edo

* Euskaltzaindiak honela definitzen du izaki sentitzailea 2022an kaleratutako *Animalien ongizatea eta beganismoa: oinarrizko lexikoa* gidaliburuan: “Sentitzeko gaitasuna duen izakia, gauzatat hartzen ez dena”. (Itzultzailearen oharra).

inola ere erreakzionatuko. Zergatik? Brokoliak ez duelako nerbio-sistema zentralik edo nozizeptorerik. Literalki, ezin du ezer sentitu: ez da sentitzailea. Baina txerri bati su-makil batekin emanez gero, minez txilioka hasiko da, ihesean, min gehiagoren esperientzia subjektiboa saihestu nahian. Guk bezala, txerriak nerbio-sistema zentrala dauka eta nozizeptoreak dauzka. Nahiz eta ezin dugun zuzenean jakin txerriak minik sentitzen duen ala ez⁶, txerriak azaleratzen dituen jarrera asko guk ere izaten ditugu mina sentitzen dugunean; brokoliak, berriz, ez du ezer egiten, ezin duela-ko kontzientzia subjektiborik izan.

Landareek, hortaz, ezin dute minik sentitu guk edo haiek ulertzeko moduko esperientzia subjektibo gisa. Landareak ez dira sentitzaileak, hitzaren benetako zentzuan behintzat, baina animaliak bai, guk mina eta plazera sentitzeko dugun oinarrizko makineria neural berberaren jabe baitira. Azken berrehun urteetan, gure legeek ere (sarri askotan atzerakoiak izanagatik ere) aitortu dute animaliei “premiarik gabeko” sufrimendua pairarazteak zigor penala jaso beharko lukeela, eta orekatu egin beharko genituzkeela animalia-sufrimendua ekoizteko gure interesa eta sufrimendu horretatik libre izateko animalien interesa⁷. “Trataera humanoaren printzipioa” delakoaren arabera, gizakien interes benetakorik jokoan ez badago, eta egoera jakin batean animaliak erabiltzearen alternatiba bat aurki badezakegu, printzipio gisa alternatiba horiek izan beharko genituzke helburu. Alabaina, animaliak erabiltzeko dugun aukera bakoitzaren aurrean, besterik ez bagenu bezala jokatzeko dugu, “haiek ala gu” egoera bat non hil ala bizikoa den

animalien interesak edo gizakienak lehenestea. Francionek dioen bezala, “animaliak hainbeste erabiltzen ditugu, non ezin baita esan beharrezkoa denik hitzaren inongo benetakoz zentzutan; aitzitik, areago asetzen dituzten gizakien plazera, entretenimendua edo komenentzia. Animalien inongo beharrik gabeko erabilera horrek ikaragarritzoko mina, sufrimendua eta heriotza ditu ondorio”⁸.

Zein da, bada, animaliekin dugun eskizofrenia moralaren soluzioa? Francioneren esanetan, bi aukera baino ez ditugu: edo animaliak orain arte bezala tratatzen segitzen dugu, sufrimendua beharrik gabe ere eraginez eta aitortuz trataera humanoaren kontua fartsa hutsa dela, edo aitor dezakegu animaliek moralki kontuan hartzeko moduko interesa dutela beharrik gabeko sufrimendurik ez jasateko, eta alda dezakegu animalien eta gizakien interesen talkez pentsatzeko modua. Bigarren aukerak, ordea, berdin kontsideratzearen printzipioa animaliei ere aplikatzea dakar. Francionek dioenez, harrigarriki sinplea da hori: oinarri-oinarrian, antzeko kasuak antzera tratatu behar ditugu. Nahiz eta, argi eta garbi, animaliak eta gizakiak desberdinak diren, antzekoak dira sufritzeari eta sentitzaile izateari dagokionez. Horregatik, berdin kontsideratzearen printzipioa animaliei ere zabaldu beharko genieke.

Horrek esan nahi du bermatu egin beharko genukeela animaliek eskubidea dutela ez beste inoren xedetarako baliabide huts gisa edo gauza gisa tratatuak izateko. Gaur egun, ordea, animaliak gauzak dira, jabeen ondasun (hirugarren kapituluari gehiago), eta, legalki behintzat, beste ezer gutxi. Francionek azpimarratzen du garai batean

bagenituela beste inoren xedeetarako baliabide huts ziren gizakiak: *esklabo* esaten genien, eta giza esklabotzak animalien esklabotzak bezalatsu funtzionatzen du. Giza esklabotza abolitu genuen, aspaldi onartu genuelako gizakiek balio intrintsekoa eta inherentea daukatela, besteren baliabide izatetik askoz ere harago. Francioneren esanetan, balio inherentea hauxe da:

Komunitate moral bateko kideztat hartua izateko behar den gutxieneko irizpidea adierazten du. Ez baduzu balio inherenterik, zure interes guztiak —baita minik ez sufritzeko interes oinarrizkoa eta bizitzen segitzekoa— “saldu” egin daitezke, beste batek ezarritako balioaren arabera. Balio inherentearen kontzeptuak gizakiak gauza gisa tratatuak izatetik babes ditzan, gizaki guztiek balio inherente *berdina* daukatela aitortu behar dugu.⁹

Balio inherente berdinen ideiak berdinean balio du gizaki bat, esaterako, mentalki ezindua badago; gutako gutxik onartuko genuke desgaitasun mental larri bat duen norbait erabil dezakegunik esperimendu medikoetarako. Zergatik? Aitortzen eta errespetatzen dugulako beste inoren helburuetarako baliabide ez izateko duen balio inherentea. Gauza gisa tratatua ez izateko oinarrizko eskubide hori da, Francionek argitzen duenez, komunitate moralaren kide izateko gutxieneko baldintza. Oraingoa bezalako sistema “hibrido” batek, zeinak antzeko kasuak desberdin kontsideratzen behartzen gaituen, ezin dio berdinean kontsideratzen printzipioari eutsi. Kontuan hartu, gainera, gauza

gisa tratatua ez izateko oinarrizko eskubide hori berdin aplikatzen zaiela arrazionaltasunik ez autokontzientziarik ez duten haiei ere, eta beste inoren xedeetarako beharrik gabeko sufrimendutik aske izateko eskubidea ere ematen zaie. Haur txiki batek ez du, jakina denez, heldu baten gaitasun-sorta berdina, eta hortaz ez diegu helduen eskubide oro eman (esaterako, haurrek ezin dute botoa eman edo autoa gidatu), baina, moralari dagokionez, guztiz sinplea baina garrantzi ikaragarrikoa den eskubide bat ematen diegu: ezin dira beste inoren xedeetarako baliabide huts gisa tratatu.

Gizateriak berdin kontsideratzearen oinarrizko printzipioa gizaki guztiei zabaldu dien bezala (garai batean komunitate moraletik kanpo zeudenak barne), oinarrizko printzipio hori animaliei ere zabaldu behar diegu, kasu berdinak berdin tratatuko baditugu. Argi eta garbi dago animaliak beren bizitzaren esperientzia subjektiboaren jabe direla. Animalia-lagunen batekin bizi den orok daki hori. Ni bi txakurrekin eta katu batekin bizi naiz, eta badakit haietako bakoitzak badituela bere nahiak, aldarteak, desirak eta beharrak¹⁰. Ez dira automata soilak, makinengisa erreakzionatzen dutenak inguruko estimuluen aurrean, behavioristek argudiatuko luketen bezala. Gure txakurrak gurekin komunikatzen dira. Sarritan, Emmy arrapaladan joaten da soka daukan tokira, gora begira eta zaunkaka jarrita, kanpora atera nahi badu; Molek, askotan, jostailuak magalean uzten dizkigu, jolasteko gogo baldin badu. Liburu hau idatzi bitartean, ia 24 ordu eman nituen etxean animalia hauekin, eta badakit makina kartesiarrak

baino gehiago direla. Plazera eta afektua bilatzen dituzte, eta mina saihesten, eta guztiz argi daukat bizitza mental subjektiboa daukatela. Haien inteligentziaz eztabaida dezakegu (nahiz eta, ziur aski, era antropozentrikoan definituko genukeen hori), edo giza hizkuntza ulertzeko gaitasunaz, baita inguruko mundua benetan ulertu eta ezagutzeko duten gaitasunaz ere, baina ezein argudiok ezin du benetan demostratu animaliek ez dutela minik sentitzen eta ez dutela mina saihesteko interesik. Izatekotan, animaliak gu baino *sentiberagoak* dira beren inguruneaz, zentzumen zorrotzagoak baitituzte.

Bizikide ditudan txakurrak erabili ditut adibide gisa, baina denbora dezente eman dut abeltzaintza-ekoizpenari lotutako animalien artean ere, eta badakit haiek ere kapaz direla elkarrekin eta gizakiekin loturak osatzeko, eta haiek ere mina eta plazera sentitzen dituztela. Argi esango dut: ez naiz munduko animalia guztiak bere katu-txakurrak bezalakoak direla uste duen sentimentalista mengel bat. Ordea, Francioneri segika, gauzak beren ondorio etiko logikoetaraino pentsatzen ari naiz: antzeko kasuak antzera tratatzeko printzipioan serio jardun behar badugu, onartu beharko genuke animaliek guk adinako interesa dutela ez sufritzeko. “Animalien kasuan”, dio Francionek, “berdin kontsideratzearen printzipioak diosku animalien interesak serio hartu behar baditugu eta edukia eman ustez denok onartzen dugun beharrik gabeko sufrimenduaren debekuari, bada, babes hori zabaldu beharra daukagu animaliek ez sufritzeko duten interesetara”¹¹. Kontuan hartu gustua, komenentzia, desira, kultura eta tradizioa ez direla

“arrazoi on” bat horretarako, “kultura” gizakiak hiltzeko baleko motibotzat joko ez genukeen bezala, batik bat erailketa hori sistemikoa izanik, animaliena bezala. Ez dago animaliak instrumentalki (helburu batzuetarako bitarteko gisa) erabiltzea onargarri egiten duen esplotazio-forma “gizatiarrik”. Beste izaki bat instrumentalki erabiltzen dugun instantetik, ukatu egin diogu bere kasa existitzeko eskubidea, gizakia zein gizakiz bestekoa izan. Nahiz eta abeltzaintza-ekoizpena argiki esplotatzailea izan, eta alde handiz animalien sufrimenduaren munduko iturri nagusia gaur egun, beste esplotazio-forma eta erabilera-instrumental ustez ez hain bortitz batzuk ere moralki okerrak dira, hala nola ehiza eta arrantza, animaliak erabiltzea janaritarako, bai eta esperimentueterako ere. Gaurko egunean zenbait elikagai-katek esaten dutena gorabehera, ez dago animalia jatorriko produktu *gizatiarrik*, guzti-guztiek animaliak baliabide gisa erabiltzen baitituzte. Etxe-bazterrean arrautzetarako oilo gutxi batzuk izatea akaso ez da tortura lazarria animalientzat, baina, hori eginda, beste izaki bat zure nahiak asetzea helburu nagusi duen subjektu bilakatzeko ari zara. Giza menderakuntza reifikatzen du, eta besteak zeure helburuetarako esplotatzen.

Beste edozein giza pribilegiorekin gertatzen den bezala, gutako asko gara zapalkuntza-forma horren zeharkako onuradun. Gutako askok, baita aurrerakoi eta kontzienteen artekoek ere, larruzko jakak janzten ditu eta Whole Foods-eko haragi “alaia” jaten du, besteak beste. Baina mo-zorroa erantzten badiogu *kontsumogai* hori, ikus dezakegu gizarte-harremanen historia luze batek zikintzen dituela

produktu horiek; historia horretan, animaliak mendea hartuak dauzkagu gure nahi, gustu eta plazeretarako, beste ezertarako ez. Ia aldebakarrekoa den abantaila arbitrario hori dela-eta —espezie jakin batekoa izatea, alegia—, kosta egiten zaigu ikustea nola eragiten dion zapalkuntza honek animalari, “beste” horri. Zuriei zuri izatearen pribilegioaz eta zurien supremazismoaz irakasten saiatzen direnek fenomeno berberari egiten diote aurre. Zuritasunaren, patriarkatuaren edo klasearen —edo munduan pribilegioa erreproduzitzen duen beste edozein gizarte-estrakturaren— onuradunei kosta egiten zaie, askotan, beren pribilegioa antzematea; hain dago jakintzat emana, arrainari ura zer den esplikatzea bezala baita.

Era berean, gizaki gisa ezartzen dugun menderakuntza hain da jakintzat emana, nahiko zaila baita gure espeziearen pribilegioa azaltzea, baita justizia sozialeko kolore gutzietako auzietan engaiatuta daudenei ere. Hala eta guztiz ere, egunerokoan parte hartzen dugu botere ekonomikoa eta soziala oinarri dituen harreman horietan. Gure helburu propioetarako animaliak giltzapean bakartu eta hiltzeko gauza izateak asko esaten du animaliekiko eta gainerako mundu naturalarekiko ezarri dugun hierarkiaz. Animaliak guretzat ekoiztera behartuta, guk, ohartuta ala oharkabean, parte hartzen dugu gizartearen mundu naturala eta bertan bizi direnak menderatzeko ekinean, eta esplotazio hori askotan logika ikaragarri sinplista batekin justifikatzen da. Osterantzean berdintasunaz eta justiziaz kezkatuta bizi diren askok esaten dute animaliak “guk kontsumitzeko” daudela hemen, gure indarrak balio duela, eta ez

dagoela beste aukerarik jan nahi izanez gero. Logika horrek menderakuntza-sistema esplotatzaile eta bortitz bat sendotzeko baizik ez du balio, gizateriak historia osoan aurrez aurre izandako beste edozein menderakuntza- eta hierarkia-sistema bezala. Parte batetik, horren jatorria zera da: kapitalismoaren izaerak berak eta kontsumogaien ekoizpen-sistemak harreman horren zati handi bat gure bistatik gordetzen dute. Sistema kapitalista esplotatzaileak ematen duen beste edozein produktu bezala, animalia-jatorriko produktuak menderakuntzan, botere-desberdinkerian eta esplotazioan oinarritutako gizarte-harremanetatik datoz. Animalien esplotazioa ideologiak justifikatzen du, etekin-harremanek egituratzen, gure jarrerak aplikatzen eta kapitalaren kontsumogai-izaerak sakontzen. Lehen begiratuan, kontsumogai gehienek saleros eta erabil daitezkeen gauza sinpleak dirudite, eta hain justu ere horixe da kontsumogai bat gure egunerokoaren oinarrizko mailan. Baina kontsumogaiak ez dira produktu inuzente batzuk, hala pentsatu ohi dugun arren, eta hor has gaitezke haien atzeko produkzio-harremanak deskubritzen. Harreman horiek —hain oinarrizkoak kapitalaren beraren funtzionamenduan— esplotazioa zedarritzen dute, eta menderakuntza-harremanak zabaltzen; hori dela eta, merezi du sakonago aztertzea, eta horren ostean itzuliko naiz haien eta animalien arteko harremanera.

Kontsumogaiak, kapitala eta lanaren izaera

Lehenik eta behin, kontsumogai bat giza behar bat asetzen duen zerbait da. Ogi bat gosea asetzeko erabil daiteke, arropak bero mantentzen gaitu, iPodek musika jotzen dute. Hori da kontsumogai baten oinarrizko esanahia gizarte kapitalista batean. Ordea, sinpletasun-itxura horren azpian harreman-sare konplexu bat dago, ekoizpen kapitalistaren oinarria dena. Kontsumogaiek asetzen dituzte, bai, gizakion nahiak eta beharrak, baina, aldi berean, ekoizpenarekiko harreman sozial bat adierazten dute, gure gizartean lana eta eskulana egituratzen diren moduari dagokionez.

Harreman horiek azaleratzeko, lagungarriak dira Marxek kontsumogaien kontzeptua kapitalismoan zertan den ulertzeko erabiltzen zituen kategoriak. Bere garaiko ekonomialarien kontrakarrean, Marxek interesa zuen adierazteko kapitalismoaren produktuak ez direla magikoki agertzen, eta ez dutela berezko baliorik; haatik, Marxek erakutsi nahi zuen ezen kontsumogaietatik eratorritako balioa gizarte-harreman jakin batzuen parte zela, zeintzuen arabera langileen eskulana balioa eransten zien kontsumogaiei. Halatan, kontsumogaien eta eskulanaren ideia funtsezkoa da ulertzeko Marxek zergatik jotzen zituen harreman kapitalistak berez esplotatzailatzat; harremanotan, klase batek (burgesiak, edo produkzio-bideen jabeek) beste klase bat mendea hartua dauka (proletarioritza, langile-klasea edo beren eskulana beste zer saldurik ez daukatenak). Proletarioek eskulana mailegatzen dute produkzio-prozesuan, eta lehengaiak kontsumogai salgarri bilakatzen; trukean,

prozesuan ekoizitako balioaren parte bat baino ez dute jasotzen. Marxen ustez, handizkako lapurreta zen hori; gizakiak, kontsumogaiak ekoizteko esfortzua galduta, bizitza bera ari ziren galtzen, guztiok planetan dugun denbora mugatu hori, eta hori gertatzen zen ez ginelako konturatzaren ezean, izaki ekoizle eta sortzaile gisa, esanahia sortzen genuela eskulanaren bidez. Marxek uste osoa zuen gizakien sortzaile-izaeran, mundua eraldatzeko gure ahalean. Gure eskulanaren bidez, mundua bera egin ez ezik, espezie gisa dugun onena ere adierazten dugu. Burgesiak hori guztia lapurtu eta bere produkzio-interesaren zerbitzura jartzea — etekin soilera, alegia — krimen lazgarria zen Marxentzat, indartsuenek ahulenei ezarria.

Harreman-esplotatzaile horien muin ekonomiko eta politikoan daude Marxek kontsumogaiei buruz zituen ideiak; hain zuzen ere, kapitalismoari definizio hau eman diezaiokegu: “Kontsumogai-formaren bidezko lanaren inposizioan oinarritutako gizarte-sistema”¹². Lehen esan dudan bezala, kontsumogaiek gizakion beharrak asetzen dituzte, baina beste zerbait ere adierazten dute: esplotazioaren dinamiketan sustraitutako lanaren forma bat, historiaren araberakoa. Sinpleago esate aldera: kontsumogaiaren ideiak botere-harreman bat adierazten du, burgesia boteretsuak —ekoizpena kontrolatzen dutenek¹³— langile-klaseari ezarria. Kontsumogaiak erosten ditugun gauzaki estatiko eta sinpletzat jo beharrean, jabetu beharra daukagu gizarte-harremanen edukiontzi bat direla, eta zapalkuntza- eta protesta-prozesu dinamiko eta beti aldagarri batean harrapatuta daudela. Edukiontzitza jeta,

haiei mozorroa kentzen has gaitezke, eta hala kategoria analitiko bilakatzen ditugu, zeintzuen arabera uler baititzakegu gu harrapatuta gauzkaten benetako harreman sozial, politiko eta ekonomikoak. Era horretan, kontsumogaiak ez dira soilik kategoria mekanikoak, eskariaren eta eskaintzaren zikloetan harrapatuak, ekonomialariek sarritan pentsatzen duten bezala. Aitzitik, sistema kapitalista osoaren parte dira; inposatua eta protestatua den prozesu batean harrapatuta daude, eta talde esplotatuen eta esplotatzaileen arteko botere-harreman historiko eta aldagarrien ondorio dira.

Botere-harreman horiek sakonago aztertu aurretik, kontsumogaiaren ideari berari erreparatu behar diogu. Marxek argudiatu zuen kontsumogaiei bi eremutatik begira dakiekeela: erabilera-balioa eta truke-balioa¹⁴. Erabilera-balioa da kontsumogaiak guretzat izan dezakeen erabilgarritasuna. Ogia, esate baterako: goxoa da, ogitartekoak egiteko balio du, eta gure gosea edo apetak asetzen ditu. Ogiaren adibidean, erabilera-balioa nahiko ulerterraza da. Bere sinpleenean, erabilera-balioak adierazten du zertarako erabiltzen dugun kontsumogaia, eta gauza batzuk eta besteak elkarrengandik diferenteak egiten ditu. Ezin duzu iPoda jan, ogi txigortuan musika entzun, edo mailuarekin kozinatu (sukaldari abila ez bazara behintzat). Ordezkaezintasun horrek esan nahi du gizakien eskulanaren eta nekearen emaitza horiek kualitatiboki desberdinak direla elkarrengandik, beren existentziarentzat oinarri-oinarrizkoa den forma batean. Arazoa hau da: trukearen logikak erabilera-balioa irensten duela, eta azkenean kontsumogaiak

elkarri konparatzen zaizkiola, beren erabilera-diferentzia kualitatiboak ezabatzeko moduan.

Egia da, bai, ezin dela musikarik entzun ogitan edo iPodak jan, baina kontsumogai horiek elkarrekin konpara ditzakegu, erabilerak elkarrekin ordezkara ezin baditza-kegu ere. Adibidez, etxe ondoko okindegian eskuz egindako ehun bat ogik eta iPod batek balio bertsua izango dute gutxi gorabehera. iPodek eta eskuz egindako ogiak, ordea, antz gutxi daukate kualitatiboki. Bata Asiako faktoretatik dator, bestea irinetik, oretik eta adreiluzko labe batetik. Produktuak berak kualitatiboki desberdinak dira erabilerari dagokionez, baita behar duten eskulanari dagokionez ere. Alabaina, ekoizpen-harreman kapitalisten egituraren eraginez, bi kontsumogai horiek elkarrekin konpara ditzaket, bata bestearen balioarekin irudikatuz. Bi elementu guttiz desberdin horien antzekotasun bat erkatzen du horrek, eta trukean duten balioa irudikatzeko modua ematen. Nahiz eta ariketa horrek guttiz sinplea dirudien, gure sistema ekonomiko osoaren azpian datzan harreman bat da. Kontsumogaiak elkarren konparazioan jarrita merkatuan, kontsumogai *guztiak* konpara daitezke elkarren artean. Hori gertatzean, truke-balioa erabilera-balioa baino garrantzitsuagoa bilakatzen da.

Marxek zera argudiatzen du: gure ordena sozial eta ekonomikoan, erosten ditugun kontsumogaien erabilerak bigarren mailakoak bilakatzen direla, eta trukeak balio duela gehien. Badirudi horrek desitxuratu egiten dituela gauzak erosteari buruzko ideiak; azken finean, gauzak erabiltzeko erosten ditugu. Ogia jan egiten dugu, podcastak

entzuten ditugu iPodean, eta horiek erabilpenak dira, argi eta garbi. Baina imajinatu hipotesi hau, eta hasiko zara Marx ulertzen. Demagun kalean zabiltzala, eta lokarria lotzeko makurtu zarela. Behera begiratzean, ehun dolarreko billete berri-berri bat aurkitu duzu espaloian. Ez dago inor inguruan, eta beste inork ez luke eskatuko, eta ez diozu kalterik edo injustiziarik ikusten dirua zuretzat hartzeari. *Oso* kontsumitzaile gosetua zarenez, ordea, erabaki duzu ehun dolarrak hanburgesian gastatuko dituzula, kapritxo gisa, gertuen duzun janari azkarreko dendan. Sartu, mostradorera jo, eta ehun dolar hanburgesa eskatu dituzu. Barrera atzekoak harrিতa dauden arren, bete egin dute eskaria, eta estatubatuarren ohiko janari koipetsuz goraino betetako bospasei poltsarekin alde egin duzu handik. Orain, demagun atetik atera bezain pronto errebelazio bat izaten duzula, eta jo eta bertan erabakitzen duzula alde batera uztea bihotzeko arazoak, diabetesa eta hanburgesa-dietan oinarritutako elikadurak dakartzan osasun-arazo guztiak. Ez, inondik ere ez duzu horretan segituko, eta, hori demostratzeko, jo eta hanburgesak bota egingo dituzu oraintxe bertan! Erabaki hartu berria serio hartuta, hanburgesak aurreneko zaborrontzira bota eta alde egin duzu handik, zure osasunarekin konprometituta.

Onartzen dut ez dela oso eszena probablea, eta ideia bat demostratzeko irudikatu dudala, baina pentsa: hanburgeseategi horri *inporta* al zaio zer egiten duzun hanburgeseekin erosi eta gero? Zintzo izanda, onartuko duzu ez zaiela axola benetan jaten dituzun, beste norbaiti ematen, botatzen edo kontsumismoa salatzekeo *pop-art* eskultura bilakatzen.

Hanburgesategiari inporta zaion bakarra da zuk hanburgesak erostea, ez haiekin zer egiten duzun. Halatan, adibide single horretan argi ikusten da Marxen ideia: erabilera-balioak garrantzia galtzen duela, eta trukeak inporta duela gehien, hots, hanburgesak erosteak, gogor lan eginda zein zori hutsez eskuratutako diruarekin.

Kontua da trukea nagusitzen dela gizarte-harreman kapitalistetan; hainbeste, gure gizarteko beste harreman sozialak ere eraldatzen hasten da. Kontsumogai bakoitzak funtzio bakan eta desberdin bat dauka, baina, kapitalismoan, bakantasan hori —eta hura ekoizti duen eskulana— alboratu egiten da, truke-balio abstraktu baten mesedetan. Erabilera-balioa, hortaz, desagertu egiten da, eta kontsumogai guztiak konparagarri bilakatzen dira beren truke-balio kuantitatiboaren arabera. Horrek kontsumogai bakoitzari bere bereizgarri kualitatiboa kentzen dio, eta, ikusita nola egituratzen diren ekoizpena eta kontsumoa kapitalismoko harreman ekonomiko eta sozialetan, ez dugu ulertzen kontsumogaiak zeinen desberdinak diren beren manufakturan. Batezbesteko kontsumitzailearentzat, txuleta bat iPod batekin konpara daiteke, eta iPod bat eskuz egindako ogi batekin, dendara sartu eta erosi egin ditza kekulako guztiak, nahiz eta elkarrengandik oso desberdinak izan, ez soilik erabileran, baita beren ekoizpenaren prozesuetan ere. Horietako bakoitza sortu zeneko sistema sozialetatik bereizita, kontsumogai bakoitza zera baino ez da, eros dezakegun beste zerbait. Zoritxarrez, horrek kontsumogai bakoitzaren atzeko ekoizpen-indarren eta -harremanen istorioa ezabatzen du.

Marxen ideia hori, zeinaren arabera trukea erabilera-balioaren gaintik jartzeak gizarte-harremanak eraldatzen dituen, ez da arinki hartu beharreko ideia. Gutako asko ohituta gauden arren ekonomia kulturaz eta gizarteaz guztiz bestelako zerbait dela imajinatzeraz, Marxek ikusten zuen zuzen-zuzenean lotuta eta harilkatuta zeudela. Ideia hori, *materialismo historikoa* deritzona, lagungarria da azaltzeko nolatan gure ekonomia-jarduerak eta egitura sozial eta ideologikoak ezin banatzeraino lotuta dauden. Akaso teoria horren adierazpenik sintetikoena izango dena idatzi zuen Marxek bere lehenbiziko lanetako batean:

Beren bizitzaren ekoizpen sozialean, gizonak [sic] erlazio definituetan sartzen dira, zeinak ezinbestekoak diren eta beren borondatearen independenteak; ekoizpen-harreman horiek haien ekoizpen-indar materialen garapen beteari dagozkio. Ekoizpen-harreman horien batuketa guztizkoak ematen du gizarte baten egitura ekonomikoa, benetako oinarria, eta haren gainean altxatzen da superegitura legal eta politiko bat eta hari dagozkio kontzientzia sozialaren forma mugatuak. *Bizitza materialaren ekoizpen-moduak baldintzatzen du, oro har, bizi-prozesu sozial, politiko eta intelektuala. Gizonen izatea ez du beren kontzientziak determinatzen, aitzitik baizik: beren izate sozialak determinatzen du haien kontzientzia*¹⁵.

Hemen azpimarratu beharrekoa zera da, Marxek dioela gure bizitza sozialak determinatzen duela gure kontzientzia, izaki sozialak garela berez, egituraketa sozial jakin

batzuetan jaiok eta sozializatuak. Marxek dioenez, gizartearen ekoizpen-egitura orokorrak —bai ekoizpena osatzen duten indar guztiek ere— baldintzatzen ditu egituraketa sozial horiek. Halatan, gizarte bateko indar ekonomikoek eragin sakona dute bere alderdi sozial, politiko eta intelektualetan. Ekonomia, beraz, ezin da arlo sozial, kultural eta politikotik bereizi. Gutxien-gutxienez¹⁶, eremu horiek elkarren artean eragina daukate, eta munduan aurrera egiteko daukagun moduak eragina dauka munduarekiko dugun ikuspegian, baita bertan guk eta besteek daukagun tokian ere.

Ekonomiak gizartean eragina badu, truke-balioak beste ezerk baino balio handiagoa izateak eragina izango du mundu sozialean. Arazo horixe antzeman zuen Marxek erabilera-balioa behera egiten eta truke-balioa gora egiten ikusi zituenean. Trukea nagusi den egituraketa sozioekonomiko batean, jendea trukearen logikaren bidez erlazionatzen hasten da, eta giza interakzioa gero eta gehiago da gauzen arteko interakzioa bezalakoa. Trukea nagusitu ahala, jendeari iruditzen zaio balioa kontsumogaien beren parte dela, eta ez ekoizpen-sistema sozial baten barruan sortutako zerbait. Horrek ekoizlea eta produktua banatzen ditu, eta mozorro moduko baten atzean ezkutatzen ditu ekoizpen-funtzio ia denak. Horrek eragin handia dauka kontsumogaiak ulertzeko dugun eran, bai beren jatorria eta haren ekoizpenean datzan indarkeria ere, gizakiz beste animaliei zein giza animaliei dagokienez. Nik neuk, abeltzaintzaz ezer gutxi nekenez gero, oso bortizki konturatu behar izan nuen ikasle-garaian. Eta, liburu honetan,

aztertzen segituko dut nolako ekoizpen-sistema dagoen gure eguneroko elikagai ugariren atzean. Proiektu honen helburua da kontsumogaiekiko harremanon atzeko botere-harremanak azaleratzea, berezko egitatzat jo beharrean.

Kontsumogaien irrikan

Kontsumogaiek gauza aski sinpleak dirudite; kapituluaren hasieran esan dudanez, bizi garen munduak gauzak erostera behartzen gaitu bizi ahal izateko. Gauzak erosteko, ekoizti egin behar dira eskulanaren bidez, eta erosteko modua izan behar dugu. Horren agerikoa dirudiena, ordea, ekoizpenaren jabe eta kudeatzaile direnen eta ekoizten duten horien arteko gatazka-eremu bat da, historikoki¹⁷. Baina jarrera horrek —zeina, hain zuzen, gure ordena sozioekonomikoaren produktu ideologikoa baita— ez digu balio ulertzeko zein konplexua den ekoizpena eta hari datxekion esplotazioa eta zapalkuntza.

Nire klaseetan, Marxek “kontsumogaien fetitxismoa” esaten ziona aipatuta hasten naiz ideia horiei buruz elkarriketan. Nahiz eta Marxen ekonomikoa politikoak ez dituen nire ikasleak ikaragarri zirraratzen, *fetitxe* hitzak agudo piztu ohi du klasearen interesa. Eskola bat fetitxeei buruz hizketan hasita, interesik batere gabeko ikaslea ere adi egongo da pixka batean behintzat, eta, bestalde, arindu egiten da teoria konplexu horrek —bere balio, eskulan eta guzti— sortu ohi duen giro astuna. Orain ere ariketa berbera egongo dut, ez halako pizgarririk behar duzula uste

dudalako, baizik eta pizgarri horiek lagungarri direlako teoria azalatzeko. Horrez gain, teoria politiko marxista hau guztia gorabehera, nolabait ere ziurtatu behar dut irakur-tzen segitzen duzula, ezta?

Zer datorkizu burura *fetitxe* hitza aditzean? Aitortu egia zeuri buruari; ez duzu inor inguruan, eta salbu zaude. Nahi duzuna pentsa dezakezu, eta inor ez da konturatuko. Gure sekretua da. Zeure buruarekin zintzoa bazara —eta pentsamendu lizunak badituzu, nik eta nire ikasle gehie-nek bezala— oinen zaletasun obszeno bat edo halako zer-bait bururatuko zitzaion (hori izan da, urteetan, zerrenda-ko buru), edo ipurdikoak ematea, edo zartailuak, kateak eta halakoak erabiltzea. Sinpletze aldera, adibiderik ohi-koena hartuko dugu: oinen fetitxismoa. Bai, gutako askori benetan nazka ematen digu oinak sexu-desiraren objektu izan daitezkeelako ideiak, baina jende askorentzat kilikatze sexualaren gailurra dira, beste ugariri arraroa iruditu arren. Beste inoren sexu-gustuak juzgatzeko intentziorik gabe — anarkista soziala naiz, azken finean, eta benetan sinesten dut norberaren adierazpenean eta askatasunean—, har dezagun oina objektu sexualtzat. Gehienontzat, txarren-txarrenean, oina itsusia da, usaintsua, eta zikina; onenean, berriz, erabilgarria. Baina fetitxistarentzat oinak ohiko kategoria behere horretatik gora egin du, eta sexu-desiran sartu da. Kontuan hartu gabe lacaniar psikoanaliaren arabera zergatik izan dezakeen inork sentipen hori, lasai esan dezakegu oinak ez duela *berezko* ezer sexu-desiraren edo -kilikapenaren objektu izateko. Hala eta guztiz ere, oinaren fetitxismoak berez ez duen botere bat eman dio

gorputz-atal horri. Oinak gustatzen ez zaizkigun gehienoi arrarora egiten zaigu. Kosta egiten zaigu imajinatzea jendeak zergatik atsegin dituen oinak, eta zergatik egiten zaizkion erakargarriak inori. Fetitxistak, baina, botere misteriotsu bat eman dio oinari, eta harentzat beste zerbait gehiago adierazi nahi du, askoz ere gehiago.

Ez dakigu ea Marxek oinak atsegin zituen edo ez, baina badakigu bazuela kezka bestelako fetitxe batekin: kontsumogaiaren fetitxearekin. Nola oinaren fetitxismoak oinari berez ez daukan botere bat ematen baitio, bada, hala ematen diogu kontsumogaiari berez ez daukan boterea. Hori egiten dugunean, imajinatzen dugu kontsumogaiak berek daukatela, berez, balioa, baina balioa beti-beti dator eskulanetik. Halere, gizarte-harreman kapitalistetan, kontsumogaiak bizia hartzen du, ekoitzi deneko ekonomia- eta gizarte-harremanetatik kanpo. Kontsumogaiak gauzaki sinpletzat jotzen ditugu, erraz ulertzeko moduko huskeriatzat, baina sinpletasun horren azpian ekoizpen-indar eta -harremanen sare ezkutu zabal bat dago. Kontsumogaiak ekoizpen-baldintzetatik aparte jarrita, urruti eta mozorropean, kontsumogaiak ekoizten dituen eskulana indibidual bilakatzen da, ez sozial. Hori gertatzen denean, langile-klasa bere eskulanaren produktuetatik urruntzen da. Kontsumogaiak ekoitzi, haien truke kobratu, eta merkatura bueltatzen dira kontsumogai gehiago erostera, horiek ere berdin-berdin ekoitziak, beren eskulanetik alienatutako jendeak eginak. Orduan, eskulan guztia indibidualizatzen da, eta jendearen arteko harreman sozialak gauzen arteko harreman sozial bilakatzen dira; hots, erosi eta ekoitzi

egiten dira kontsumogaiak. Halatan, kontsumogaiak magikoki independenteak direla dirudi, eta ekoitzi zituzten haiengandik aparte daudela. Fetixismoa, Marxek dioenez, zera da: “harreman sozial definitu bat, gizonen [sic] artekoa, zeinak beren begietan, gauzen arteko harremanaren forma hartzen baitu”¹⁸. Gehiago ere esaten du:

Gure eskulanaren produktuak elkarrekin harremanetan jartzen ditugunean balio gisa, ez dugu egiten gauzaki horiek giza eskulan berbera jaso dutela uste dugulako, kontrakoa baizik: trukearen bidez produktu desberdinen balioak berdintzen ditugunean, ekintza horretan bertan berdintzen ditugu, giza eskulan gisa, horietako bakoitzean erabili den eskulan-mota desberdinak. Ez gara horretaz konturatzen, baina egin egiten dugu. Balioa, beraz, ez dabil etiketa batekin, zer den deskribatuz. Ez. Hain zuzen balioak bilakatzen du produktu bakoitza hieroglifiko sozial.¹⁹

Nabarmendu beharrekoa zera da, kontsumogaiaren fetixpeak estali edo ilundu egiten dituela ekoizpen-harremanak hieroglifiko sozial gisa. Benetako produkzio-baldintzak ezkutuan daude, zailak dira determinatzen, eta produktu jakin baten truke-balioak gainezkatu egiten ditu. Hori gertatzen denean, denok joka dezakegu ekoizpen-baldintzak immaterialak balira bezala. Balioaren atzean ezkutatuta, kontsumogai-kate luzeak oharkabean pasatzen dira, eta, metafora ohiko batekin esanda, izozmendiaren punta baino ez dugu ikusten.

Gure egitekoa, ordea, gauza guztien azpiko ekoizpen-harremanei moztorra kentzea da. Truke-balioa bakarrik ikusi beharrean, ikusi eta ulertu beharra dugu kontsumogai jakinak ekoizpen-sistema konplexuen parte direla, eta, horrenbestez, botere-, menderakuntza- eta zapalkuntza-harreman sozialetara lotuak daudela. *Reading Capital Politically* (Kapitala politikoki irakurtzea) liburuan, Harry Cleaverrek argudiatzen du fetitxismo horretaz harago ikusi behar dugula benetan ulertzeko zertan diren kapitalaren harreman-sozialak. Honela dio Cleaverrek:

Beharrezkoa zaigu... Marxek kontsumogai-formaz azaldu zuenetik harago ikustea, zeinean kontsumogaiak bere kasa interaktuatzen zutela baitzirudien. Badira hainbat erregulartasun edo *lege* kontsumogaien trukean, baita logika bat ere kontsumogai-forman bertan, baina logika hori eta lege horiek kapitalak arrakastaz inposatzen dituenak baino ez dira. Kapitalak ezarritako “joko-arauak” erakusten ditu Marxek *Kapitala*-n. Arauok beren barne egitura islatzen dute, bi klaseren arteko gatazka, alegia.²⁰

Idea horrek berebiziko garrantzia du, zeren biziagotu egiten baititu Marxen ideiak, eta kategoria teoriko abstraktu gisa aurkeztea eragozten. Marxen teoriarekin batera garatutako praxi politiko eta analitiko baten alde egiten du Cleaverrek. Praxi horretan sartzen da modu bat ulertzeko nola Marxek eztabaidagai dituen kategoriaiak eta “joko-arauak” sistema handiago baten parte diren, zeina borrokaren bidez inposatzen den eta ekoizpen-sistema

kapitalista baten parte den guztiz. Kontsumogai-ekoizpenaren alderdi horiek azaleratuta, ikusten has gaitezke kontsumogaiak ez direla izate abstraktuak, dendako apaletan edo gure sukaldean magikoki agertzen direnak. Aitzitik, ikusten dugu kontsumogai-formaren inposizioa bera historikoki espezifiko den borroka-modu bat dela, eta hori ere kapitalismoaren ekoizpen-joera handiagoen parte dela.

Lehenago ideiara itzulita, alegia, esnea eta beste animalia-jatorriko produktuak kontsumitzen segitu ala ez pentsatzeko istanteria, halako batean kontsumogai-fetitxearen mozorro ideologikoa erori egin zen. Animaliangandik eratorritako kontsumogaien ekoizpenari buruz zenbat eta gehiago jakin, kontsumogai horiek janari soila baino zerbait gehiago bilakatu ziren. Guztiz bestelako esanahi bat hartu zuten ekoizpen-indarren mapa zabalago batean kokatu ahal izan nituenetik. Urteetan ikusi ez nituenak ikustea lortu nuen jakin nuenean noraino den intentsiboa animalia-ekoizpena. Kontsumogai horiek gauzatat jo beharrean, bestelako esanahi bat hartu zuten laster, eta orduan balio sozial bat hartu zuten, nahi baino askoz ere argiago ulertzen hasi nintzena. Horrek asko irakatsi zidan animalia-abeltzaintzaren funtzionamenduaz, baina baita kapitalismoaren funtzionamenduaz ere. Esne-baso bat bezain gauza sinple batek hain atze-oihal konplexu eta esplotatzaile bat izan badezake, zer gertatzen da beste edozein gauza arruntekin?

Garrantzitsua da ulertzea kapitalismoaren egiturak berak gu ekoizpenetik eta ekoizleengandik urruntzen gaituela sistematikoki. Marxek arazo horri giza harremanak “gauzakien” harremanen antzeko bilakatzea esaten zion,

dagozkion efektu negatiboekin eremu sozialean, baina, halaber, uste dut ideia hori aise zabal daitekeela animaliekin ditugun harremanetara. Marxek eragozpenak jarriko zizkion horri, jakina denez. Ilustrazioaren seme petoa zen, eta Marxek bat egiten zuen Ilustrazioko ikuspegiarekin, zeinaren arabera animaliak simple eta mekanikoagoak baitira gizakiak baino, arrazoimenaren ustezko gailurrak horiek. Animaliak erlazionatzen ziren beren ingurunearekin, baina, Marxentzat, erlazio hori bat-batekoagoa zen, askoz ere oinarrizkoagoa gizakiaren naturarekiko lotura eraldatzailea baino. Hala ere, garaiko pentsamoldearen araberrako mugak gorabehera, Marxek emandako kategoriak erabil daitezke animalien egungo esplotazioa konprenitzeko. Era berean, Cleaverrek argudiatzen du kapitalaren harremanak ulertu eta azaleratu beharra dagoela klase-borrokarenak ulertzeko. Hedaduraz, imajinatzen dut, Cleaverrek inplizituki esango luke *giza* klase-borroka izango litzatekeela hori.

Dena dela, animaliak kontuan har ditzakegu kapitalaren jukutriren analisisian, eta badauka zentzurik animaliak txertatzea kontsumogai-ekoizpenaren, -esplotazioaren eta -borrokaren analisisian. Arestiko *Kapitalaren* aipuan, Marxen kezka da *giza* lanaren mota diferenteak berdintzea; hain justu, kontuan izanda nolako abeltzaintza-ekoizpen globalizatu eta industrializatu daukagun, ideia hori animaliei ere zabal diezaiekegu. Miseria hutsari dagokionez, animaliak akaso okerrago egongo dira egungo langile-klaseak baino; jabetzapeko esklabo hutsak dira literalki, gizakienak (3. kapituluaren gehiago); sekula ez daude ekoizpen-sistemaren atzaparretatik aske, eta haiengandik etekina

atera nahi dutenen interesak zerbitzatzan dituzte egunean hogeita lau orduz, bere bizitza osoan —zeina sarritan oso murriztua egoten baita—. ²¹

Alde ugariatik, animaliak langile klasea bezalakoak eta ez bezalakoak dira, eskulanaren eta kontsumogaien analisi marxista batean. Alde batetik, Jason Hribalek esaten duenez, animaliek ordaindu gabeko lana egiten dute, eta funtsezkoak izan dira kapitalismo industrialaren garapenean ²². Animaliek arrautza, esnekiak, artilea eta halako kontsumogaiak produzitzen dituzte sistema jakin baten barruan, zeinak eskulan hori etekinaren truke bahitzen baitu; animalien gorputzak berak izaten dira askotan kontsumogai, haragi-produktuetan, esaterako; horrez gain, borondatearen kontrako esperimentuetarako subjektu gisa erabiltzen dira. Abeltzaintza moderno eta industrializatuan, kapital-inbertsio erraldoiek giza eskulana ordezkatu dute, animaliak ia erabat integratuta abeltzaintza-ekoizpenerako teknologian ²³. Ikusita zer rol daukaten animaliek ekoizpen-makineria eskerga honetan, argudio sendoak daude animaliak langile-klasearen analisi batean kontuan hartzeko ²⁴.

Ordaindu gabeko langile gisa, animaliek, kontsumogai bilakatu ez ezik, kapital industrialaren garapenerako energia, elikadura eta arropa ere ematen dituzte. Animalien eskulan hori soldatapekoa ez den arren, badago “espropiazioa, esplotazioa eta erresistentzia” ²⁵ beren historian, eta gizakien perspektibatik dator animaliak *living stock* *

* *Living stock* “azienda” gisa itzultzen da, baina, hitzez hitz, “salgai bizia” esan nahi du (itzultzailearen oharra).

izendatzea. Egoerari ardiaren, behiaren, zaldiaren edo txerriaren ikuspuntutik erreparatzeak bestelako kontakizun bat sortzen du, zeinean animaliak ez diren “kontsumogai biziak, edo ‘produkzio-bideak’”²⁶. Hribalek animalien egoera giza esklaboekin, haur langileekin, etxeko langileen eta sexu-langileekin konparatzen du, eta zera argudiatzen: ordaindu gabeko lan hori guztia metaketa-prozesuen parte da, eta ez litzaioke ez ikusiarena egin behar.

ekoizpenaren ikuspuntutik, Hribalen proposamenak zentzua dauka. Baina, kritikoago pentsatuta Marxek langile-klasari ikusten zion iraultzarako potentzialaz, badi-rudi gizakiz besteko langileak deskribatzeko *langile-klasea* terminoa erabiltzeak ilundu egin ditzakeela gizakien eta gizakiz besteko animalien arteko diferentzia giltzarri batzuk, bai eta bakoitzaren esplotazio-moduak ere.

Hribalek dio animaliak kapitalaren kontra borrokatzen direla, hain zuzen ere. Baina kualitatiboki desberdinak dira, ezinbestez, animalien borroka hori eta Marxek —bere langile-klasearen ulerkeran— espero zuen iraultza proletario globala. Animaliek ezin dute elkarganatu eta lanera behartzen dituzten kateak hautsi; kapitalari egiten dioten erresistentzia askoz mugatuagoa da halabeharrez, sikiera gizakiek animalien gain duten botere bakar eta absolutua dela eta. Animaliak historian izandako giza esklaboak bezalakoagoak dira, baina, ikuspegi horretatik, desberdinak ere badira: giza esklaboak erresistitu daitezke, planak eta erreboltak egin ditzakete, baita beren askatasunaren alde borrokatu ere, batzuetan; gizakiz bestekoek benetan ezin dute halakorik egin. Esplotazioa eta sufrimendua pairatzen

dituzte, ahotsik gabe, eta gutxitan entzuten ditugu haien marruak. Hala, nahiz eta animaliek tradizionalki rol historikoa hartu duten industria- eta abeltzaintza-kapitala garatzen eta mantentzen —horrek esklabotza biluziaren itxura osoa du, eta ordainpeko esklabotzaren itxura pixka bat—, erabilgarria izan daiteke pixka bat zehatzago pentsatzea nola kontzeptualizatzen dugun animaliek kapitalaren barruan duten rola, ihes eginez langile-klasearen eta esklabotzaren ideia sinpleei.

Ez direnez zehazki giza esklaboak bezalakoak, ezta ordainpeko giza langileak bezalakoak ere, animaliek bes-telako leku bat daukate kapitalismoaren barruan: kontsumogai bizidun superesplotatuak dira. Animalientzat *inoiz* ez dira bereizten *etxea* eta *lantokia*, eta ekoizpen-kapitalak esku-eskura ditu denbora guztian²⁷. Nahiz eta batzuek akaso esango duten animalien subjektibotasunak ez duela inporta edo ez dela existitzen, Barbara Noskek argudiatzen du animaliak zeratzat tratatu beharko genituzkeela: “izaki totaltzat”, zeintzuen “ingurune fisiko eta sozialarekiko harremanek garrantzi ikaragarria baitute”²⁸. Hala baldin bada, ez daukagu eskubiderik animalien integritatea bortxatzeko haiek esplotatuz, kontsumogai bizidun bilakatzuz. Auzi etiko bat da: nola erlazionatzen gara kapitalaren indarren azpian sufritzen duten animaliekin, ahotsik gabeko izaki diren heinean? Eta nola kontsideratzen dugu kapitalaren esplotazio-indarren azpian sufritzen duen beste edozein talde?

Animaliak beren osotasunean kontuan hartuz, Noskek azaltzen du nolako prozesu batek *desanimalizatu* dituen

animaliak gaur egungo kapitalismoaren makinerian, eta lau bide aurkezten ditu, Marxi jarraikiz, animalien alienazioa azaltzeko²⁹. Lehenik, animaliak produktutik alienatuta daude; produktu horiek askotan animalien kumeak direnean, eskuarki jaiotzean banatzen dira, edo jaio eta berehala, esaterako txekorrak beren amengandik bereizten dituztenean. Bibisekzioari eta animaliekin esperimentatzeari dagokienez, animalien gorputzak berak bihurtzen dira animalien sufrimendu-eragile, beste inoren helburuetarako erabilia. Bigarrenik, animaliak beren ekoizpen-jardunetik alienatuta daude. Kapitalak erabat bereganatu ditu haien gorputzak eta funtzioak, eta, jarraian, erabilera bakarra eman zaie, animalia izate osoa ekoizpen-jarduera horren menpera murriztuta. Oiloak arrautzetarako dira. Funtzio hori bihurtzen da, bere-berez, animalien gorputzak etekinerako nahi dituztenek ezarritako jarduera bakarra, eta oiloaren izatearen beste edozein alderdi ezabatu egiten da, alderdi horiek ekoizpena oztopatzen duten neurrian. Hirugarren, animaliak elkarrengandik alienatuta daude. Noske dio animaliak ez direla automata biologikoak; sozializazioa behar dute, eta on egiten die harremanetan eta jolasean aritzeak. Halere, animalia-ekoizpenaren sistema murriztu eta intentsiboetan, hala etxalde nola laborategietan, animaliei ukatu egiten zaie beren izatearen alderdi oinarrizko hori. Abeltzaintza-ikasle nintzenez, “pilaketa-dentsitate optimoak” ikasi nituen, ahalik eta etekinik handiena ateratzeko animaliei ahalik eta espaziorik txikienean. Animaliak bakartuta izateak erraztu egiten zuen haiek erabiltzea, eta giza eskulana ere murrizten zuen. Ekoizpen kapitalistaren

prozesu intrintseko horiek, zeinak kostuak murriztu eta etekina ugaritu beste helbururik ez baitu, ez ikusiarena egiten die animalien behar sozialei, kapitalaren logikan guztiz menderatuz. Laugarrenik (eta azkenik), animaliak ingurune naturaletatik alienatuta daude. Balioa ekoizteko makina huts bilakatuta, animaliak garai batean bizi izandako ekosistematik erauzten dituzte; abeltzaintzaren mendeko animalia asko gizakiek diseinaturiko sistema erabat sintetikoetan egiten dute bizialdia. Lau alienazio horiek batuta, Noskek zera dio: “Animalia-alienazioa espeziearen bizitzatik alienatzea da”³⁰.

Ulertzeko kontsumogai-forma zer modutara dagoen animalien alienazioaren eta esplotazioaren erdian, har dezagun ohiko kontsumogai baten adibidea: arrautza bat. AEBetan erositako edozein arrautzaren produkzioak barne hartzen dituen ekoizpen-prozesuetako batzuei erreparatuta, azter dezakegu zer ondorio duten zapalkuntza- eta menderakuntza-erlazio horiek animaliangan.

Arrautzen industriari tamaina hartzen aldera: 2005ean, AEBetan 76.980 milioikoa izan zen. Abeltzaintzaren gainerako sektoreetan bezala, arrautzen produkzioan ere gero eta ekoizle eta ekonomia handiagoak daude; arrautzen ekoizpenean aritzen diren 64 konpainiak milioi batetik gora arrautza-oilo kontrolatzen dituzte, eta 11 konpainiak kontrolatzen dituzte arrautzen ekoizpenerako bost milioi hegazti baino gehiago. Guztira, 286 oilok parte hartu zuten arrautzen ekoizpenean AEBetan 2005ean, eta batez beste estatubatuar bakoitzak hogeita bat dozena arrautza jan zituen urte berean³¹.

Esnekiekin gertatzen den bezala, gutako gutxik daki- te benetan zertan datzan arrautza bat kontsumogai gisa ekoiztea. Merkatuan eta truke-esparruan beste produktu guztiekin berdinduta, guretzat arrautza bat dendan eros dezakegun beste edozein jaki baino ez da. Baina, formaz sinplea dirudien arren, haren formak ezkutatu egiten du zenbat sufrimendu behar den produktu hori ekoizteko. AEBetan, salerosketarako arrautzen ekoizpenaren %98 edo gehiago “sailkako kaiioletan” bizi diren oiloek ekoizten dituzte. Hegaztiak seinaka edo zazpinaka sartzen dituzte alambrezko kaiola batean, eta hantxe egoten dira bizitza osoan, hiltzen dituzten arte.

United Egg Producers da arrautzen kontsumoa bultzatzen duen arrautza-industriako organismo nagusia; arrautza-industriaren aldeko *lobby*-lanak egiten ditu, eta industriaren zabalkundeaz eta “hezkuntzaz” arduratzen da³². Animaliak gobernatzeko gidalerro batzuk ezarri zituzten, “animalien ongizatea” kontuan hartuz, arrautzak elikagai gisa bultzatzeko. Gidalerro horiei segika, ekoizleek “United Egg Producers-ek zertifikatua” dioen etiketa bat erants diezaioke, zeinak logo lasaigarri-itxurako bat baitauka, adierazteko animalien ongizateko gidalerro horiek betetzen direla. Gidalerro horiek ere —ohiko ekoizpenaren gidale- rroak baino hobeak, ustez behintzat— harrigarriak dira beren krudeltasuna direla eta. Gidalerro zertifikatu horien arabera, 432 tik 555 -rako espazioa izan behar dute oiloek. Akaso asko dela emango du, baina oso espazio txikia da. Imajinatzeko zeinen murrizta den, ireki irakurtzen ari zaren liburua guztiz eta ezarri gainazal baten gainean: 494 cm²

dira hori. Imajinatu ia kilo eta erdiko hegazti bat eremu horretan jartzea, eta orduan ikusiko duzun zein espazio gutxi duten arrautzetarako oiloek; ez dago lekurik hegazti bakar batek ere hegalak zabaldu ahal izateko, edo nonbait igotzeko, edo beren edozein jarrera naturali ekiteko.

Kaiola horietan sartu aurretik, mokoa mozten diete hegaztiei. Hamar bat egun edo gutxiago dituztenean egiten diete hori, su goritan dagoen aho batekin, berriz ere hazi ez dadin. Prozedura hori anestesiarik gabe egin da, noski. Mokoa moztea, industriak eufemismo hutsez “mokoa egokitzea” esaten diona, animalien gorputzek kapitalaren beharretara egokitzeko sufritzen duten mutilazio-forma bat baino ez da. Mokoa kendu ezean, animaliek hil arte mokokatuko zuten elkar, gizakiek bakartzearen bidez eragindako estresa dela eta. Horrek oiloen hilkortasuna ugartzen du, eta jabearen irabaziak murrizten. Moko-mozketak horri aurre egitea du helburu, oiloa, animalia zena, makineria-produktiboaren parte bilakatuz. Horrek, era berean, animaliak ekoizlearentzat probetxugarriak diren kopuruetan pilakatzeko modua ematen du; hegaztientzat, ordea, erabat alienagarria, estresagarria eta tortura hutsa da.

Kaiola-sailetan pilakatuta ehunka milaka oilo izan ditzaketen etxaldeetan, oiloek konfinamendu hertsian ekoizten dituzte arrautzak. Oiloen emana ugartzeko, ekoizleek askotan behartu egiten dute saldo oso baten muda edo lumaldatzea. Lumaldatzea gertakari normala da hegaztien fisiologian, baina, ekoizleen esku, produktibitatea handitzeko metodo gisa erabiltzen da. Muda behartuari askotan gosetzeak eransten dizkiete, baita argi-patroiak aldatzeak

ere, hegaztien mekanismo fisiologikoak “engainatu” eta urtaro-aldaketak balira bezala erantzun dezaten. United Egg Producersen azken gidalerroek debekatu egiten dute muda behartu batean gosetzea, baina proteina gutxiko elikagaiak erabiltzea permititzen du. Elkartearen arabera, muda behartuek “oiloen bizialdia luzatzen dute”, eta “oiloaren produkzio-zikloa berritzen dute”. Garrantzitsua da gauza batez konturatzea: muda behartuaren bidez, azken tantaraino zuketzen zaie ekoizpen-gaitasuna hegazti horiei, zeinak ekoizpenerako makina gisa erabili baitira beren bizitza osoan. United Egg Producers-en gidalerroek ere onartzen dute hori. Diotenez, “lumaldatze behartuei esker, %40-50 oilo gutxiago berritu behar dira urte osoan zehar bestela baino. Horrek, era berean, esan nahi du askoz ere gutxiago direla erabat ahituta hartu, garraiatu eta hil behar diren oiloak. Saldo bat 110 aste bizi liteke lumaldatzearekin, eta 75-80 gabe”³³.

Halatan, bizia eta existentzia nahiko iluna geratzen zaizkie arrautzetarako oilo arrunteei. Jaiotzetik, oiloak arrautzen ekoizpenerako makineria produktiboaren parte izatera bideratuta daude; hori gutxi ez, eta haien gorputzak eraldatzen dituzte ahalik eta etekinik handienak ateratzeko. Mokoa kentzen zaie, lumak aldatzera behartzen, eta kaiola txikitik bizitzera behartzen dira estatubatuarren apetitua asetze aldera. Muturreko gabezia betetako bizitza bat da oiloentzat, zeinean, Noskek dioen bezala, erabat arroztuta dauden beren buruarengandik, besteengandik, eta ingurunetik; hori guztia, osasuntsu bizitzeko behar ez dugun produktu bat ekoizte aldera.

Horrez guztiaz gain, hegaztiek beren ekoizpen-gaitasuna ahitu dutenean, “ahitu” egin direla kontsideratzen du kapitalak, eta hil egiten dituzte, 75-110 aste bitartean dituztela. United Eggs Company-ren gidalerroek “saldo osoak etxaldean bertan despopulatzea” aipatzen dute, denak elkarrekin ekoitzi, lumaldu eta —“despopulatu” eufemismoa gorabehera— hilko direla kalkulatzeko baita. Gidalerroek oilo “ahituak” hiltzeko moduak ere aipatzen dituzte, hala nola “dislokazio zerbikala” (lepoa haustea), “sarketerik gabeko bala eutsia” (pistola-kolpe bat buruan), “elektrokuzioa” eta “kordegabetu ondorengo mazerazioa” (bizirik txikitzea). Oilo jada erabilezinak hiltzeko beste modu onargarri bat atmosfera eraldatuko heriotza da (MAK, Modified Atmosphere Killing). Prozesu horretan, oiloak saldoka gaseztatzen dituzte karbono dioxidoarekin. Horretarako tramankuluak zaborrontzi karratu erraldoi eta gurpildun bat dirudi, 120 bat zentimetro garai dena, aurrean poltsa bat duena animaliak kaxan sartu ahal izateko. Halakoak saltzen dituzten enpresetako baten esanetan, MAK orgak dira “nahi ez den hegaztiez libratzeko biderik gizatiar eta eraginkorrena”³⁴. Langile bakar batek, hogeit hamar bat kiloko bonbona bat karbono dioxidorekin, 1.200-1.500 hegazti inguru akaba ditzake, eta orgak berak berrehun hegaztirik gora gordetzeko gaitasuna dauka. Ekoizpenaren gainerako alderdiak bezala, “ahitutako” hegaztiez “libratzeko” prozesua arrazionalizatu egin da eta errutina ezarri bat bilakatu da ahalik eta etekinik handiena lortzeko. Hiltzeko metodoa gorabehera, UEPren gidalerroek aholku hau ematen dute: “jendearen egonezina ahalik eta gehien

murrizteko, kordegabetzea, hilketa eta gorpuez libratzea jendaurretik kanpo egin behar dira”³⁵. Jakina denez, ekoizleek ez lukete nahi jendeak jakitea benetan zer behar den eguneroko tortilla egiteko.

Azkenik, arrautzen ekoizpeneko parte bat, gehienok pentsatzen ere ez duguna, zera da: emeak arrautzak erruten ari badira, zer gertatzen da arrekin? Arrautza-industrian bezala, arrak inproduktiboak eta alferrikakoak badira, “bartzertu” egiten dira. Kasu honetan, bartzertzeak zera esan nahi du: gaseztatzea, bizirik birrintzea ongarritarako, edo zakarretara botatzea bertan hilko direlakoan, beste txita bartzertu ugariren zamapean itota edo gosez edo egarriz. Oiloak baliotsuak dira arrautzetarako, eta arrak, berriz, soberakinak dira, inproduktiboak, ez-beharrezkoak, eta batere baliorik gabeak produkzio-prozesu osorako.

Nahiz eta kaiolako oiloen arrautzak oiloentzako kru-deltasun imajinaezinez ekoizten diren, horrek ez du esan nahi kaiolatik kanpoko oiloenak edo solte dabilzaneanak nabarmen desberdinak direnik esplotazioari edo sufrimenduari dagokionez. Beste produkzio-metodo horiek lumatze behartuak behar dituzte produktibitatea areagotzeko; mokoak berdin mozten dituzte, eta hilketa-metodo berberak erabiltzen, funtsean ekoizpen-ingurune berberean harrapatuta baitaude, ingurune bat zeinetan animaliak gizakientzako balioa sortzen duten soldatarik gabeko langileak baitira. Gizakiek animalien gain duten menderakuntza-harremana da arazoa, eta, nahiz eta menderakuntza-forma batzuk “atseginagoak” izan litezkeen besteak baino, esplotazio atsegina ere esplotazioa da azken finean.

Arrautza horiek egungo kapitalismoko beste kontsumogaien parean daude truke-produktu gisa, eta haien produkzio-harremanak ez zaizkigu iristen. Harreman horiek berreskuratzea lagungarri izan liteke (giza eskulana-ren atzeko harremanak azaleratu eta borrokatzean bezala) injustiziaren, botere desberdinkeria-aren eta zapalkuntzaren prozesuak azaleratu eta borrokatzen. Arrautzak produktu bat baino ez dira, baina antzeko kontakizunak egin litezke beste animalia-jatorriko produktu ugariarekin ere. Esnea ere animalia eme batzuen produktua da, haien produkzio-prozesuei lotua, eta antzeko istorioa du, txahalak ere hil egiten baitituzte haragitarako. Esnetarako behiak berak “ahitzen” direnean —beren bizialdi naturala baino askoz ere lehenago—, hanburgesa bihurtzen dituzte. Animaliekin zerikusirik duen edozein industrian, seguru asko giza menderakuntzak botere handia eman digu animalien gainean etekinaren logikari jarraika, animalien gorputzak eta eskulana agortzeko desirari jarraika. Industria horietako bakoitzean sartzea liburu honen helburuetatik harago dago, baina esan dezagun urtean 9.000 milioi animalia baino gehiago hiltzen dituztela AEBetan³⁶. Kapitulu hau idazten aritu naizen astean bertan, 599.000 abelgorri hil dituzte AEBetan, baina 1.8 milioi txerri eta 50.000 antxume ere³⁷. Animalia horietako batzuk kontsumogaiak ekoizten zituzten eta gero bilakatu dira haragi, kontsumogai; beste batzuk kontsumogai gisa hazi dituzte, eta halaxe bukatu dute, hilketaren bidez. Zenbaki horiek ez dituzte kontuan hartzen esperimenduetan eta produktuen probetan hildako animaliak, ezta itsasokoak, babesleketan

eutanasia eman zaien animalia “ez-desiratuak”, ehiztariek hildakoak, edo gizakien helburuetarako hiltzen diren beste animalia ugari ere.

Heriotza horrek guztiak negozio handia dauka atzean: 2006an, AEBetako behiki industriak 71.000 milioiren salmentak egin zituen, eta guztizko behiki kontsumoa 12.500 milioi kilokoa izan zen³⁸. AEBetako “broiler”³⁹ oiloaren industriak 41.000 milioi dolarreko salmentak izan zituen, eta 2.200 milioi kilo esportatu zituen, 1,9 mila milioi dolarreko balioan⁴⁰.

Erantsi hori animalien esplotazioan dabiltzan industria guztiak, eta aise ikusten da etekin nabarmenak ateratzen dituztela animalien bizkar.

Produktzio mota hori, animalientzat ez ezik, industrian lan egiten duten gizakientzat ere kaltegarria da. Giza menderakuntzazko harreman horiek ere ezkututzen ditu kontsumogai-formak. Hiltegiko lana ogibiderik arrisku-tsuenetako bat kontsideratzen da normalki⁴¹, eta legez kanpoko migratzaile ugari enplegatzen dira hiltegietan. Lan hori ohikoa da AEBetako komunitaterik txiroenetan ere. Virgil Butler, Tysoneko langile ohia —oilo-“prozesatzaile” handienetako batekoa— hiltegirako oiloak harapatzen hasi zen hamalau urterekin, familia mantentzen laguntzeko⁴². Tysonentzako hamar urtez lanean aritu zen oilo-hilkintzako hainbat etapatan, eta ikusi zuen langileak “erabili eta botatzekoak” balira bezala erabiltzen zituztela, eta baldintza arriskutsuetan lan egiten zutela, beren segurtasunaren kaltetan. Hilketa-“lerroaren” abiadura dela-eta, langileek askotan ebakiak egiteko arriskua izaten dute, eta

Butlerrek dio mina hartzea ez zela “aukera kontua, denbora kontua baizik”⁴³. Ikusita nolako ordutegiak eta abiadura-eskariak dituen lanak, langile askok anfetaminetara jotzen zuten erritmoari eutsi ahal izateko. Drogen kontsumoa ez da ezohikoa hiltegiari; zenbait animaliaren hilketan aritzen diren beste langile askok antzeko esperientzien berri eman dute, *speed*-a kontsumitzen dutela esanez⁴⁴.

Nahiz eta animalia txikien hilketaren arazoak ez liratekeen gutxietsi behar, animalia handiak hiltzeak bestelako arriskuak dakartza, ehunka kiloko animaliak katez lotzen baitira desmuntatze-kate odoltsu batean. Hiltegiatako produkzio-abiadura dela-eta, animalia asko esna egoten dira, partez behintzat, hiltzen dituzten bitartean, ez baitira behar bezala kordegabetu. Desastre hutsa da emaitza, gizakientzat bezala animalientzat ere. *Slaughterhouse* liburuan, Gail Eisnitzek aztertzen du nolako arduragabekeria eta abusua izaten dituen AEBetako hiltegiari, zuzeneko elkarrizketen bidez erakutsiz nola arazo horiek sisteman bertan agertzen diren. Eisnitzek elkarrizketatutako langile batzuek kontatzen dute nola haiek larrututako animalia ugari begiak kliskatzen, ostikoka, marruka eta txilioka ari ziren oraindik. Hori animalientzat lazgarria da, noski, baina arriskutsua da gizakientzat ere ehunka kiloko animalia batzuen ondoan lan egitea minez astinka eta ostikoka ari direnean, hilketa-prozesuko minaren ondorioz. Batzuetan, behiak erori egiten dira zintzilik dauden kateetatik eta lurra jotzen dute, edo lerroan lanean ari den edonor ostika edo neka dezakete. Txerrien hilketarako baldintzak ez dira hobeak, eta jardueraren lehen kezka lerroa martxan

edukitzea izaten da, produktibitateari eusteko. Eisnitzen elkarrizketetako langile batek, Ed Van Winklek —ezaguna bere inguruan hamar zentrotan lan egiteagatik— ondo kontatzen du norainokoak diren arazoak txerri-hilketan etekina lehenesten denean.

—Uste duzu arazoa kordea kentzeko langileen funtzioan dagoela? —galdetu nion—. Ala ekipamenduan?

—Uste dut arazoa jarrera dela —erantzun zuen—. Katea martxan dagoen bitartean, ez zaie bost pito inporta zer egin behar duzun txerriari lerroan eusteko. Edo txerri bakoitza kako batean, edo kapataza gure atzean ostikoka.

Van Winklek nekatua ematen zuen, higatua, batailan gehiegi nekatua harrokerian hasteko.

—Morrellenean hasi nintzenean, konpainia oso desberdina zen. Halako batean aldaketa handia izan zen, diruzalekeriagatik, nik uste. Ekoizpena inportanteagoa zen langileen ongizatea baino. Inork minik hartuz gero, ezin zen katea eten; paretik arrastaka kendu, eta kateari martxan eutsi behar zitzaion. Katea bihurtu zen gauzarik garrantzitsuena. Gainerako guztia alde batean geratu zen.

Azken urteetan, Morrelleneko baldintzak okertu besterik ez dira egin. Gaur egun, zuzendaritzari ez zaio inporta txerria nola geratzen den lerroan. Ez zaie inporta korderik gabe dagoen ala kontziente, edo ea langileak min hartzen duen prozesuan. Morrellek nahi duen guztia txerri horiek hiltzea da⁴⁵.

Txerriak hilketa-katean ahalik eta azkarren mugiarazteko, Van Winklek eta beste langileek ia edozer egiten zuten jardunari eusteko. Van Winklek kontatzen du behin begietan hagak sartu zizkiela txerriei mugiarazteko, eta ikusi duela gidariek hodi-kolpeka akabatzen zituztela hiltzera sartu ezin edo nahi ez zuten txerriak. Egun batean hamaika txerri kolpeka hil zituela onartuta, Van Winklek zera dio:

—Txerriak nahiko erraz estresatzen dira —esan zuen—. Gehiegi ziztatzen badituzu, bihotzekoak izaten dituzte. Txerri bat, ikaragarri ziztatu ondoren, lerroan sartu eta bihotzeko bat baldin badu, edo ez bada mugitzen, kakoa hartu eta uzkian sartu behar zaio. Horretarako, aldakatik lotu behar dira. Gero arrastaka eramaten duzu. Txerriok bizirik arrastatzen ari zara, eta askotan kakoak uzkia urratzen du. Ikusi ditut urdaiazpikoak —izterrak— guztiz urratuta. Ikusi ditut erraiak kanpora etortzen. Txerria lerroan erortzen bada, kakoa sartu eta aurrera arrastatzen duzu⁴⁶.

Txerri-hilketako prozesuaren lehen ataletako bat da txerriak “zulatzea”, odolustea alegia, ilea kentzeko ur beroz betetako edukiontzi batean sartu aurretik. “Zulatzaile” horiei hala esaten zaie lerroa oso azkarra delako, eta, askotan, zulatzaileek ez dituzte behar bezala zulatzen txerriak, eta mantsoago hiltzen dira. Agudo hil beharrean, batzuetan txerriak uretan itotzen dira. Van Winklek esan zuen ez zegoela ziur txerriak nola hiltzen ziren, erreta edo itota, baina izugarri krudela zela edonola ere, eta, beraz, baita

arriskutsua ere langileentzat, behar bezala “zulatu” gabeko txerriak indar handiz astintzen direlako. Jende asko labanekin eta azkar lanean ari den toki batean, arriskua handitu egiten zaie gizakiei. Van Winkle zuzendaritzari kexatu zitzaion, baita erakundeei ere, OSHAr (Occupational Safety and Health Administration) eta USDAr (United States Department of Agriculture), baina haren kexek al-daketa gutxi ekarri dituzte:

—Konponbiderik eman ordez, eskularruak eman zizkiguten, gutako askok eskuetan ebakiak egiten baikenituen. Baina eskularru horietako batekin labana bat hartzea labana grasaz igurztea bezalakoa da. Txerri bizien ostikoek eskuetatik botatzen zizkiguten. Gero, hatzetarako eraztun batzuk eman zizkiguten, labanetara lotuak. Txerriak ostiko jotzean, labana eskuan geratzen da. Beraz, labana hegalarri baten ordez, bi ahoko labana bat daukazu eskuan zintzilik⁴⁷.

Van Winklek berak min hartu zuen lerroan, Eisnitzeke idazten duenez:

—Jugularra ebaki nuen. Sekulako beldurra neukan. Puntuak behar izatea normala izaten da, eta ez daukat arazorik. Tarteka ebakitzea ere ez da arazoa. Baina neure lepoa ebakitzea ez, ezin dut jasan.

Lepoko ebakiaren ondoren, nagusiari esan nion: “Ez nago hemen hiltzeko. Ez dizkizut txerri gehiago zulatu-ko”. Zuzendaritzarekin bildu nintzen, eta esan nien: “Ezin nauzue behartu bizirik dauden txerriak zulatzeko. Legeak

dio ez dudala egin behar nire bizia arriskuan jartzen duen lanik. Ba, nire bizia arriskuan dago, eta ez dut beste txerririk zulatuko⁴⁸.

Lanean bertan sortzen diren zauri fisikoak bakarrik ez, baizik eta karga psikologiko eta emozional handia ere sufritzen dituzte hiltegiko langileek. Van Winklek deskribatzen du nola *zulatzaileen* artean jarrera jakin bat zabaltzen den: “gauzak hiltzen dituzu, baina ez zaizu axola”. Van Winklek deskribatu du nolako eraginak dituen horrek bere lanean eta bizitza arruntean:

—Batzuetan begietara begiratzen diozu oraindik oinez dabilen txerriari, eta pentsatzen duzu animaliak itxura ederra duela. Laztantzeko gogoia ere ematen dizu. Hiltzera doazen txerri batzuk etorriak zaizkit ondora, muturrarekin kasu egitera, txakurkumeak bezala. Bi minutu geroago, hil egin behar nituen, hil arte kolpekatu hodi batekin. Ezin zait inporta.

Goian lan egiten nuenean, txerriei erraiak kanporatzen, edozein produkzio-katetan banengo bezala joka nezakeen, jendeari elikatzen laguntzen niolakoan. Baina zulatzaileen artean ez nintzen jendea elikatzen ari. Gauzak hiltzen ari nintzen. Nire jarrera hauxe zen: “Animalia bat da, besterik ez. Akabatu”.

Pertsona batzuei ere horrela begiratzen nien. Pentsatu izan dut langilezaina buruz behera lerroa zintzilikatu eta zulatzea. Gogoratzen naiz noizbait bulegora sartu eta giza

baliabideetakoari esan niola ez neukala arazorik norbait tirokatzeko.

Ezagutzen ditudan zulatzaile guztiak pistola batekin ibiltzen dira, eta guzti-guztiek egingo lizukete tiro. Ezagutzen ditudan gehienak atxilotu egin dituzte noizbait, erasoagatik. Askok arazoak dituzte alkoholarekin. Edan egin behar dute, ez baitaukate beste modurik horri aurre egiteko, egun osoa pasatzeari animalia biziak hiltzen. Pentsatzen jarriz gero, egunean milaka izaki hiltzen ari zara⁴⁹.

Langileok etxera eramaten dute amorru eta alienazio hori, eta askotan familien edota komunitateen kontrako indarkeria gisa azaleratzen da. Indarkeria hori hiltegietatik kanpora doa. Ed Van Winkle bezala, Virgil Butler konturatu zen orduan eta bortitzagoa zela Tysonenean zenbat eta gehiago lan egin, eta konturatu zen, halaber, lankide zituenak ere berdin zeudela, askok familiak ere indarkeriaz tratatzen baitzituzten. Animalia-ekoizpen modernoaren logikak exijitzen du animaliek azkar mugitu behar dutela hiltegian, bost axola izanik jendearengan eta animalien gan dituen albo-ondorioak. Animaliek sufritu egiten dute, gaizki kordegabetzen eta hiltzen dituztelako, oraindik ere kontziente direla; hilketa hori gauzatu behar duen jendeak ere sufritzen dute, isilarazi egin behar baitute lanean egiten dutenagatik sentitzen dutena.

Gizartean dituen eraginak gorabehera, animalia-jatorriko produktuen kontsumoa hain dago gure ekonomian eta kulturatan barneratua, non gehienok egunean behin baino gehiagotan jaten baititugu esplotazio-sistema honetatik

eratorritako produktuak. Ondorioz, gehienok, xalotasun osoz, ez gara konturatzen nolako indarkeria sufriarazten zaien gizakiei eta animaliei geure izenean, geure desiren izenean. Era berean, gehienok ez gara konturatzen bestelako alderdi bat daukala animalien esplotazioak: gure kultura zientifikoan eta ikerketan erabat sartuta dagoen esplotazioa, zeina AEBetan medikamenduak onartzeko prozesuan erdi-erdian baitago.

Bibisekzioa*

Akaso prest egongo zarete onartzeko animalia-jatorriko produktuen ekoizpenak premiarik batere gabeko zapal-kuntza ezartzen diela animaliei, eta sufrimendua sortzen duela, baina zuetako asko oraindik ere bibisekzioa —edo animaliak ikerkuntzarako eta probetarako erabiltzea— abolitzearen kontra egongo zarete. Izan ere, gure logika kulturalak dio animaliekin esperimendatzeko onura dardarkietela gizakiei, itxuraz, zalantzarik gabe: ikasi dugu animaliekin esperimendatzeko aurrerapenak ekartzen dizkiola medikuntzari, eta hori behar beharrezkoa dugula gaixotasunak deuseztatu, arazo medikoak konpondu eta kirurgia-teknikak garatzeko. Baina, laborategietako ate itxien atzean begiratuta, ikus dezakegu bibisekzioa —animaliak elikagai gisa ekoiztea bezala— gizakien helburuen

* Egileak “bibisekzio” hitza erabiltzen du animalia-esperimentazio orori erreferentzia egiteko, baita hertsiki *bibisekzioa* egiten ez duten esperimenduei ere. Testuan, egileak erabilitako hitzari eutsi zaio.

araberako sufrimendu-inposizio hutsa dela, alferrikakoa, krudela eta friboloa. Horren gain, bibisekzioak negozio handia dakar, lotua akademian, medikuntzan eta produktuen garapenean dituzten kultura instituzionalei zuzen-zuzenean lotua.

Askoz ere animalia gutxiago hiltzen dira bibisekzioan elikadura-industrian baino, baina gizakion helburuetarako sufrimendu guztiari erreparatu behar zaio. Urtero-urtero, dozenaka milioi animalia hiltzen dira helburu zientifikotarako eta ikerketarako; kalkulu herabe samar baten arabera, urtean 20 bat milioi animalia hiltzen dira AEBetan bakarrik⁵⁰. Ez dago bibisekzioan erabilitako animalien kopuru zehatzik biltzerik, zeren AEBetako estatistika federalak ez die eskatzen saguen, arratoien, txorien, narrastien, anfibioen eta zaldien kontu zehatzik ematea, ezta nekazaritza-ikerketan erabiltzen direnenik ere⁵¹.

Sinestarazi digute esperimentuok behar-beharrezkoak direla gure ongizaterako, baina bibisekzioaren proportzio handi bat ez dago inola ere giza interesekin konektatua⁵². *Animals like us* liburuan, Mark Rowlandsek lau eremutan banatzen du animaliekin esperimendatzea: ikerkuntza medikoa, produktu-probak, ikerketa psikologikoak eta proba militarrik. Produktu-proba komertzialetan, kontsumorako produktuen eta bestelakoen toxikotasuna neurtze aldera, produktu edo konposatu kimiko jakin batzuen kantitate edo dosi ikaragarri handiak injektatzen, janarazten edo bestela aplikatzen zaizkie animaliei. Probarik ohikoenetako bat LD-50 delakoa da (*lethal dose*, dosi hilgarria); proba horrek zehazten du substantzia baten zer kantitate

behar den animalia-populazio baten %50 hiltzeko. LD-50 testa da konposatu jakin batzuen toxikotasunaren berri izateko modurik ohikoenetako bat⁵³. Proba horretan, konposatu edo produktuaren gero eta dosi handiagoak ematen zaizkie animaliei, harik eta populazio horretako animaliek %50 hiltzen diren arte. Lortutako dosi hori markatzen da LD-50 dosi gisa, eta bi astetik hiru hilabetera eman daitezke dosi horretara iritsi arte⁵⁴. Geratzen diren animaliei probarako konposatua janarazten zaie beste bi astez. Bi aste horiek bukatu direnez, bizirik geratu diren animaliak hil egiten dira, diseekzionatu, eta ikertu, ulertze aldera nolako eragina daukan toxikotasun metatu horren haren organoetan⁵⁵.

Pentsatu nahiko dugu LD-50 probak informazio balioetsua ematen digula toxikotasuna eta horrek gizakiengan dituen eraginak ulertzeko, baina zenbaitek kalkulatzeko dute, gutxi gorabehera, LD-50 ikerketen eta giza eraginaren arteko korrelazioa %5etik %25 artekoa dela; txanpona botatzea baino ausazkoagoa, alegia⁵⁶. LD-50 proba bera aldatu egiten da espezie batetik bestera, eta, are gehiago, hainbat faktorek dute eragina proban bertan, hala nola "sexuak, adinak, tenperaturak, hezetasunak, dosifikazio-moduak, dosifikazio-denborak, eta leku jakin bateko animalien dentsitateak"⁵⁷.

Antzeko arazoak daude animaliak botiken probetarako subjektu gisa erabiltzen direnean. Uste zabaldua da medikuntzan aurrerabidea ezinezkoa izango litzatekeela animalien eredurik eta probarik gabe, baina, froga ugari adierazten dutenez, animaliek eredu horiek kalte egiten diote,

lagundu bainoago, farmakoen garapen-prozesuari⁵⁸. *Sacred Cows and Golden Gesse: The Human Costs of Experiments on Animals* liburuan (Behin sakratuak eta urrezko antzarak: animalien esperimentuen giza kostua) C. Ray Greek medikuak eta Gean Swingle Greek albaitariak hogeita hamar kasutik gora aletzen dituzte zinetan animalien esperimentuek ez zuten gizakientzat balio zuten emaitzarik izan. Kasu batzuetan, botikek ondorio kaltegarriak izan zituzten gizakiengan, animaliengan ez bezala. Ildo horretatik, Greekek eta Greekek hainbat farmako zerrendatzen dituzte —Prisolec bihotzerrean kontrako botika ezaguna tartean dela— merkatutik kendu behar izan zituztenak animalien probek ez zutelako baliozko emaitzarik izan. Hori gutxi ez, eta, greektarrek seinlatu bezala, medikuntzaren historia -betea bete dago “medikatze arriskutsuz eta giza heriotzaz, guztiak ere farmakoen garapenak animalien esperimentuekiko duen dependentziak ekarriak”⁵⁹. Horien arteko nabarmenena talidomidaren desastrea izan zen: animalia-ikerketan gehienetan segurua zela ondorioztatatu zen, baina sortzetiko malformazioak eragin zizkien gizakiei⁶⁰. Talidomida, halere, adibide bat baino ez da, erakusten duena nola huts egiten duten farmakoen garapeneko animalia-esperimentuek gizakientzako arriskuak seinalatzeko orduan. Duela gutxi, animalia-esperimentu akastunei egotzi zaizkie COX-2 inhibitoreak —hala nola Vioxx ezaguna (rofecoxib)— bihotzekoa izateko arriskua bikoiztu izana egunean 25 mg hartzen dituzten subjektuei⁶¹. COX-2 inhibitoreen animalia-esperimentuak askotan “aldakorrak ziren, espeziearen arabera, ez ziren

erabilgarriak botikaren segurtasuna edo gizakien gaineko efikazia aurreikusteko⁶², baina botikak urteak eman zituen merkatuan, Merckek arazorik izan ez zuten animalia-ikerketak erabili baitzituen Vioxx saltzea justifikatzeko. Ondorioz, konpainiak 3.800 auzibide izan zituen produktu-erantzukizunagatik eta lesioengatik⁶³. Animaliekin esperimentatzearen alternatibo seguru eta zehatzagoak jada merkatuan⁶⁴ —edo zeruertzean— izanik, bibisekzioaren beharra nahiko zalantzarria bilakatzen da ikuspegi praktikoko batetik, eta defendaezina gizakiekiko farmako- edo toxikotasun-interakzioak ulertzeko modu praktikoa gisa.

Medikuntzaren alorrean ez ezik, animaliak ohituraz erabiltzen dira test psikologikoetan ere, sarri askotan “xelebre eta makabro” gisa deskribatzen diren moduetan⁶⁵. *Introduction to Animal Rights: Your Child or the Dog?* liburuan (Animalien Eskubideen sarrera bat: zure umea edo txakurra?), Gary Francionek hainbat animalia-esperimentu aipatzen ditu, ikaragarri krudelak eta inondik ere ez beharrezkoak. Esperimentu horietako askotan, zeinak AEBen luze-zabaleko instituzio akademiko errespetagarri eta prestigiotsuetan egiten baitira, animaliak shockatu egiten dituzte, itsutu, zauritu, janariz eta urez gabetu, estresatu, drogen menpekotasuna sortzen diete eta bestela ere kalte egiten, gizakien osasunean benetako edo berehalako eragin positiborik ez duten galderen erantzunen bila. Esperimentu horietatik krudelenetako bat Harry Harlowren “armagabetze-esperimentuak” dira. Harlowk eta bere kideek tximino jaioberriak amagandik banatzen zituzten jaioko bezain laster. Batzuk erabat isolatuta hezten zituzten;

beste batzuk, oihalez eta alanbrez egindako “amaorde” delakoeekin; horietako batzuk, ordea, elektrifikatuta zeuden, tximino jaioberriek afektua eskatzen zuten bakoitzean deskarga elektriko bat emateko. Gero, jaioberriek amaorde elektrifikatuekin zuten erreakzioa erabiltzen zen argudiatzeko amarekiko kontaktuaren instintua garrantzitsua zela gizakien garapenean⁶⁶. Halaber, “babesgabetasun ikasia” delakoa ikertzen ari zirela, Martin Seligman buru zuten Pennsylvaniako Unibertsitateko ikertzaileek deskarga elektriko eta erredura gogorrek eman zizkieten txakurrei, eta txakur batzuek ikasi zuten ezin izango zutela minetik ihes egin, edozer egiten zutela ere. Hori erabili zen frogatzeko animaliek eta gizakiek, biek ikas zezaketela “babesgabe” izaten beren egoeratik ihes egiterik ez bazuten, edo alferrikakoa irizten bazioten.

Goiko bi adibideak nabarmenak dira, eta ezagunak, baina beste milaka adibide daude, ez hain ospetsuak, zeinetan animaliak ikerketarako “tresna” gisa erabiltzen baitziren gizakien ongizatearekin zerikusirik ere ez zuten esperimenduetan; berdin aipa daiteke zeinen ohikoa den animaliak hezkuntzan erabiltzea. Esate baterako, arratoiak eta saguak erabiltzen dituzte unibertsitate-mailako psikologia-eskoletan, jarrera- eta ikaskuntza-patroiak ulertzeko, eta asko “sakarifikatu” egiten dituzte beren helburua konplitu dutenean; animaliak ia egunero erabiltzen dituzte unibertsitateko eta institutuko eskoletan; eta AEBetako albaitaritzak-ikasleek bere egunerokoan bibisekzionatzen dituzte animaliak, nahiz eta albaitaritzak- eta -medikuntza-ikasleek halakorik egitea debekatua egon Britainia Handian⁶⁷. Hain

zuzen ere, urtean 5,7 milioi animalia erabiltzen dituzte “hezkontza-helburuekin”⁶⁸, nahiz eta helburuok berdindin lor zitezkeen animaliarik erabili gabe.

Animalien erabilera horrek guztiak dilema ikaragarria ekartzen dio animalia-esperimentazioaren aldekoari. Animaliak gure antzekoak baldin badira, hain zuzen zientzialari askok beharrezkotzat jotzen dituzten hainbat eredu emateko bezain antzekoak, alegia, bada, aitortu beharko genuke animaliak hain justu ere gure antzekoak direla, eta merezi dutela, guk bezala, halakorik ez sufritzea. Baina, bibisekzioaren aldekoekin hitz egin dudanean, askotan esan didate gizakiak eta animaliak oso desberdinak direla, eta desberdin sentitzen dutela mina, eta erreakzio psikologiko desberdinak dituztela. Hori egia bada, orduan —animaliak hain desberdinak badira— geure buruari galdetu beharko genioke noraino balio duen animalien erabilerak giza fisiologia eta psikologia ulertzeko. Modu batera, animalia-esperimentuen aldekoa tranpa logiko batean harrapatua dago: animaliak esperimentu-eredu gisa erabiltzeko bezain gizakien antzekoak baldin badira, pentsatu behar dugu geuk bezala sufritzen dutela. Ez sufritzeko bezain desberdinak badira, —makina kognitiboak, Descartesek zioen bezala—, ba, pentsatu behar dugu ea animaliek behar bezain eredu egokia ematen diguten ala ez.

Hori gutxi ez, eta onartu behar da animaliekin esperimentatzea etekin handiko industria dela, ikerketa farmazeutikoarekin eta zientifikoarekin lotua⁶⁹. Charles River eta Taconic bezalako konpainiek esperimentuetarako propio hazten edo eraldatzen zituzten animaliak. Gainera,

horietako bakoitzak produktu espezifikoko batzuk ere ematen ditu, esperimentaziorako eta ikerketarako. Charles Riverrek espezie ugariak arratoiak eta saguak ematen ditu, arratoi edoskitzaileak barne (umaldi eta guzti), eta arratoi eta sagu asko ezaugarri jakin batzuk adierazteko eraldatzen dituzte, hala nola immunitate-sistema suprimituak, odol-presio altua, baita leuzemia portzentaje altua ere⁷⁰. Arratoi horietako asko —zahar eta handienak batik bat— bakoitza 70 dolarretan ere saltzen dituzte⁷¹. Francionek dioenez, “Laborategietan erabiltzen diren animaliek salerosketaren etekina ez ezik, kapitala ugari sartzen da milioika animalia horientzako kaiolak eta halakoak fabrikatzen dituzten enpresetan, eta zerga federaletatik datozen ehunka milioika dolar ematen dituzte urtero bibisekzioaren sektorearentzako onura gisa. Animalien ikerketa negozio handia da”⁷².

Animalien ikerketa hain lotuta dagoenez industriarekin eta akademiarekin, erraz ulertzeko da nola instituzionalizatu den kultura akademikoaren eta zientifikoaren parte, nahiz eta kritika ugari egin dakizkiokeen, justifikazio osoz. Mark Bernsteinek bere *Without a Tear* liburuan dioenez, animaliak era horretan erabiltzeak bibisekzioaren aldeko “edozein teoria baieztatu edo gezurtatzeko” modua ematen die, estrapolazioz⁷³. Bernsteinen argudiaketaren arabera, “esperimentu batean parametroen kopuru zehaztugabe bat sar daitekeenez, ia ziurra da animaliez kanpoko modalitateetatik eskuratutako emaitza bat erreplika daitekeela animalia baten baldintzaren batean erabilia”⁷⁴. Esate baterako, Bernsteinek dioenez, demostra genezake gizakiek limoi-zukua saihestu beharko luketela, katuentzako toxikoa denez gero;

era berean, froga genezake penizilina toxikoa dela, akuriak egun gutxian hiltzen baititu. Halaber, Greekek eta Greekek dioten bezala, animalien testetan bermatuta, orobat demonstra genezake botika oso ohiko eta erabilgarri ugari ez ziratekeela sekula kaleratu behar, albo-kalte negatiboak baitituzte animalietan (intsulina eta digitalisa aipatzen ditu Bernsteinek, biak erabilgarriak giza gaixotasunak sendatzeko).

Bernsteinek dio bibisekzioaren aldekoak animalien esperimuetatik estrapolatzen saiatzen direnean Las Vegasgo mago bat bezala “prestidigitazioan” aritzen direla; Francionek, berriz, hipotesi argigarri bat ematen du bere *Introduction to Animal Rights* liburuan, ulertze aldera ea animalien erabilerak zerikusi zuzenik izan duen medikuntzaren eta beste esparru batzuen aurrerabidean, bibisekzioaren aldekoek esaten duten bezala. Demagun auto-mekanikari batek eskularru berezi batzuk janzten dituela beti autoa konpontzera doanean; arazo jakin bat konpontzen duen bakoitzean, bere eskularru bereziei ematen die meritua, eta bere buruan korrelazio zuzen bat ezartzen du eskularruak erabiltzearen eta mekanikari ona izatearen artean. Francionek zera dio: mekanikariak ikusten duen kausa-erlazioa zuzena izan liteke, bai, baina, kausa benetan hori ote den jakiteko, Janek lan berbera egin beharko luke eskularrurik *gabe*, jakiteko ea eskularruena den arrakasta. Bada, Francionek dioenez, ikertzaileek horrela erabiltzen dute esperimetazioa, eta prozedurak eta probak gainjartzen. Mekanikaria bezala, bibisekzioaren aldekoek ez dakite animaliak erabiltzea den beren arrakastaren erantzulea, horixe baita berez egiten dutena.

Mekanikariak eskularruak erabiltzen dituen bezala, baliteke animalien esperimentua ere erritual moduko bat izatea, zientziaren garrantzia ezartzen duena imajinazio kultural eta sozialean, “erlijio sekularrekin kiratsa” eta guzti⁷⁵. Ilustrazio-garaian, zientzia erlijioari nagusitu zitzaion gure garaiaren esplikazio-marko gisa (gai hori aipatuko dut berriz aurrerako), baina Elizarekin lehiatu behar izan zen “giza salbazioaren instituzio nagusi” gisa⁷⁶. *An Un-natural Order* liburuan (Ordene ez-naturala) Jim Masonek dio hierarkiak erritualak behar dituela, “demostratzeko” zientzia “heroikoa” dela jakintzaren eta gizakien gaixotasunen sendagaien bilaketan, eta edozer egingo duela jakintza hori eskuratzeko. Bibisekzioa ez da heroikoa soilik, baizik eta baita gizakiak naturaren gainean duen nagusitasunaren sinbolo ere. Masonek dioenez.

Animaliak baldin badira naturaren adierazpenik indartsuenak, animaliangan egindako esku-hartze eta manipulazioak, zientziaren mozarropean bada ere, argi adierazten du natura mendean hartzeko borondate osoa. Garai bateko animalia-sakrifizio odoltsuek masen artean jainkoaren, haren tenpluaren eta haren apaizen ospe areagotua zabaltzen zuten bezala, gure laborategi medikoetan animaliak “sakrifikatzen” dira medikuntzaren ospea goratzeko, bai haren korporazio, unibertsitate eta ikertzaileena ere⁷⁷.

Haren aldekoek aipatzen duten onura argi eta garbia eman ordez, gertutik erreparatuta, bibisekzioak krudeltasun imajinaezina ezartzen du, eta emaitza batere ez argiak.

Horren orde, kultura instituzional zaharren aztarna bat da, praktika horri erritual eta tradizio gisa eusten diona, sarri askotan botiken garapenerako legeetan kodetua eta ikerketa-kulturan eta akademian instituzionalizatu. Animalien beste alferrikako erabileren artean, gizakiek animaliak batere beharrik gabe esplotatzen dituzteneko beste adibide bat ematen du bibisekzioak. Jabetza bilakatzen dira, eta oso justifikazio eskaseko prozesu batean esplotatzen.

Berriz ere, gure gizartearen ohiko alderdien azaletik aurrerago egiten badugu, animaliak kontsumogai bilakatuta ikusten ditugu, eta kontsumogai bilakatzen hori kapitalismoaren makineria ideologikoan ilunduta eta ezkutatu. Esplotazio-forma horiek, izan bibisekzioa zein animaliak janaritarako erabiltzea, animalien industria osoan gertatzen dira. Halere, gutako zenbatak dakigu esplotazio-dinamika horiek hor daude hanburgesa bat edo baso bat esne hartzean, edo botikak hartzen ditugunean? Eguneroko produktu horien atzean logika instituzional, kultural eta ekonomiko ugari daude, animalien esplotazioan bermatzen direnak etekina eskuratzeko. Hori guztia ezkutatu egiten zaigu. Gutako gutxik ikusi ditugu esplotazio-etxaldeak, animalien esperimentuek laborategiak, edo hilketa-ren prozesua. Iluntze hori erabilgarria da, ezjakintasunean uzten baikaitu, kontsumitzen dugun hori ekoizteko behar diren baldintza guztiengandik urrun.

Baina nahita eragindako nahasmen horretatik harago joaten bagara, eta kontsumogai-erlazioei mistika kentzen badiegu, zer aitzakia daukagu beti bezala jarraitzen orain eta beti? Animalien esplotazioa inguru guztian daukagu,

eta, nahiz eta gutako gutxi gauden prest animaliei zuze-neko indarkeria eragiteko, gutako asko gaude prest indarkeria hori beste batzuek ezar dezaten. Lan zikinak beste norbait emateak ez du esan nahi zikinak ez direnik. Eta, azken finean, justizia eta berdintasuna serio hartzen baditugu, eta serio hartzen badugu gure arteko ahulenak zaintzeko konpromisoa, zerbait zor diegu gure artean ahotsik gabe sufritzen duten animaliei. Abolizio-bizitza bat bizitzea, edo animalien esplotazio zitalari uko egin eta sufrimenduz ekoizten dituzten produktuei uko egitea — haragia, esnekiak, arrautzak eta itsaskiak barne— proiektu sinple samarra da, funtsean. Errazagoa da geure baitan daramagun pertsona arrazista, klasista eta sexista borrokatzea baino, eta, justiziaren aldeko konpromisoa serio hartzen badugu, geure baitako pertsona espezista hori ere borrokatu beharko genuke. Geure premisen kontra joko ez badugu, ez dugu beste biderik.

III. JABETZA, INDARKERIA ETA ZAPALKUNTZAREN ERROAK

“Abeltzaintza elikadura-industria mekanizatua da orain; funtsean, gas-ganberen gorpuen manufakturaren eta sarras-ki-eremuen berdina da, tokiak eta herrialdeen suntsiketa bezalaxe, hidrogeno-ponpen fabrikazioa bezalaxe.”¹

Martin Heidegger

Aurreko kapituluan ikusi genuen bezala, kontsumogaiak funtsezko rola dauka gizarte kapitalistetako bizitza ekonomiko eta sozialean. Kapitalismoa, hain zuzen, ezinezkoa izango litzateke kontsumogai-formarik gabe, eta kontsumogaiaren alderdi ideologikoeak (kapitalarentzat behintzat) beharrezkoa den alienazio bat sortzen dute ekoizleen eta kontsumitzaileen artean. Alienazio horretan bizi gara gutako asko, bai pozik bizi ere. Alienazio horrek, halaber, ugaltzeko bidea ematen die esplotazio-forma askori, ez ikusiarena egin baitiezaiokegu produkzioak berez dakartzan gizarte-harremanetan gertatzen den esplotazioari.

Animaliak kontsumogaien ekoizpenaren zirkuitu honetan harrapatuta daude gaur egungo kapitalismoan. Gorputzak eraldatu egin zaizkie denbora eta inbertsio ahalik eta murriztenarekin ahalik eta gehien produzitzeko; kontsumogai bilakatzeko prozesu horrek arrasto fisiko sakonak uzten dizkie, eta etxeko animaliak erabat eraldatu ditu. Animaliak ez dira kontsumogaiak eta jabetza bakarrik, baizik eta baita kontsumogai gehiagoren ekoizle ere, eta, zentzu batean, input “gordin” gisa edo negozioaren eskulan produktibo gisa funtzionatzen dute. Kontsumogai bizi superesplotatuak dira. Hartu txerriak adibide gisa, edo “txerriak”, industriak dioten bezala: txerrikumeak erosten dira, baliabideak gehitzen dira, eta bukaerako “produktua” hiltegiara bidaltzen da. Ekoizleak txerrikumearen eta baliabideen truke gutxiago ordaindu badu hiltegirako orduan hartu duen prezioa baino, orduan animaliak etekina ateratzeko balio izan du. Era berean, behiak erosten dira, baliabideak gehitzen zaizkie,

eta esnea ekoizten dute; esnea garestia goa bada behiak eta tarteko baliabideak baino, “ekoizleak” (kasu honetan, baliabide guztiak erosteko gauza den pertsonak) dirua egiten du. Animaliak etekinaren helbururako bitartekoak baino ez dira gaur egungo ekoizpen kapitalistan. Hain berezitasunak, haien ez sufritzeko interesak, haien aske izateko eta munduan izaki gisa bizitzeko desirak, denak azpiratu egiten dira —*en masse*— abeltzaintza-kapitalaren produkzio-helburuen mesedetan.

Kontsumogai gisa, gainera, animaliak jabeen menpekoak dira. Jendearen edo lege-entitateen “jabetzakoak” dira, hala nola korporazioenak, beste edozein gauzaki bezala. Abeltzainak behiak saleros ditzake; bibisekzioan, minbizi mota jakin batzuk izateko joera duten saguak erosten dituzte; eta zuk eta nik arraza puruko txakurrak eta katuak eros ditzakegu, nahi izanez gero. Gutako askorentzat, eguneroko kontua dirudi horrek; hain ohituta gaude animaliak jabetza kontsideratzera, ezen gutxitan pentsatzen baitugu horrek zer-nolako ondorioak dituen animalien egoera legal eta sozial horrek. Esate baterako, maskota-jabe apetatsu bat banintz eta hau idatzi bitartean nire oinetan lo daukadan txakurraz nazkatuko banintz, saldu egin ahalko nuke, nik bidezkozat jotako edozein preziotan. Norbait 500 dolar pagatzeko prest balego, lege-z prezio horren truke saldu ahalko nuke². Era berean, albaitariarengana eraman ahalko nuke eta eutanasia egin, nahi izanez gero³. Edozein kasutan, nire jabetzako da, eta gutxi gorabehera libre naiz nahi bezala paretik kentzeko. Erabat nire mende dago.

Hau idazten ari naizela, 2007ko martxoan eta apirilean, animalia-lagunen jabetza-estatusaren inguruko eztabaida piztu da AEBetan, maskotentzako janari-marka ugari hornitzen zituen hornitzaile handi bat dela eta. Glutena eta beste zenbait osagai arratoientzako pozoiz eta plastikoan erabiltzen den produktu batez kutsatu dira. Ondorioz, txakur eta katu ugari hil dira Ipar Amerikan, horietako askorik giltzurrunak huts eginda⁴. Ekoizleak, Menu Foods konpainiak, animalien jabeak konpentsatzea onartu du, baina, animaliak legez nagusien jabetzakoak direnez, konpentsazio hori oso mugatua izango da ziur aski. Trantze honetan adiskide maitatu bat galdu duten gehienek, ziur aski, animaliak *balio* izandakoaren arabera mugatutako konpentsazioa jasoko dute, albiltariaren fakturak eta janari pozoitua ere kontuan izanda. Horren ondorioz, animalia-lagunen jabetza-estatusa aldatzeko eskeak izan dira, baina horietako bat ere ez da benetako ondoriorik izatera iritsi⁵.

Animalia-lagunak linbo antzeko batean daude animalia-
ren eta gizakiaren artean⁶. Gainerako animalien guztiz desberdinak diren rolak hartzen dituzte. Gutako askorentzat, animalia-lagunak familiaren parte dira, eta gehienek familiako kideztat hartzen dituzte katuak eta txakurrak, askorik pentsatu gabe. Horren erantzunetan, milioi ugari mugitzen dituen industria bat errota da Ipar Amerikan, maskotak familiako kideztat hartzen dituen. Gutako askok egunero-koa partekatzen dugu animaliekin, eta familiarizat jotzen ditugu, baina teknikoki eta legez gure jabetza besterik ez dira, gure jabetzako gainerako gauzen antzekoak.

Argitze aldera: ez naiz animalia-lagunak lehenesten dituen hierarkia baten alde egiten ari. Baina kasua aipatu dut, uste dudalako ondo ikusarazten duela noraino dauden lotuta animaliak eta jabetzaren kontzeptua gure legedian eta kulturaren. Animalia-lagunak berak ere —guztiok ezagunen ditugunak dira, eta askok ohea ere partekatzen dute haiekin— jabetza dira, giza nahi bat asetzeko bitartekari den edozein animalia bezala. Legedi gehienetan, zure txakurra iPod edo autoa bezalakoa da, edo beste edozein gauza material bezalakoa. Zure gauza materialekin nahi duzuna egin dezakezu, eta, nahiz eta krudeltasunaren kontrako legeak dauden animaliak babesteko, animaliek jasotzen duten lege-babes gehienak ideia bat dute erdigune, hots, ondasun horren jabe gisa gure jabetzakoa dena ondo tratatzeko interesa dugula⁷. Nire iPodaren eta eta txakurrak arteko diferentziarik handiena, ordea, hauxe da: nire txakurra sentitzailea da. Kontzientzia subjektiboa du, nahiak eta beharra ditu, emozio-aldarteak, eta mina eta plazera sentitzeko gauza da, argi eta garbi.

Gure ondasun gisa, animaliak beren ekoizpenaren trukeko saririk jasotzen ez duten ekoizleak dira; animaliak trasteak dira. Animalien ondasun-estatusaren eta jabetzaren arteko harremana funtsezkoa da haiengandik etekina ateratzeko, dela zuzenean, animaliak berak salerosiz, dela zeharka, hain eskulanarekin beste kontsumogai batzuk ekoitziz. Jabetzaren kontzeptua, ordea, kontsumogaiaren kontzeptua bezain garrantzitsua da ekoizpen-kapitalismoan. Garrantzitsua da konturatzea kontzeptu horiekin elkarrekin lan egiten dutela etekina ateratzeko. Prozesu

horiek animaliangan duten eragina aztertu aurretik, mezezi du kontsideratzea zer den jabetza benetan, eta nola funtzionatzen duen kapitalarekiko harremanetan. Horren ondoren, kapituluaren zehar gure animalien gaineko menderakuntzaren erroak aztertuko ditut, horrek ematen baitigu bidea haien ondasun gisa hartzeko.

Jabetza lapurreta da

Aski ezaguna Pierre Joseph Proudhon anarkista frantse-saren esaldi hau (Ayn Randi heltzen dion objektibistaren nahigabetan): “jabetza lapurreta da”. Onartu behar da jabetza lapurreta izatea ideia bitxia dela; izan ere, zergatik da hala? Gutako gehienok daukagun gehiena ez al da erositia? Nolatan dira lapurtuak nire zapatak, berokia, nire iPodak?

Jabetzaz oso era pertsonalean pentsatu ohi dugu, geureak diren gauzen multzo gisa, baina Proudhonek eta beste pentsalari anarkista batzuek, tartean Kropotkin, oso bestela kritikatu dute jabetza pribatua. Pentsalariok, norbere gauza sinpleen jabetzaren kontra baino gehiago, langileen esplotazioaz kezkatuta daude, eta ugazabak beti produkzio-bideez jabe izateaz. Jabetza pribatua menderakuntza zabaltzeko tresna gisa ikusten zen, baina, are inportanteagoa da: Proudhonek eta bera bezala pentsatzen zuten beste batzuek jabetza horri lapurreta irizten zioten, hau da, kapitalistak langileari egindako lapurreta. Jabetza pribatuaren barruan aberastasun ezkutu eta kolektibo bat dago, produkzioan eta kontsumoan galdu egiten dena, eta

ekoizpen horrek berekin dakar, ezinbestean, langileak bere eskulanaren bidez balioa gehitzeko ekoizpen-prozesuari. Hori ulertzeko, lagungarri izan liteke bigarren kapituluan aipatutako iPodaren adibideari erreparatzea berriz.

Beste edozein produkturekin gertatzen den bezala, iPod baten ekoizpenean ere jende askok parte hartzen du. Ikusita ekoizpena nola antolatzen den, jende hori seguru asko munduan zehar barreiatuta dago, hasi Kaliforniako diseinu-zentroetan eta buka Txinako manufaktura-fabriketan, baita tarteko beste hainbat leku, seguru asko. iPodak ekoizteko, prozesuko pertsona bakoitzak, bere eskulanaren bidez, balio-motaren bat eranstean dio azken produktuari. Ordea, produkzio-prozesua martxan izateko, Applek iPodak egiten dituzten langileen eskulanetik irabazten duen baino diru gutxiago ordaindu behar die langileei. Horretan datza kapitalaren oinarrizko etekin-asmoa. Gehienok ulertzen dugu, badakigu eta onartzen dugu horixe dela gizarte baten nahiak eta beharrak asetzeko sistema baten antolaera bakarra, nahiz eta izatez ere beste askoren arteko bakarra izan (ordea, horixe da gaur egun gailendu dena). Hala eta guztiz ere, gauza gutxi batzuk kontuan izan behar dira ekoizpen-antolaera horri dagokionez. Lehenbizi, iPoden muntaketa-kateko langilerik gabe ez litzateke iPodik izango, eta, ondorioz, ezta Applearentzako etekinik ere. Muntaketa-lerroko langileak Applearentzako balioa ekoizten ari dira, baina, luzera, balio horren ehuneko txiki bat baino ez dute ikusten; gainerakoa Applek hartzen du. Are gehiago: ekoizpena garapen-bidean diren herrialdeetara eramanda, Applek langileei are gutxiago ordain diezaieke,

Mendebaldean ordaindu beharko liekeenaren aldean. Apple langileetan bermatzen da, noski, iPodak ekoizteko — eta, halatan, balioa—, eta, iPodak ekoizteko eskulanaz baliatuta, gastatzen duten baino balio handiagoa irabazten dute. Produkzio-gastuaren eta salmenta-prezioaren aldea langileen eskulanaren bidez baino ezin da sortu. Halatan, eskulanak ekoizten duen balioaren parte bat ez da saririk jasotzen ari, baizik eta ekoizpenaren jabe den enpresak edo inbertitzaileak erreklamatzeko du. Gure gizartean, inbertsioari emandako saria kontsideratzen da hori. Ordea, beste ikuspuntu batetik erreparatuta, Proudhonen ideia gero eta argiago dago: langileak bueltan jasotzen ari ez diren balio bat ekoizten ari dira. Balio hori ekoizpen-bideen jabeak jasotzen du, baina ez da berak zuzenean ekoitzia, langileen eskulanaz baliatuta lortua baizik. Balioa, langileen ondasun kolektiboa izan beharrean, inbertitzailearen ondasun pribatu bilakatzen da, eta prozesu horrek guztiak apropiazio hutsa dirudi; edo, sinpleago esanda, lapurreta.

Proudhonek pentsatzen zuen jabetzaren harreman honek (besteak beste) gizartea oro har pobretu egiten zuela. Miseria ziklikoa betikotzen zuen, zeinaren arabera langileek produzitu bai, produzitzen zuten, baina ez zuten beren lanaren emaitza osoa jasotzen, beste norbaitentzat lan gogorrago egitera behartuta bere beharrak asetzeko. Hain justu, langile askorentzat, beren laneko produktuak erostea ere ezinezkoa da, edo zaila; iPodaren adibidera itzulita, muntaketa-katean lan egiten duen batez besteko langile txinatarrak seguru asko ezin du pagatu ekoizten ari den iPodak.

Ogiaren konkista lanean, Piotr Kropotkin anarkista erusiarrak pasio eta argitasun handiz idatzi zuen usurpazio handi horri buruz, zeina, haren iritzian, gizateria osoari egin zitzaion. “Zer eskubide du inork osotasun handi honen ahamenik txikiena ere apropiatu eta ‘nirea da, ez zurea’ esateko?”⁸, galdetu zuen Kropotkinek. Inguruan zuen munduari begira, Kropotkinek humanitate osoaren esfortzua ikusi zuen, eginahal indibidual zein kolektiboz urtez urte garatutako ondasun bat, gutxiengo batek hartua, gutxiengo baten interesetan, eta langileei bueltan ezer gutxi emanda. Guztion ongizatea ziurtatzen duen aurrerabide zientifiko eta arrazionalaren ordeztu, lana alferrik galtzen ari zen, bere probetxu guztia atera gabe, eta jabetza-klasearen interesen menpean jarrita, beren etekin propiorako. Kropotkin bere garaiaren emaitza zen, argi eta garbi —*Ogiaren konkista* 1913an atera zen—, eta baikorregi begiratzen zion ekoizpen-bide arrazionalak eta zientziak izan zezaketen eraginari, guztientzako ongizaterako aukera emango zutelakoan, baina, hala eta guztiz ere, haren ideia nagusiak oihartzuna dauka gaur egun ere, eta Proudhonek esanekin bat dator guztiz; hots, eskulanak balioa ekoizten duela, baina balio horren parte txiki bat baino ez duela jasotzen epe luzean.

Jakina da Kropotkin eta Proudhon ez zirela horretaz konturatu ziren bakarrak. Marxek eta Engelsek ere antzeko iruzkinak egin zituen Kropotkinen baino lehen, eta burgesiaren jabetza pribatua zorrotz kritikatu zuten *Manifestu Komunista*-n. Pentsalari horietako bakoitzak soluzio desberdinak zituen: Proudhonek ekoizpen-sistema mutualista

eta diru-mota batean oinarritutako sistema bat birsortu nahi nahi zuen (kritika amaigabeak egin dizkiote anarkistek eta marxistek); Kropotkinen komunismo anarkista baterako deiarekin erantzun zien komunismoaren aldeko Marxen eta Engelsen deiari. Proposamen horien azpian “espropiazio” nahi bat dago, hau da, jabetza birkomunalizatzeko desira bat, halako moduz non ekoizpena komunitatearen beharretan sustraitzen den. Kropotkinen zera dio:

Hauxe besterik ez dugu nahi: gauzak antolatu halako moduz non mundura jaiotako edozein gizakiri aukera emango zaion, lehenik eta behin, lanbide erabilgarriren bat ikasteko, eta horretan trebatzeko; gero, aske izango da bere lanean aritzeko nagusien edo jabearen baimenik eskatu gabe, uga-zabari edo kapitalistari eman gabe ekoizten duenaren parte lapurtu hori... Iristen denean eguna zeinetan langileak lurra landu dezakeenean ekoizten duenaren erdia beste inori pagatu gabe; zeinetan lurra uzta oparotarako prestatzeko makinak ereileek doan eskuratzeko moduan dauden; zeinetan fabrikako langileak komunitatearentzat ekoizten duen eta ez monopolistarentzat; bada, egun hori iristen denean, langileak jantzita eta elikatuta egongo dira, eta ez da izango gehiago rothschildarrik edo beste esplotatzailerik.

Inork ez du bere eskulana saldu beharko ekoizten duenaren parte txiki bat baino balio ez duen soldata baten truke⁹.

Espropiazioak konpondu egingo luke gutxiengoak gehiengoari jabetza pribatuaren bidez ezarritako menderakuntza. Eta garrantzitsua da azaltzea: horretan ulertzen da

zergatik den jabetza lapurreta-mota bat. Zuk eta nik gure ondasun pertsonalak gehienbat modu ez-produktiboan erabiltzen ditugunez¹⁰, zaila izan liteke ulertzea nola erabiltzen den jabetza pribatua esplotaziorako, baina pentsa, momentu batez, nola erabiltzen duen Applek bere jabetza pribatua produktu berriak ekoizteko, hala nola iPodak. Jabetza pribaturik gabe, ez luke jendea soldata truke lanera behartzeko gaitasunik izango; jabetza pribaturik gabe, ez luke dirudik izango inbertsiorako; jabetza pribatua metatzeko gaitasunik gabe, Applek ez luke modurik izango lan horrek ekoiztutako balioa gorde eta gero balio gehiago produzitzeko erabiltzeko. Espropiazioak, Kropotkinen iritzian, borroka egingo lioke enpresa baten, norbanako baten edo familia baten produkzioa kontrolatzeko gaitasunari. Produkzio-bideen jabe direnen jabetza pribatua — Marxek eta Engelsek “jabetza pribatu burgesa” deritzotena — kapitalismoaren erdigune bat da. Are gehiago, haien jabetza pribatua langileek sortutako balioaren adierazten bat da, metatua, eta ez langileei itzulia. Langileek osotasun kolektibo eta sozial gisa ekoiztutako balio horri guztia bere eraikuntzarako erabili beharrean, balio horren zati handi bat ekoizpen-bideen jabeak metatzeko du. Hori esan nahi du Proudhonek lapurretaz ari denean.

Jabetza eta animaliak

Desbideratze bat egin dugu azaltzeko nolatan jabetza lapurreta den, eta zer pentsatzen zuten Kropotkinen eta gure

kolektibitatea berreskuratzeaz; bada, orain, hori guztia animalien auzira ekarri behar dugu, azaltzeko nola haien jabetza-estatusak esplotaziora daraman ezinbestean.

Lehen esan dudan bezala, animaliek bestelako estatus bat dute esklaboak ez diren giza langileen aldean, animaliak jabeen ondasunak baitira, zuzen-zuzenean. Giza langileak soldata jasotzen du; produkzioan harrapatuta dagoen animaliak ezin du inolako soldata-motarik jaso, bizigaiak salbu; ondasun bat da, eta ekoizpen-makineriako beste edozein parte balitz bezala tratatua. Animaliak makina zentzumendunak bilakatzen dira, biziak, kontsumogaien ekoizpenerako erabilgarriak, eta, horrenbestez, etekina ekoizteko. Produkzio-sistema oso baten parte dira, non jabetza pribatua ekoizpenerako erabiltzen den; beste input bat, besterik ez, gizakiei ondasunak eta ekoizleei etekinak bideratzeko diseinatutako prozesu konplexuan.

Sistema oso hori —orain dagoenean behintzat— ezin-go litzateke existitu jabetza pribaturik gabe. Gaur egungo abeltzaintza-ekoizpenari begiratuta, jabetza pribatua animaliak esplotatzeko erabiltzen da, gutxi-asko jabetza pribatua giza eskulana esplotatzeko erabiltzen den bezalaxe. Animaliak, ordea, langile-klaseko gizaki gehienek baino okerrago daude. Eguna bukatzen denean ezin dira etxera erretiratu, eta sekula ez dute ekoizpenean aritzen direneko lekua uzten. Jabeen ondasun besterik ez direnez, animaliak giza ekoizpenaren esklabo dira; halatan, jabetza pribatua jabetza pribatu gehiago sortzeko erabiltzen da.

Soldata-ekoizpenaren sistemapeko gizaki gehienek kasuan, ekoizten dutenaren ehuneko bat ekoizpen-bideen

jabeak hartzen du, eta horrek dakar Proudhonen ideia, jabetza lapurreta izateari buruzkoa. Animaliekin, ordea, haien ekoizpen *osoa* ugazabaren beharretara bideratua dago, etekin ahalik eta handiena helburu dela. Prozesu honen parte diren animalien indibidualtasuna, sentimena eta behar biologikoak guztiz eta erabat azpiratuta daude ekoizpenaren eta etekinen izenean.

Modu askotan, kapitalaren prozesuak animalien gorputzetan bertan irarrita daude. *Broiler* motako oiloak, zeinek lau hilabete baino ez baitituzte izaten hiltzen dituztenean, azkar hazi eta gizentzeko eraldatu dira, ekoizleak etekina azkarrago lortze aldera. Horrek arazo ugari dakarzkie oiloi: hezurdurako nahasmenduak, bat-bateko bihotzekoak, eta, askotan, baita zutik egon ezina ere, gorputzaren desoreka dela eta. Era berean, indioilarrak basabizitzan baino askoz ere azkarrago hazteko eraldatu dira, baita gorputzean haragi “zuri” gehiago izateko ere, horixe nahi baitute kontsumitzaileek. Patroi horiexek errepikatzen dira gizakientzako etxekotutako animalien espektro osoan: animalien gorputzak eraldatu egin dira ekoizpenaren eta etekinen beharretara egokitzeke, askorik kezkatu gabe noraino diren bideragarriak animalia horien ekoizlearentzako etekina ekoitzi eta gero¹¹.

Abeltzaintza ikasten ari nintzela, ikasi nuen mundu horretan lehia latza zegoela, eta bizirik irauteko beharrezkoa zela “handitzea edo alde egitea”, ekoizpenerako teknologiarik berrienak eskuratzea, eta gastuak inputetan ugaritzea. Esate baterako, ahalik eta mantenu-gairik merkeenak erabiltzeko aholkatzen ziguten, bukaerarako diferentzia egingo

zutelakoan. Kostuak murriztu nahi horrek, kontuan izanda industria horretan marjina estuak daudela, gehienoi ikaragarriak irudituko litzaizkigukeen praktika batzuk ekarri ditu. Esate baterako: behi eroen gaixotasuna zeragatik sortu zen, behiei —belarjale hausnarkari batzuei, alegia— beste behi eta animalien erraiak janarazi zizkietela, bizkarrezur-muina eta burmuin-ehuna barne, proteina hutsaren iturri gisa¹². Behiak kanibal bilakatu zituzten, behien bizkarrezur-muina eta hiltegiatako bestelako soberakinak jangai merkeak zirelako. Ekoizleei ez zitzaion bururatu behiei behiak janaraztea arazotsua izango zela ezinbestean; beste proteina-iturri bat baino ez zen, azken finean. Badira beste adibide batzuk ere, zeinetan ikerlariek animaliak kanibal bilakatzeko lan egin duten, animaliei beren espezieko soberakinak janarazita. North Carolina State unibertsitateko ikaslariek Valkerese izeneko entzima bat garatu eta kaleratu dute, zeinak lumetako keratina puskatzen duen¹³. Horren erabileretako bat zera da, hilketatik soberan geratutako lumak atzera janaraztea oiloei. Mantenugaiak merkatuta, ekoizleak animalia haztearen kostuak murriztz ditzake, eta, animalia bizirik dagoen eta produzitzeko gauza den bitartean, ahalik eta zekenena izateak zentzua dauka ekonomia-aren aldetik. Beste era batera jokatzeko kapitala alferrik galtzea da, eta arriskutsua inbertitzailearentzat.

Beste edozein kontsumogairen ekoizpenarekin gertatzen den bezala, animalia-jatorriko kontsumogaiak ekoiztea honetan datza, ekoizpenean ahalik eta gutxien inbertituz ahalik eta garestien saltzean. Logika ekonomiko agerikoa da hori, baina haren barruan esplotazio-logika

bat ezkututzen da, oharkabea. Lehen esan dudan bezala, kapitala sortzeko erabilitako jabetza pribatuak bere barruan metatzen du balio hori lapurtu zaien langileen esplotazioa. Esplotazioan oinarritutako ordena sozial baten adierazpen gisa, indartsuak ahula menderatzen dueneko printzipioaren arabera eraikia dago jabetza pribatua. Giza eskulanari dagokionez, argi ikusten da hori batzuek beren lana besterik ez dutelako saltzeko. Gainera, jabetza pribatua metatzeak kapitalistari ordena sozial hori betiketzeko modua ematen dio. Langileak bizitzeko lain baino zertxobait gehiago irabaz badezake ere, lanean segitu beharko du. Hori kontuan izanda, jabetza pribatuak laguntzen du, halaber, sortu deneko ordena soziala betiketzen.

Animaliak gizakien helburuetarako ekoizten dituen jabetza pribatuak ere ezaugarri horiek ditu, eta orobat laguntzen du menderakuntza zabaltzen. Animaliek kontsumogaiak ekoizteko edo kontsumogai izateko lan egiten dute, eta gizakien jabetza soil gisa egiten dute hori. Eskuarki, hitz onberak erabiltzen ditugu horri erreferentzia egiteko; “-zaintza” egiten dugula diogu, haien “ongizatea” zainduko bagenu bezala, baina, gizakien eta animalien arteko harremanaren ideia bukoliko eta eroso horien azpian, esplotazio-sistema bat dago, zeinak balioa ematen baitio ekoizleari bien bitartean animaliarri erabat bizitzeko eskubidea ukatuz. Giza eskulanean parte hartzen duen jabetza pribatua gizakien esplotazioaren adierazpen den bezala, animalien ekoizpenean parte hartzen duen jabetza pribatua animaliek denboretan sufritutako esplotazio sistematikoaren adierazpena da. Ideia hori garatuz, jabetza bera,

kapitalaren inbertsio ziklikoan oinarritzen dena, animalien sufrimenduaren metaketa-formatzat har daiteke. Kapitala animaliak esplotatzeko erabiltzeak kapital gehiago sortzea du helburu, eta hori bestalde, esplotazio gehiago egiteko inbertitzen da. Giza eskulanaren inbertsio-zikloak gizakien miseria betikotzen du, langileak beren eskulana saltzera behartuz, eta, halaxe, animalien ekoizpenak animalien miseria betikotzen du animaliei gizakientzat ekoitzaraziz, egunean 24 orduz, astean 7 egunez, haien bizi osoan, ikaragarritzko gabeziekin. Ekoizlearen jabetza pribatu metatua, orduan, animalien odolarekin zikintzen da, ekoitzi eta hiltzera behartuta baitaude giza nahien araberako etekin-gosean. Animaliarene subjektibitatea, animaliak mina eta sufrimendu handia pairatzea, joera natural gehienek ukazioa, horiek denak bigarren mailakoak bilakatzen dira, animalien eskulana eta gorputzak etekinerako erabiltze horretan. Jabetza pribatuak betikotzen du hori, eta gehiago irabazteko desirak behar-beharrezkoa du.

Kontsumogai bilakatzearekin batera, jabetza pribatuak ezartzen dituen harremanak beharrik gabeko indarkeria eta sufrimendua ezartzen dizkiete animaliei, dena etekinaren eta guk animalia-jatorriko produktuak dastatzearen izenean. Animaliak jabetza gisa hartzea ez da garrantzi txikikoa, kontuan izanik norainoko esplotazioa pairatzen duten animalien gure gizarte- eta ekonomia-egituretan. Animaliak jabetza gisa kategorizatzeak baliabide gisa esplotatzeko modua ematen digu, baita huskerietarako ere. Jabe garen neurrian, gure nahiak beti gailenduko zaizkio gure jabetzako zerbaiten interesei, eta nahi bezala joka

dezakegu animaliekin, batez ere ongizate-legeek oso babes txikia ematen dietelako animaliei, eta etxaldeko animaliak kanpoan geratzen baitira oro har¹⁴.

“Gizakien interesak lehenesten ditugu animalien interesen aurretik baita giza interesa hutsala eta animaliena oinarritzkoa denean ere, literalki hil ala bizikoa, alegia. Benetako hautua, ordea, honako hau da: edo jabearen interesak, edo ondasun baten interesak. ‘Interes-gatazka’ horren emaitza alde aurretik ezarria dago”¹⁵.

Jabetza-harreman hori ekonomian barneratua dago, gizartean, legedian. Lehengo adibidera itzulita, Emmy nire txakurrari buruzkora, legeak bidea ematen dit eskusibotasunez haren jabe izateko. Jabetza hori erabil dezaket harekin ia-ia nahi dudana egiteko, baita harengandik etekina atera, saldu, mailegu baten berme gisa erabili, edo niretzat lan egin dezan behartu¹⁶. Nik nahi izatera, zientziari eman niezaioke, edo esperimentu-laboretegi bati saldu. Legearen azpian, jarduera horietako edozein erabat legala da, eta erabateko eskubidea daukat, animalia honen jabe naizenez gero. Jabetzaren araberako harremana, animaliei aplikatuta, menderakuntza bortitzean oinarritua dago, giza apeten menpean uzten baititu.

Indarkeria

Endgame liburuan, Derrick Jensenek argudiatzen du egungo zibilizazio industrialaren berez dagoela indarkerian oinarritua. Indarkeria behar du funtzionatzeko, eta, indarkeriarik gabe, azkar eraitsiko litzateke. Zibilizazioak indarkeriaz hartzen du jendea, lurra, gizakiz bestekoak; hots, aurrean paratzen zaion guztia. Jensenen esanetan, “heriotza-presa” baten mende bizi gara, “eta bizitza suntsitzea” dugu desira, “okupazioaren kultura bat” egitea. Are gehiago, akulturizatu egiten gaituzte “bizitza gorrotatzeko, mundu naturala gorrotatzeko, basatia dena gorrotatzeko, basanimaliak gorrotatzeko, gure emozioak gorrotatu eta haien beldur izateko, geure buruak gorrotatzeko”.

Jensenek egiten duen erretratuan, giza zibilizazioa salbatu ezinezkoa da, bortitza, eta harrapatzailea. Kapitalismoak exijitzen duen hazkunde etengabeak sakondu egin du hori, etekin bila mundu naturala suntsitzen duen prozesuaren gidari, bidean harrapatzen dituen gizaki eta gizakiz besteko animalia guztien hiltzaile. Jensenen analisisa hogeii premisatan oinarritzen da, zeinak liburuaren hasieran zerrendatzen baitira. Premisa horien arteko bat garrantzitsua da oso:

Hierarkian gorago daudenen jabetza baliotsuagoa da beherago bizi direnen bizitza baino. Goikoei onartzen zaie kontrolatzen duten jabetza areagotzea —sinpleki esanda, diru gehiago irabaztea— azpikoen bizitzak harrapatuz eta suntsituz. Horri *ekoizpena* esaten zaio. (p. ix).

Jensenen ideia interesgarria da, ez baititu ekoizpena eta jabetza gai neutraltzat jotzen. Ideia horiek indarkerian oinarritutako eta bermatutako sistema baten barruan ezartzen ditu, eta, hala, Jensenek zibilizazio industrialaren ezaugarriarik nabarmenenetako batera zuzentzen du arreta: hots, etekinaren izenean edozer egiteko prest gaudela. Mundu naturala suntsituko dugu atzerabiderik ez duen puntu bateraino; jendeari guretzat lan eginaraziko diogu; animaliak milaka milioika hil eta kontsumituko ditugu. Jensenen pentsamolde anarko-primitibistak dakartzan arazo eta ahulguneak gorabehera —besteak beste, zibilizazioaren eraiste hain desiratu horrek heriotza ekarriko liokeela jende errugabe mordo bati—, zibilizazioaz egiten duen analisia, zeinaren arabera indar bortitza baita, helmen handikoa da (nahiz eta ez nagoen ados haren zenbait ondorioarekin).

Animaliak, beste talde zapalduak bezala, indarkeriazko dinamika horietan harrapatuta daude. Gizakien eta gizakiz bestekoen esplotazioa gure gizartean eta ekonomian lotua dago. Munduaren eguneroko martxan, animaliak giza nahien mende daude, baita nahi erabat hutsalak izanik ere. Sistemak indarkeriaz hartzen ditu hiltegiatako, etxaldeetako eta laborategietako animaliak, baina ez horiek bakarrik; *sistema bera* dago egituratua halako moduz non animalia izate hutsa desberdinkeriaaren sinonimo baita, beti indarkeriaaren edo esplotazioaren mehatxupean. Kontu praktikoa eta legal gisa, animalien interesak predeterminatuta daude legez, ekonomikoki eta sozialki balio txikiagoa izateko —gure instituzioen eguneroko ogia da hori—. Gutako

gehiendon kasuan, menderakuntza-baldintza horiek berpizten eta berresten ditugu animalia-jatorriko produktu bat kontsumitzen dugun bakoitzean. Nahiz eta gutako gutxik parte hartu *zuzenean* animaliak esplotatzen, gure ordeztze egin dezaten uzten dugu, animalien sufrimendutik eta esplotaziotik eratorritako produktuak eskatzen eta erosten jarraitzen baitugu. Animaliak jabetza pribatu eta guretzako produkzio-bide bilakatuta, egiturazko desberdinkeria horretaz baliatzen gara gure onurarako, animaliak zuzeneko eta zeharkako indarkeria-formen esku utzita.

Usterik zabalduena da indarkeria pertsonen arteko kontua dela, baina nik ideia hori urrutirago eraman nahi dut, aztertze aldera nola dagoen egituratuta gure gizartea pribilegio-forma jakin batzuen arabera, gutxiengo batzuen mesedetan eta gehiengo batzuen kaltetan. Azterketa zaila da, gizarte-auzi guztiak kontu indibidualak balira bezala aztertzea ohitu baikara; gutxi asko, iruditzen zaigu pertsona baten bizi-zirkunstantziak bere hautuen fruitu direla, nahiz eta, hain zuzen, jaiotzaren arabera izan horietako asko. Halere, merezi du adibide batzuk kontsideratzea, indarkeriaren izaera bera ulertze aldera. Aurpegi ukabilkatzen badizut, adibidez, nahiko ziurra da nik zuri eraso egin dizudala, nahiz eta argudia dezakedan zu jotzeak mesede egiten didala niri. Era berean, irakiarra bazara, eta AEBen bomba bat erori bazaizu etxe gainera, argi dago indarkeriaren helburu izan zarela. Baina zer gertatzen da bizi zaren gizarteko eguneroko prozesuek kalte egiten badizute? Zer gertatzen da munduan goseak bizi diren 900 milioietako bat bazara, edo ez badakizu nondik etorriko

zaizun hurrengo otordua? Zer gertatzen da ez badaukazu janaririk erosteko adina dirurik, edo janaria hazteko lurrik alokatzeko? Kasu horietan, betiko joera da indibidualizatzea, eta biktimari egoztea errua: pobreak pobre dira, noski, alferrak direlako; otordu ziurrik gabekoak hobeto lirateke ekintzaileagoak balira; garapen-bidean diren herrietako biztanleek “agintari ustelak” bota beharko lituzkete, eta orduan ikusiko lukete benetako aurrerabiderik. Aurpegiari ukabilkada jaso duen pertsonari ez bezala, horiei askok esango liekete ez direla indarkeriaren biktimak.

Baina auziak bertan dirau: zenbat egin dezakete gogotuek beren baldintzak aldatzeko baldin eta haien baino askoz handiagoak diren prozesu batzuek ez badiete uzten janarirako sarbiderik ere? Moneta devaluatu bada eta orain hutsaren hurrengoa balio badu, bizi diren tokian ez badago apenas aukera ekonomikorik, edo arraza- edo klase-injustiziaren biktima badira, orduan norbanakoak ez du bere egoera aldatzen asmatzerik. Ez atzera ez aurrera daude egoera horretan, zeinak desberdinkeria sortzen baitie, eta desberdinkeria horrek sekulako kaltea ekar diezaike, baita heriotza ere.

Jendeak pairatzen dituen ondorio kaltegarriak, modu askotan, egungo ordena ekonomiko bidegabearen betikotzearen zuzeneko ondorioa dira. Errua biktimari egozteari utzi eta horren partez biktimak sufritu behar duen guztia erreparatzen badiogu, askoz ere hobeto ikusten dugu egoera. Esan ordez hego hemisferioko herrialdeak gobernuen ustelkeriagatik, alferkeriagatik edo Washingtonen asmatutako azken aitzakiagatik direla gose, ikusi behar dugu gosea

pasatzen dutela merkataritza askeko politikengatik —ipar hemisferioak ezarriak, bere etekin propiorako—, eta horiek ikaragarri murriztu dutela ekoizpen lokala AEBetako edo Kanadako diru-laguntzak dituzten uzta merkeagoekin, eta horrek merkatu lokalak porrokatu dituela, eta laborantza-lurretarako sarbidea zaildu. Horren guztiaren azpian egitura instituzional bat agertzen da, zeina Nazioarteko Diru Funtsak, Munduko Bankuak eta ordena hori posible egiten duten bestelako nazioarteko gobernu-erakundeek sortu baitzuten, guztiak ere AEBetako botere militarrean bermatuak, zeinaren leloa hau ere izan zitekeen: “Mundua kapitalismoarentzako seguru bilakatzea”.

Nahiz eta ez den zaila indarkeria pertsonen arteko maila batean ikustea eta kontsideratzea, orobat ulertu behar dugu nolako indarkeria dakarren hierarkia ekonomiko eta sozialen mantentzeak eta eraikuntzak, hala nola aurreko adibideetakoek. Indarkeria “sozial” edo “egiturazko” horren kontzeptuak desberdinkeriaz eta indarkeriaz gogoe-ta eginarazten digu kontuan harturik gizarteko prozesu ekonomiko eta sozialen parte direla. Kontzeptuok modu erabilgarriak eta proaktiboak ematen dizkigute gizarteko desberdinkeria iraunkorra ulertzeko, eta, hala, irauli egiten dute gizartea bidezkoa delako ideia. Horren ordez, pentsarazten digute ordena sozialak esplotaziozkoak izan litezkeela, eta kaltegarriak beren eguneroko martxan.

Egiturazko indarkeriak adierazten du nola ordena ekonomikoa norbanako batzuen kontra ezarria egon daitekeen hasiera-hasieratik; halaber, mundua “jokaleku parekidea” delako uste zabaldua akastuna dela erakusten

digu. Ekonomia ipar hemisferioaren mesedetan egituratuta dagoen bezala —etekina sortzeko eta botere politikoari eusteko—, berdin dago egituratua animalien esplotazioari eusteko eta zabaltzeko. Giza nahien zorigaitzoko biktima gisa, kontsumogai bilakatzearen eta esplotazioaren zikloetan harrapatuta baitaude, animaliak gure mende daude erabat. Nahiz eta egiturazko indarkeriaren kontzeptua jendetaldede zapalduen bakarrak aplikatu zaien arren, ideia horiek espezieen arteko desberdinkeria eta hierarkia azaltzeko ere balio dute, eta animaliek gizartean sufritzen duten zapalkuntza etengabea zerbait azaltzeko.

Espezismoari buruzko eztabaidan, David Nibertek adierazten du teoriarari gehienek —baita Peter Singerrek¹⁷ ere, animalien eskubideen aldeko mugimenduaren “aita” delakoak— oinarrizko akats bat egin dutela: Nibertek dioenez, espezismoaren ideia indibidualizatzen dugunean eta norbanakoen aurreiritzitzat jotzen dugunean, ez gara konturatzen zenbat logika sozial, ekonomiko eta legal mar txan jartzen direla animalien esplotazioa askoz ere maila sakonago batean berresteko ordena sozialaren barruan. Niberten analisiak azalera dakar ideia bat: gizarteak indarkeriaz hartzen ditu animaliak espezie-menderakuntzan pribilegioa ezarri duelako hala maila ekonomikoan nola ideologikoan. Espezismoaren ideia indibidualizatuak, halere, ez du harrapatzen animalien kontrako indarkeria-forma sakonago eta instituzionalizatu hori. Interesgarria da nola akats berbera egiten dugun arrazakeriarekin: iruditzen zaigu ezen, pertsonen arteko arrazakeria oro eteten badugu —irain arrazistak edo desberdinkeriazko

trataera— arrazakeria erabat suntsituko dugula. Pertsonen arteko jarrera arrazistak etetea baliotsua litzatekeen arren, ez dio eragiten arrazakeriaren alderdi instituzionalari, zeina AEBetako ekonomiari lotua baitago eta ondorio ugari eta desberdinak baititu, mailegu-baldintza desberdinetatik hasi eta zuriak ez diren haurren heriotza-tasa handiagoetara. Arrazakeria bezalatsu, espezismoa ere gure gizartearen logikan bertan josia dago: animaliak “inozoak” edo “zaporetzuak” izan litezkeelako ideietatik hasi, eta animaliak ondasun bilakatzen dituzten legeetaraino. Logika horiek babestuta daude ez bakarrik animalia-jatorriko produktuak kontsumitzeko dugun nahiaren izenean, baizik eta baita jabeen etekina bermatzeko ere. Gogoratu Jensenek zer zioen: “Onargarria da goian daudenak kontrolpean duten jabetza handitzea —hitz gutxitan esanda, dirua egitea— azpian daudenen bizitzak suntsituz eta erabiliz”. Arrazoi handiz, Nibertek dio dinamika horiek egituratik eta historikoki aztertu behar direla behar bezala ulertu ahal izateko.

Estatu kapitalistak bermatzen eta babesten ditu metaketaren logika horiek, aberastasunaren interesak babesteko interesarekin. Horri erantsiz gero ideologiaren mekanismoak, zeinek pentsarazten baitigute “gu baino gutxiago” direla, edo “ergelak”, edo “guk kontsumitzeko” daudela, bada, betikotu egiten dituzte animaliek sufritzen dituzten egiturazko desberdinkeria bortitzaren zikloak. Posizio horretan, indarkeria pairarazten zaie “gizakiz bestekoak” direlako, eta —sinpleki esateko— gogoak ematen digulako. Animaliak desberdinkeriazko posizio batean daude ordena sozialean, eta egiturazko indarkeria sufritzen dute, ordena

soziala haien interesen kontra ezarria dagoenez gero. Hori gertatzen dira animaliak “beste” kontsideratzen ditugulako, eta animalien kontrako esplotazioa eta indarkeria instituzionalizatzeko makineria sozial eta ekonomiko bat eraiki dugulako. Indarkeria eta esplotazio horiek etekinaren metaketari eta jabetza pribatuen areagotzeari lotuta daudenez, estatu kapitalista erabat interesatuta dago egoera horri eusten, eta borrokatu egiten ditu haren kontrako mehatxu guztiak.

Estatu kapitalistak aktiboki ekiten du jabeen alde, eta animaliak jabetzan erabiltzen dituztenek beren ondasunen ahalik eta erregulaziorik txikiena nahi dute. Itzuliko naiz sakonago ideia horretara, egungo animalien aldeko mugimenduaren taktikak aipatzen ditudanean, baina interesgarria da nola animalia-esplotazioaren industrietan zenbait lege bultzatu dituzten AEBetan, beren ekintzen kontrako mugimenduak mugatzeko. Badira AEBetan bi lege bereziki, Animal Enterprises Protection Act (AEPA) eta Animal Enterprises Terrorism Act (AETA), oso adierazgarriak ikusteko nola babesten dituen estatu kapitalistak animalia-jabetza bidegabeki esplotatzen duten jabeen interesak. Lagungarriak dira, halaber, ulertzeko nola instituzionalizatzen diren esplotazio-dinamikak gizartean.

AEPA eta AETA hamar urte baino gehiagoko aldearekin onartu ziren. AEPA, 1992koa, animalia-industriak kalte ekonomikoetatik eta suntsipen fisikotik babesteko sortu zen, eta animalia-esplotazioan dabiltzanei kalte egiten dietenen kontrako zigorrak gogortzeko. Animal Enterprise Terrorism zigilupean, AEPA hainbat talderen

ekintzen kontrako zuzeneko erantzun bat izan zen, Animalien Askapenerako Frontea (ALF) eta Earth Liberation Font (ELF), kasurako. Halere, industria barruko batzuei ahulegia iruditu zitzaien AEPA.

National Animal Interest Alliance (NAIA) zen talde horietako bat. Haien webgunea sinestezina da. Txakurkumeen, katutxoen, untzien eta halako animalien irudiak dituzte, toki lasai eta zorionsuetan daudela; webguneko deskribapenaren arabera, NAIA “negozioen, abeltzaintzaren, zientziaren eta aisialdiaren esparruan ari da, animalien ongizatea eta animalien arrazoizko erabilera sustatzeko asmoz, eta gizakien eta animalien arteko loturak indartzeko”. Argazki horiek NAIAko kideek parte hartzen duten jarduerak erakutsi nahi dituzte. Zuzendaritzako kideei erreparatuz gero, badira larrugintzan, bibisekzioan, hazkuntzan eta animalien esplotazioan aritzen direnak, sarritan baita animaliak hilez ere. Modu bitxia da hori “gizakien eta animalien arteko loturak indartzeko”.

2000. urtean, NAIAko zuzendaritzako kide batek, Edward J. Walsh doktoreak, adierazi zuen AEPA oso motz geratzen zela¹⁸. AEPAREN sententziatzeko boterea kritikatu, Walshek argudiatu zuen mezu argiago bat eman zela, ez hain anbigua, legeen bitartez, argi uzteko animalia-enpresen kontrako terrorismoa lege-urraketa berezi bat dela, eta aparteko lege kontsiderazioa merezi duela, baita zigor gogorragoak ere. Nahiz eta Walshek animalia-enpresen kontrako terrorismoaz aritzean animalien esplotazioan ari diren pertsonen hilketa aipatzen duen arren (eta hori, argi eta garbi, ez da inoiz gertatu), haren irudiko,

“antzerkikeriak eta ekintza kriminal garrantzigeak” — hala nola aurpegira tartak botatzea — “terrorismo” izendatzea nahi du, baita estatuak erabat baztertzea ere, legean argi idatzitako zigor gogorren bidez.

Walshen logikaren arazoa zera da, ez dagoela ezkutuko aktibistak —hala nola Animalien Askapenerako Frontea— geraraziko dituen legerik. Will Potter kazetarian dioenez, ALFen ekintzetan parte hartzen dutenek badakite egiten dutena legez kanpoko delatza, eta erakusten dute ez direla geratuko, legea gorabehera¹⁹. Hala, oso zalantzakoa da ea legeak baduen zigortu nahi dituen urraketa motak geratzeko gaitasunik. Horren ordez, legea jabeen interesak babesteko modu bat bilakatzen da, areago kriminalizatzen baitu jada beste lege batzuek babesten dituen zenbait jarduera. Potterrek dio AEPA bezalako legeek, baita haren lehengusua indartsuagoak ere, 2006ko AETAk, izatez eragin handiagoa dutela “legezko, ageriko aktibisten” artean. Horren oihartzunak entzun daitezke Walshen AEPARI buruzko idazkian, zeinean esaten baitu “kultura bera setiopean” dagoela, “animalien eskubideetan oinarritutako terrorismoa delatza eta”. Esaten du ez zaiola axola animalien babesarekin kezkatutako “jende arrazoizko eta errukitsua”, baina beste batzuek birdefinitu egin nahi dutela “animalia bat zer den”, eta horietako askok “ekintza basatiak” egin dituztela “beren muturreko filosofiaren alde, zeinaren printzipio nagusia baita animalian guztien arteko berdintasun etikoa eta zeinak gizakien kontrako ezinikusia sustatzen baitu”. Walshek, komenentziaz, ez ditu bereizi animalien aldeko ekintza bortitzak egiten dituzten aktibistak eta aktibista

baketsuak, hein batean haien perspektiba filosofikoa partekatzen dutenak; animalien aldeko guztiak gizateria osoa gorroto duten “terroristak” kontsideratzen ditu, eta, hala, oso plurala den mugimendu bat erabat baztertzen du.

Nahiz eta Walshek “terrorista” hitza erabiltzen duen, interesgarria da 2001eko irailak 11 baino lehen idatzi zuela hori dena. Irailak 11koaren ondoko histeria masiboan, AEBek “terrorearen kontrako gerra” hasi zutenean, “terrorista” kategoriak askoz ere karga politiko handiagoa hartu zuen. Sentipen hori harrapatu zuen AEPAREN lehengusu indartsuak, 2006ko Animal Enterprises Terrorism Act legeak. Industria-taldeek eta korporazioek sustatu zuten, eta senatari errepublikano ultra-kontserbadore ugari babestu, hala nola Sam Brownback, James Inhofe, eta Rick Santorum. Azpimarratzekoa da liberalak ere izan zirela tartean; esaterako, Kaliforniako Diane Feinsteinek ere babestu zuen, bere estatuko animalia-ikerketaren kontrako mehatxuak zirela eta²⁰.

AETA, AEPA bezala, animalia-enpresen kontrako ekintzak “terrorismo” kontsideratzeko prestatua dago. Kezkagarria da, ordea, zer jo daitekeen terrorismotzat. Will Potterrek dioen bezala²¹, AETAk “animalia-enpresa baten eragiketetan eskua sartzea” ekintza terroristatzat jotzen du. Hori, gehi nahita kalteak egitea edo jabetzen galera, nahikoa da lege honen arabera auzipetzeko. Kaltearen definizioa, ordea, oso zabala da. Kalteen atalak oso zentzu zabalean hitz egiten du, baina zigorren atalak “kalte ekonomikoa” aipatzen du berariaz, eta zehazki aipatzen du etekinen galera, baita “mehatxuak, bandalismoa, jabetzaren

kontrako kalteak, nonbait indarrez sartzea, jazarpena edo intimidazioa”.

Arazoa, Potterrek dioenez, “etekinen galera” atala da:

Atal horrek, “etekinen galera” delakoak, barruan hartuko lituzke ez bakarrik jabetzaren kontrako krimenak, baizik eta baita beste jarduera batzuk, hala nola isilpeko ikerketa edo barneko informatzaileen jarduna. Desobedientzia zibil bakesuko kanpainak ere hartuko lituzke barruan, hala nola animaliekiko esperimentazio zalantzazkoa egiten duten laborategietarako sarbidea blokatzea. Horiek ez dira terrorismo-ekintzak, aktibismo hutsa baizik. Enpresak dirua irabazteko daude, eta, aktibistek enpresa-jardueraren bat aldatu nahi badute, jarduera hori ez-errentagarri bilakatu behar dute. Printzipio horren arabera jardun zuten eskubide zibilen aldeko aktibista ugari eta apartheidaren kontrako kanpaina ugari. Taktika horiek etekinei kalte egin zieten. Eta, lege honen arabera, taktika horiek animalia-enpresa bati zuzenduz gero terrorismotzat joko lirateke²².

AEPA eta AETAri erreparatuta, kontua da estatuak edozein bitarteko erabiliko duela animalia-esplotatzaileak babesteko, jabe diren neurrian. Lege horiek ez dira delituei buruzkoak, baizik eta delituaren *atzeko* jarrera politikoari buruzkoak²³. Lege-mekanismo ugari daude jada norabait indarrez sartzen, suterik pizten, jabetzak suntsitzen eta halakoetan aritzen direnen kontra. Lege horiek zera dute helburu: jada existitzen diren legeak areagotzea, krimenaren atzeko pentsamendua kontuan hartuta. Kasu honetan,

pentsemendua hain da arriskutsua jabetza-metaketaren erregimenarentzat —zeina animalien esplotazioan oinarrituta baitago—, ezen estatuak bere interesen aldekotzat jotzen duen era horretako lege bat martxan jartzea. Egia da oraindik ere eztabaida handia dagoela, animalien eskubideen aldeko mugimenduen barruan, ALFen ekintzak ea egokiak diren ala ez, baina AETA legeak erabateko mehatxupean jartzen ditu baita erabat baketsuak diren desobediencia zibileko ekintzak, hala nola eserialdiak eta blokatzeak. Hori dela eta, argi dago lege honen helburua ez dela “animalien eskubideen terrorismoa” zigortzea bakarrik, eta giro orokor bat sortzen duela zeinetan animalien berdintasunaz eta animalien esplotazioaren abolizioaz pentsatze hutsa ideologia iraultzaile bat baita²⁴. Horrek azaltzen du, neurri batean, zergatik etiketa daitezkeen “animalien eta ekologiaren aldeko erradikalak”, FBIaren barne-terrorismoaren sailkapenaren arabera, AEBetako “barne terrorismoko mehatxu nagusi” gisa, baita supremazista zurien taldeen aurretik ere²⁵.

AETA eta AEPA bi adibide baino ez dira ikusteko nolako lanak hartzen dituen estatuak animaliak jabetza direneko paradigma babesteko. Baina hori ezinezkoa izango zatekeen ideia bat gabe: onargarria dela —dela zuzenki, dela instituzio sozialen mekanismoen bidez— gizakiak eta gizakiz besteko animaliak indarkeriaz hartzeko, beti hazkunde eta etekin gehiagoren bila. Nahiz eta askok esango luketen ekosistema barruan esplotazio-harremanak naturalak eta akaso baita desiragarriak ere izan daitezkeela gizakien garapenari dagokionez, kontsideratu behar da nola

iritsi garen halako hierarkia bortitzera: ez bakarrik animalien gaineko aginpidera, baita beste gizakien eta mundu naturalaren gainerakora ere. Jarraian, Murray Bookchin ekologista sozialaren ideiak aztertuko ditut, zeinak ederki kontatzen duen nola garatu den gizateria hierarkiaren eta menderakuntzaren itzalean. Bookchinenean, aipagarria da menderakuntza hori gainditzeko modu bat ere ikusten duela:

“Kapitalismoak balioztatu egiten du gizakiak natura menderatzen dueneko ideia aurrekapitalista, baina ez hori bakarrik; naturako harrapakaria gizartearen bizi-lege bilakatzeko du. Halako sistemei eragozpenak jartzea, hazkunderen ondorioak irudikatuz ikaratzeko saiatzea, bere metabolismoa bera borrokatzea da. Errazago konbentzitzen dugu landare berde bat fotosintesia utz dezan ekonomia burgesak kapital-metaketa utz dezan baino. Ez dago inor hitz egiteko. Metaketa ez du burges indibidualaren intentzio on edo txarrak determinatzen, baizik eta kontsumogai-erlazioak berak, Marxek arrazoiz “ekonomia burgesaren unitate zelular” deitu zuen horrek²⁶.

Aipu horrek primeran erakusten du nolako arazoak dauden gure sistema ekonomiko eta sozial modernoak definitzen dituen kapitalismo basati eta bortitza erreformatzeko. Bookchinek erakusten duenez, sistema hori erreformatzea ezinezkoa da, sistemak berak hazkundera baitu bizigai, eta hazkunde hori menderakuntzaren bidez lortzen da. Menderakuntza barru-barruan dago hori

—kapitalismoak arnasten duen airea da, kontsumogai-formaren inposizioaren bidez behintzat—, hainbestearino, non ezin baita bereziki sistemaren beraren funtzionamendu arruntetik.

Nola bukatu dugu menderakuntza bera bizigai duen gizarte batean? Gizaki gisa, beste gizakiei jazarri ez ezik, natura menderatu, hartaz abusatu eta suntsitu egiten dugu, baita haren barruko animaliak ere. Nolatan utzi diogu mundu naturalarekiko lankidetzazko harreman batean bizitzeari, horren ordez esplotazioan eta menderakuntzan bizitzeko? Nahiz eta gutako askok ikasten dugun natura basatia eta harrapakaria dela berez, eztabaida liteke ea hori egia den ala ez. Piotr Kropotkinen²⁷ gisako pentsalariek argudiatu duten bezala, badirudi lankidetzazko eta elkarri laguntzea orokortuago daudela naturan eta gizarteen historia osoan, eta mutualitate horrek ongizatea partekatzeko modua eman duela.

Tradizio marxistara jotzen badugu aldaketa horretarako erantzunen bila, naturaren gaineko menderakuntzaren justifikazioa besterik ez dugu aurkitzen; iraultza osteko gizakien askapenerako aurrebaldintza moduko bat da. Marxenean, gure garapenean natura eraldatzea funtsezkoa ideia da. Gizaki gisa, gure ingurune naturalarekin harremanetan gaude, eta forma ematen diogu; horrek bereizten gaitu animalien-gandik, zeinak, Marxen arabera, gehiago baitaude beren ingurunearekiko bat-bateko harremanean. Hori guztia kontuan harturik, gure ingurunearen eta haren gizakiz besteko elementuen gaineko menderakuntzak saihetsezina dirudi gizateriaren garapenearen argitan. Hain zuzen, Ilustraziotik

heredatu ditugun ideiei kasu eginez gero, natura mendean hartzeak munduarentzat positiboa dirudi, esfera natural desordenatu eta basatia bezatze bat, hura eta gizateria hobetzeko. Marxek kontzeptu horietako batzuk bere pentsamenduan sartu zituen, eta horrek gizateriaren ikuspegi pobretu bat dakarkio azkenerako, testuinguruko natural eta historiko bateko eragile gisa. Bookchinek argudiatzen duenez, natura gizateriaren esku dagoen “objektu” bat delako ideia-
ren ondorioa “ez da bakarrik naturaren makaltzea, baizik eta gizakiaren erabateko makaltzea”²⁸. Gizateriaren potentzial osoa garatzera iritsi ordez, teoria marxistaren arabera, ekoizpenaren parte bihurtzen gara, besterik ez, indar ekonomikoak bezalako “indar” bat, diferentzia nagusi batekin: “animaliek senez egiten dituzten jarduerak kontzeptualiza ditzakegu guk”²⁹. Teoria marxista kontsideratuta, “gizateriak bere auto-formakuntza osatzeko bitartekoa” da eskulana, “baita “manipulazio sozialaren objektua” ere”³⁰.

Marxek Ilustrazioaren saretaren mugapean idatzi zuen, eta bere garaiko pentsamoldearen zama nabaritzen zaio bere teorietan. Bookchinek idazlan zorrotz ugaritan seinalatzen ditu muga horiek, eta, azkenerako, ondorioztatzen du Marxek klase menderakuntzari buruz zituen ideiak oso mugatzaileak eta itsutzzaileak direla gizarte-antolakuntzaren eta suntsiketa ekologikoaren egungo arazoak ulertze aldera. Horren ordez, Bookchinek hierarkia eta menderakuntza aztertzen ditu, gizateriaren historiari erreparatuz ulertze aldera nolako hartu-eman konplexua izan den gizartearen eta horiek bizi diren ingurune naturalaren artean. Iragana aztertuta, Bookchinek erakusten

du gizakiek natura mendean hartu izanak gizakien arteko hierarkia eta menderakuntza arazoetan duela jatorria; era horretan, ikusten da ekologia-arazoak gizarte-antolaerari —eta antolaera-molde jakinei— dagozkien arazoak direla, eta ez gizateriaren garapenaren parte “natural” bat. Sarri askotan, oso itsututa egoten gara historiaren logika jakin batekin, zeina sakon markatu baitu “orainari ezarri diogun atzeraezintasun ekonomiko eta teknikoak”³¹; ondorioz, askotan huts egiten dugu etorkizun askatzaile bat kritikoki irudikatu nahian. Horregatik, Bookchin tematuta dago gizateriaren historia aztertzearekin, gure erorialdiei eta aukerei, biei erreparatuz.

Atzerako begirada horretan, ikus dezakegu gizakiek natura mendean hartu izanak oso lotura estua duela gizakia gizakia mendean hartu izanarekin. Atal honetan, Murray Bookchinen ekologia soziala aztertuko dut, gizakien eta naturaren arteko harremanak ulertzeko marko teoriko alternatibo gisa. Halaber, aztertu nahi dut nola erabil daitekeen Bookchinek ezartzen duen marko teorikoa gizakien eta animalien arteko harremanak birpentsatzeko, animalien menderakuntza ulertzeko modu berriak eman baitiezazkiguke.

Ekologia sozialaren ikuspegia

Nahiko ezaguna da Lurraren Eguna izeneko apirileko kontsumo-festa bat, zeinetan jendfea parkeetan pilatzen baita, musika entzutera, plastikozko basoetan edatera,

eta plastikozko sardexka eta labanekin jatera. Halakoetan izaten diren postu askok norberaren aztarna ekologikoa gutxitzeko aholkuak ematen dituzte, hala nola bonbilla fluoreszenteak erabiltzea, auto hibrido bat izatea edo bero-gailua ez gehiago erabiltzea. Horiek denak garrantzitsuak dira, baina beste zerbaiten erakusgarri dira, ingurumenaren aldeko mugimendu horrek azaleko esku-hartzeetan jartzen baitu arreta. Korporazio handiek zuzendutako zuriketa berdeko kanpainen arabera, birziklatzea eta halako aldaketa positiboak gure esku daude, eta geuk egin behar ditugu, galdera gehiegirik egin gabe guk birziklatu beharrekoak jaurtitzen dizkigutenek ekoizten dutenaren inguruan. Nahiz eta erreforma horiek bultzatu nahi dituen jende arruntak asmo onak izan, ekologikoki osasuntsua den merkataritza berde baten ideiak nekez laguntzen digu naturaren menderakuntzaren erroak aldatzen, hau da, geure buruari eta ekosistemekin —eta bertako biztanleekin— dugun harremanari buruzko behar bezalako galderak egiten. Horren orde, Bookchinek dioenez, era horretako mugimenduek harrapaketan segitzen laguntzen dute, beharbada arinxego harrapakatuz³². Ekologismo arin honen orde, zeinaren funtsa baita gure aztarnak murriztea orain arte inolako gupidarik gabe suntsitu dugun ingurumenean, Bookchinek dio presazkoa dela gizartea erabat berreraikitzea berak “lerro ekologikoak” deritzen horien inguruan. Berreraikuntza proiektu horretan buru-belarri sartuta baino ezin dugu arazo horiek guztiak konpontzeko itxaropenik izan, arazo batzuk ez soilik gure eta mundu naturalaren artekoak, baizik eta baita elkarrekikoak ere.

Gizartea lerro ekologiko horien arabera berregituratzeko Bookchinen proiektu zabalean, ekologiarene eta ambientalismoaren arteko bereizketa garrantzitsua da. Ambientalismoak kale egiten du gizakiok naturarekin dugun harreman sozialaren genealogia ulertzeko orduan, eta ekologiak, berriz, “naturaren eta gizakien eta mundu naturalaren ulerkeraz zabalgo bat” ematen du³³. Ekologiak egiten dituen galderek behartzen gaituzte ez erdibideko soluzioak ematera, baizik eta pentsatzera nola berregitura genezakeen gizarte *osoa* lerro ekologiko horien arabera. Halaber, ekologiarene araberrako analisi batek mundu naturalari ezartzen dizkiogun hierarkiak baztertzeke eskatzen du, pentsamendu antropozentrikoaren ondorio baitira. Beraz, mundu naturalari ezartzen diogun hierarkiatik kanpora ateraz gero, bestelako sistema osagarri bat ikusten dugu, elkarrekiko harremanean lan egiten duena, pieza bakoitza funtsezkoa baita osotasunari eusteko.

Gure ikuspegi hierarkikoak mundu naturalari inposatzen dizkiogulako ideia garrantzi handikoa da, Bookchinek argudiatzen baitu gizakiek natura mendean hartu izana gizakiak gizakia mendean hartu izanarekin hasi zela. Menderakuntza hori, ordea, ez da saihetsezina, Bookchinen irudiko. Gizateriaren historiari erreparatuta, ikus dezakegu hierarkia ez dela garapenaren funtsezko atala, baizik eta erabat arrotzu diren gizartezen zuzeneko ondorioa dela. Era horretan ikusita, hierarkia klasea baino nozio zabalagoa da, baita anarkistaren betiko etsaia —Estatua— baino zabalagoa ere. Bookchinek dioenez:

Hierarkia aipatuta, obedientzian eta agian oinarritutako sistema kultural, tradizional eta psikologikoez ari naiz, ez soilik *klasea* eta *estatua* terminoek erreferentzia egiten dieten sistema ekonomiko eta politikoez. Horri dagokionez, hierarkiak eta menderakuntzak aise jarraitu ahalko lukete existitzen klaserik edo estatirik gabeko gizarte batean. Aipatu nahi dudana da nola menderatzen duen zaharrak gaztea, gizonak emakumea, talde etniko batek bestea, burokratek “masa”, hiriak landa, eta, zentzu psikologiko sotilago batean, baita gogoak gorputza eta azaleko arrazionaltasun instrumentalak espiritua ere, gizarteak eta teknologiak natura³⁴.

Hierarkia iragan garaietako herentzia toxiko bat da, oraindik ere ugaltzen segitzen duguna gure ugalketa sozialaren eraginez, baina berez horrek ez du esan nahi funtsezkoa denik, edo beharrezkoa, edo saihetsezina gizakientzat. Bookchinen proiektua historikoa da, helburu garaikide bat duena: hierarkian gizarteak izan duen garapena ikerituz eta ulertuz, kontingentea dela ulertzen has gaitezke, eta, hala, menderakuntzarik gabeko gizarte bat eraikitzen. Bookchinek dioenez, elkarrekiko harremanak hierarkiarik gabe berreraikiz bakarrik has gaitezke mundu naturalarekin dugun harremana era osagarri batean berreraikitzen. Hori da Bookchinen ekologia sozialaren indargunea: “ez du inondik ere hierarkiaren alde egiten ez naturan ez gizartean; hierarkiak printzipio egonkortzaile eta ordenatzaile gisa duen funtzioa bera era erabakigarrian zalantzatzen du *bi* erreinuetan”³⁵.

Zenbait zentzutan, gizakiak gizakia mendean hartze horrek gizakiak natura mendean hartzea dakarrelako ideiak bitxia irudi lezake, baina gure kultura eta historia bitartekari direla erlazionatzen gara ekosistemarekin. Sistema sozialak erabiltzen ditugu mundu naturalarekin dugun harremana ulertzeko eta antolatzeko. Hala, ingurumen arazoak, Bookchinentzat, harreman sozialen arazo dira. Ideia horrek —zeina Bookchinen ekologia sozialaren teoriaren erdi-erdian baitago— arazo ekologikoen sustraiei errepararazten digu gizartearen parte direla kontuan hartuz. Ezin dugu espero naturarekiko harreman orekatu eta berdinkideagorik lortzerik aldi berean *gure arteko* harremana orekatuago bilakatu gabe. Gizarte osoa hierarkiaren kontrako printzipioen arabera berrantolatuta bakarrik bizi gaitezke naturaren *barruan* eta ez naturaren *gainean*. Kontua zera da: elkarrekiko hierarkian eta menderakuntzan bizi bagara, bada hori dena naturarekiko harremanetara eta natura ulertzeko modura ere eramaten dugula. Hori aise ikusten da sortu dugun espezieen hierarkian, geure buruak gain-gainean jarrita.

Bookchinek azaltzen du nola urundu den gizateria elkar mantentzean eta berdintasunean oinarritutako harremanetatik hierarkian eta menderakuntzan oinarritutako harremanetara. Berak “organiko” esaten dien gizarteek ezaugarri zuten batasuna desintegratu egin zen trantsizio horretan. Gizarte organikootan ez zegoen “koertzio- eta menderakuntza-baliorik”, eta ezaugarri hauek zituzten: batasun- eta elkartasun-zentzu sakona; berdinaletasunean oinarritutako jarrera bat, denei ematen ziena

komunitatearen baliabideetara iristeko modua; ikuspegi epistemologiko bat gehiago jotzen zuena batasunera bereizkeriarako baino; eta “desberdinen parekidetasuna”. Desberdinen parekidetasunak berezko desberdintasunak desparekidetasunak identifikatzen ditu, baina zenbat praktika sozial ematen ditu desberdintasun horiek arindu eta konpentsatzeko, adin-talde eta sexutik harantzago doazenak, berdintasunerako bidean³⁶. Horri beste printzipio batzuk gehituta, hala nola “gutxieneko murritezina” edo komunitateko edonork bizitzeko beharrezko baliabideak lortzeko duen “eskubide besterenezina”³⁷, egin duten ekarpena gorabehera, gizarte organikoak oso estu lotuta zeuden, batuta, eta elkarren osagarri. Horrez gainera, komunitateok mundu naturalaren parte zirela onartzen zuten; haren barruan zeudela, ez gainean. Gizarte organikoek, hala, elkarren mesederako osotasun bat eratzen zuten, zein角度 gizakiek elkarrekiko lankidetzan bizi ziren, eta, ondorioz, naturarekiko lankidetzat. Gizarte organiko batek askotan *ekokomunitate* gisa funtzionatzen zuen, beraz, “bere ekosistemarekiko berezia eta ingurune osoan eta naturaren zikloetan parte hartzeko zentzu aktibo bat zuena”³⁸. Hala-tan, komunitate organikoetako giza askatasuna eta elkarrekiko osagarritasunari mundu naturalarekiko osagarritasun bat eransten zitzaion; horrek, baina, ez zuen luze iraungo.

Hori dena higitu egin zen, pixkanaka hierarkiaren eta obedientziaren ordenetara higitzen hasi baitzen gizartea, eta, prozesu horretan, denboraren poderioz aginte-modu ugari harrian grabatuta geratu ziren egitura kultural eta sozialetan. Hasierako egitura horiek, gizarte organikoak

disolbatu zituztenak, hierarkia-forma batzuk ziren, adinean, sexuan, behar ia-erlijioso eta ia-politikoetan oinarrituak, “eta horiek sortu zituzten botere- eta materia-harremanak, zeinetatik baitatoz klaseak”³⁹. Gizarte organiko batetik gizarte hierarkiko bateranzko eraldaketak gizar-tean bertan aurkitzen dira, eta gizarte-arrakala gero eta handiagoen ondorio da, hierarkia-banaketa bilakatzen baitira. Horietako lehenbizikoak, Bookchinek dioenez, adinaren arabekoak dira: gerontokrazia instituzionalki errotzen delarik antzinako gizar-tean —xamanaren figura tarteko, zeinak boterea profesionalizatu eta helduentzako pribilegioak⁴⁰ trinkotzen baititu—, beste menderakuntza-forma batzuk agertzen dira. Sexuaren arabeko lan-banaketa eta gerlari-klasearen sorrera izan ziren osagarritasunaren amaieraren hasiera. Nahiz eta komunitate organikoek sarritan lan egin banaketa horiek batasun-zentzu zabal batean integratzeko, gero eta zailagoa bilakatu zen hori, tribuak bereizi eta elkarrekin gatazkan hasi ahala, ar gerlariaren rola gero eta gehiago trinkotuz, eta sexuen zeregin domestiko eta zibilak elkarren kontra jarritz.

Banaketa horiei Bookchinek “agintearen epistemologia” deitzen duena gehitzen zaie: horien ondorioz, gizar-tearen banaketa sortu berriak naturalizatu ez ezik, banaketa gehiago ere sortzen dira, moraltasunean eta ohitura berrietan oinarrituak, eta gizarte organikoen iragana ezkutatzea dute helburu. Gizar-tea, orduan, bere baitara biltzen da nolabait, norbanakoaren psikean bertan sartuta. Errua eta autoinkulpazioa erabilita, norbanakoak bere burua kontrolatzen bukatzen du, eta hori kanpo-kontrolen

botere oro baino are hertsagarriagoa da. Bookchinek prozesu hori deskribatzen du:

Lankidetzako izaera harrapari-izaera bilakatzen da, eta egoismoa, lehia, krudelkeria eta berehalako sariaren ehiza agertzen dira. Baina “zibilizazioa”, arrazionaltasunak, lanak eta autojazarpenaren epistemologiak osatua, “errealitate printzipio” baten sorburu da, zeinak natura desordenatua bere mende jartzen duen eta gizateriari kulturaren, lankidetzaren eta sormenaren matrizea ematen dion... Gizakien etxe naturala... usufuktua, osagarritasuna eta partekatzea sustatzen dituena, mundu hobbestar batera behertzen da, zeinean denak baitaude denen aurka, bien bitartean gizateriaren etxe “zibilizatua” —lehia, egoismoa eta posesibotasuna sustatzen dituena— moraltasunaren, adimenaren eta sormenaren etxe judeo-heleniko gisa ikusten delarik⁴¹.

Barrura ekarrita, jazarpenak eta erruak agintzen dute psikean. Iragan organikoa estali egiten da aldaketa horrekin, eta gure osagarritasun-ideiak agintean eta obeditzean oinarritutako sistema mental eta estrukturalekin ordeztzen dira. Horrek gure harremanetan eragiten du, ez bakarrik elkarrekikoetan, baita mundu naturalarekikoetan ere. Garai batean osagarria zena orain menderakuntzaren aginpidean dago erabat, eta menderakuntza hori naturara itzultzen dugu. Kapitalismo modernoak ia erabat garaitu ditu osagarritasunean oinarritutako harremanak; erosle eta saltzaile garen neurrian bakarrik gara berdinak eta pareki-deak, “merkatu libreko ego subiranoak”⁴², eta gizaki gisa

kolektiboki lotzen gaituzten hariak ia erabat disolbatu dira. Lehiak lankidetzaz ordezkatu du, eta gure bizitzako alderdi ia guztiak truke-formaren batera murriztu dira.

Halere, Bookchinek askatasunaren promesa ikusten du trukea eta lehia premisa dituen gure sistema moderno honetan. Bookchin ez da anarko-primitibistak; ez du gizarte organikoen existentzia materiala errepikatuko lukeen gizarte batera itzuli nahi. Horren ordez, *Ecology of Freedom* (Askatasunaren ekologia) lanean, Bookchinek utopia bat marrazten du, imajinatuz zer bilaka litekeen gizateria baldin eta askatasuna lehenesten badu menderakuntzaren gainera, sormena kontrolaren eta ohituraren gainera, eta lankidetzaz lehiaren gainera. Iraultza marxistaren politika iraultzaileak alboraturik, Bookchinek deszentralizazioan eta demokrazia zuzenean oinarritutako gizarte baten alde egiten du, zeinak *humanitas* partekatu bat aitortzen baitu eta zeinak mundu deni egunerokoan parte hartzeko modua ematen dieten instituzioak sortzen baititu. Ezin dugu egitatetzat onartu norbanakoen multzo baten gisan bizi garela mundu konpartimentalizatu batean. Horren ordez, kanpora begiratu behar dugu, mundu batera non jendea berrahaldundu dezakegun erantzukizuna har dezan ez soilik bere bizitzaz, baizik eta baita esfera publiko zabalaz ere. Horretarako, kapitalismoa instituzio libertarioekin ordeztu beharko litzakete, jendez osatutako instituzioz, zeinak “zuzeneko, aurrez aurreko erlazio protoplasmikoz osatuta baitaude, ez ordezkartza-harreman anonimo eta mekanikoz”⁴³. Instituzio libertarioak gidatzen dituen printzipioaren arabera, norbanakoak gai dira ez bakarrik beren

kontuak kudeatzeko, baizik eta baita gizarteko kontuak kudeatzeko orduan rol aktibo bat izateko ere. Hau ez da *quorum*-etan oinarritutako ordezkapen-demokrazia, zuzeneko demokrazia baizik, zeinetan mundu guztiak parte har baitezake; demokrazia bat hierarkiaz eta —batez ere sexismoan eta arrazakerian oinarritutako— menderakuntzarik gabea. Hala, Bookchinek dioenez, egunero lan egin behar dugu kultura berri bat sortzeko, ez soilik mugimendu berri bat. Gure bizitzeko eta lan egiteko moduetatik “erauzi egin behar da gure psikeen orientazio hierarkikoa”⁴⁴. Gizarteak ez ezik, geure buruak ere aldatu behar ditugu, bi aldaketek elkar hartzen baitute. Gizarte horrek gizarte organikoaren alderdi positiboak aitortuko lituzke, hala nola osagarritasuna eta gutxieneko murritezina, norbanakoaren bizitasuna ere aitorturik. Bookchinek diosku ez ahazteko “ez alde pertsonal edo soziala, ez domestikoa edo publikoa ere, gizartean eta naturan armonia lortzeko proiektu horretan”⁴⁵.

An Unnatural Order: The Roots of Our Destruction of Nature liburuan (Ordena ez-naturala: naturaren giza suntsipenaren erroak), Jim Masonek antzeko analisía egiten du, erreparatuz nola gizateria pixkanaka iritsi den naturaren “konkista” dakarren ikuspegi batera⁴⁶. Nahiz eta Masonen analisía Bookchinenaren desberdina den hainbat alderditan, hark ere identifikatzen du mundu naturalaren gaineko “menderakoitasuna” deitzen diona, zeina gizarte garaikideko tradizio luzeetan errotuta baitago —tartean kristautasuna, mundu berriaren konkista eta ilustrazioa—. Animaliak naturaren parte direla onartuta, Masonek “misoteria” terminoa asmatzen du, zeinak “beste”-aren edo

animaliaren gorrotoa adierazten baitu, gizakien historia-ko mugimendu menderakoi zabal osoan aurki daitekeena. Animalien —horiek dira naturaren adierazpenik zuzenak— gaineko aginpidea natura osoa mendearen hartzearen erakusgarri da. Misoteriaren oinarri-oinarrian, Bookchinek eztabaidagai dituen dinamika berak daude⁴⁷.

Bookchinek eta Masonek, bi-biek seinalatzen dute gaur egungo gizartearen bihotzean dagoen menderakuntza-bulkada handia. Bulkada hori ez da naturara bakarrik iristen, baita giza “beste”-etara —zeinak aginpide-klase edo gizarte-talde jakin batetik kanpo baitaude— eta animalietara ere, horiek, Masonen arabera, naturaren parte baitira, baita haren adierazpen sinboliko indartsua ere.

Argi dago animalien gaineko aginpidea beste gizakien gaineko aginpidearekin lotuta dagoela, baita Bookchinek seinalatzen duen mundu naturalaren gainekoarekin ere. Eta, nahiz eta Bookchinek ez dituen animaliak sakon aztertzen, haren teoria erabil daiteke gizakiek animaliak eta natura mendearen hartu izana kritikoki aztertzeko ere. Bookchinek ematen dizkigun tresnek laguntzen digute ulertzen eta aztertzen noraino izan den animalien esploatazioa gaurdaino iritsi diren —eta gu eta mundu naturalarekin dugun harremana izurritzen duten— hierarkia- eta menderakuntza-ordenen parte. Gizarte-arazoak ezin dira bereizi ekologia-arazo handietatik, eta Bookchinen pentsamoldeak perspektiba integratzaile batera bultzatzen gaitu, zeinak adierazten baitu hierarkia formaren bat gainditzeko beharrezkoa dela *denak* gainditzea. Horren gain, Bookchinen “desberdinen parekidetasuna” aise aplikatu lekieke gizakiz

besteko animaliei ere, zeinekin partekatzen baitugu osagarritasunean berreraikitako mundu bat; animalien interesak benetan errespetatzeaz mintzatzen den edonor “desberdinen parekidetasunak” daukan historia luzera jotzen ari da.

Hierarkiaz eta menderakuntzaz gogoeta eginaraziz, Bookchinek eskatzen digu berriz pentsatzeko gure egunerokoan esplotazioa eta zapalkuntza justifikatzen dituzten ideiak. Era berean, haren teoria erabil dezakegu gizakien eta animalien arteko harremanak definitzen dituzten hierarkia-harremanak azaleratzeko. Gizarte organikoen jaidura kultural eta sozialak galtzarekin batera, natura, gero eta mesfidantza handiagoz hartu bakarrik ez, gorrotatzera ere iritsi gara, mehatxu egiten digun indar bat delakoan. Masonek dioskunez, horren alderdi batzuk ikusten ditugu gure eta animalien artean egiten dugun konparazioak; hitzik despektiboenak erabiliz, asmo txarreko “txerri” esaten diegu, arriskutsuei “harrapari”, eta gizakirik arruntenei “animalia”. Esanahi sinboliko eta kultural horiek indartu egiten dira animaliak gure desiren mende dauzkaten praktika ekonomiko eta kulturalen bidez, nahiz eta guk bezalaxe sentitzen dituzten mina eta sufrimendua. Ahal dugulako egiten dugu hori, eta etekina ateratzen diogulako, ez behintzat behar dugulako. Kezkagarriena, ordea, zera da: jende gehienak ez duela uste hainbesterainoko azpiratzea eta menderakuntza onargarria ez denik. Hierarkia barneratuta, gehienek argudiatzen dute gure “gizatasuna” nahikoa dela animalien menderakuntza justifikatzeko, baina, edozein ekintza moral justifikatzeko motibo gisa, hutsaren hurrengoa da hori.

Pentsamolde horren adibide bat aurkitu daiteke Tibor R. Machanen idatzietan, zeinak *Putting Humans First: Why We are Nature's Favorite* (Gizakiak lehenestea: zergatik garen naturaren faboritoak)⁴⁸. Machanek idazten du espezia damugabea dela, eta hori “berezkoa” duela giza izaerak. Sinesten du espezismoa “moralki derrigorrezkoa” dela, “baldin eta giza helburu gisa bizitzan zoriona⁴⁹ eta arrakasta izatea zilegi bada”. “Izaki bizidunen klasearen barneko hierarkia” oinarri hartuta, Machanek idazten duenez, izaki bizidun batzuk “kategoriaz beherago daude, eta beste batzuk gorago”, eta segidan animalien arrazionaltasun-falta aipatuta justifikatzen du haien menderakuntza, esanez gizakiak baino “gutxiago” direla. Hori gutxi ez, eta Machanek dio “naturala” dela gizakiek mundu naturala esplotatzea (animaliak barne), izaki handi eta txikiek gauza bera egiten dutenez gero naturaren hierarkian “beherago” dituztenekin.

Bookchinek artez erakusten duenez, naturaren jatorrizko ikuspegi horri buruzko pentsamendu hierarkikoa gizar-te organikoen disolbatzearen kondar bat da, gure ordena sozialean koertzio-indarrak sartu izanaren ondorio. Era berean, menderakuntzari eta “gauzen ordena naturala”-ri buruzko argudioak oparo erabili dira denboran zehar *giza* taldeen menderakuntza justifikatzeko; esaterako, emakumeen eta arrazializatutako jendearen zapalkuntza. Sexistak jakintzat ematen du sexua existitze hutsak emakumea baino hobea egiten duela; arrazistak jakintzat ematen du arraza existitze hutsak arrazializatutako norbait baino hobea egiten duela; espezistak jakintzat ematen du espeziea

existitzen hutsak animalia baino hobea egiten duela. Kasu horietan guztietan, *beste* bat sortzeak, menderakuntza eta pentsamendu hierarkikoaren prozesu gisa, osagarritasunaren kontra funtzionatzen duten kategoriak sortzen ditu, zeinek esplotazioa justifikatzeko balio baitute, ez bakarrik pertsonen arteko mailan, baita ordena sozialen mailan ere. Motzean, pentsamendu hierarkikoak aurreiritziak sortzen ditu, eta egitura ekonomiko eta ideologikoek aurreiritzi horiek sendotzen eta ugaltzen dituzte.

Bookchinen eta beste hainbaten proposamenak, dena den, hierarkiari kritika zabal bat egiten dio, ordena sozialaren maila guztietan, eta aitortu egiten du menderakuntzaren eta esplotazioaren izaera sistemikoa. Horri bakarrik ez, Bookchinek programa sozial erradikal bat ere proposatzen du, gizartea beste era batera eratzeko helburuarekin; proposamen horretan, osagarritasuna aitortzen da, mutualtasuna saritzen, eta gizarteko kide guztiei aukera berdina eman nahi zaie gizarteari ekarpena egin eta bertan aktiboki bizitzeko. Giza harremanekin armonian jarritako gizarte hori da modu bakarra ekosistemarekin armonian bizitzeko, eta, ondorioz, animaliekin, naturaren parte direnez gero. Nahiz eta Bookchinen eskaintza, gaingiroki, demokrazia zuzenaren bidez gobernatutako udal libertarismo baten ikuspegi utopikoa izan, azpimarratzen du aktiboki eraldatu behar ditugula bizitza, kultura berri bat sortze aldera. Geure bizitzako hierarkia zalantzan jarri behar dugu, eta mutualtasuna sustatzen duen modu batean bizitzen hasi. Hori serio hartzen badugu, zentzua dauka pentsamendu eta ekintza hierarkikoak aztertu eta gure bizitzatik

kanporatzeko lan sistematikoari ekiteak. Hori da modu bakarra elkarrekiko harremanak birkontzeptualizatzeko, osagarri izan daitezen, ez menderakoi eta konkistatzaile. Hurbilketa horiek erabil daitezke ekintza soziala eta aldaketa soziala babesteko, zapalkuntzaren kontrako hainbat borroka integratuz.

Zapalkuntza eta hierarkia guztiari eragingo dion hurbilketa integratzaile, holistiko eta gogoetatsu bat da gizarte desberdin bat eraikitzeko modu bakarra. Kapitalismoa bera borrokatzea ez da aski. Hierarkiaren pentsamoldea bera borrokatu behar dugu, eta hori kapitalismo modernoa baino askoz ere lehenago etorri zen.

Aurrera egitea

Beste animaliekin bizi gara, hierarkia gaitzean eta menderakuntzan oinarritutako baldintza batzuetan; gure jabetzakoak diren neurrian, kontsumogai gisa esplotatzen ditugu, baita kontsumogai gehiago ekoizteko ere. Nahiz eta dinamika horien erro historikoak kapitalismo modernoa iritsi baino askoz ere lehenagokoak diren, argi dago kapitalaren harremanen bultzada eta intentsitate orokorrek sakondu eta zabaldu egin dutela esplotazio-sistema hori. Hori guztia kontuan harturik, animalien esplotazioaren kontra egiteak esan nahi du gure kulturako eta ekonomia-ko zapalkuntza- eta menderakuntza-dinamiken kontra egin behar dela ordena sozialeko maila guztietan. Orduan baino ezingo ditugu gainditu animalien kontsumogai- eta

jabetza-izaera eta gizakien esplotazioa, bi-biak gure gizartearen bihotzean daudenak. Hurrengo ataletan, aztertuko dut zer-nolako ondorioak dituzten ideia horietako batzuek animalien eskubideen aldeko mugimendua hierarkia eta menderakuntza *ororen* kontrako mugimendu gisa indarberritzeko.

IV. ANIMALIEN ESKUBIDEAK ETA OKERRAK

Giza menderakuntzaren arazoa hain errotuta baldin bada-
go, hain baldin bada gure eta gure interakzio guztien parte
—ekosistemarekin ditugunak barne—, nola aldatuko dugu
benetan? Nola eraikiko dugu mugimendu bat puskatuko
dituena ez bakarrik gizakien gaineko giza menderakuntza,
baita animalien gainekoa ere? Gure kontsumogai eta jabe-
tza gisa, animaliak hierarkia zorrotzean bizi dira gurekin,
indartsuena nagusi den egoera batean, zeinaren arabera
gure interesik txikiak ere justifikatzen dituen haien he-
riotza eta sufrimendua. Erlazio horrek ondo adierazten du
ekosistema osoarekin dugun harremana: ez ditugu anima-
liak bakarrik menderatzen, natura ere menderatzen dugu.
Eta, Bookchini kasu eginez gero, natura zeragatik hartzen
dugu mendean: gizarte organikoak disolbatu zirenetik
elkarrekin ditugun harremanak esplotazio-dinamiketan
oinarrituta daudelako.

Bookchinen teoriak aztertzen du nola hierarkiaren
jaiotzak gizarte organikoa puskatu zuen; baina, horrez
gain, aldaketarako esperantza ere badakar teoriak. Pen-
tsarazten digu nola gaindi ditzakegun historikoki iritsi
zaizkigun esplotazio-dinamikak, egiturazko arazoak gure
ordena sozialaren bihotza karraskatzen duten arren. Eta,
nahiz eta Bookchinen lanak ez dituen animaliak esplizi-
tuki aipatzen, hark identifikatutako hierarkia-ordenek ber-
din balio dute gaur egun animaliekin ditugun harremanak
azaltzeko, batez ere kontuan harturik nolako efizientzia
mekanikoz akabatzen eta kontsumitzen ditugun, urtean
milioika AEBetan bakarrik. Besterik ez bada, animaliak
menderatzen ditugun moduak erakusten du norainoko

menderakuntza-egarrria dugun, zentzu zabalean, gizarte gisa.

Menderakuntzaren eta hierarkiaren aurka egin behar badugu, ideia horiek serio hartuko dituen pertsonen osaturiko mugimenduak behar ditugu, zeinek konpromisoa hartuko baitute haien arteko harremanak irizpide kooperatiboagoen arabera berregituratzeko, eta zeinek borondatea baitute aktibismoa helburu dugun munduaren itxurara taxutzeko. Ez da nahikoa zera espero izatea, edozein bitarteko onargarria eta justifikagarria dela helburuek ustez merezi badute; ideia horrexek ekarri zizkien arazoak estatu eta mugimendu marxistei. Justiziaren aldeko mugimendu orok justua behar du izan. Hierarkia zalantzan jartzen duen edozein mugimenduk ezinbestean uko egin behar die gure gizartea izurritzen duten hierarkia guztiei. Are gehiago, gure mugimenduek integratzaileak izan behar dute: ezin dugu gure aktibismoa definitu duten bereizkeriak ametitzen segi. Mugimendu bakar eta eraginkor bat behar dugu, ordena sozialeko maila guztietan justizia lortzeko. Ezin gara gehiago “aktibismista”¹ izan, gure zuzentasuna eta zintzotasuna aktibismoa helburu duen aktibismotik eratorriz. Horren ordean, analisi eraginkor eta sakonak behar ditugu gure aktibismoa gidatzeko, hartara munduan aldaketa benetakoak eta esanguratsuak egiteko, eta aldaketa horiek zerbait lor dezaten, eta ez bakarrik gu hobeto sentiaraztea *aktibo* gaudelako.

Kapitulu honetan, animalien eskubideen aldeko mugimenduaren ideologia eta praxia aztertuko ditut, gaur egun eraikia dagoen eran, oinarri bat aurkitzeko helburuarekin, horiek mugimendu zabal antiautoritario eta

antihierarkiko bat eraikitzeko, denontzako justizia soziala helburu harturik. Animalien sufrimenduarekin sentsibilizatutako mugimendu gisa, animalien eskubideen aldeko mugimendua aktibismo bateratzaile baten topagune izan liteke. Tamalez, baina, animalien eskubideen aldeko mugimendua, kinka honetan, ezer gutxi da; promes alferrikaldu batzuk eta aktibismo-burokrazia fosilduen sorta bat, zeina kontsumogai- eta jabetza-sistema animalien ekoizpenean finkatzen ari den, haren kontra zabal borrokatu beharrean. Alde askotatik begiratuta, animalien eskubideen aldeko mugimendua inpotentziak jota dago, ezdeus bilakatzeraino, eta, hori gutxi ez, eta beste komunitateetako aktibistak urruntzea lortu du, gaizki planteatutako kanpainak, publizitatean oinarritutako aktibismoa —beste ezeren gainetik arreta deitzea balioesten duena— eta aliantza politiko zalantzarriak direla medio. Animalien eskubideen aldeko mugimenduaren gaur egungo arazoak aztertu ondoren, arreta Ezkerrean jarriko dut, zentzu zabalean, gogoeta sustatzeko ezkerreko aktibismoan gizakiz besteko animaliek duten estatusari buruz. Zehazki, ezkerreko jendeari eta jende progresistari esaten diot berriz pentsatzeko zapalkuntzaren izaeraz eta zapalkuntzak espezismoarekin duen loturaz; hori 5. kapituluan garatuko dut, aztertzeke zer-nolako potentziala dagoen mugimendu berri baterako, zeina guztiz hierarkiaren kontrakoa izango den hala teoriarik nola praktikan.

Animalien eskubideen industriari buruzko goetak²

2006ko Canadian Coalition for Farm Animals konferentzian (Etxaldeko Animalien Aldeko Kanadako koalizioa), Temple Grandinek hitzaldi bat eman zuen, bere lanak liluratzeko duen edozein profesional bezain liluratuta³. Gelan zehar urduri mugituz, Grandini energia kutsakor bat dario, eta energia horrek —baita bere liburuek ere— zaleak sortu dizkio janari-ekoizpen “gizatiarra” interesatzen zaienen artean. Grandinen gaietako batzuk, ordea, nahiko morbosotzat joko genituzke gehienok: nola kordegabetu animaliak behar bezalako konbultsio toniko-klonikoak izan ditzaten, nola aldi berean elektrokutatu ardiak burua eta bihotza. Hilketaren logiketan murgilduta dago, animalien hiltegiaren sartzeko duten lehen sentipenetik azken minuturaino, “zultatzaile” edo “odoltzaile” baten eskuetan. Emakume autista gisa, Grandinek idatzi du bere autismoak lagundu diola ulertzen animaliek nolako erreakzioak dituzten estres eta beldur handia sufritzean, hala nola hilketarako bidean. Haren “berrikuntza” asko mundu zabaleko hiltegi ugarietan erabiltzen dira estres hori gutxitzeko, eta, hala, etekina handitzeko aurki “haragi” bilakatuko diren animalieei emandako mina gutxituz.

Ez da harritzekoa animalien esplotazioaren industriari Grandin bezalako norbait goratzea. Industriak bere bezeroi haragijalearen aurrean eman nahi duen kezkatu-itxura antzeztu ez ezik, animalien erabilera eta hilketa askoz ere eraginkorrago eta errentagarriagoa egiten du. Bere webgunean azaltzen duenez, orria ireki zuen “mundu osoko

jendeari azienden manipulaziorako metodoak erakusteko, animalien ongizatea eta produktibitatea handituz”⁴. Hala, industriaren barruko batzuek Grandinekin izan duten erreakzioa ulertzekoa da. Arrazionalki ulertu ezin daitekeena, berriz, zera da: nola animalien eskubideen aldeko talde batek Grandin “bisionario” kontsidera dezakeen. Halaxe izendatu zuen People for the Ethical Treatment of Animals talde “erradikalak”, PETAk (Animalien Tratamendu Etikoaren Aldeko Jendea), haien urteroko Aurrerabide sarietan; sari horien helburua zera da, “gizarte osoarentzako bizimodu gizatiarrago baten alde”⁵ ari diren pertsonak saritzea. PETAk Grandini eman zion saria Agri-Processors-en hilketa-prozesua aldatzen lagundu zuelako, —munduko hiltegirik handienetako bat da hori— eta esan zuen haren hobekuntzek gutxitu egiten dutela animalien beren azkenetan pairatzen duten sufrimendua.

Horretan, interes-gatazka harrigarri bat sortzen da, logika orotik kanpo dagoena. PETAk benetan animalien esplotazio guztia abolitu nahi baldin badu, eta animalien hilketa kalte moralizat jotzen badu, bada, merezi du galde-tzea zergatik saritu duten hiltegien sistemen diseinatzaile bat, zeinak gustu handiz kontatzen baitio jendeari nola eragin daitezkeen konbultsio toniko-klonikoak PETAri axola omen zaizkion animalia horiengan. Motzean, zergatik saritu du PETA bezalako talde batek hiltegiak hiltresna eraginkorragoak izan daitezen diseinatzen dituen norbait? Konparaziorako, imajinatu heriotza-zigorra kalte moralizat duen eta haren kontra dagoen talde batek sari bat ematen diola heriotza-zigorra modu eraginkorrago

batean aplikatzea diseinatu duen norbaiti; bada, neurri berean dira PETAren ekintzak kontraesanezkoak. Okerrean, traizio egiten diote babesten omen duten kausari.

Ulertze aldera nola sor litekeen logika bat zeinaren araberu ustez animalien eskubideen alde dagoen talde batek txalotu egin dezakeen hiltegi-diseinatzaile bat, ondo arakatu beharra dago gaur egun AEBetan nagusi diren taldeak gidatzen dituzten ekonomia- eta ideologia-geruzen azpian. Talde horiek erakunde zabalago batzuen mende daude, zeinak dohaintzen bidez irauten baitute bizirik; oso egituraketa konplexua dute, eta aspaldi egin zioten uko animaliekiko benetako konpromisoari. Horren ordez, beren burokrazia- eta negozio-egiturari eustean dute jarria arreta; gero eta gehiago kooperatzen dute animalia-esplotazioaren industriarekin, eta animalien bizkar etekina ateratzen dute. Duela hamar urte baino gehiago, Francione ohartu zen dinamika horiez, eta animalien eskubidearen aldeko mugimenduaren oinarri ideologikoak berak zalan-tzan jarri zituen. Erakutsi zuen aktibisten beren adierazpen ugari zuzenean beren aktibismoaren kontrakoak zirela⁶.

Francionek azaltzen du erakunde eta aktibista ugari- loturak sortu dituztela animalia-esplotazioaren industriarekin, eta argudiatzen du mugimendu benetakoago bat behar dugula, animalien esplotazioaren abolizioan arreta jarriko duena eta beganismoa aldarrikatzen duena mugimenduaren oinarritzat. Arazoa zera da: animalien eskubideen aldeko mugimendua ez dela sekula aktibismo horretan serioa saiatu. Horren ordez, erreforma-sistema ahul batean oinarritzen da, aldaketa gradual horiek

etorkizuneko egun urrunen batean animalien esplotazioa abolituko duelako esperantzan. Aktibismo-marka hori, Francionek *Rain Without Thunder* liburuan dioenez (Tru-moirik gabeko tximista), helburuak eta bitartekoak zorrotz kalkulatzeko ari da. Helburu jakin bat lortzeko bitartekoek animaliak jabetzapeko gauza eta kontsumogai gisa tratatzen badituzte, ezinezkoa da gizarteko animalia-esplotazioaren oinarriak zalantzan jartzea. Animalien aldeko aktibismo gehienak, ordea, ez du hori ulertzen, eta hainbat erakundek —tartean HSUS, Humane Society of the United States, eta PETA bera— itun faustikoak egiten dituzte animaliak makina kapitalistaren kontsumogai-estaturera kondentatzen dituen industriarekin. Leunago esplotatzea onargarria dela esateak giza menderakuntza berresteko baizik ez du balio, ez baitu zuzenean zalantzatzen animalien erabileraren ideia oinarritzkoa. Zera besterik ez du esaten: kontuan izan behar dugula animaliak nola erabiltzen ditugun, baina ez du aipatzen erabilera oro eten behar dugula. Horren antzera, esklabotzaren kontrako erakunde batek esan lezake onargarria dela esklaboak izatea, baldin eta ondo tratatzen badira. Animaliak ez direnez kapitala ekoizteko tresnak baizik, haien esplotazioa abolitzeko modu bakarra da aldarrikatzea ez direla jabetzan izan daitezkeen gauzak edo kontsumogaiak. Hori baino gutxiago eginez gero, erabat oker gabilta, eta, luzera begira, are animalia gehiago kondentatzen ditugu.

Tamalez, mugimenduak —bere burua eta epe luzerako helburuak ahaztu baititu— ideia oker bat hartu du *modus operandi* gisa, uste baitu animalien geroa hobe dezakegula

gaur egun beren interes osoak onartu gabe. Aktibismo-motaren horren logika ulertze aldera, merezi du aztertzea zer idatzizuen haren aldeko batek, Erik Marcusek. *Meat Market: Animals, Ethics and Money* liburuan (Haragi-merkatua: animaliak, etika eta dirua), Marcusek animalien hazkuntzaren hainbat alderdi aztertzen ditu, xehetasunez behatuz animaliak sisteman kontsumogai nola bihurtzen eta “ekoizten” diren. Marcusek animalien sufrimenduaren erretratu triste bat egiten du, zeinak kritikoki pentsarazten baitu animalien interesen aldeko ekinaldiez. Mugimenduaren hiru adar desberdin aztertuz —mugimendu begetarianoa, animalien eskubideen aldekoa eta animalien ongizatearen aldekoa—, Marcusek aktibistak laugarren batera bultzatzen ditu, “desmuntatze” mugimendua deritzonera. Nahiz eta Marcusek uste duen mugimendu horietako bakoitzak aurrerapenak lortu dituela eta “funtsezkoa” dela “etxaldeko animalien babeserako”, aktibistak jarrera agresiboagoetara bultzatzen ditu, “animalien hazkuntzaren baliabide nagusiak identifikatu eta desmuntatzera”. Mugimendu hori, Marcusek dioenez, beste hiruren osagarri izan liteke, eta, egunen batean, animalien hazkuntza eraitsi ahalko luke guztiz. Nahiz eta Marcusek agenda zabal eta interesgarria daukan, bururatu zaiona ez da aktibismoarentzako jarraitibide-sorta bat baizik, zeinak azken finean errepikatu egiten baititu dozenaka (ez bada chunka) urtetan egindako ekintza mugatu eta alferrikakoak. Horiek osatzen dute animalien hazkuntza “desmuntatzeko” Marcusen mugimendua.

Zehazki, zer itxura hartuko luke horrek? Lehenik, Marcusek dioenez, mugimendua aise konpara daiteke XIX.

mendeko esklabotza abolitzeko mugimenduarekin, biek baitute borondatea gizartearen dinamika instituzionaletan errotutako desberdinkeria sozial bati erantzuteko. Marcusek dio abolizionista beranduei “sarri” falta zitzaizkiela “esklabotzaren erroak jotzeko bitartekoak”⁷, eta pentsatzen du animaliak babestearen aldeko jendeak badituela bitartekoak animalia-hazkuntza errotik mehatxatzeko, industria boteretsuek gobernuengan duten kontrola bertan behera uztera behartzeko. Esaten du animaliak babestearen aldekoek badituztela sistema zalantzan jartzeko bitartekoak, baina, halere, esaten du ez luketela erabateko berdintasunik exijitu behar, iraganeko abolizionistek bezala. Antzeko argudio bat ematen du Steven M. Wisek *Drawing the Line: Science and the Case for Animals Rights*⁸ liburuan (Muga jartzea: zientzia eta animalien eskubideak). Wiseren liburua zera aurkezten du, animaliak beren “autonomia praktikoa” delakoaren arabera hierarkia batean sailkatzeko neurketa-sistema bat, gizakiekin duten antzekotasunean oinarrituta. Alde batera utzita hurbilketa horren espeziismo inplizitua (zuriak ez direnen ranking bat egitea bezala, zuriakiko antzekotasunaren arabera), Wiseren proposamenaren alde praktikoa Marcus eta beste aktibista ugari (hala nola Henry Spira) aspalditik proposatzen ari direnaren oso antzekoa da: ez dugu urrutiegi jo behar animalien eskubideak lortzeko bidean, zeren, baldin eta gehiegi eskatzen badugu, baliteke batere gabe geratzea. Wisek Marcusen analogia bera egiten du, eta “gutxieneko egingarri” baten alde egiten du, hots, animalien estatusaren aldeko borroka mantso eta gradual baten alde. Ikusita Wisek zer posizio

daukan eta zer neurketa-sistema proposatu duen, ez da harritzekoa lehenik gure antzekoenak diren animalien alde egitea. Wiseren ideia nagusia, baina, zera da: historiaren kinka honetan, “gutxieneko egingarriak” zera esan nahi du: “eskubide gehiegi eskatzen baditugu gizakiz besteko animalia gehiegirentzat, gizakiz besteko animalia batek ere ez du alerik lortuko”⁹.

Marcusek Wiseren norabide berean eramaten du argudio hori, argudiatuz ezen abolizionistek ezin zutela arraza-berdintasun osoa bezain erradikala zen zerbait egin: ideia hutsa zailegia edo sinesgaitzegia izango zatekeen jende gehienarentzat, eta mugimendu abolizionistak atxikimendua galduko zukeen. Horren orde, Marcusek dioenez, abolizionistek esklabotzaren praktika kalte moral nazkagarri bilakatu zuten, halako moduz non esklabotzaren alde egotea “abominazio” hutsa baitzen, bat arrazista izan ala ez. Horrekin segituz, Marcusek argudiatzen du ezen abolizionismoaren aldeko jende asko arrazistak zirela. Horrek zer esan nahi du: espezistak behar ditugula animalien eskubideen alde lanean?

Analogia hori animalien aldeko aktibismoari ezarrita, Marcusen ideia zera da: gaur animalien alde egitea iraganean arraza-berdintasunaren alde egitea bezalakoa dela. Ideia hain da arrotza, erradikala eta gure sinesmen kultural guztien kontrakoa, litekeena baita jendea argudioak ematen hasi aurretik ere galtzea. Marcusek argudioek Wiserekin antz handia dute. Marcusek irismen mugatuagoko aktibismo bat aldeztu du. Estrategiari dagokionez, Marcusek idazten du mugimendu abolizionistaren jakintza hori

erabili beharko genukeela publikoa konbentzitzeko ezen “animalien-hazkuntza industria zitala dela, eta, norberak animalien erabileraren inguruan izan ditzakeen sentipenak gorabehera, etxaldeko animalien egoera onartezina dela”¹⁰. Marcusek aurkezten duen desmuntatze-markoari dagokionez, hurbilketa horrek animaliek gehien sufritzen duten gunean jartzen du arreta, eta, gainera, erakargarriagoa da hautu “begetarianoa” delakoa baino. Horrez gainera, animalien zapalkuntzaz proposamen honen bidez pentsatzen hasten den jendea askoz errazago konbentzitu litzateke aktibismoa egitera sinpleki begetarianoak direnak baino (Marcusen arabera behintzat). Hala, azkenerako, Marcusen formulazioa (haren aurreikuspenen arabera ateratzen bada behintzat) zera da, desmuntatze-mugimendu bat, animalien hazkuntzaren zitakeriak azpimarratuko lituzkeena eta jendea produktu horiek ez kontsumitzera bultzatuko lukeena. Jarraian, Marcusek marko programatiko bat ezartzen du mugimendu horren agerpenerako; tartean lirateke, besteak beste, kanpaina zabalak egiten dituzten erakunde boteretsuak, gazte jendearengana heltzea, AEBetako eskola-jantokiko programa hobetzea, eta tokian tokiko osasun erakundeei ematea nutrizio-aholkularitzaren ardura.

Nahiz eta Marcusen proposamenek arrazoizkoak diruditen lehen begiratuan, haren pentsaerak sakoneko zenbait akats ditu, eta Marcusen markoa aipatu dut uste dudalako argi erakusten duela nolako irudimen-, sormen- eta aukera-falta duen gaur egungo animalien eskubideen aldeko mugimenduak. Are gehiago, Marcusen pentsaerak argi adierazten ditu gaurko animalien aldeko aktibismoaren teoria

eta praxia: nahiz eta aktibismo-bide berriak seinalatzen ari dela pentsatu, benetan betiko ardo zaharra proposatzen ari zaigu, botila berrietan (nahiz eta, egia esateko, botilak ere zaharrak diren). Praktikoki, ideologikoki eta filosofikoki, Marcusen “desmuntatze” markoa, baita izen horren azpian jarriko lukeen aktibismo-mota, mugimendua osatzen duten erakunde handiek orain arte egin dutena besterik ez da; Francionerekin bat eginez, “ongizatekeria berria”¹¹ deituko niuke. Betiko ongizatezaleak oro har beharrik gabeko krudeltasunaren eta sufrimenduaren kontra daude, baina ez dute arazorik animalien trataera “gizatiar” delakoarekin, eta prest daude giza hierarkia onartzeko. Ongizatezale berriek —Marcus, kasurako— askotan animalien esplotazioaren abolizio guztizkoa nahi dutela diote, baina proposatzen dituzten neurriak betiko ongizatezaleen berdin-berdinak dira, eta berretsi egiten dituzte animaliak jabetza eta kontsumogai gisa. Alde horretatik, nahiz eta ongizatezale berri askok “abolizionista” deitzen dioten beren buruari, horren erabat kontrakoa den aktibismo-mota batean aritzen dira.

Francionek bost ezaugarriekin definitzen ditu ongizatezale berriak¹². Lehenik, ongizatezale berriek uko egiten diote gizakiz besteko animaliak gizakien helburuen bitarteko gisa instrumentalizatzeari; ongizatezale berri batzuek animalien esplotazioaren erabateko abolizioa babesten dute helburu gisa, eta beste batzuek esplotazioa onartzen dute ez badago ezaugarri arbitrarioetan oinarritua, hala nola espeziea. Bigarren, ongizatezale berriek oro har uste dute animalien eskubideen aldeko teoriak ezin

duela marko praktikoko eta pragmatiko bat eman aktibismo iraunkorrerako eta animalien esplotazioaren epe luzeko helbururako. Horixe defendatzen du Marcusek, argudiatuz eskaerak gutxitu behar ditugula “desmuntatze” mugimenduan, baita Wasek ere, “gutxieneko egingarria” kontzeptuarekin. Hirugarren, ongizatezale berriek bultzatzen dituzten kanpainak eta estrategiak betiko ongizatezaleen kanpainen berdin-berdinak dira, edo ia berdinak. Laugarren, animalien eskubideen erabateko aitorpenean, ongizatezaleek pauso beharrezkotzat eta desiragarritzat jotzen dituzte erregulazio-neurriak, nahiz eta erreforma horiek gizakien menderakuntza indartu. Gainera, aldeko gehienek kausa-harreman bat ikusten dute erreforma horien bitartekoen eta animalien esplotazioaren bukaeraren artean, nahiz eta bide argirik egon ez. Bosgarren, ongizatezale berriek ez zaie kontraesanekoa iruditzen giza menderakuntza hori berresten duten neurriak babestea, aldi berean menderakuntza horren amaiera aldarrikatzen duten bitartean.

Animalien aldeko mugimendu barruko nahasmen horren jatorria zera da, mugimendua gehiegi bermatzen dela Peter Singerren filosofian. Singer utilitarista da, eta animalientzako eskubideak esplizituki baztertzen ditu (baita eskubideak ere, oro har), eta, halaber, ez du animalien esplotazioa kasu guztietan esplizituki baztertzen. Singerrekin Oxforden animaliekin esperimendatzea ere babestu izan du, eta, gerora damutu den arren, ez dago ukatzerik utilitarismoaren oinarritzko posizio filosofikoak ez duela esplizituki debekatzen bibisekzioa eta beste esplotazio-formak justifikatzea¹³.

Soldata garestien truke lan egiten duten aktibista profesionalak nagusi diren erakundeek mugimendua mendean hartu dute, eta erakundeon kontsiderazio ekonomiko-politikoak dira ongizatekeria berriaren jatorria. HSUS erakundeak, adibidez, Wayne Pacelle CEOari 203.000 dolar ordaindu zizkion 2005ean, eta haren guztizko aktiboak 200 milioi dolarretik gora ziren¹⁴. Halako soldatei eusteko diru-sarrerek dohaintza publiko mardulak behar dituzte, eta horretarako kanpaina irabazerrazak egiten dira, arreta bilduko dutenak. Ondorioz, Marcusek eta haren aliatu diren ongizatezale berriek babesten dituzten neurriek ezer gutxi egiten dute animalien kontsumogai- eta jabetza-estatusa zaltzatzeko, edo giza hierarkia iraultzeko. Animalien esplotazioa benetan mehatxatu nahi badugu, gure aktibismoak erro horiei eragin behar die. Aurreko kapituluan esan dudana bezala, animalia-industriak biltzen duen jabetzak metaturiko sufrimendua adierazten du, baita kapital metatua ere; maila ekonomiko batean, jabetza-erlazioak sistematikoki funtsezkoak dira animalia-hazkuntza eta beste esplotazio-industria batzuek aurrera egiteko. Horrez gainera, Francioneek dioenez, animaliak jabetzat hartzeak esan nahi du gure interesak *beti* izango direla haienak baino garrantzitsuagoak, baita gatazkarik ezdeusenetan ere. Horregatik guztiagatik, animaliek jabetza eta kontsumogai gisa duten estatusa mehatxatu beharra dago animaliek sistematikoki jasaten dituzten abusuak gaindituko baditugu. Beste edozein aktibismo motak, animalien jabetza estatusa onartzen baldin badu, ez du ezer egiten animalien industriaren funtsaren kontra. Garrantzitsua da kontuan hartzea industriak

erregulazioaren kontra egingo duela, baina onartzen ere badakiela, behar badu; beti aurki ditzake jardunbide berriak (kontsumitzaileentzako erakargarriagoak) ekoizteko eta hiltzeko, baita haragia eta beste animalia-jatorriko produktuak merkaturatzeko ere, edo gero eta tarte estuagoekin etekinak ateratzeko. Kapitalismoa bera erabat malgua da, eta historikoki ondo asmatu du ekoizpen-panoramako aldaketara egokitzen. Animalia-hazkuntza ere neurri berean da malgua, eta aldaketa sozial, ekonomiko eta teknologiko askori egin die aurre, batez ere azken mende erdian. Ez dago zalantzarik hala egiten segituko duela, negozio-eredua behar den bezala egokituta. Halere, animalia-esplotazioaren industriak animaliak kontsumogai eta jabetza bihurtzeko gaitasuna galtzen badu, industriaren muina bera egongo da jota. Ez dago egokitzerik, ez aldatzerik, ez hazkuntzan segitzerik animaliak jabetza gisa tratatu gabe. Ongizatekeria berrian dabilzan aktibista arrunt gehienek ez ikusiarena egiten diote horri, animalien interesen benetako aitortza saldu egin baitute dirua biltzea eta erakundeei eustea helburu duten kanpainen truke.

“Animalien eskubideak” kategorian sartzen den aktibismo gehienak ez du ondo ulertzen jabetzari buruzko ideia, eta animalien erabilera instrumentala onartzen du, edo babesten. Hala, nahiz eta zentzu handia daukan Marcusek animalia-hazkuntzaren arazoak auzi moral eta etikotzat jotzeak, zera behar dugu, eskubideen aldeko benetako mugimendu bat, zeinak zerbait gehiago egingo baitu aspaldi handiko aktibismoa errepikatu baino. Animalia-industriaren erroei behar bezala esetsi gabe, eta kontsumogai- eta

jabetza-estatusak auzitan jarri gabe, aktibismo mota horrek industriari doako merkatu-ikerketan baliotsua ematen dio. Industriak erreformen kontra egingo du eskuarki, baina ez du alferrik galduko merkatu-nitxoak sortu eta kontsumitzaile berriengana iristeko aukera; hots, animaliak erabiltzearekin arazorik ez duten baina haien “gehiegizko” sufrimenduak kezkatzen dituen kontsumitzaile horiengana iristeko aukera. Jarrera horrekin joka dezake industriak. Ekoizle batzuk poliki ibiliko diren arren, industriak badu nahikoa tarterik merkatu-aukera bat errekonozitzeko, eta pozarren eskaintzen dizkio alternatibak kontzientziadun jendeari, baldin eta alternatiba horietatik ere etekinik atera badezake.

Adibide batzuei erreparatuz aise ikusten da ongizatekeria berria benetan zertan den. Ongizatezale berri horietako batzuek imajinatzen dute gizakien animalien gainean ezarritako hierarkiaz eta animalien esplotazio *guztiaren* kalte moralaz hitz egitea erradikalegia dela, ez edonork ulertzeko —eta are gutxiago onartzeko— modukoa; ondorioz, kanpainen, estrategietan eta taktiketan apenas aldatzen duten industriak produktu “gizatiar eta etikoak” ekoizten egiten duen esfortzua, kontsumitzaileak erosotze aldera. “Erreforma” direlako batzuk ere lortzen dira, eta animalien eskubideen aldeko zenbait taldek esaten dute animalien esplotazioa are errentagarriagoa egiten dutela. Aktibista batzuei erreforma horiek “garaipen” iruditzen zaizkie, eta halaxe dira, bai; industriaren garaipenak dira.

“Garaipen” horietako bat Arizona Proposition 204 legea izan zen, 2013an indarrean sartzekoa dena, zeinaren

arabera lehen mailako delitu arin bilakatuko bailitzateke “haurdunaldi bitartean txerriak edo etxaldeko haragitarako txekorrak lotu edo konfinatzea egunaren gehiengoan, halako moduz non animaliak ezinezkoa duen etzatea, hankak luzatzea edo nahi bezala buelta ematea”¹⁵. Neurri horren helburua, partez, haurdunaldiko kaiolak ezabatzea da, zeinetan giltzapetzen baitituzte haurdun dauden zerramak. HSUS izan zen neurri horren babesle nagusietako bat, eta dirutza sartu zuen lege horren aldeko kanpainetan bozketa aurreko hilabeteetan. Egia da gutxiago sufritzea beti dela hobe gehiago sufritzea baino, baina lege hori ez da animalien aldeko aktibista askok imajinatzen duten garaipena, eta ez du ezer egiten animalien jabetza-estatusa ezabatzeko edo animaliak gizakion helburuetarako ez erabiltzeko.

Lehenik eta behin, animaliak “egunaren gehiengoan” konfinatzea debekatzen du lege horrek, eta, ondorioz, onargarria litzateke animaliak egunean 11 ordu eta 59 minutu konfinatzea. Bigarren, oso argigarria da HSUSEk nola egin zuen botoaren aldeko kanpaina. Legearen aldeko dokumentuetan, HSUSEk argudiatzen du animaliak taldeka edukitzeak “ekoizpen-kostuak murritzen” dituela, eta “produktibitatea handitzen”¹⁶. HSUSen analisi ekonomikoak ekoizleentzako abantaila ugari aletzen ditu: “animaliak taldekatzen dituzten ekoizleek... *beren produktuen eskaria areagotu lezakete, baita merkatu-prezioak ere*”¹⁷.

Esaldi horren alderik bitxiena zera da: ustez animalien esplotazioaren kontra dagoen talde bat esplotazio-industria sustatzen ari da, etekin truke metodoak eralda ditzaten, eta logika da erreforma horrek eskaria handitu

eta merkatu-prezioak areagotuko dituela. HSUSEk serio hartzen baldin badu bere helburua, hots, “giza kontzientzian aldaketa iraunkor bat forjatzea animalia guztiekiko jarrerari dagokionez, animalien kontrako krudeltasuna, esplotazioa eta axolagabekeria bukatzeko”¹⁸, bada, ez luke animalien esplotazioarekin irabazi handiagoak lortzea babestu behar, ezta industriaren ekonomia-aholkulari bilakatu behar ere. Hor ez dago garaipenik, ez baitie behar bezala aurre egiten giza menderakuntzaren erroei. Alde horretatik, erreforman bermatzen den aktibismo-marka horrek animaliak jabetza eta kontsumogai gisa duten estatusa zedarritu du, eta animalia-industriaren zenbait alderdiri hazten eta etekin handiagoak lortzen lagundu dio. Argi baina argiago ikusten da hori animalien babeserako taldeek Whole Foods Market-ekin duten maitasun-aferan.

2006 hasieran, Peter Singerrek emozioz betetako eskutitz bat bidali zuen, ez bere maitalearekin harremana uzteko, alderantziz baizik, John Mackeyrekin harremana hasteko: Whole Foods kateko CEOa da, langileen kontra eta kapitalaren alde perla izugarriak botatakoa: “Sindikatuak herpesa izatea bezalakoak dira. Ez zaitu akabatzen, baina desatsegina eta deserosoa da, eta jende asko uxatzen du zure maitale bilakatzetik”¹⁹. Mackeyrengandik gaixotasun metaforikorik harrapatzeko beldurrik gabe, Singer, haren talde Animal Rights International eta beste hamazazpi erakunde — animalien eskubideen eta ongizatearen aldekoak— goxo-goxo moldatu ziren Mackeyrekin eta Whole Foodsekin. Elkarrekin, taldeek adierazi zituen “miretsi eta babestu” egiten zutela “Whole Foodsek abiarazitako

egitasmo berritzailea: Etxaldeko Animalientzako Errukizko Gidalerroen ezarpena”²⁰.

Ez baditugu egitasmo horiek ezagutzen, merezi du sare-ra jotzea haien berri izateko. Animal Compassion (animalientzako errukia) fundazioaren webgunea aurkituko duzu, Whole Foodsek diruztatutako fundazio bat: “etxalde-jabeen, haragi-ekoizleen eta ikertzaileen topagune dinamiko bat da, animalien behar fisikoak, portaerak eta ongizatea babesten dituzten praktikak eta metodologiak ikasi eta partekatzeko, iraganeko jakintza oraineko eta etorkizuneko berrikuntzarekin hobetzeko”²¹. Estekaz esteka Whole Foods korporazioaren webgunera iritsita irakur daitekeen, “errukizko gidalerro horiek saltzen dugun haragiaren kalitatea eta segurtasuna hobetzen dituzte, baita animalien bizi-baldintza gizatiarrak ere babestu ere”²².

Mackey zuzendariaren jarrera “progresisten” adierazle da hori dena; haren filosofiaren arabera, kapitalismoak mesede egiten die negozioaren akziodunei eta publiko interesdunari²³. Publiko interesduna bezeroak, langileak, hornitzaileak eta Whole Foodsekin harremanak dituen komunitate lokala dira. Ingurugiroa ere sartzen da, eta, azken pentsamendu-kondar gisa, animaliak. “Animal Compassion” programa, diotenez, animaliak publiko interesdun gisa aitortzeko konpromiso handiago baten parte dira; hornitzaileei animalien ongizaterako neurri zorrotzagoak betearaziko zaizkie. Programak badu konpromiso hori hartutako animalia-jatorriko produktuak etiketatzeko logo bat ere. Are gehiago: 2008tik, Whole Foods bezeroak informatzen hasiko da, jakin dezaten zer diferentzia dagoen

“Animal Compassion” etiketa duten produktuen eta bes-
telakoen artean²⁴.

Whole Foods berritzailea da alderdi batean behintzat: asmatu dute ustez animalien esplotazioaren kontra dagoen jendea konbentzitzen bat egin dezaten animalien esplotazioan oinarritutako negozio- eta marketin-eredu batekin. Logika nagusi den edozein unibertsoan, erakunde horiek —beren helburua serio hartzen dutenek behintzat— uko egingo zioketen animalien esplotaziotik hainbesteko etekinak ateratzen dituen enpresa batekin lan egiteari. Halere, zail samarra izan liteke hori ikustea, industriaren prozesu handiago baten parte baita, eta behin eta berriz gertatu da hori era guztietako ezkerreko mugimenduetan eta mugimendu aurrerakoietan²⁵.

“Animal Copassion” programaren jatorria Viva! USA animalien eskubideen aldeko taldean dago, zeinak Whole Foodsen urteroko bileran piketea egin eta enpresa boikotatzeko deialdia egin baitzuen. Mackey Viva!-ko zuzendariarekin hizketan hasi zen, eta, haren ondorioz —Singerren eta Masonen arabera— Mackeyk ulertu zuen animaliak nola tratatzen diren, eta begano egin zen. Ustez Mackeyk beganismoa besarkatu izanaren ondorioz, ziurtatu nahi izan zuen Whole Foodsek saldutako haragi eta animalia-jatorriko produktu guztiak “duintasunez tratatzen dituztela hil aurretik”²⁶. Jarraian, Animal Compassion gidalerroak sortzeari ekin zion, eta Viva!-ko zuzendaria ere gonbidatu zuen parte har zezan. Animalien eskubideen aldeko beste talde batzuei ere eskatu zien bat egiteko, eta prozesu mailakatu bat ikusten da hor, zeinetan “aktibisten” hainbat

antolakunde ustez babesten dituzten kausen kontra lan egiten duen industriaren morroi bilakatu baitira.

Akaso pesimista edo zinikoa izango naiz, edo errealista besterik ez. Nolanahi ere den, zaila da ahaztea Whole Foods korporazio bat dela, eta korporazioek xede bakarra dute: akziodunei etekina ematea. Korporazioak ez dira erreforma etikoak, berdintasuna, justizia edo beste ezer sustatzetik bizi, non eta hori guztia ez datorren bat beren kalkulu guztiekin. Erretorika gorabehera, eta CEO gisa, Mackeyren benetako lan bakarra zera da, Whole Foods errentagarria dela eta etekinak ematen segitzen duela. Akziodunekiko konpromisoa huts egingo balu, lana galduko luke. Hori kontuan harturik, aintzat hartu behar da litekeena dela Whole Foodsek animalien eskubideekin hartutako konpromisoa akziodunei etekinak ematearen baldintzapean dagoela. Animalien eskubideen industriak akaso bertan goxo egingo du pentsatuz badagoela jaun ahaltsu bat animalien, langileen eta komunitatearen interesak zaintzen, inozokeria da pentsatzea animalien esplotaziotik etekina ateratzen duen konpainia batek benetako interesik duenik bere negozioaren alde errentagarri hori bukarazten. Whole Foodsi ez zaio merkatu-malezariarik falta; ikusita aukera zuela merkatu-nitxo berri bat kolonizatzeke, hartu egin dute, eta, prozesuan, haragia, esnekiak, arrautzak eta animalia-esplotazioan oinarritutako bestelako produktuak saldu ez ezik, kontsumitzaileentzako hautu “etiko” gisa aurkezten dute beren burua. Oso jokabide bitxia da hori ustez animaliez kezkatzen den konpainia batentzat, baina ez horren bitxia, gauzak ondo pentsatzen hasiz gero.

Whole Foodsentzat, erakunde gisa, etxaldeko animalien ongizatea bigarren mailako kontua da, nahiz eta akaso izango duten jendeari etxalde arrunten barrenaldea erakusteko nahia. Modu errealista batez erreparatuta, ez da zaila ikustea: etxalde “arruntetako” haragia nolako baldintzetan ekoizten den aipatzea oso modu eraginkor eta boteretsua da Animal Compassion zigilupeko produktua desberdindu eta promozionatzeko, batez ere aukera merkeagoak ere badirenean. Jakina denez, nik ez daukat modurik jakiteko ea Whole Foodsi edo John Mackeyri benetan axola zaizkien beren etengabeko etekinetarako esplotatzen dituzten animaliak (Mackeyk esana du animalia-jatorriko produktuak saltzea beharrezkoa dela Whole Foodsen negozio-eredurako, nahiz eta bera beganoa izan²⁷), baina seguru esan dezaket Farm Animal Compassionate zigiluak nahiko modu eraginkorra eta erlatiboki merkea direla marketin bideratua eta harreman publikoak egiteko. Whole Foodsek ez du animalien ongizateaz hitz egiten bere produktuak iragartzean, baina berehala adierazten dute eraldaketa horiek kontsumitzaileak zoriontsuago egingo dituztela, saltzen duten haragiaren “kalitatea eta segurtasuna” babesten ari direnez gero.

Kapitalismoaz, Boochinek idatzi zuen akaso errazagoa litzatekeela landare berde bati fotosintesia utzaraztea kapitalismoari metaketa abandonaraztea baino. Gauza bera esan genezake animalia-industriaz eta animaliak kontsumogai bilakatzeaz. Nahiz eta kontsumogai bilakatze hori “politago” egin dezakegun haragi “errukitsua” edo “zoriontsua” ekoiztita, edo haurdunaldi-kaiolak baztertuta,

adibidez, kontsumogai bihurtze hori ez da sekula bere kasa desagertuko, sistemaren beraren oinarrizko logika baita. Animaliak kontsumogai eta jabetza bilaka ditza-keen bitartean, sistema egokitu egingo da, baita mugarik zorrotzenekin ere. Hori dela eta, gure aktibismoak sistema erroetatik borrokatu behar du, animalien jabetza- eta kontsumogai-estatusa ituan jarrita, eta ez etikoki erreka jota dagoen sistema batek bere burua erreformatzeko lan ezinezkoa egingo duelako esperantzan. “Erreforma” horiek, hain zuzen, animalien esplotatzaileei modu eraginkor eta errentagarriagoan esplotatzen laguntzen diete, sistemaren azpian datzan kontsumogai-harremana benetan ukitu ere gabe.

Sistemaren erroetara jo beharrean erreformak bultzatzeak gainazpikatu egiten ditu bitartekoen eta helburuen harremanak. Gary Francioneek hauxe dio *Rain Without Thunder* liburuan:

Talde askok ez dute kontraesan logikorik ikusten animalien erabilera instrumentalak esplizituki onartzen eta berresten dituzten neurriak babestearen eta aldi berean animalien eskubideen epe luzerako filosofia bat artikulatzearen artean. Instrumentalismoak ukatu egiten die animaliei inongo balio moral inherenterik daukatenik edo eskubideen onuradun izan daitezkeenik, eta ideia horiek animalien eskubideen teoriaren erdi-erdian daude. Ongizatezale berriek uste dute koherentea eta moralki onargarria dela gaur animalien eskubideei uko egitea, beste animalia batzuek bihar eskubi-
deak izango dituzten esperantzan.²⁸

Gaur egun, mugimendua halako moduz dago egitura-tua, non deskonexio sakona baitago bitartekoen eta helburuen artean. Erreformaren bitartekoak besarkatuta, animalien babeserako erakundeek asumitzen dute nolabait, noizbait, etorkizuneko munduren batean, animaliak ez esplotatzeko helburura iritsiko garela. Ia gogora ekartzen du Ezkerrean iraultza osteko bizitzaz esaten dena. Arazoa da gaur egun aktibismo-bide nagusiak babestu egiten dituela animaliak kontsumogai bilakatzen eta esplotaziora kondentatzen dituzten egiturak. Aktibistek erreforma horietan trabatuta segitzen duten bitartean, apenas izango diren aholkulari hutsak. Industria horrek seguru asko onartuko ditu haien eskariak neurriren batean, baldin eta marketin-aukera bat ematen badiote, edo animalien esplotazioaren abolizioa atzeratzen badute. Are okerrago: aktibismo mota horretan dabilzan zenbait antolakunde etekinak ateratzen ari dira, eta hainbeste axola omen zaizkien eta “era gizatiarrean” tratatzen diren animalien bizkar mantentzen dituzte beren burokraziak. Ondorioz, salatzen omen duten sufrimendu horren guztiaren parte dira.

Animalien sufrimendua, fetitxe

Animalien eskubideen aldeko industriari arazo horiek aski lirateke porroterako, baina, horiez gain, gaur egungo animalien eskubideen aldeko mugimenduak miopia izugarria du, zorroztasun politikoaren falta, eta giza sufrimenduaren garrantzia baztertu eta aldi berean animaliena fetitxizatzen

duen estrategia-sorta bat. Ulertzekoa da animaliei arreta berezia eskaintzen dieten erakundeek horixe azpimarratzea, baina enfasi horrek ez luke baztertu behar “gizaki” delako animalia-mota berezia.

Gizarte osoko hierarkiaren eta menderakuntzaren aurka egin behar badugu, hierarkia *oro* zalantzatu behar dugu, baita gizakien arteko hierarkia ere. Badirudi animalien eskubideen aldeko mugimenduaren gehiengoak, gaur egungo moldeetan behintzat, ez duela ulertzen zeinen lotuta dauden giza sufrimendua eta animalien sufrimendua, hala ideologikoki nola sistemikoki. Animalien aktibisten inguruan eman ditudan urteetan, misantropo peto-petoak aurkitu ditut “mugimenduan”; jende horrek pentsatzen du edo gizakiek “merezi dutena” jasotzen dutela —inozoki pentsatuz gizaki guztiek badutela agentzia nahikoa beren arazoak gainditzeko— edo animalien sufrimendua kualitatiboki garrantzitsuagoa dela giza sufrimendua baino. Gaur egungo mugimendua bete-betea dago animalien sufrimenduari garrantzi berezia eman bai baina giza ondorioei ez ikusiarena egiten dien jendez. Aktibista horietako askok ez dute ulertzen nola giza sufrimendua eta animalien sufrimendua bat eginda dauden esplotazio-sistema bakarrean, eta, nahiz eta animalien esplotazioa zabal errotua dagoen gure gizartean, ez litzateke ahaztu behar giza esplotazioa ere badela arau.

Animalien sufrimenduaren fetitxearen ondorioz, jende asko prest dago guztientzako askapenaren printzipio orokorrekiko konpromisoa baztertzeko, eta gehiago interesatzen zaio segurtatzea ustez toki hobea bat izango dena

animalientzat eta animalien aldeko mugimenduaren itxura politikoarentzat eta estatusarentzat. Hala gertatzen da baita animalien aldeko aliantza posibleek giza berdintasunerako ondorio latzak dakartzatenean ere. AEBetako irailak 11ko atentatuen ondoko berpizkunde neokontserbadorean, bazirudien indarra hartu zuela fundamentalistengana eta kontserbadoreengana heltzeko gogoak. Aktibista askok zioten mugimendu gisa kanpora eta eskuinera jo behar genuela kontserbadore kristauak, neokontserbadoreak eta bestelako eskuindarrak erakartze aldera. Niri neuri kargu hartu zidan beste aktibista batek nire ateismoaz publikoki hitz egiteagatik; hark zioen nire ateismoak gugana bildu berri zen jendea uxatuko zuela, eta jainkozaleei eta meza-zaleei sinestaraziko ziela mugimendua bera zela jainkoga-bea. Beste batzuek ere babestu zuten argudio hori, esanez mugimenduak ez lizkiekeela atea itxi behar ebanjelistei —Chris Hedgesek arrazoiz “amerikar faxistak” deitzen dituen²⁹—, haiek baitziren gure herrialdeko indar politiko nagusia, eta, hala, beste inor baino aproposagoak mundu beganoranzko mugimendu azkar bat ekartzeko. Beste batzuek esan zidaten ez genukeela mugimenduaren parte batzuk hartu dituzten eskuindarrendandik aldendu behar, mugimendu osoari on egiten baitzion horrek, eta odol berria ekartzen. Esperantza zen “odol berri” horrek mugimendua suspertuko zuela, eta orokortzen lagunduko ziola, baina ematen zuen inork ez zuela pentsatu odol berri horrek sarri askotan pozarren babesten zituela esplotazioaren eta zapalkuntzaren aldeko posizio ideologikoak beste auzi ugaritan.

Nahiz eta kontserbadoreek ez duten hainbesteko erreparorik beren joera ideologikoak adierazteko, aipatzekoa da “liberal” direlako horiek ere antzeko jarrera zapaltzailak sustatzen dituztela, batez ere merkatu librearen botereari, kapitalismoaren loriei eta legearen aginpideari dagokienez. Hainbat auzitan, hain tarte estua dago liberal gehienen eta kontserbadoreen artean, ia ezdeusa baita. Ordua iristen denean, liberal gehienek ez dute borroka antikapitalistik babesten ez langileen eskubideak alde bakarrez babesten, eta askoz ere gehiago beldur dira itxura “erradikalegia” emateaz. Alde horretatik, nahiz eta liberalek irekiagoak izan litezkeen animalien eskubideen auzian —hori ere zalantzakoa izanagatik ere—, ez dago motiborik pentsatzeko aliatu erabilgarriak izan litezkeenik kapitalaren indar zapaltzaileen kontrako edozein borrokatan, askotan indarrok desiragarritzat dauzkatenez gero.

Jakina da animalien eskubideen mugimenduko eztabaidak ez direla sekula hutsune politiko batean gertatzen, baizik eta PETA eta HSUS bezalako antolakunde handien aktibismo profesionalak menderatutako testuinguru batean. Beste ezeren gainera —eta dirua— bilatzen duen erakunde gisa, PETA animalien mugimendu osoaren ordezkartzat jotzen da normalki. Arrazoi filosofiko eta praktikoak direla-eta, hori tragikoa da animalientzat eta animaliak axola zaizkienentzat, PETAk ez baitu inolako enpatiarik justizia sozialaren aldeko beste kausekin. Oportunista politiko petoak direnez, PETAk edozein kausaren alde egingo du —esplotazioan oinarritua edo ez— horrek arreta ekarri badie, eta, ondorioz, dirua, erakunde

dirudunei dohaintzak egitea aktibismotzat jo daitekeela uste duen jendearen dirua. PETA lagungarri izan da animalien sufrimenduaren fetitxizazioa betikotzen, ikuspegi politiko ikaragarri estu batekin, eta horrek borroka zabalagoekin kezkatutako jendea urrundu du. PETAri egin dakiokkeen kritikarik emankorrenetako bat zera da: zein lotsagabeki eta maiz objektifikatzen dituzten emakumeak kausaren aldeko arreta erakartzea beste helbururik gabe. PETAren sexismoa ondo dokumentatua dago, baina adibiderik berrienetako bat haien “State of the Union Undress”-ean aurki daiteke³⁰; George W. Bushen 2007ko State of the Union Adress**-arekin bat etortzeko programatu zuten hori. Sareko bideo horretan, emakumezko modelo bat erabat biluzten da, tarteka animalien sufrimendua adierazten duten irudi odoltsu eta gordinak agertzen direla. Kasu horretan, produktua PETA da eta haien dohaintza-beharra, hori baita, oso era benetakoan, haien bizi-odola.

Era berean, badirudi PETAk ez daukala arazorik ideologia eta mugimendu arazotsuekin bat egiteko arreta eta dirua biltze aldera. Kapitulu-hasieran esan dudana bezala, PETAk sari bat eman hiltegi-diseinatzaile bati, zeinak animalien eskubideen aldeko taldeek babestu beharko litzuketen kausen kontra lan egiten baitu. Hala, ez da harritzekoa PETAk pozarren ematen dizkiela sariak kontserbadore fundamentalistei, zeinek gizakiak baztertu, esplotatu eta laidotzen dituzten politikak babestu baitituzte. Bush II.aren AEBetan gora eta gora doan kontserbadurismoa eta

* Hitz-joko bat dago adress (kasu horretan, hitzaldi) eta *undress* (arropa kendu) hitzen artean.

patriotismoa ikusita, PETAk Pat Buchanan kontserbadorari eman zion “Progress Award” saria, “ausardia” izateagatik³¹. PETAren esanetan, Buchananez animalien alde egin zuen, eta George W. Bushen hitzaldi-idazle izandakoak proposatutako ideia defendatu zuen; hots, “kontserbadurismo errukitsuak” animalienagana ere iritsi beharko lukeela³². Kezkagarriena zera da: Buchananez, nonahitik begiraturuta ere, ausardia handia izan du beste animalia mota baten esplotazioan, gizakien esplotazioan, alegia. Buchananez eskuineko ibilbidearen berri ez duzuenontzat, hona hemen momenturik onenen bildumatxo bat: Buchananez AEBen eta Mexikoren artean hesi bat eraikitzea proposatu zuen, immigranteak ez sartzeko; halaber, AEBetan jaiotako legez kanpoko migratzaileen seme-alabei jaiotzetik dagokion hirirtasun-eskubidea kentzearen alde egin zuen. Hori gutxi ez, eta Buchanan askotan mintzatu da lesbianen eta gayen eskubideen kontra, holokaustoaren izugarrikeriak txikietsi ditu, eta sarritan hitz egin du feminismoaren kontra. 80ko hamarkadan, Buchanan Hegoafrikari apartheida zela eta isun ekonomikoak jartzearen aurka zegoen, eta konfederatuen bandera debekatzearen aurka ere badago³³.

Buchananez eta Scullyk sustatzen duten agenda tamalgarría da berdintasunerako, animaliez pentsatzen dutena gorabehera. Buchanan justiziaren antz txikiena duen ororen kontra dago erabat. Scullyk ere, Iraken chunka milaka hil dituen administrazioa ahalbidetuz eta sustatuz³⁴, erakutsi du benetako justizia ororen kontra dagoela. Pentsalari eta politikari horiek aupa-tuz, PETAk erakusten du hedabideetako presentziari balio handi-agoa ematen diola mundu

guztiarentzako justizia sozialari baino. Buchananen neurri kaltegarriei ez ikusiarena eginez, PETAk erakusten du bost axola zaiola denon sufrimendua amaiazaztearen alderdi moral eta etikoa, animaliei zein gizakiei dagokienez. Hitz bitan, PETAri gizakiz besteko animalien sufrimendua bakarrik axola zaio. Animalien askapenaren kritika guztiak agerian geratzen dira PETAren boterea eta eragina dituen talde batek Pat Buchananen balioekin bat egiten duenean, zeina mundu zapalduarentzako justiziaren kontra baitago erabat. Ikusita halako jendea mugimendura gonbidatzen dutela, eta gizakien esplotazioari bide ematen dioten politikariak babesten dituztela, argi dago animalien eskubideen aldeko mugimenduak animalien sufrimendua fetitxe bihurtzen duela beste ezeren gainera. Arrazoi moralak eta etikoak direla-eta animalien sufrimenduaren kontra bagaude, bada, sufrimendu *ororen* kontra egon beharko genuke, izan gizakien sufrimendua, izan gizakiz besteko animaliena. Eskuineko kristauen arteko jendea mugimendura ekartzen saiatuta, nola ahatz dezakegu alde politiko horrek bigarren mailako hiritar bilakatu dituela gayak eta lesbianak? Mugimendu gisa, esaten badugu sufrimendua axola zaigula, ez al genituzke politika horiek ere salatu beharko?

Azken finean, baldin eta aktibistek sortu nahi duten munduan animalien interesak errespetatu bai baina gainerakoan esplotazio-dinamikak nagusi badira, eskatzen ari diren horixe jasotzen bukatuko dute. Ez da ezinezkoa bestelako mundu bat imajinatzea, zeina bestelako menderakuntza eta hierarkia batzuek egituratzen baitute eta animalien estatusa ere animalien interesen berme baita.

Imajina liteke kapitalismo guztiz begano bat, baita faxismo edo beste erregimen totalitario guztiz begano bat ere (hain zuzen, zenbait punk taldek gizarte beganoaren ikuskera autoritario bat sustatu dute, ala nola Vegan Reich taldeak). Era berean, ez dago motiborik pentsatzeko animalien interesak zabal babestea ezinezkoa izango litzatekeela teokrazia kristau erabat autoritario batean, eta klaserik gabeko gizarte batean ere izan litezke bestelako menderakuntza-formak, Bookchinek marxismoaren bere kritiketan dioenez. Animalien eskubideen aldeko mugimenduak ikuspegi murriz horri eusten badio, eta gizakiz besteko animalien eskubideak baino ez baditu defendatzen —era berean gizakiak esplotatzen dituzten pertsonak, antolakundeak eta mugimenduak sustatuz—, bada, arriskua da gizarte bidegabe bat balioesten, sustatzen eta mantentzen segi litekeela, kasualitatez animalien interesak zainduz. Abagune politikoak eta epe motzeko lorpenek jarritako tranpetan erori ordez, animalien eskubideen aldeko mugimenduak mugimendu zabalago baten parte izan beharko luke, zeinak hierarkia, menderakuntza eta esplotazio *oro* eteteko helburua izango bailuke, barnean direla ez bakarrik arraza, klasea, sexua eta adina eta halako kategoria nabarmenak, baita heterosexismoa eta espezismoa ere. Animalien eskubideen aldeko mugimendua mugimendu zabal horren parte ez den bitartean, kondenatuta egongo da aurrerapen partzialak eta hutsegite politikoak sufritzera, baita, ziur asko, epe luzean erabat garrantzigabea bilakatzerara ere.

Aktibismo noragabea, pragmatismo nekaezina, dogmatismo erlijiosoa

Hori guztia kontuan izanda, animalien eskubideen aldeko mugimendua nahasia, noragabea eta gupidagabeki pragmatikoa agertzen zaigu. Francionek xehetasun handiz marraztu zuen erretratu hori bere 1996ko liburuan, *Rain Without Thunder: The Ideology of the Animal Rights Movement* (Trumoirik gabeko euria: animalien eskubideen aldeko mugimenduaren ideologia).

Alde batetik, zenbait taldek aktiboki sustatzen dituzten neurriek animaliak jabetza eta kontsumogai direla berresten dute, inplizituki adieraziz onargarria dela animaliak kontsumitzea eta erabiltzea, baldin eta erabilera hori behar bezain amultsua bada. Horren ondorioz, korronte nagusi horretako animalien aldeko aktibista ugari hiltze-gidiseinatzaileen lana sustatzen bukatzen dute, edo “haragi zoriotsua” delakoa salduz aberasten diren CEO liberale-na, eta “animalien eskubideak” etiketaren azpian kaiolatik kanpoko arrautzak ekoizten dituztenena.

Beste alde batetik, mugimendua noraezean dabil politikoki, teorikoki eta ideologikoki. Mugimenduaren barruko “aktibismista” ugari teoria aipatze hutsaren kontra daude guztiz, “hainbeste milaka milioi hiltzen ari diren bitartean”, eta horrek mugimenduaren pragmatismo nekaezina elikatzen du eta, era berean, ekintza, aliantza eta estrategia jakin batzuk saritzen, behar bezain ondo pentsatuta ez egonagatik ere. Hala, praxia teoritik erabat bereizita dago, baina baita halako jarrera matxista bat ere, zeinaren arabera

mugimenduko “benetako gizonak” ari baitira, ari, “gauzak egiten”, eta ez eseri eta pontifikatzen animaliak hiltzen diren bitartean. Nahiz eta alde batetik erreakzio hori ulertzeko izan litekeen —milaka milioi animalia hiltzen baitira, bai, imajina ezin ahalako krudeltasunean—, jarrera horiek okerrak dira, teoriarik gabeko ekintzek askotan kontrako eragina izaten baitute; okerrean, autoboikotatzaileak ere izan daitezke.

Azkenik, mugimendua nahiko sektarioa da, oso era arriskutsuan, zenbait erakunde, pentsalari eta estrategiari dion atxikimenduari dagokionez³⁵. PETA kritikatzeari bereziki heretikoa iruditzen zaie talde horren propagandan gogor aritutako askori. Talde horrek erakutsi zien animalia-esplotazioaren krudelkeria, eta leialtasuna sentitzen dute. Interneteko irrati-saio baten gidari gisa, sarritan kritikatu dut Peter Singer, animalien eskubideen aldeko mugimenduen “aita” delakoa. Singerrek bat egin izan du animaliak etekin truke hiltzen dituzten erakundeekin, baina, hori gutxi ez, eta beganismoaren printzipio etikoei eutsi die, zeinak ez baitira absolutuki beharrezkoak³⁶. Saioan Singer kritikatzeko dudak bakoitzean, entzule haserretuen mezu elektronikoak jasotzen ditut. Mezu horien alde bitxia zera da: arazoa izaten da ez nire kritikaren *edukia* —hori albo batera uzten dute gehienetan—, baizik eta Singer kritikatzeko hutsa. Ematen du printzipio sakraturen bat bortxatu dudala, edo birao egin dudala, Inkisidore Handiaren aurrera eramateko modukoa. Gehienetan, ideia nagusia izaten da gurtu beharko nukeela gure “aita” loriatsua, baita haren posizio filosofiko eta praktikoei animalien eta gizakien

injustizia areagotzen badute ere³⁷. Idolatria hori arrisku-tua da oso, baita horrek barruan dakartzan ideiak ere. Gai batzuei buruz hitz egitea tabua bada, mugimendua dogma erlijioso jainkogabe bat bilakatu da, ez besterik³⁸. Hori dena gutxi ez, eta niri eta nire kide batzuei “banatzaileak” eta “fundamentalistak” izatea leporatu digute, esateagatik ez genukeela industriarekin lan egin behar animaliak kontsumogai bilakatzeko eta hobeto merkaturatzeko moduen bila, eta gure aktibismoak animalien jabetza-estatusa izan beharko lukeela helburu. Ideia horrek animalia-industriaren iritzi nagusia zalantzatzen duenez, arriskutsutzat jotzen dute animalien aldeko erakundeek eta haiek babesten dituzten negozio handiek.

Azkenik, animalien eskubideen aldeko mugimendua okerreko tokia da animalien eta gizakien esplotazioa abolitzeko benetako mugimendu baten oinarri gisa. Arazo politiko eta praktikoz izurritua dago, eta trinkotasun etikoa falta du, zeina behar-beharrezkoa baita hierarkia eta menderakuntza orearen kontrako borroka orokor baten oinarri logikoa izateko. Tamalez, hurrengo atalean esango dudanez, Ezker progresistak ere era horretako trinkotasuna falta du oro har, eta hori beharrezkoa izango litzakete menderakuntza orearen kontra egiteko.

Ezker progresista eta animalien eskubideak

“Nola lortuko luke anarkista-talde batek bilerarako ordua jartzea?”, galdetu zidan lankide batek, erdi txantxetan, esan

nionean teoria anarkistari buruzko eskolak ematen nituela. Nire lankidea anarkismoa eta kaosa nahasten ari zen, noski —oso arazo ohikoa—, baina, anarkismoari buruzko aurreiritzi horiek gaindituta, onartu zidan klaseak bizia eta interesgarria ematen zuela. Klasea bizia eta interesgarria zen, bai, baina bazituen erronkak ere, eta nire lankideen aurreiritziak gainditzea erronka horien arteko txikienetako bat zen. Hori baino lehen, botere-kontuei heldu behar genien. Anarkismoak boterearen eta hierarkiaren jatorriak auzitan jartzen ditu, eta nik, teoria praktikara eramanda, irakasle gisa ditudan posizioa eta boterea auzitan jarrarazi nahi nizkien ikasleei. Gazteagoa eta idealistagoa nintzenean uste nuen baino gaitzagoa da hori; izan ere, gizarte kapitalistan eskola eskulana trebatzeko gunea denez gero³⁹, obediencia, edukazioa eta autoritatearekiko atxikimendua oso ezaugarri preziatuak dira. Ikasle gehienak niregana ailegatzen direnerako ezagutzen dute sistema, baita sistema horretan duten tokia ere, eta horietako gehiegi eskolarekiko pasibotasun-zentzu batera sorgortuta daude, eskola erosotasun materialerako bitartekoa baita haientzat: etxea aldirietan, lan on bat inbertsio-enpresa batean, auto eder bat, asteburuan itsasertzean, eta, suertea izanez gero, baita egoera material antzekoa duen bikotekide bat ere.

Pasibotasun horren kontra egitea ez da erraza. Ikasle ugarik jakin nahi dute zehazki zer bidentatik egin behar duten aurrera “behar” dituzten notak lortzeko. Ikasle gutxik egin nahi dute —edo gutxik dakite nola egin— arrazoiketa eta sormena exijitzen dituen lan zail hori, eta are gutxiagok dute benetako desira indartsu bat hezkuntzan beren

agentzia propioa lantzeko. Aurrean nituen ikasleek beren bizitzako parterik handienean hezkuntza-sistema porrotatu batean hezi dira, zeina haien sormena eta desira galbideratzeko diseinatuta baitago. Hori guztia gainditzeak denbora eskatu zigun, bai niri, bai klaseari.

Dena den, halako batean hautsi genituen eredu zaharrak, eta dinamika berri batean hasi ginen. Ezin genuen bizi osoko sozializazioak erakutsitako guztia ahaztu, noski, baina aurreratzen behintzat hasi ginen. Aste gutxi batzuen buruan, gauzak nola egin adostu genuen, eta laster klasearen gehiengo ikasle-talde arduratsu, gogoetazale eta langilea bilakatu zen, zeina, argi eta garbi, motibatua baitzegoen zapalkuntzaz, askapenaz, justiziaz eta auzi horien ekarpen anarkistez gehiago jakiteko. Gure dinamika-aldaketaren parte bat hauxe zen: nire boterea deszentralizatu nuen, eta ikasleek planifikatzen eta gidatzen zituzten saio gehienak, normalean nik hautatutako irakurgaiak erabilia. Ez naiz inozoa, eta badakit haientzat ez nintzela beste ikaskide soil bat, baina giro hartan ikasleak hitz egiteko libre ziren, eta sormenez eta gogoetaz heltzen zioten lantzen ari ginen materialari. Gure dinamikaren garapenean, boterea ez zen jakintzat eman, eta, alde batetik, horixe lortu nahi nuen hain zuzen ere.

Klaseak aurrera egin ahala, giza zapalkuntza ulertzeko hainbat modu aipatu genituen, eta komentatu genuen nola heltzen dien teoria anarkistak giza askapenaren eta askatasunaren borrokei. Anarkismoaren eta feminismoaren dinamika gainjarriez hitz egin genuen, baita anarkismoaren eta ekologismoaren eta garapen-bidean diren herrialdeetako

borroken dinamika gainjarriez ere. Ikusita ikasleetako askok zutela esperientzia hemengo edo kanpoko mugimendu eta borroketan, elkarrizketek hainbat ikuspuntutatik abiatzen ziren. Batzuetan, klasea aldi berean interesgarria eta harrigarria iruditzen zitzaidan, eta, beste batzuetan, frustrazio-iturri (esate baterako, erabakiak hartzeko moduari buruzko adostasunik lortu ezin edo nahi ez zutenean, edo notetan kateatuta geratzen zirenean). Halere, eskolei gogotsu ekiten nien, aukera bat izango nuelako ikasleekin ideia indartsuez hitz egiteko, haiek ere —oro har— bat baitzetozen ideia horiek indartsuak, funtsezkoak eta potentzialki eraldatzaileak zirela. Horretarako sartu nintzen goi-mailako hezkuntzan, eta, batzuetan gidaritza bueltan hartzeko gogoia ere sartzen zitzaidan arren, gehienetan kontra egiten nion bulkada horri, ikusirik ezen nire zuzeneko gidaritzarik gabe lortzen ari ginena askoz ere hobea zela nik nire borondatea klaseari inposatuta lor nezakeena baino.

Ikusita gai ugari buruz hitz egin genuela, eta klaseko kiderik serioenek giza zapalkuntzaren auziekiko sentsibilitatea zutela, seihileko erdian ideia bat plazaratu nuen, ordura arteko elkarrizketa guztiak baino eztabaidagarriagoa suertatu zena. Zapalkuntzaren ideologiaz ari ginela, esanez “beste” sozialez betetako kanpo-talde zabalak sortzen direla, argudiatu nuen gizakiok bestetxe horretan parte hartzen dugula, ez bakarrik beste gizakiei dagokienez, baita animaliei eta mundu naturalari dagokienez ere. Argudiatu nuen gure itsutasun ideologikoak animaliak gauza gisa tratatzeko modua ematen digula, beste espezie batekoak izate hutsagatik, hala nola arrazista batek zuriak⁴⁰ ez direnak

deshumanizatzen baititu sozialki “arraza” gisa hautematen den horren arabera. Aurreiritzi hori, jarraitu nuen, arrazakeria, sexismoa eta halakoak sortzen dituen zapalkuntza sistemiko berberean oinarritzen zen, eta horretaz konturatu beharra zegoen inora iritsiko baginen. Animaliei buruz serioago pentsatzearen alde eman nituen argudioek eztabaida bizia piztu zuten klasean. Batzuek barre egin zidaten, zuzen-zuzenean, hori esateagatik; beste batzuek baztertu egin zuten, eta uko egin zioten parte hartzeari, umore txarrez bezala; beste batzuek suharki adierazi zuten ez genuela animalien arazoekin kezkatu behar.

Ikasle batek kontatu zuen nolako lana egiten zuen giza eskubideen aldeko talde batean, eta sutzuki argudiatu zuen giza sufrimendua hain zela larria, sistematikoa eta toleraezina, non giza sufrimenduaren arazoa lehenetsi behar baikenuen, animaliez pentsatzen ere hasi aurretik. Are gehiago, erantsi zuen animaliak benetan ez direla *konturatzen* beren sufrimenduaz. “Zergatik hartu behar dugu animaliak askatzeko lana, gizakiek ere askapena behar badute, eta haiek hobeto errekonozitzen badute liberazioa?”, galdetu zuen. Beste gutxi batzuek bat egin zuten harekin, eta, ordura arte gai ugari aipatu genituen arren klasean, saio hura izan zen gatazkatsuenetako bat. Jendea ia builaka hasi zen saio gutxietako bat izan zen, eta harrigarria da hori gertatzea gurea bezalako unibertsitete batean, non oro har edukazio-arau burgesak baitira nagusi. Ikasle asko prest zeuden arraza-hierarkiaren injustizia onartzeko, eta bitxia egin zitzaidan ez zutela gogorik espezie-hierarkia auzitan jartzeko ere.

Eskola haren ondoren, ikasle gutxi batzuek nirekiko jarrera zertxobait aldatu zutela konturatu nintzen. Ordurako ohituak zeuden anarkista sozial bat irakasle izatera, baina orain, anarkista soziala bakarrik ez, animalien eskubideen alde egiten duen anarkista sozial bat nintzen —sinestezi-na!—, eta ez zituena ez jaten ez janzten. Anarkismo sozial? Jakina, irents zezaketen hori. Atsegin zituzten iraultza dantzagarriak, norbanakoaren askatasuna, eta ongizate kolektibo zabalago baten ideia ere tolera zezaketen, bai. Baina *beganismoa?! Batzuek esaten zidaten ez nuela beganoa ematen, eta, gainera, beganismoa “kaka zahar hippie” baten politika-itxurakeria zela, hain urruna, kontsideratzerik ere ez baitzuen merezi. Eta ni han, ez hezur-haragizko anarkista bat, baizik eta hezur-haragizko anarkista *begano* bat. Haien erreakzioa ikusita, pentsatu nuen ez ote zitzaidan hirugarren begirik atera kopetaren erdian.*

Istorio hori zeragatik kontatu dut, oso adierazgarria iruditzen zaidalako ikusteko zer iritzi duen ezker progressistak eta ezkerraren espektro zabalagoak beganismo etikoari buruz. Nire ikasleek esan zidaten gizakien arazoak konpondu behar genituela lehenengo, eta hori ez da, nire esperientzian, ezohikoa. Nahiz eta jende askok ez duen atsegin animaliei zapalkuntzaren kontrako borrokan lekua ematearen ideia, baina nik sentitu dudana ez izan oldarkortasuna, baizik eta gehiago jarrera defentsibo berezko bat, erreflexu hutsezkoa, ideia bat gogoeta egin gabe baztertzen denean bezala. Horrek guztiak badu barruan halako ziurgabetasun bat, zeinaren arabera kontu hori aipatzen duen edonor urrutitxo joan baita, edo errealitatearekin hautsi

baitu. Pentsatzekoa litzateke bestelako askapen-mugimenduetako jendea —irekiagoa, ustez behintzat, gutxiengoa—ren alde egiteko— gai izango litzatekeela diferentzia ideologiko hori partez behintzat onartzeko, baina batzuetan gaixotasun bat ematen du. Jende askok errefusatu egiten du animalien aldeko argudiorik entzun aurretik ere, animalien eskubideen aldeko sektan ez bukatzeko-edo. Berez, jarra hori “ez naiz zu bezain eroa” bulkadatik dator, seguru asko pertsona edo mugimendu horrek ez duelako nahi bere kausa PETAkoak bezalako eroekin kutsatzea, zeinak oilo mozorrotzen diren atentzioa deitze hutsagatik.

Aurreko paragrafoan esan dudan bezala, erreakzio horren parte handi bat soziala da ezinbestez, bizi garen gizarteak uste baitu gizartea eta giza natura —Bookchinek “bigarren natura” dioena⁴¹— mundu naturalaren eta haren gizakiz besteko biztanleen gainera dagoela, hierarkia zoriontsu batean. Kapitalaren eta zurien boterearen pribilegioak egituratzen duen gizarte batean bizi garen bezalaxe, espezie-pribilegio sistemikoa duen mundu batean bizi gara. Guk guztiok akulturazioaren ondorio den geure barne-arrazakeria borrokatu behar dugun bezala, guztiok —baita aktibismo-jarduna animalien esplotazioaren abolizioari eskaini diogunok ere— geure buruko espezie-pribilegioari aurre egin behar diogu. Gizarte honetako batezbesteko pertsonak animaliak jaten gozatzen du, eta akaso uste du elikadura-katearen gain-gainean dagoela. Kausa progresistetan eta ezkerrean inplikaturik daudenek, ordea, inplizituko behintzat erabaki dute bestelako pribilegio-mota batzuk auzitan jartzea, neurri batean edo bestean.

Urte luzez giza zapalkuntzari buruz hitz egin arren, sekula santan ez dut ezkerreko inor entzun zera esaten, zurien arazoak konpondu beharko genituzkeela zuriak ez direnenak baino lehen, edo gizonen arazoak konpondu beharko genituzkeela emakumeen arazoak konpondu aurretik⁴². Norbaitek esango balu zurien arazoak konpondu behar direla zuriak ez direnen arazoei ekin aurretik, bada, supremazista zuria izango litzateke gutxienez⁴³. Gehienok esango genuke esaldi makurra dela hori, eta ez duela benetako arretarik merezi. Baina, goian esan dudan bezala, ezkerreko jende engaiatua argudio-bide berean entzundakoa naiz, kausa eta mugimendu nobleetan engaiatutako jendea, alegia, espezie-privilegioari dagokionez. Ezker zabaleko jende asko (ez denak), demokrata-progresistekin hasi eta marxistekin buka, prest dago espezie-hierarkia onartzeko, aldi berean bestelako hierarkia batzuk baztertzeko lanean dagoen bitartean (klasea, arraza, sexua, baita naziotasuna ere).

Arazo hori oso errotuta dago “progresisten” artean ere, horietako asko haragi ekologikora, esnekietara eta arrautzetara lotuta baitaude “ekintza politiko” gisa, janari industrializatuaren arazoei uko egiten dietela adierazteko. Pentsamendu “progresistaren” gotorleku handi batek, *The Nation* aldizkariak, Tristram Stuartek idatzitako begetarianismoaren historiaren kritika bat kaleratu zuen —*The Bloodless Revolution* izena zuen liburuak, “Iraultza odolgabea” —; horri erreparatuta, argi dago ezen aldizkaria edozein ehiztari bezain progresista dela animaliei dagokienez. Ondo erakusten du horrek zein sakon dagoen errotuta giza menderakuntzaren arazoa progresisten artean ere. Honela

erantzuten dio artikulua, bukaeran, liburuak animalieki-ko errukitsuago jokatzera egiten duen deialdiarekin:

Nahiz eta begetarianoek pentsa lezaketen giza supremaziari amore emanda murriztu egin litekeela jendeak ingurugiroari egiten dion kaltea, ahalegin horiek guztiak kontra-erantzuteak dira. Gizakiei beren botere gorena ukatzea zera dakar, orobat ukatzea gizartea hobetzeko ingurumena salbatzeko daukaten erantzukizun gorena, baita, esan liteke, natura hobetzeko ere⁴⁴.

Giza supremazia hain sinpleki aipatze hori ez dago problematizatuta: giza hierarkia mundu naturalaren eta haren biztanleen gainean. Gizakiok “hobetu” egin dugu natura, eta sarritan izugarritzko kalteak sortuta. Argudio horren atzeko harrokeria bera da gaur egun sufritzen dugun krisi ekologikoa ekarri duena. Nahiz eta iruzkin horren egileak argudiatzen duen ia edonork uko egingo liokeela faktoria handietako haragiari, begetarianismoari uko eginez aldeztu duen giza supremazia hori edozein talde indartsuk ahularen kontra erabiltzen duen berbera da. “Gizon zuriaren zama” hitza ordezkatu da jada, baina oraindik ere gehiegi daude prest “espeziearen zama” onartzeko, besterik ez bada horixe iruditzen zaigulako munduaren izate naturala, eta txuleta samurrak eta larruzko jakak ematen dizkigulako.

Arazoa sakonekoa da oso. Nahiz eta “gizakiak aurrena” esatea erreakzioa ulergarria izan —gure espezie-pribilegioa onartzeko sozializatzen baikaituzte—, okerra ere bada, eta gainditu egin behar da, egitura sozialaren luze-zabala

zeharkatzen duen hierarkiaren eta menderakuntzaren analisi sakon baten bidez. Zailtasuna, ordea, zera da: sarritan asko kostatzen zaigu identifikatzea zapalkuntza zer den eta nola funtzionatzen duen ohituta gauzkan mugetatik kanpo. *Chomsky on Anarchism* liburu bikainean (Chomsky anarkismoaz), ohartarazpen horixe egiten du Chomskyk Barry Patemanekin elkarriketan:

Hain zuzen, aurre egin beharreko beste arazo bat hauxe da: gizateriaren historiako edozein puntutan, jendeak ez du ulertu zer den zapalkuntza. Hori ikasi egiten da. Nire gurasoen edo amonaren garaira itzultzen banaiz, adibidez, ba, amonak ez zuen uste zapaldua zegoenik oso familia patriarkal batean egoteagatik, zeinean aitak, kalean barrena, ez ikusiarena egiten baitzion alabari aurrean topatuz gero, ez ezagutu ez zuelako, baizik eta alabari ez zaiolako buru-makurturik egiten. Ez zuen zapalkuntza ematen. Halakoxea zen bizitza... Baina, aktibismoan —esaterako, emakumeen mugimenduan— dabilen edonork ondotoxi dakienez, aurreneko lanetako bat zera da, jendeari ulertaraztea zapalkuntzaren eta menderakuntzaren azpian bizi direla. Ez da agerikoa, eta batek daki zer zapalkuntza- eta menderakuntza-forma onartzen ditugun orain konturatu ere egin gabe⁴⁵.

Ikusezina egiten zaigun zapalkuntzaz ohartzea zaila izan liteke, batik bat hartara ohituta bagaude eta haren ondorioek mesede egiten badigute. Gehienok egunero parte hartzen dugu gure espezie-pribilegioan otordu oro, edo beste izaki baten larruarekin egindako zapatak janzen

ditugun bakoitzean. Horrela adierazteak moralista eta pixka bat morbosoa dirudi, baina ez da zera esatea baino moralistagoa, zuriek beren pribilegioaren egiturazko onura instituzionalak jasotzen dituztela, alegia. Sei bat urte daramatzat unibertsitatean irakasle, eta arraza-pribilegioa eta -desberdinkeria da irakasten dudan gairik zailena. Ez teoria bereziki zaila delako, baizik eta jendeari kostatu egiten zaio-lako ideia hori aurrenekoz ulertzea, eta bere pribilegioak errekonozitu eta onartzea. Arrainari ura azaltzea bezalakoa da. Eta, nahiz eta argi ikusi zenbat eta zenbat elementuk frogatzen duten AEBetako gizartea zurien pribilegioaren menderakuntzak egituratzen duela erabat, ikasleek aurka egiten diote ideia horri. Bestelako azalpenak bilatzen dituzte, “alferkeria”, “kultura”, garai bateko *Bell Curve* delakoa eta halakoak argudiatuz arraza-desberdinkeria azaltzeko. Bestela, auzitan jartzen dituzte arraza-desberdinkeriak nola funtzionatzen duen erakusten duten estatistikak etnografiak edo autobiografiak, esanez kasurik okerrenak eta gutxienekoak direla. Era berean, animalien eskubideen eta espezie-menderakuntzaren auziaz hitz egiten dudanean —baita beste menderakuntza-formei aurre egiten engaiatutako jendearekin ere— berriz ere egoera berean suertatzen naiz: taldeak uko egiten dio bere pribilegioa identifikatzeari, eta menderakuntza justifikatzen duten argudio erosoetan hartzen dute babes, esanez, adibidez, halaxe izan dela beti, halakoxea dela gure izaera, edo animaliak ez direla gu bezain inteligenteak eta adimentsuak, edo “ederra dago ba” esanez, edo “Ba ni Whole Foodsera joaten naiz Animaliekiko Errespetua zigilua daukan haragia erostera”.

Bestela, “begano friki” bat bilakatzen zara kontu hori aipatze hutsagatik, eta berehala baztertzen zaitu, barreka, giza menderakuntzaren bestelako arazoekin nahiko kezkatuta bizi den jende askok.

Progresistek eta ezkerreko jendeak dituen zalantza eta gaizki-ulertu horietako batzuk animalien eskubideen aldeko mugimenduari berari egotzi behar zaizkio, noski, lehenago aipatu dudan bezala nahiko baldar aritu baita ezker aldeko aliantzak josteko orduan, eta, gainera, egiturazko arrazakeria izan baitu urte luzeetan⁴⁶. Askori beganismoa umemoko zuri burgesentzako bizi-estilo sasipolitiko bat da, eta arreta desbideratzen du auzi “garrantzitsu” eta “serioetatik”. Egia da animalien eskubideen aldeko mugimenduko taldeek berek auzi horietako askori aurre egin ahalko lieketela baldin eta aktiboki gogoeta egingo balute langile-klasearekin, arrazializatutako jendearekin eta ezkerreko beste mugimenduekin dituzten harremanez; era berean, ordea, pentsamolde horren parte handi bat giza supremazismotik dator, eta hori ezkerrek serio hartu beharreko auzi bat da, baldin menderakuntza eta esplotazioa gainditzeaz serio ari badira.

Pentsamolde hori nabarmena da baita ezkerrean estimazio handia duten pertsonen artean ere, hala nola Michael Balbert, *Z* ezkerreko aldizkariaren fundatzailea eta aspaldiko aktibista politikoa. *Remembering Tomorrow* (Biharra gogoratzea) izeneko bere memorietan idatzi zenez, berak eta bere bikotekideak animaliak jaten zituzten, eta zalantza bat zuen: ea “*veggie*-ak eta beganoak” “garai bateko abolizionistak” bezalakoak diren, “edo egungo

feministak bezalakoak: jarrera bat hartzera behartzen gaituzte etorkizunean bigarren mailakoa eta erabat ukaezina izango dena⁴⁷. Segitu zuen esanez ea iritsiko zen egun bat zeinean beste justizia-forma batzuen alde borrokatzen zen jendea alfertzat edo “gizakiz azpikotzat” hartuko zen behi eta oiloen justiziaren alde ez borrokatzeagatik. Bere galderari erantzunez, Albertek zera dio:

Ez gaizki ulertu goikoa. Ez dut uste garrantzian konpara daitezkeenik sexismoaren erroak eta adarrak deusezteko borroka eta animalien kontrako indarkeriarenak deusezteko borroka. Ez dut uste garrantzian konpara daitezkeenik oiloak nola tratatzen diren eta emakumeak nola tratatzen diren, edo edozein gizaki. Hain zuzen, nahiko gutxi axola zait animalien eskubideen aldeko agenda, eta sexismoaren kontrakoa nire bizitzaren parte da. Istorio txiki horren mezua zera da: bizitza ez dela beti erraza edo bikaina. Borrokak aukeratu beharra dago, batzuetan baita merezi duten osotasunaren parte batzuei uko eginda ere, bolada baterako behintzat gure helmenetik kanpo daudelako. Hobe da deskuidu txikiak izatea gainerakoan emakumeen eskubide eta erantzukizun oso eta erabatekoak eta ez bizi-estiloko berrikuntza pertsonal ezdeus batean kontzentratzea emakumeen eskubide handiago horiek urratuz⁴⁸.

Badira gutxienez bi arazo Albertek argudiatzen duen horretan. Lehenik, jakintzat ematen du erabat diferenteak direla sexismoaren erroak eta adarrak eta espejismoarenak. Arazoa, baina, menderakuntza eta hierarkia da, zentzu

zabalean, eta horren kontra borrokatu beharra dago. Zenbait egilek, tartean Carol Adams, luze eta zabal jaso dute noraino diren elkarren ispilu animalien menderakuntza eta emakumeena; horretarako, pornografiaren kritika egiten du, baita patriarkatuaren menderakuntza-desiraren kritika ere⁴⁹. Hala, menderakuntza-mota horiek banatu diren arren, mugimenduen politikaren ideia praktikoen arabera, elkarrekin lotzen dituen teoria ugari dago, eta zentzuz argudia daiteke partekatuak dituztela, hain zuzen, erroak eta adarrak.

Bigarren, Albertek dio ezin dela aldi berean bi mugimendutan jardun, edo ezin direla aldi berean borrokatu sexismoaren injustizia eta espezismoarena. Interesgarriki, Albertek ez du argudiatzen ezin dela arrazismoa borrokatu sexismoarekin lotuegi gaudelako, baina argudio horixe egiten du espezismoarekin, eta aise, gainera. Onartu behar da, bai, bizi garen munduak mugatuak dituela denbora, energia eta dirua, eta hautatu beharra daukagula zein borrokatu jardun aktiboki; maila horretan, Alberten ideia egia da. Edonola ere, Alberten argudioari bere balio osoa eman behar bazaio, horrek ez du justifikatzen menderakuntza-forma batean parte hartzea bestea borrokatzen aktiboegi egoteagatik. Imajinatu antisexista konprometitutu bat, erabaki duena sexismoa dela (Alberten metafora gerrazaleari segika) bere borroka. Antisexistak akaso denbora librea, dirua eta energia bideratuko ditu ekintza feministetara, zabalkundera eta formakuntzara, eta, egunaren hondarretan, akituta, ez dauka beste ezein aktibismo-ri zer eskainirik. Alabaina, aktibista feminista lagunekin

afaltzera joatean, onartuko al du mahai-bueltan txiste arrazistak egiterik? Nik esango nuke feminista gehienek txiste arrazistak diren horretan ikusten dituztela: injustizia- eta bazterkeria-forma bat, bestea bazterreratzea helburu duena, eta esplotazio-mota horri jarraipena ematen diona. Hala, feministak uko egingo lieke txiste arrazistei, eta ez luke arraza-menderakuntza berresten duen jarrera batean, nahiz eta arrazakeriaren kontrako borroka ez den “berak hautatutako borroka”.

Nahiz eta animalien eskubideen aldeko mugimendua “nahiko gutxi” axola zaion, duela berrogeita hamar urteko ezkerreko edozein gizon zuriri feminismoa ere gutxi axolako zitzaion bezala, asko eta asko espejismoan aritzen gara otordu bat egiten dugun bakoitzean, askotan animalia-jatorriko produktuak kontsumituz edo haien haragia bera, guretzat propio akabatua. Animalien eskubideen aldeko aktibista izan gabe ere, ez dago zertan espezie-pribilegioan parte hartu otordu oro. Animalia-jatorriko produktuak kontsumitzea ez da inondik ere beharrezkoa, eta haiek alboratzea harrigarriki erraza da; puskaz errazagoa, behintzat, beste sistema barneratuak gainditzea baino. Arazoa, baina, zera da: espezie-pribilegioaren norberekoikeriatik, tradizioetik eta norbere dastamen-papiletatik harago joatea, horiek uhertzen baitituzte argudio guztiak. Sarri bai sarri, jendeak nahiago ditu animalia-jatorriko produktuak, gustatzen zaie zer zapore duten, eta haiei oso lotuta daude hala mentalki nola kulturalki. Gutako asko prest gaude “kulturak” eta “tradizioak” justifikatzen omen dituzten beste menderakuntza-forma historiko batzuk azaleratzeko,

baina badirudi oso jende gutxi jokatzeko duela zintzo bere buruarekin, zalantzan jartzeko ea justifikazio txatxu horiek nahikoa ote diren animaliak esplotatzen jarraitzeko gizakion apeta hutsez. Alberten iritziz, menderakuntzari buruzko pentsamendu sistemako hori eta haren ondorio den praxia “bizi-estiloko berrikuntza pertsonal ezdeusa” da; kritika horixe egin zaio beganismoari hamarkadetan jada, 1940ko hamarkadan hitza asmatu zenetik. Menderakuntzaren kontrako beste zer mugimenduri esaten zaio “bizi-estiloko berrikuntza”? Bizi-estiloko berrikuntza bat al da antiarrazista edo feminista aktiboa izatea?

Motzean: inork ezin du mundua berak bakarrik aldatu, eta gutxi gara horren inozo edo berekoiak pentsatzeko ezen, bakardadean, gure hautu indibidualek eta bizimoduak desberdinkeria handiak gainazpikatuko dituztela. Hala eta guztiz ere, gutako asko bizi garen modua ikusi nahiko genukeen munduaren ispilua da, nahiz eta onartu aldaketa iraunkorrak zailak eta ekinez lortu beharrekoak direla. Aitortzen dugunez arrazakeria eta sexismoa aspal-diko instituzio kulturalak direla, eta seguru asko dozenaka urtetako jarduna beharko dela haiek eraisteko, zer egiten dugu, bat-batean amore eman eta txiste arrazistak kontatzen hasi, edo emakumeak diskriminatzen, bestela bizitzea “bizi-estiloko berrikuntza” hutsa delakoan?

Kausa hau zergatik ez du aldeztzen zapalkuntzaren beselako formekin kezkatzen den jende gehiagok? Arrazoa da oraindik ulertzeko daukagula espezismoa zapalkuntza-forma bat dela: Chomskyk gorago esan duenez, kosta egiten zaigu zapalkuntzak identifikatzea. Beste edozein

zapalkuntza-forma gisa egituratuta, espezismoa diskriminazioa edo aurreiritzia baino gehiago da; lehenago esanduan bezala, David Nibertek dio egiturazko kausak dituela eta elkar osatzen duten praktika ekonomiko, ideologiko eta soziokulturaletan errotuta dagoela. Nahiz eta antiespezista batek —ezinbestean— ez duen animaliarik kontsumitzen, hori ez da nahikoa desberdinkeria sakon horren erro zabaleko prozesuak gainditzeko. Horren ordez, hierarkia eta menderakuntza funsgabe guztiak errotik auzitan jarriko dituen mugimendu bat behar da, maila sozial guztietan, eta aitortuko duena elkarrekiko bizitza bat partekatzen dugula. Anarkismo sozialak horretarako oinarria ematen du, hala teorian nola praxian.

V. EZIN DUZU IRAULTZA EROSI

“Ezin duzu Iraultza erosi. Ezin duzu Iraultza egin. Egin dezakezun bakarra zera da: Iraultza izan. Zure baitan dago, ala inon ez”.

Shevek, Ursula K. Le Guinen
*The Dispossessed*¹ (Gabetuak) eleberrian.

Ursula K. Le Guinen zientzia-fikziozko *The Dispossessed* eleberrian Sheveken istorioa kontatzen da. Shevek fisikaria da, eta Anarres izeneko kolonia separatistan bizi da. Kolonia Urras planetatik bereizi, eta haren satellite batean ezarri zen. Anarreseko gizartea anarkismo kolektiboko printzipioen bidez antolatuta dago, besteak beste jabetzarik gabeko hartu-emanak, generoen arteko berdintasun osoa, lan komunitarioa eta elkarbizitzarako akordioak. Alabaina, Shevekek Urrasera —gizarte kapitalista batera— joan nahi du beste zientzialari batzuekin elkarrizketan jarduteko eta teoria fisiko jakin bati buruz dituen ideiak garatzeko. Izan ere, sentitzen du bere munduko bizitza intelektuala zurrun bilakatu dela eta ez dagoela prest bere ideiak onartzeko. Urrasera iristen denean, ordea, Shevek alienatuta sentitzen da: bertako gizarte-egitura errepresiboak norgehiagoka sustatzen du, alienazioa eragiten du eta pobrezia erabatekora kondentatzen ditu planetako biztanle asko. Shevekek material eta luxu ugari aurkitzen ditu Urrasen, baina baita desberdinkeriaz betetako gizarte bat ere, zeina planetako ekonomiaren eta ideologiaren ondorio baita.

Shevekek kapitulu honen hasierako hitzak esaten ditu Urrasen, ekitaldi politiko batean, eta agintariiek bortxaz eta indarrez desegiten dute ekitaldia. Hitz horien bidez, planetako mugimendu iraultzailea suspertu nahi du biztanleek estatu errepresibo horren ekintzen aurka protesta egin dezaten eta zalantzan jar dezaten gerran parte hartzeko erabakia. Ez dut istorio osoa kontatu nahi, ez eta laburpen soilegi bat egin nahi ere, baina esan beharra daukat Le Guinek anarkismoaren printzipio nagusiak mamitu zituela

pertsonaiaren eta haren istorioaren bidez. Printzipio horien garrantzia islatzeaz gain, egileak ikusarazi zuen zergatik den funtsezkoa printzipiook egunerokoan aplikatzea. Shevek gizarte anarkistaren ohituren, merkataritzaren eta burokrazia sortu berriaren aurka altxatzen denean, agerian uzten du beharrezkoa dela berrikuntzak etengabe egitea eta printzipio anarkistak mantentzeko konpromisoari eustea gizartea ez dadin burokrazia estatiko eta zaharkitu bihurtu. Alabaina, Shevek Urrasen dagoenean, ulertzen du ezen, gizarte anarkistak, zeinaren aurka agertu baitzen, barne hartzen dituela giza bizitza, duintasuna eta askatasuna errespetatzen dituzten oinarrizko gizarte-hitzarmenak. Gizarte-harremanen ezaugarri horiek, hain justu, ez daude Urraseko gizarte-antolakuntzan, eta Shevekek faltan sumatzen eta desiratzen ditu, eta sarritan pentsatzen du horiei buruz.

The Dispossessed zientzia-fikzio onena da. Izan ere, espazio-ontziz eta bortxaz beteriko trama (film bilakatzeko aproposa) alde batera utzi, eta generoak ematen dituen aukerak erabiltzen ditu giza arazoak tratatzeko. Zientzia-fikzio mota horrekin, ikas dezakegu. Shevekek asko irakatsi zidan anarkismo sozialari buruz. Anarkista izateak ez du esan nahi iraultza piztu eta gero (edonoiz gertatzen dela ere) indarrean sartuko diren printzipio-multzo bati lotuta egoteak. Anarkista izateak zera esan nahi du: egunerokoan konpromisoa hartzea funtsezko iruditzen zaizkigun printzipioak eta munduan aplikatu nahi ditugunak lantzeko. Anarkista izatea menderakuntzari, gobernatzeari, ordenari eta gizartearen antolakuntzari buruz kritikotasunez

pentsatzea da. Hierarkia eta agintea itsu-itsuan ez onartzea ere bada, anarkismoaren banderari eusten diotenean ere.

Le Guinen Shevek erabiltzen dut adibide gisa anarkismo sozialaren ezaugarri nagusietako bat islatzen duelako: garrantzitsua dela printzipioak gaur, orain, orainaldian, bizitzea. Ezin ditugu zuzen iruditzen zaizkigun printzipioak sakrifikatu etorkizun urrunean mundu hobea lortzeko, babiliteke-eta hori inoiz ez gertatzea. Beste era batera esanda: iraultzaren bitartekoak eta iraultzaren helburua lotuta daude erabat. Ezin dugu gizarte berdinzale, bidezko eta zuzen bat sortu iraultza eta mugimendu marxistetan ia ezinbestean sortzen den estatismo autoritarioaren bidez. Horrenbestez, anarkismo sozialaren kontzientziak, bitartekoen eta helburuen kontzientziak, Errenazimenduko mitoak eta pentsamendu marxistaren teologia ukatzen ditu, ezkerreko autoritarismoaren abangoardia estatikoa baztertzen du eta ez du uste berdintasuna lor dezakegunik (ez epe motzera, ez epe luzera) indarraren edo menderakuntzaren bidez. Era berean, anarkismo soziala zera da: zalantzati ez agertzea, printzipioak ez zapaltzea aurrerakoiek, demokratek eta abarrek osatutako talde handiago baten onarpena lortzeko. Horren ordeztan, anarkismo sozialak idealen eta praktikaren osotasuna eskatzen du, bai praktikari, bai epistemologiari dagokionez. Hau idatzi zuen Bookchinek Ezker zabalari buruz:

Oso desberdina da nola inplikatzin diren sozialdemokratak, liberalak eta sona oneko beste pertsona batzuk eguneroko gatazketan eta nola inplikatzin diren anarkista

sozialak eta ezkerreko beste iraultzaile batzuk. Izan ere, erreformistek kontuan hartu ohi ez duten dimentsioa ekartzen dute gatazketara: lan egiten dute arazo sozialen jatorriari buruzko kontzientzia pizteko, jendea hezten eta mobilizatzen dute eta lotura egiten dute gizarte modernoaren gehiegikerien eta gehiegikeria horiek sortzen dituen gizarte-ordenaren artean. Jendeari arazoen kausak erakutsi nahi dizkiote, bai eta nola jokatu behar dugun ere, gizartea errotik aldatzeko eta arazo horiek desagerrarazteko. Ideia hori zabaltzea —lehen *klase-kontzientzia* esaten zitzaion (gaur egun ere adierazpen garrantzitsua da), edo, orokorrean, *kontzientzia soziala*— mugimendu iraultzaileen eginkizun nagusietako bat da. Anarkista sozialek ez badituzte protesta guztiak erabiltzen inplikaturata dauden gatazka sozial orokorrak salatuzko, ez badute beren borroka testuinguru horretan kokatzen eta gizarte-ordena zentzuzko baterantz aurrera egiten (komunismo libertariorantz, esaterako), borroka ez da antolatuta egongo, ez du sistema aldatuko eta, funtsean, erreformista izango da².

Pentsaera horrek esplotazioari eta zapalkuntzari buruzko ikuspegi bateratua eskatzen du. Ikuspegi horren arabera, harreman eta prozesu sozialak ulertu behar ditugu edozein arazoren jatorria zein den ulertzeko³. Hona hemen lerro teoriko horren ondorio halabeharrezko bat: gizartea oinarritik aldatu behar dugu gaur egungo arazoak konpondu nahi baditugu. Arreta borroka indibidualizatueta jarri beharrean, anarkismo sozialak borroka elkarki konektaturata daudela ikusarazten digu eta, gatazka horiei aurre

egiteko, aliantzak sortzera eta solidario izatera bultzatzen gaitu. Gizartea aldatzeko, arazo sozialak sortzen dituzten prozesuen berri eman behar zaio jendeari, eta arazo horiek konpontzeko lan egin behar dugu. Aldaketa hori ez da armen bidez lortuko, edo bortxa erabiliz, edo estatu-sistema bati esker. Batzuetan, erresistentzia bortitza beharrezkoa da, baina, bakezalea ez banaiz ere, iruditzen zait sarritan prestuegi gaudela indarkeria konponbide gisa erabiltzeko, eta ez azkeneko aukera gisa.

XIX. mende erditik, pentsalari anarkistek adierazi dute ezin dugula gizarte bidezko edo aske bat sortu estatu-sistema baten bidez. Izan ere, Estatua menderakuntza- eta azpiratze-geruzekin osatuta dago, eta horietako asko kapitalismoaren edo beste menderakuntza-forma batzuen (adina, klasea eta generoa, adibidez) dinamiketan dute jatorria. Estatuak abstrakzio hutsa eman badezake ere, zapalkuntza- eta botere-forma indartsua da, eta garrantzi handia izan du historian. Gainera, kapitalismoari eta erlijioari lotuta egoten da sarritan. Areago, Estatuak soilik erabil dezake indarkeria zilegitasunez. Anarkismoak Estatua eta banakoen zein gizartearen azpiratze sistematikoa salatzen dituenean, beste hierarkia-, menderakuntza- eta zapalkuntza-motak jartzen ditu zalantzan. Emma Goldmanek honela laburtu zuen ideia hori bere saiakera ezagunean, “Anarchism: What it Really Stands For” (Anarkismoa: Benetan zer esan nahi du):

Anarkismoa gizakiari [sic] bere buruaren kontzientzia ematen dion filosofia bakarra da. Anarkismoaren arabera,

Jainkoa, Estatua eta gizartea ez dira existitzen; beren promesak baliogabeak eta hutsalak dira, gizakia azpiratuz soilik bete daitezkeelako. Ondorioz, anarkismoak bizitzaren osotasuna irakasten du; ez bakarrik naturan, baita gizakiarengan ere. Ez dago gatazkarik banakoen eta instintu sozialen artean, bihotzaren eta biriken artean gatazkarik ez dagoen bezala: bata bizitza preziatuaren esentziaren edukiontzia da; bestea, esentzia hori puru eta indartsu mantentzen duen elementuaren gordailua. Norbanakoa gizartearen bihotza da, eta bizitza sozialaren esentzia gordetzen du. Gizartea biririkak dira, eta elementua —norbanakoa, alegia— banatzen dute bizitzaren esentzia puru eta indartsu mantentzeko⁴.

Goldmanek anarkismo sozialaren funtsezko printzipio bat seinalatu zuen: norbanakoa eta gizartea elkarri lotuta daudela guztiz. Bookchin ere iritzi berekoa da, eta bere lanetan errepikatzen du gure munduaren arazoek harreman sozialen arazoetan dutela jatorria, eta harreman horiek aldatu behar ditugula mundua bera aldatzeko. Norbanakoak aldatu behar ditugu gizartea aldatzeko eta, era berean, norbanakoa gizartetik babestu behar dugu. Horrekin lotuta, *You can't blow up a social relationship* (Ezin duzu gizarte-harreman bat suntsitu) eskuorriaren egileek hau idatzi zuten:

Iraultzaileen zeregina ez da armak hartzea, baizik eta gizartearen funtzionamendua ulertarazteko lan luze eta konplexuan inplikatzeko. Jendearen arazoak eta aldaketa iraultzaile baten beharra lotzen dituen mugimendu bat sortu

behar dugu, zeinak gizartean eskaintzen diren sasi-konponbide guztiak —bai indibidualak, bai sozialak— baztertuko dituen. Ezker autoritarioak eskaintzen dituen konponbideak desmitifikatu behar ditugu eta, horien ordeztan, autojarduerarako eta autoantolaketarako aukera eman behar diegu mugimenduan parte hartzeko prest daudenei. Berdintasunean eta askatasunean oinarritutako sozialismoa eskaini behar dugu⁵.

Ikuspegi horri esker, ulertzen dugu anarkismo sozialak menderakuntza zalantzan jartzen duela gizarte-ordenaren maila guztietan. Dena den, anarkismo sozialak zapalkuntza ugari salatu izan baditu ere, anarkista sozial gehienak ez dira oso aktibo egon (ez iraganean, ez orain) animalien menderakuntza salatzeari dagokionez. Alabaina, anarkismoaren tresna analitikoak erabil ditzakegu anarkismoa mugimendu historiko gisa aztertzeko eta akats hori ulertu eta zuzentzeko. Hala, anarkista sozialak animatu ditza-kegu gizakiek animaliak menderatzen dituztela ikustera eta menderakuntza hori beharrezkoa ez dela ulertzera. Beste zapalkuntza-mota batzuekin gertatzen den bezala, animaliangan eta beste gizaki batzuegan eragiten dugun menderakuntzak gaur egungo harreman sozialetan du jatorria. Izan ere, harremanok hierarkian oinarritzen dira, eta kapitalismo modernoak indartu egin ditu. Ezin dugu menderakuntza-sistema hori zalantzan jarri kapitalismoak salerosketa- eta jabetza-forman dakartzen menderakuntza-harremanak zalantzan jarri gabe.

Horrenbestez, anarkismo sozialak kapitalismoaren kritika koherentea eta bateratua ematen digu, baina,

horretarako, ikuspegi benetan soziala izan behar du: norbanakoak esparru sozialaren produktuak direla ulertarazteko konpromisoa hartu behar du, bai eta ongizate kolektiboaren eta denon askatasunaren alde lan egitekoa ere. Proiektu anarkistan, beraz, giza komunitatea dagoela aitortu behar du. Ikuspegi horri anarkismo indibidualista kontrajartzen zaio, zeina kezkatuago baitago egoarekin eta norbanakoarekin, eta “tradizio libertarioaren izaera sozialista higitzen du etengabe”⁶. Hitz gordinagoekin esanda, horrek esan nahi du anarkismo indibidualistaren esloganak, “utikan!”-ak, pop punka eta merkataritza-guneko anarkismoa alde batera utzi behar ditugula gizartean eta kulturen benetako aldaketak lortu nahi baditugu. Erraza da anarkismoa askatasun indibidualean oinarritutako kausa gisa ikustea, bai eta autoritatea maila guztietan zalantzan jartzen duen kausa gisa ere. Alabaina, ikuspegi horrek ez ikusiarena egiten die anarkismoaren sustraiei, zeinak argi eta garbi agertzen baitira Kropotkinen eta beste pentsalari batzuen lanetan. Egile horiek giza komunitate handia berreskuratzea eta banakotasuna alde batera uztea aldarrikatu zuten. Bookchinek “bizi-estiloaren anarkismoa” izenez deiturikoa baztertu behar dugu; hau da, “soilik kultura zalantzan jartzen duen jokabidea”⁷, aise bihurtzen baita “kasuan kasuko ausarkeria” eta “egiatan apolitikoa eta antolakuntzaren aurkakoa den konpromisoa, irudipenarekin, desirarekin eta estasiarekin lotuta dagoena”. Erresistentzia-mota hori (horrela esan badiezaiokegu) berehala eraldatu, eta “auto-induljentziaz, anbiguotasunez, diziplina faltaz eta inkoherentziaz osatutako konstelazio” bihurtzen da.

Konstelazio hori errealtate burgesaren parte da, eta “haren ekonomia bortitzagoa eta basatiagoa da egunetik egunera”⁸. Horrek ez dirudi arriskutsua, baina, Bookchinen ustez, bizi-estiloaren anarkismo indibidualistak...

ezkerreko ideologiaren nukleo sozialista higatzen du. Ideologia hori garrantzitsua eta baliotsua zen gizartearentzat, burujabetzarekin konprometituta zegoelako (ez historiari kanpo, plano subjektiboan, baizik eta historian bertan, plano objektiboan). Lehen Internazionalaren aldarria —anarkosindikalistek eta anarkokomunistek bereganatu zuten Marxek eta haren jarraitzaileek alde batera utzi zutenean— hau izan zen: “Eskubiderik ez betebeharririk gabe, betebeharririk ez eskubiderik gabe”. Hainbat belaunalditan, eslogan hori agertu da anarkismo sozialari lotutako egunkarietan. Gaur egun, “desira armatuaren” eskakizun egozentrikoa, kontenplazio taoistak eta nirvana budistak kontrajartzen zaizkio lelo horri. Anarkismo sozialak jendea deia egin zionean iraultza piz zezan eta gizartea berreraiki zezan, bizi-estiloaren anarkismoko burgesia txikiak aldizkako matxinadak sustatu zituen bere “makina desiratzaileak” asetzeko, Deleuze eta Guattariren hitzetan⁹.

Horrek ez du esan nahi askatasun indibiduala garrantzitsua ez denik edo askatasunaren aldeko borrokaren parte izan ezin denik; kontrara, anarkista sozialek garrantzi handia eman beharko liekete norbanakoari eta norbanakoak gizartearen duen lekuari. Zera behar dugu: gizarte bat, zeinean jendeak bere banakotasuna, paregabetasuna eta

sormena garatzeko aukera duen, gizartearen egiturak hori sustatzen duelako eta horretarako espazioa ematen duelako. Bizi-estiloaren anarkismoa kritikatzan dudanean, helburua ez da banakotasuna edo askatasun indibidualarekin lotutako kezakak gutxieste. Helburua da azpimarratzea anarkismo hori ez dela sozialismoaz arduratzen, eta sozialismoa litzatekeela, hain justu, gizarte osasuntsu, alternatibo eta ireki bat sortzeko gakoa. Historia eta sozialismoa ez baditugu ulertzen, ez badugu ulermen hori askatasun indibidualaren oinarritzat hartzen, mugimenduak ez du alaketarik ekarriko eskala handian. Mugimenduak aitortu behar du arazo guztiak arazo sozialak direla funtsean, konponbideak sozialak direla eta banakotasunaren eta egoaren politikatik harago doazela.

Gaur egungo egoaren orgia postmodernoan, gero eta indibidualista, bizi-estiloaren anarkista eta pop-punk anarkista gehiago daude. Alabaina, are garrantzitsuagoa da konexio sozialak egitea eta menderakuntza-prozesuak agerian uztea eta zalantzan jartzea. Hori kontuan izanda, anarkismo sozialak lurrik emankorra ematen du borroka artikulatzeko eta gizarteko maila guztietan menderakuntzari aurre egiteko. Anarkismo soziala norbanakoaren eskubiak errespetatzen dituen ikuspegi kolektibistan oinarritzen da, autoritatearen kontrakoa da eta praktikan jartzen du hierarkiaren aurkako teoria. Horrelako ikuspegi batek soilik deusezta ditzake menderakuntza eta hierarkia gizarte-ordena osotik, menderakuntza horren oinarriak edozein direla ere. Anarkismo sozialak denbora behar izan du animalien kausarekin bat egiteko; alabaina, horrek ez du esan

nahi menderakuntza-mota jakin hori aztertzeke, ulertzeko eta gainditzeko tresnarik ez duenik. Horrenbestez, anarkista sozialak animatu behar ditugu harreman-mota horiei buruz kritikotasunez eta anarkismoaren tresnen bidez pentsa dezaten.

Horrez gain, anarkismo sozialak onartzen du kapital-metaketaren prozesuek giza ahalmena mugatzen dutela, ekosistemak kaltetzen dituztela eta gure artean eta mundu naturalarekin ditugun harremanak eraldatzen dituztela. Anarkismo soziala menderakuntzari eta gizarte-ordenaren arazoei ulertzeko modu erradikala da; horrenbestez, tresna teorikoak eta praktikoak eman ditzake gizakien eta animalien menderakuntzei mundu osoan aurre egiteko. Ikuspegi horrek uko egiten dio erreformatu ezin den sistema bat erreformatzeri, gure helburuen antzekoak izango diren bitartekoak eskatzen ditu eta onartu egiten du giza ahalmena gizartea eraldatzeko indar positiboa dela. Gainera, Le Guinen laneko Shevekek adierazten duenez, anarkismoak ideologia bera kritikotasunez aztertzeke tresnak ematen ditu, eta hori ezinbestekoa da bere printzipioei leial izan nahi badu.

Hori guztia dela eta, uste dut anarkismo soziala mugimendu integratzaileago baten muina izan daitekeela eta mugimendu horrek justizia soziala bilatuko duela. Gainera, anarkismo sozialaren tresna analitiko eta praktiko batzuk lagungarriak dira gizakiz besteko animalien aldeko justizia indartzeko. Datozen ataletan, hori nola egin dezakegun azalduko dut. Hasteko, gizakiz bestekoen aldeko justizia defendatzeko modurik sinpleena eta zuzenena aipatuko dut: beganismoa.

Beganismoaren garrantzia

Animaliak gizakion helburuetarako kontsumitzea, esklabo bihurtzea eta azpiratzea hierarkia ez beharrezkoak dira. Horrenbestez, anarkistek horren guztiaren aurka agertu beharko lukete eta kapitalaren harremanen beste alderdi zapaltzaile bat dela ulertu beharko lukete; hau da, beste menderakuntza-forma ez beharrezko bat. Anarkista izan zein ez, gizakiek animaliei sufriarazten dieten krudeltasunaz kezkatuta dagoen edozeinek lehenbiziko pausoa egin beharko luke sufrimendu horrekin bukatzeko: begano bihurtu. Beganismoa ideia honetan oinarritzen da: gizakiok ondo bizi gaitezke animaliek sufrimendu eta bortxa izugarrien menpean ematen dituzten produktuak erabili gabe. Gutako askok animaliek bizi duten azpiratzea iraurarazten dugu eguneko hiru otorduen bidez, animalien haragia edo ugalketa-iraizkinak jaten ditugunean, arrautza- edo esne-forman. Gure desiren ondorioz —zeinak tradizioan edo gustuan oinarritzen baitira—, mila milioi animalia hiltzen dituzte urtero Estatu Batuetan. Gure plazeraren izenean egiten den sarraski hori zalantzan jartzeko, beganismoak dio animaliek interesak eta bizitza dituztela gizakien desiretatik harago, eta ideia horrekin bat egiteko, animalia-jatorriko produktuak ahalik eta gehien ekiditea defendatzen du (esnekiak, arrautzak, larrua eta artilea barne). Inork ez du animalia-jatorriko produkturik behar osasuntsu bizitzeko; hortaz, ez dago pisuzko arrazoirik animaliei gure desiren ondorioz sufriarazteko. Animalia-jatorriko produktuak kontsumitzeari uko egiten diogunean,

animaliak azpiratzeko modu ohikoenean (janarirako edo arroparako erabiltzea) parte hartzeari uko egiten diogu. Menderakuntza, hierarkia eta zapalkuntza ez beharrezkoei aurre egin nahi badiegu benetan, ikuspegi hori da bidea; batez ere kontuan hartzen badugu zenbat sufritzen duten animaliek jakintzat ematen ditugun elikagaiak eta eguneroko produktuak ekoizteko. Justizia soziala lortzeko borrokan animaliak aintzat hartuko baditugu, beganismotik hasi behar dugu. Beganismoak animaliek jasaten dituzten jabetza-harremanen aurka protesta egiten du; sistemari uko egiteko modu bat da, posizio irmo bat, zeinak ez duen erreformarik bilatzen, baizik eta abolizioa. Animalien esplotazioa desagerrarazi nahi duen edozeinentzat, begano izatea zera da: lortu nahi duen emaitza erreproduzitzea. Izan ere, beganismoaren helburua da inork animaliarik ez zapaltzea gustu kontuengatik edo komenigarritasunagatik.

Horrez gain, beganismoa garrantzitsua da ezagun egiten zaigun esparru batean lan egiten duelako: eguneroko kontsumoan. Gutako askok ondo ezagutzen dugu animalien menderakuntza, hartan parte hartzen dugulako egunean hiru aldiz, jaten dugunean. Baserrian edo hiltegian bertan ez bagaude ere, animaliek jasaten duten indarkeria gure izenean egiten da, gure platerak betetzeko. Mahaira esertzen garenean, sentsibilitate sozial handiena dutenek ere ez ikusiarena egiten diote plateraren atzean dagoen sufrimenduari. Izan ere, milioika kilometro daude gure platerako oilaskoaren, xerraren edo bestelako haragiaren eta haragi hori ekoitzi duen animaliaaren artean. Gutako gehienontzat, distantzia psikologiko hori lasaigarria da.

Beganismoak, ordea, uko egiten dio distantzia psikologiko hori onartzeari. Nire esperientzian, jendeak jakin-mina sentitzen du beganismoarekiko, eta galdetzen didate zergatik naizen beganoa. Hori ezinbestean gertatzen da ez-beganoekin batera jaten ari naizenean eta ikusten dutenean ez dudala saiheskirik, oilaskorik edo animalia-jatorriko bestelako “delicatessenik” hartzen. Ez dudanez uste elikaduran arreta jartzea estrategia egokia denik epe luzera, otorduetan nire dietari buruz galdetzen didatenean, pausa bat egin eta arnasa hartzen dut. Tarte horretan, galdera egin duen pertsonak zalantzati nagoela sumatzen du, zuhurtziaz begiratu eta, ia halabeharrez, esaten du: “Itxaron. Ez dut jakin nahi. Ez erantzun. Nahiago dut otorduaz gozatu”.

Gai gara konpartimentuak egiteko, kontzientzian harrisiak eraikitzeko, alde batera uzteko norbaitek sufritu egin zuela guk kontsumitzen ditugun produktuk ekoizteko. Ohituta gaude beganismoa eta begetarianismoa praktika politiko gisa ulertzera, baina gutxitan pentsatzen dugu ideologia horren beste aurpegian; hau da, Melanie Joyk “haragismo”¹⁰ deiturikoan. Joyrentzat, haragismoa praktika ideologiko eta psikologikoen multzo bat da, zeinari esker haragia eta animalia-jatorriko beste produktu batzuk kontsumitzen ditugun produktu horiek sortzeko behar den indarkeriari arreta handirik eman gabe (nahiz eta gehienok badakigun ezin ditugula haragia eta animalia-jatorriko beste produktu batzuk ekoitzi krudeltasunik eta indarkeriarik gabe). Haragismoaren ondorioz, distantzia hartzen dugu animalia-jatorriko ekoizpenetik, gure izenean eta gure desirak asetzeko egiten den indarkeria justifikatzen

dugu, eta prozesu horri ez ikusiarena egiten diogu jaten dugun bakoitzean. Haragismoak gizarte- eta norbanako-mailan funtzionatzen du animalien esplotazioari buruzko ezjakintasun kulturala sortzeko. Horretarako, hainbat defentsa-mekanismo —tartean, espezismoa eta eufemismoak (“okela” esatea “haragi”-ren partez)— erabiltzen ditu, gure janari izateko sarraskitzen dituzten animaliei buruzko istorio zoriontsu eta bukolikoak asmatzen ditu eta animalia-jatorriko produktuak ekoizteko behar den indarkeria ezkututzen du.

Haragismoa ideologia praktikoa da; izan ere, espezismoa iraurarazten du animaliei ematen diegun tratua justifikatuz edo makillatuz. Historian antzeko ideologiak eta makillatze-prozesuak erabili izan dira beste talde batzuen marjinazioa justifikatzeko, besteak beste pertsona beltzak edo emakumeak. Norbaitek “horrela izan da beti” edo “horixe da ordena naturala” edo “naturala da guk agintea izatea” dioenean, alarmak pizten zaizkit; berdin dio hizlaria arrazismoa, sexismoa, heterosexismoa edo espezismoa zurrizten ari den. Edozein kasutan, *bestearen* ideia hori —soziologoek hitzetan, “besteen taldea”— norberaren taldeak agintzea justifikatzeko erabiltzen da.

Hori dela eta, beganismoa esku hartze garrantzitsua da haragismoaren makineria psikologiko eta ideologikoari aurre egiteko (eta, beraz, esku hartze garrantzitsua da gure harreman sozialen egitura espezistak dakartzan sufrimendu, menderakuntza eta esplotazio ez-beharrezkoei aurre egiteko). Begano izatea animalien menderakuntzan ez parte hartzea da, bai eta hierarkia ez-beharrezko hori

zalantzan jartzea ere. Élisée Reclus animalien menderakuntzari buruz idatzi zuen lehen anarkistetako bat izan zen. Hona hemen 1901ean idatzitakoa:

...haientzat [begetarianoentzat], garrantzitsuena gizakien eta behe-mailako animalia delakoen artean afektuzko harremana dagoela aitortzea da, bai eta gizakien artean kanibalismoari amaiera jarri zion sentimendu hori animaliangana zabaltzea ere. Antropofagoek giza haragia jateari ez uzteko erabiliko lituzketen argudioak haragijaleek gaur egun erabiltzen dituztenak bezain sendoak izango lirateke. Bada, ekintza higuingari horren aurka erabili ziren argudioak erabiltzen ditugu gaur egun begetarianoek. Zaldia zein behia, untxia zein katua, oreina zein erbia, faisaia zein hegatzabala, nahiago ditugu lagun gisa janari gisa baino¹¹.

Reclusek egin zuen bezala, arrazoi etikoengatik beganoak diren gehienek berdintasun-irizpideak aplikatu nahi dizkiete animaliekin dituzten elkarrekintza guztiei, eta erabaki hori ahalik eta neurri handienez mantendu nahi dute. Praktika horren alderdietako bat sinbolikoa da. Izan ere, beganismoak pitzatu egiten du haragismoaren egitura, eta, beharbada, metodorik eraginkorra da disonantzia kognitiboa eragiteko. Aurretik aipatu dudana bezala, pertsona askok ez dute ezer jakin nahi beren janariaren jatorriari buruz. Haatik, beganismoak pentsarazten die. Carol Adamsek “ordezkari absente” deitu dio beganismoaren funtzio horri: beganoek “ahotsa/presentzia” ematen diote mahaian haragi-forman dagoen animaliarri. Jendeari

gogorarazten diote norbait kontsumitzen ari direla, ez zerbait. Gainera, otordu hori ekoizteko behar izan den indarkeria azaleratzen dute testuinguru erreal eta pertsonal batean. Janaria substantzia huts bat baino askoz gehiago da; janaria gure kulturaren, emozioetan eta bizitzetan presente dago hainbat modu konplexutan. Horrenbestez, ez genuke “ordezkari absentea” izatearen pisu simbolikoa gutxietsi beharko; presentzia horrek uste dugun baino eragin handiagoa izan dezake. Beganoak ordezkari hori garenean, animalien alde posizionatzen garenean eta indarkeriaren eta esplotazioaren produktuei uko egiten diegunean, beste beren erabakiak berrikusteko eskatzen diegu, ezer esaten ez badugu ere. Beganismoak ez du onartzen animaliak janarirako, arroparako eta beste helburu batzuetarako erabil ditzakegun ideia espezista.

Beganismoa, beraz, egunero praktikan jartzen dugun konpromiso etikoa eta protesta da. Hori kontuan izanda, antiespezista konprometitu bagara, ikusi nahi dugun iraultza bizitzen ari gara. Erraza izan daiteke pentsatzea beganismoa ez dela beharrezkoa begano bakar batek ezin duela eragin ekonomiko handirik izan animaliak esplotatzen dituzten industrietan. Alabaina, hori pentsatzea jendeak konpromiso etiko eta emozionalagatik egunerokoan egiten dituen beste aldaketa batzuk gutxiestea da. Gaia ateratzen denean, ikasle eta lagun askok esaten dute beganismoarekin ados daudela, baina haiek begano izateak ez duela aldaketarik ekarriko, beraz, zertarako hartuko dute lana. Alabaina, pertsona horiek ez liekete logika berbera beste borroka batzuei aplikatuko. Hau esatea tristeza bada ere,

ziurrenik ez ditugu arrazismoa eta sexismoa desagerraraziko ni hil baino lehenago. Gure kulturetan eta ekonomietan errotuta daude, eta kapitalismoaren parte dira (beti izan dira). Hala ere, gutako asko menderakuntza-forma horien kontra gaude, eta, arrazismoa eta sexismoa desagerraraztea oso zaila bada ere, ez gara aktiboki arrazistak edo sexistak. Ez ditugu arrazismoa eta sexismoa bihar desagerraraziko, baina horrek ez du esan nahi estereotipo arrazistak indartu behar ditugunik edo patriarkatua erreproduzitu behar dugunik, adibidez. Biak ala biak dira desagerrarazten zailak oso errotuta daudelako, baina sinesten dut ikusi nahi dudan mundua bizitzen hasi behar dudala egunerokoan. Ez da nahikoa izango mundua aldatzeko, baina beharrezkoa da; bestela, kontraesanean egongo gara gure argudioekin. Begano bakar batek (edo begano-talde batek) ez du eragin handirik izango abeltzaintzan, baina begano gisa bizitzea garrantzitsua da: espezismoaren eta animaliak gure nahien arabera menderatzeko prozesuen aurkako posizio erreal eta sendoa da. Antiespezista gisa bizitzea posible dela erakusten du, eta jendeari gogorarazten dio animaliak alferrik esplotatzen ditugula.

Eguneroko praktika bihurtzen badugu, beganismoak jendea sentsibilizatzen du, animaliak esplotatzen dituzten prozesu sozialen arazoak azaleratzen ditu eta espezismoaren menderakuntzaz libre dagoen mundua sustatzen du. Begano bihurtzea da eman dezakegun urratsik funtsezkoena, antiespezista gisa koherenteak izan nahi badugu etikari eta logikari dagokionez. Beganismoa zera da: animalien esklabotzaren abolizioa erreproduzitzea gure

egunerokoan. Animalia-jatorriko produktuen kontsumoa (esaterako, esnea edo arrautzak) onartzen duen begetarianismoa ez da nahikoa helburu hori lortzeko. Izan ere, esnekiak eta arrautzak jaten dituzten pertsona batzuek uste dute produktu horiek lortzeko ez dela beharrezkoa animaliarik hiltzea. Alabaina, logika hori ez da zuzena, eta frogatzen du ez dakigula benetan nola funtzionatzen duen abeltzaintzak: salerosketan oinarritutako industria da, eta oso marjina murriztak ditu. Esnea ekoizteko, behiak haurdun mantendu behar dira une oro. Sarritan, txahalak haragitarako saltzen dira, edo etxeko animalientzako janaria egiteko, edo esnea ekoizteko. Esnea ematen duten behiak ere hiltegiara bidaltzen dituzte jada “produktiboak” ez direnean —gehienetan, beren bizi-itxaropena bano askoz ere epe motzagoan gertatzen da hori—. Esnearen eskariak prozesu hori iraunarazten du, eta ezinezkoa litzateke eskari hori eskala handian asetzea animaliarik hil gabe. Era berean, bigarren kapituluaz azaldu dudana bezala, arrautzen ekoizpena —baita “animalien ongizatea” errespetatuz ekoitzi direnen kasuan ere— animaliak esplotatzen dituen eta izugarri sufriarazten dien prozesua da. Horrenbestez, arrazoi etikoengatik begetariano izateak ez dauka zentzu handirik, kontraesankorra da eta abeltzaintzaren nozio zaharkitu batean oinarritzen da. Antiespezista gisa bizi nahi duen begetariano orok begano izan beharko luke.

Era berean, ezin da animalia-jatorriko produkturik ekoitzi krudeltasunik gabe. Gauza bera gertatzen da kate garrantzitsuek iragartzen dituzten eta animalien eskubi-deen aldeko elkarteek saritu izan dituzten produktuekin.

Prozesuan dagoen sufrimendua txikiagoa bada ere, oraindik ere animaliak menderatzen dituzte gizakien desirak asetzeko, eta animaliak etengabe esplotatzen dituen sistema baten jabetza besterik ez dira. Hirugarren kapituluari aipatu dudana bezala, animaliak jabetza diren bitartean beti pentsatuko dugu beren interesek gurek baino gutxiago balio dutela, eta hori onartezina da. Sistema hau zalantzan jartzeko lehenengo urratsetako bat sisteman parte hartzeari uko egitea da. Are gehiago, ezin dugu animaliei sufriarazten ez dien eta esplotatzen ez dituen mundu bat eraiki sufrimendu-modu arinagoak sustatuz. Beganismoa da bide bakarra, ez baititu animalien interesak gaur sakrifikatzen etorkizun hobea lortzeko esperantzan.

Horrek ez du esan nahi, ordea, beganismoak arazorik ez duenik praktika sozial gisa. Aurretik aipatu dudana bezala, animalien eskubideen aldeko mugimenduko begano gehienak zuriak eta erdi- edo goi-mailako klasekoak dira, eta arreta gehiegi jartzen dute animalien gainetik. Ondorioz, prest daude produktu beganoak erosteko, baina ez dute kontuan hartzen produktu horiek beste ekoizpen-praktika negatibo batzuen ondorio direla eta praktika horiek pertsonak esplotatzen edo ekosistemak kaltetzen dituztela. Gauzak horrela, zentzua dauka *freegan*¹² delakoek beganismoari egiten dioten kritikak: begano askok edozer erosiko lukete beganoa bada, ekoizpenaren gainerako elementuak kontuan hartu gabe. *Freegan* batzuek argudio hori erabiltzen dute “purutasun” beganoa (animalia-jatorriko produktuak saihestea) kritikatzeko, baina eraginkorragoa da beganoak animatzea uko egin diezaieten bizi-estilo burgesaren politikari eta

begano batzuek kontsumoaren bitartez sustatzen duten goi-klaseko “ekosexualismoari”. *VegNews* bezalako aldizkariak porno hutsa dira bizi-estilo horretarako, eta muturrera eramaten dute; adibidez, hogeita mila dolarreko ezkontza beganoak erakutsiz, Tahitin edo beste toki exotiko batzuetan egindako opor beganoen berri emanez edo produktu beganoen marka handiak iragarritz. Badirudi aldizkariako editoreek benetan sinesten dutela erredentzia eras dezakegula larru artifizialezko poltsa ideala aurkituz edo *ametista ilun* eta *bisque* koloreko¹³ Toyota Priusaren azkeneko modeloa erosiz. *VegNews* aldizkariak sustatzen duen kontsumismoa ez da berria “kapitalismo berdea” bide zuzentzat ikusten duen ingurumen-mugimenduarentzat. Mugimendu horrek Al Gore goratzen du ekologismoaren super-izar gisa, nahiz eta, gobernuko administratzaile zenean, iragan iluna izan zuen ingurumen-kontuetan. Segur aski, *VegNewsek* bere merkatua eta irakurleak izango ditu gogoan; hala ere, ezer gutxi egiten du beganismoa goi-mailako klaseen edo burgesiaren praktikatzat har ez dadin, eta ez du solidaritatea sustatzen; produktu “berde” apartak iragartzen ditu, besterik ez. Argia izango naiz: *VegNews* ez da arazoa bere horretan; arazoa da *VegNewsek* eta antzeko aldizkariak sustatzen duten bizi-estiloa. Pentsaera hartatik datorren beganismoa bizi-estiloaren politika da, eta norberaren purutasunaz eta garbitasun espiritualaz besterik ez da kezkatzen. Ikuspegi eksklusibo horren ondorioz, beganismoaren lerro hori ez da inoiz gai izango beste mugimendu edo zapalkuntza-mota batzuekin lotura errealak egiteko. Horretarako, uko egin beharko lioke jende gehienak lortu ezin dituen bizi-estilo

eta produktuak iragartzeari eta, ondorioz, menderakuntza klasista eta arrazista normalizatzeari. Animalien esku-bideen aldeko gainerako mugimenduekin gertatzen den bezala —zeinetatik beganismoa sortu baitzen—, beganismoaren lerro hori liberalismo erreformista dauka atzean. Beginismoak zentzua izan dezan, bizi-estiloaren politika eta krudeltasunik gabe ekoiztako kapritxo garestiak baino gehiago izan behar du. Mugimendu integratzaile baten parte izan behar du, eta justizia bilatzen duten beste kausekin bat egin. Gainera, beganismoa planteatuko ez luketen komunitateetara iritsi behar du. Izan ere, sarritan zuzena izaten da beganismoari egiten zaion kritika klasista hau: goi-klaseetako jende zuriarentzat pentsatutako eta bizi-estiloarekin lotutako esku-hartze hutsa dela. Alabaina, ez da beganismoaren muga bat, baizik eta praktika kontsumisten sekzio batena.

Beganismoa mugimendu oso politiko eta transzendentala izan daiteke, baina, praktika historiko eta sozial gisa, askotan ez du lortu eskaintzen dituen aukera politiko guztiak aprobetxatzea. Beginismoa bizi-estiloarekin lotutako erabaki bat da, bai, baina ezin daiteke esan beganismoaren garrantzi politikoa bizi-estiloaren politika hutsa denik. Izan ere, protesta kultural, sinboliko eta ekonomiko indartsua izan daiteke arduraz eta sen onez praktikatzen bada. Arazoa zera da: ardura eta sen ona aldarrikatzea. Beginismoak animalien esplotazioarekin dugun harremanaren erdigunean eragiten du, esplotazioa errefusatzen dugulako eta besteak kritiko izatera bultzatzen ditugulako. Askok uko egiten diote beganismoari, eta janariaren gainean

den-dena jakiteko obsesioa dela diote, baina animalien menderakuntza desagerrarazteko edozein mugimenduren oinarria eta abiapuntua izan beharko luke, bai eta menderakuntza eta hierarkia sustatu gabe bizi nahi duen edozeinen eguneroko praktika ere.

Zoritxarrez, animalien aldeko mugimenduaren korronte nagusia osatzen duten taldeek ez dute ahalegin handirik egiten beganismoa aukera egingarri gisa sustatzeko, eta oso talde gutxi dute beganismoa beren aktibismoaren lehen-tasuntzat. Beganismoa sustatu beharrean, animalien erabilerekin lotutako legeen erreforman jarri ohi dute arreta. Ondorioz, gizakiek animaliak esplotatzea onartu dute, esplotazioaren dinamikak zalantzan jarri gabe. Aktibismo horrek epe motzerako arrakastak lor ditzake aldaketa horiek eskatzen dituzten elkarreentzat, baina ez die eragin-kortasunez eraso egiten sistemaren erdigunean gertatzen diren menderakuntza-dinamikei. Jadanik aipatu dudan adibide batera itzuliko naiz: Arizonan gestazio-kaiolak debekatu zituzten, baina horrek ez du zalantzan jarri animaliak jabetza balira bezala tratatzea edo animaliak sistematikoki esplotatzea eta salerostea etekinak lortzeko. Horren ordez, moralki eta etikoki ustela den sistema bat erreformatzen du; hau da, funtsean, ez du erreforma esanguratsurik egiten. Gogora dezagun Arizonako debekua eskatu zuten aktibistek kanpaina justifikatu zutela esanez animaliek gutxiago sufrituko luketela eta industriarentzat probetxugarriagoa izango litzatekeela. Alabaina, sufrimenduaren argudio hori zalantzagarrria da, batez ere egoera epe luzera aztertzen badugu. Nahiz eta erreforma horrek

praktika jakin bat debekatzen duen, abeltzaintzaren oinarrian dagoen menderakuntza-harremana ez du ukitzen, eta animaliak ustiatzen jarraitzea ahalbidetzen dio sistemari, kontsumitzaileentzat onargarriagoa den modu batean bada ere. Aktibismo-mota horrek, gainera, aukera ematen du jendea hobeto senti dadin animaliak kontsumitzen dituenean. Animaliak jateagatik errudun sentitzen diren pertsona batzuk hobeto sentituko dira uste badute kontsumitzen ari diren animaliak gutxiago sufritu duela iraganean sufri zezakeenarekin alderatuta. Badakit hori horrela dela nik neuk ere modu berean pentsatzen nuelako begano izan aurretik. Agian adibide bakarra naiz, baina, kontuan izanda Whole Foods bezalako elikagai-marka handiek estrategia horretan oinarrizten dutela negozioa, ez dut uste.

Industrializatutako abeltzaintza modu esanguratsuan erreformatzea guztiz ezinezkoa da. Abeltzaintzak, etekinak emango baditu, animaliak salgai eta jabetza gisa tratatu behar ditu. Animaliak abeltzaintzaren oinarria dira; animaliarik gabe, industriak ezingo luke iraun. Hori dela eta, aktibismoak harreman horietan jarri behar du arreta, eta jendea horren gainean sentsibilizatu behar du. Talde nagusientzat beganismoa sustatzea premiazkoa ez den arren, menderakuntza-harreman horien zilegitasuna ukatzen duen praktika nagusia da. Begano izatea harreman horietan parte hartzeari ahalik eta gehien uko egitea da. Abeltzaintzaren menderakuntza-harremanak ukitzen ez dituzten aktibismo-motak ez bezala, beganismoa animalien esplotazioa desagerrarazteko bitarteko bat da, eta koherentea da mugimenduaren helburuarekin.

Hori kontuan izanda, mugimendu begano bat sortu eta elikatu behar dugu, zeina abeltzaintza eta animaliak menderatzeko beste forma batzuk abolitzeko —eta ez erreformatzeko— prest dauden pertsonen osatuta egongo den. Mugimendu hori pixkanaka-pixkanaka sortzen ari da, eta kideek erreformismoari uko egiten diote, beganismoaren esentzia ulertzen dute eta loturak ikusten dituzte gizakiz besteko animalien aldeko borrokan eta beste talde batzuen borrokan artean. Hazten ari den mugimendu horretako pertsona askok, gainera, onartzen dute animaliak babesteko elkarte asko motz geratzen direla beren izaera instituzional eta burokratikoarekin bat datozen programak sustatzen dituztenean, ezer gutxi egiten baitute animalien menderakuntzari egunerokoan aurre egiteko. Geroz eta jende gehiago ari da konturatzen beste modu batzuk daudela antolatzeko eta ekintzara pasatzeko. Nire ustez, pertsona horien kopurua handitu ahala, benetako aldaketak eta eragin sozialak ikusiko ditugu. Alabaina, hori soilik gertatuko da jendeak ulertzen badu aldaketa eragiteko gaitasuna dutela eta beren sormena, talentuak eta lana kausaren zerbitzura jar ditzaketela.

Ahalduntzea

Animalien eskubideen aldeko komunitatean, badago arazoaren oinarriari erreparatzen dion aktibismo bizi eta sortzailea, baina, zenbait urtez mugimendu horretan militatu ondoren, konturatu naiz jendeak uste duela aktibismo

garrantzitsuena “profesionalen esku” utzi behar dela. Ideia hori kaltegarria da erabat. Animalien eskubideen aldeko elkarte handi eta dirudunek gero eta negozio gehiago egiten dituzte industriarekin; ondorioz, gero eta gaitasun txikiagoa dute animalien esplotazioari oinarritik aurre egiteko. Elkarte horiek irabaz daitezkeen kanpainak eta donazioak behar dituzte irauteko; beraz, gauzatu ditzaketen ekintzak mugatuak dira, bai eta sustatu ditzaketenak ere. Zenbat eta negozio gehiago egin, orduan eta kontserbatzaileago bihurtzen dira elkarte horiek (maskara erradiala jartzen badute ere, PETAk egin ohi duen bezala). Itxura kontserbatzaileagoa izatea pragmatikoa da, eta elkarteari irauten lagunduko dio (haren burokrazia mantenduko du), baina animalien eskubideen aldeko mugimendu osoan izango du eragina. Elkarte horiek mugimenduko “erraldoiak” direnez, agendak definitzeko, prentsaren arreta erakartzeko eta eztabaidatu beharreko auzietan eragiteko ahalmena dute. Gainera, animaliez kezkatzen diren baina animalien aldeko mugimenduan parte hartzen ez duten gehienek ez dute bideratzen dituzte; sarritan, animalien esplotazioa desagerrarazteko modu ez oso eraginkorretan. Era berean, elkarte handiek bultzatzen duten parte-hartze mota ere kaltegarria da mugimenduaren ahalduntzerako.

Dinamika horiek agerikoagoak egiten dira dirua edo kideak behar dituztenean. Zoritxarrekoa bazara eta ni nagoen posta-zerrendetako batean bazaude, zabor-mezu pilo bat jasoko duzu animalien eskubideen aldeko elkartetatik (eta guztietan eskatuko dizute dirua, modu batean edo bestean). Enpresen marketin-estrategia makurren ere duari

jarraituz, zabor-mezu horietako batzuetan “inkesta” batean parte hartzeko eskatzen dute: marketineko amarru psikologiko bat besterik ez da. Jendeari animalien esplotazioaren izugarrikeriak gogorarazten dizkiote mezuaren bukaeran dirua eskatu aurretik. Kideak lortzeko mezu ia guztietan hitzematzen dute zerbait egin dezakezula animalien alde —dagokion elkarteari 25, 50, 100 edo 500\$ emanda, noski—.

Ez da harritzekoa PETA izatea dirua maizen eskatzen duen elkarteetako bat. Webgunea arakatzen ari nintzela, lan honetarako informazioa bilatzen, esteka bat gaizki idatzi, eta “orrialdea ez da aurkitu” oharrera iritsi nintzen. Ohiko mezuez gain, honako hau agertzen zen orrialde horretan: “Oraintxe bertan zerbait egin dezakezu makroetxaldeetan, larru-fabriketan, zirkuetan eta laborategietan sufritzen ari diren animaliei laguntzeko: PETAra batu zaitezke”¹⁴. Jarraian, “Zatoz PETAra” esteka dago, eta, hor klikatuz gero, zure kreditu-txartelaren datuak emateko eta bost minutu baino gutxiagotan “kide” izateko orrialdea topatuko duzu. Hala, “oraintxe bertan zerbait egitea animaliei laguntzeko” zera bihurtzen da: zure kreditu-txartelaren datuak —ahalegin handiz lortutako dirua, alegia— PETAri ematea.

Zabor-mezuak, kide izateko eskaerak... edonola ere, zure aktibismoa salerosketa huts batera murrizten dute, eta animalien esplotazioaren aurka zerbait egitea elkarre aproposaren kide izatea bihurtzen da. Orduan, zure kide-txartela gehitu diezaiokezu zure identitate-kit txikiari, eta harro esan dezakezu PETAri laguntzen diozula

zure bizimodua apur bat ere aldatu gabe, zuk zeuk aktibismorik egin behar izan gabe. Askok ez dute salerosketari hori zalantzan jartzen: PETAri dirua ematen diotenak animalien ongizateaz kezkatzen dira, baina ez dakite zer egin, eta badakite PETAk zerbait egingo duela. Pertsona horiek sentitzen dute PETAri (edo beste edozein elkarte handiri) dirua ematea animalien interesak defendatzeko modu eraginkorra dela. Jendeak uste badu dirua ematea eta elkarteren bateko “kide” bihurtzea dela “aktibismo” egingarri bakarra, aktibismo esanguratsua kontsumo-jarduera huts bilakatzen da. Ondorioz, “aktibista” izateko, egin behar den bakarra zera da: PETA bezalako elkarteei dirua ematea eta —bereziki erradikal eta ausart sentitzen bazara, eranskailu, kamiseta eta eskuorri egokiak erostea elkarteko webgunetik.

Aktibismoa erosteko joera hori animalien eskubideen aldeko mugimendua baino handiagoa da (egiatan, mugimendu ekologista izan zen horren aurrekaria duela zenbait hamarkada), eta mugimenduan dituen eraginak agerikoak dira. Lehenbizi, aktibismoa “profesionalen esku” uztearen ideia horrek jendeari pentsarazten dio erabilgarri izateko modu bakarra elkarte handien agintaritzari, ideiei, pentsalariei eta kanpainei jarraitzea dela. Jendeak uste badu profesional arduratsu eta prestatuak ari direla aktibismoaz arduratzen, ez du sentituko aktibismoa beren komunitateetan, bizitzetan edo beste toki batzuetan aplikatzeko beharra. Donatzaile/kide itxurako aktibismo hori ez da batere ahalduztailea maila indibidualean. PETA bezalako elkarteak diruz lagundu nahi dituen jendea nahigabetuta,

haserre, atsekabetuta edo triste sentitzen da animaliei ematen diegun tratuatik. PETAk (edo beste edozein elkarte handik) dirua ematera animatzen dituen bitartean —bene-tako aktibismoa egitera bultzatu beharrean—, aktibismoaren ekonomia zentralizatua eta bat ere ez ahalduntzailea sortzen ari dira. Jendeak egiten duen bakarra dirua ematea bada, haserre eta atsekabetu sentitzen jarraituko du.

Aktibista batzuek ekiteko ahalmena galtzen dute elkar-teetan oinarritutako aktibismo horren ondorioz; beste batzuek, ordea, ahalduntzen saiatzen dira zenbait modutan: indarkeria erabiliz eta jabetza pribatua suntsituz animalien askapenaren izenean. Esan bezala, ez naiz bakezalea. Batzuetan, indarkeria beharrezkoa da geure burua babesteko edo burujabe izateko. Alabaina, animalien eskubideen aldeko mugimenduan indarkeria erabiltzea kontraesan-korra da moralari eta etikari dagokionez. Gainera, ez da batere eraginkorra gizartearen jarrera epe luzera aldatzeko. Hala ere, mugimenduan badaude indarkeria gorensten duten pertsona ugari. Badirudi irrikan daudela boterea eta menderakuntza beste batzuen kontra erabiltzeko, dela haserreagatik, dela misantropiagatik, dela bien arteko nahasketagatik. Mugimenduan badaude preso politiko zintzoak, eta jabetza pribatua defendatzeko prest dagoen estatuaren errepresioa jasaten dute. Hala ere, animalien askapenerako mugimenduko pertsona batzuek indarkeria erabiltzeko desira sentitzen dute, eta, itxura guztien arabera, desira hori katarsirako behar indibidualistatik dator, eta/edo joera antisozialetatik. Ulertzen dut jendeak amorru gordina sentitzen duela animaliek une oro jasaten duten sufrimendu

izugarriagatik, baina kontuz ibili behar dugu desagerrarazi nahi ditugun menderakuntza-dinamikak ez errepikatze-ko. Ezin dugu jendea erabaki moral eta etikoak hartzera behartu pistola bat aurrean jarrita (metaforikoa zein ez). Horren ordeztan, Lee Hallek “ikusuntu alternatiboa lantzea” proposatzen du, jendeak ikus dezan nola tratatzen dituen gizarteak animaliak, eta gizartean paradigma-aldaketa gerta dadin¹⁵.

Iraultza egiteko lan neketsu hori da, hain justu, *You Can't Blow Up a Social Relationship* laneko egileek aipatzen dutena; eta, aldi berean, horixe da denboran iraun dezakeen aldaketa-modu bakarra. Gaur egun, pertsona gehienei onargarria iruditzen zaie beren gozamenerako egiten diren indarkeria eta tortura; animalien esplotazioa normala da, kontraesanak azaleratzen baditu ere. Ikusita zeinen indartsuak diren animaliak salgai eta jabetza hutsak balira bezala tratatzen dituzten joera sozialak, lortu nahi dugun aldaketak indarkeria, jabetza pribatua suntsitzea eta desagerrarazi nahi ditugun menderakuntza-dinamikak errepikatzea baino zerbait gehiago beharko du. Auzian aurrera egin nahi badugu, arazoaren muinean dauden harreman sozialak aldatu behar ditugu. Menderakuntza, zapalkuntza eta indarkeria erabiltzen baditugu, harreman sozial kaltegarri horiek errepikatzen baditugu, ustez desagerrarazi nahian gabiltzan arazoa larriagotuko dugu, besterik ez. Benetan baldin bagaude menderakuntzaren, esplotazioaren, zapalkuntzaren eta sufrimenduaren aurka, ez da batere zentzuzkoa gure ondorioak eta printzipiok alde batera utzi, eta egitura horietan inplikatzeko.

Era berean, ez dauka zentzurik norbanako batzuek “mugimenduaren” edo “animalien” izenean egiten dituzten ekintza bortitzak eta antisozialak goresteak. Antzeko arazoa izan zuen mugimendu anarkistak 1917an: kide batzuen indarkeriaren ondorioz, aurka zeudenek eta errekruta gazteek mugimendua desitxuratu zuten. Horren harira, zera idatzi zuen Luigi Fabbrik: “anarkismoak gizakiek beste gizaki batzuei eragiten dieten indarkeria eta autoritate bortitza abolitu nahi ditu esparru guztietan, bai ekonomikoan, bai erlijiosoan, bai politikoa”¹⁶. Fabbriren arabera, indarkeria goren badugu, “gizon handi” gutxi batzuk eta beren ekintzak irudituko zaizkizu garrantzitsuak, eta ez dugu gizartea ikusiko osotasun gisa edo protestarako, borrokarako eta aldaketa sozialerako eremu gisa. Fabbriren ustez, edozein ekintza iraultzaile gauzatu aurretik, anarkistek “bukaerako helburua kontuan hartu behar dute, helburu horren esentzia, funtzioa eta eraginak ahaztu gabe”. Laburbilduz, Fabbrik uste zuen bitartekoek eta helburuak garrantzia dutela, eta ezin dugula menderakuntza desagerrarazi gu geu menderatzaile izanez. Bakezalea ez bazen ere, ez zuen nahi bere garaiko anarkismoak indarkeria erabiltzea anarkismoaren kaltetan, ezinbestean beteko zen profetia suntsitzaile bati jarraituz. Izan ere, garai hartako prentsa burgesak “bortitz” gisa kalifikatu zuten anarkismoa; ondorioz, Fabbrik argudiatu zuen anarkismoak mugimenduaren aurka zeudenei mesede egiten ziela indarkeria erabiltzen zuenean. Are gehiago, mugimendua bortitza zen ideia zabaldu zenean, indarkeriaz gose zirenak erakarri zituen, anarkismoaren printzipioekin bat

zetozenak erakarri beharrean. Hori ekiditeko, Fabbrik uste zuen mugimenduak koherentzia berreskuratu behar zuela anarkismoaren benetako printzipioekin konprometituz. Zalantzarik gabe, argudio horiek aukera ematen digute anarkismoa eta gaur egungo animalien eskubideen aldeko mugimendua alderatzeko.

Gainera, ez dago batere argi indarkeria eta jabetza suntsitzea eraginkorrek direnik animalien askapenaren aldeko helburuak epe luzera lortzeko. Aldaketa sozialik ez bada go, askatzen dugun animalia bakoitzaren tokian beste bat jarriko dute, eta suntsitzen ditugun instalazioak ordezkaturiko dituzte. Jabetza pribatua indarkeriaz suntsitzeak ez dakar egiturazko aldaketa esanguratsurik epe luzera. Jabetza pribatua indarkeriaz suntsitzeak ez du apenas aldatzen abeltzaintzaren egoera, eta, gaur egun, hor sortzen da animalia gehienek sufrimendua. Jabetza suntsitzeko saiakera batzuen ondorioz, bibisekzioa egiten duten toki batzuek segurtasun-neurriak sendotu dituzte, baina ez da aldaketa nabarmenik egon animaliekin egiten den esperimentazioan. Gainera, indarkeria erabiltzen badugu animalien askapenaren izenean, jendeak ez du enpatiarik sentituko animaliek jasaten dituzten tortura eta zapalkuntzarekiko, eta, azkenean, ez dute ezer egingo hori ekiditeko. Prentsan oso zabalduta dago indarkeriak publikoa erakartzen duen ideia. Horregatik, ez da arraroa *60 Minutes* bezalako programa sentsazionalistetan Jerry Vlasak doktorea bezalako esatariak agertzea eta esatea animalien askapena lortzeko “beharrezkoa den guztia” egin behar dugula¹⁷. Animalien zapalkuntza hain normalizatuta eta sustraituta dagoen

munduan, oso jende gutxik entzungo du Vlasaken mezua destainarik sentitu gabe bai esatariarekiko, bai animalien eskubideen aldeko aktibistekiko. Ez dut uste gure mezua ahalik eta gehien zabaldu behar dugunik beti; alabaina, indarkeria sustatzen badugu animalien izenean, jende askok arbuioa sentituko du, eta baliteke kausari uko egitea betiko. Jendearengana eraginkortasunez iritsi nahi badugu, gizaki gehienek beste izaki bizidunekiko duten enpatia naturala erabili beharko dugu, eta ulertarazi beharko diegu zenbateraino diren antzekoak animaliek jasaten duten sufrimendua eta guk sentitzen duguna. Hori ez dugu lortuko bibisekzioak egiten dituztenei heriotza-mehatxuak eginez telebista nazionaletik.

Gure printzipioekin koherente izan nahi badugu eta antzinako menderakuntza-sistemetatik libre dagoen mundua eraiki nahi badugu, alde batera utzi behar ditugu indarkeria eta mehatxuak. Ez badugu hori egiten, borroka honetan kokatu gaituzten dinamikak errepikatzerara arriskatzen gara.

Aurrera egiten

Ez dugu aktibismorik sortzaileena, interesgarriena eta beharrezkoena topatuko dirua emanaz, indarkeria erabiliz edo “irabaz daitezkeen” kanpainetan oinarritzen diren elkarteei lan hori utziz. Francioneek *Rain Without Thunder* (Trumoirik gabeko euria) lanean adierazi zuen bezala, elkarreetan oinarritutako eredia ohikoa izan da animalien

eskubideen aldeko mugimenduan, nahiz eta ez den oso estrategia emankorrik izan. Horren orde, mugimendu ahduntzailea behar dugu, zeinak jendeari gogoraraziko dion edozeinek egin diezaiokeela ekarpenen bat abolizionismoaren kausari. Egia da ikuspegi horrek ez duela balio langileen soldatak ordaintzeko, ez eta larruzko berokiak hondatuko dituen pintura gorria erosteko ere; alabaina, horrela egituratzen dira mugimenduak, oinarritik, eta horrela bakarrik lortuko du animalien eskubideen aldeko mugimenduak eraginkorragoa izatea. Anarkismo sozialaren taktika batzuei eta ideologiari erreparatzen badiegu, badaude animalien eskubideen aldeko mugimendua epe luzera hobetzeko balio dezaketen zenbait ideia. Gainera, erabilgarriak izan daitezke justizia bilatzen duten beste mugimendu batzuekin loturak egiteko ere. Ideia horietako asko nozio honetan oinarritzen dira: lortu nahi dugun munduaren antzeko mugimendua sortu behar dugu. Hori ezinbestekoa da; izan ere, inoiz ez diogu animalien eta ekosistemen menderakuntzari aurre egingo ez bagara gai elkar menderatzeari uzteko.

Beganismoak izan behar du oinarria

Aipatu ditudan arrazoi guztiengatik, beganismoak animalien eskubideen aldeko mugimenduaren oinarria izan behar du. Norberaren bizitzan eta egunerokoan animalien zapalkuntza abolitu izanaren adierazpena da, eta espezismoaren logika arbuiatzen du. Erreskate-programen

eta antzeko baliabideen bidez animaliei laguntzen jarraitu behar badugu ere, hezkuntza beganoak gure irismenaren eta aktibismoaren oinarrian egon beharko luke. Mugimenduz kanpoko pertsonekin hitz egiten dugunean, azaldu beharko genieke zergatik den beganismoa aukera egingarria. Estrategia hori eta egungo animalien aldeko mugimendua erabat kontrajartzen dira. Izan ere, azkeneoak “animalien ongizatea”, “etikoki” lortutako arrautzak eta esne biologikoa sustatzen ditu. Produktu horiek denak zapalkuntzan oinarritzen dira, eta zapalkuntza iraunaraziko duten harremanak mantentzen dituzte. Zapalkuntza desagerrarazi nahi badugu, gure bizitzetatik desagerrarazi behar dugu lehenbizi, eta gainerakoak gauza bera egitera animatu behar ditugu.

Edozein izan daiteke aktibista

Ez dezagun aktibismoa profesionalen esku utzi! Ez utzi PETari, HSUSari eta beste erakunde batzuei mugimendua definitzen eta diskurtsoa menderatzen; erabili zure jakintza eta gaitasunak animalien salerosketa eta zapalkuntza zure inguruan eta bizitzan zalantzan jartzeko. Ezinbestekoa da jende gehiago mugimendura ekartzea eta loturak ikustea animalien, gizakien eta ekosistemen menderakuntzaren artean. Soilik horrela gogoraraziko diogu jendeari zer dagoen ustiapen kapitalistaren oinarrian, eta soilik horrela lortuko dugu animalien eskubideen aldeko mugimenduren ikuspegi mugatutik harago joatea.

Anarkistek diote inork ezin duela zuk bezain ondo erabaki nola bideratu nahi duzun zure bizitza. Era berean, inork ezin du zuk bezain ondo erabaki nola bideratu nahi duzun zure *aktibismoa*. Horrek ez du esan nahi denak balio duenik; animalien menderakuntza benetan desagerrarazi nahi badugu, ezin dugu menderakuntza praktikatu. Animalien salerosketa eta esplotazioa desagerrarazi nahi baditugu, ezin dugu taktika horiek erabiltzen dituen aktibismoa egin. Gure printzipioek axola dute, eta beti izan behar dute gure ekintzen gidari. Hori kontuan izanda, aktibistak baino zerbait gehiago izan behar dugu aktibismoaren hobe beharrez: eraginkorrak izan behar dugu. Gizakien eta gizakiz besteko animalien sufrimendua iraunarazten duten erakundeak eta praktikak izan behar dira gure jomugak, eta menderakuntza eta hierarkia desagerraraztea, berriz, gure helburua. Gure sormena, berrikuntzak eta interesak erabiliz, kontra egin diezaiekegu arazo sozialak eragiten dituzten harreman sozialei.

Praktikotasunari begira, hori lortzeko modu errazena zeure gaitasunak erabiltzea da. Haur hezkuntzako irakasle baten diskurtsoa ematen badu ere, gutako bakoitzak talentu berezi eta apartak ditu. Batzuk antolatzaile bikainak dira, beste batzuk sukaldari trebeak; batzuek abilezia izugarria dute artea egiteko, eta beste batzuk informatikan adituak dira. Pertsonak bezainbeste talentu daude. Zure aktibismoa donaziotan oinarritu beharrean, zure talentuak aztertu eta erabili beharko zenituzke animalien menderakuntzaren abolizioa, hezkuntza beganoa eta menderakuntzaren eta hierarkiaren amaiera lortzeko. Aktibismo-mota

horrek oso erraza ematen du; hala ere, irratian, hitzaldietan, idatzietan eta beste komunikabide batzuetan ideia hori aipatu izan dudanean, pertsona askok esan didate ez zitzaizela inoiz bururatu aktibista izan zitezkeenik. Izan ere, uste zuten aktibistak oiloz mozorrotuta joaten direla KFC-ren aurrean protesta egitera, edo erakunde handietan lan egiten dutela. Alabaina, aktibista izateko ez duzu zertan oilo mozorrotu edo PETAren oniritzia jaso; zure printzipioekin bat datorren aldaketa bat egitea erabaki behar duzu, hori besterik ez. Are gehiago, animalien menderakuntzak haserre, triste edo amorratuta sentiarazten bazaitu, zerbait egin dezakezu energia hori eraginkortasunez kanalizatu eta abolizioa sustatzeko. Ekintza da etsipena gainditzeko erremediorik onena.

Zer egin jakiteko, begiratu zure ingurura. Modu askotan inplika zaitezke gizakien eta gizakiz bestekoen menderakuntzaren aurkako borrokan. Modu horiek, ordea, sortzaileak dira, eta zure testuingurura eta gaitasunetara lortuta daude. Horrenbestez, ezin dizut esan zehazki zer egin behar duzun, baina hau ziur esan dezaket: zientoka aukera daude, eta milaka tokietan desagerrarazi behar da animalien esplotazioa. Zure gaitasunak, talentuak eta trebetasunak erabili beharko zenituzke kausari ahal duzun bezain ondoen laguntzeko, besteen esku utzi gabe. Kausak zure esperientzia, jakintza, ideiak eta ahalegina behar ditu. Ez zara banku soil bat, zeinetatik erakunde handiek dirua lor dezaketen zuzendari nagusiaren BMWa ordaintzeko.

Lan egin adostasunean oinarritutako kide-taldeen

Garrantzitsua da aktibismoa sormenaren bidez indartzea; garrantzitsua da halaber gure antzera pentsatzen dutenekin batera lan egitea helburuak betetzeko. Bildu lagunekin edo ezagunekin eta sortu aktibismoarako kide-talde bat, hau da, “elkarrekiko kide-taldea duten pertsonen talde bat, zeinean elkarren indarguneak eta ahulguneak ezagutzen dituzten, elkar laguntzen dioten eta elkarlanean aritzen diren kanpainak eta lan politikoa egiteko”¹⁸. Starhawkek aipatzen duen bezala, kide-taldeen historia luzea eta arrakastatsua da. XX. mendean, adibidez, Espainia-ko mugimendu anarkista nabarmenak izan ziren beren antolaketarik, eta gaur egun ere erabiltzen dira mugimendu ekologikista, antikapitalista eta feministan¹⁹. Kide-taldeen aukera ematen dute antzera pentsatzen duten aktibistak elkartzeko, elkarren ezagutzak aberasteko, indarrak batzeko eta helburu kolektiboak betetzeko. Kide-taldeen konfiantza, elkarlanean, adostasunean eta aktibismoaren helburuari buruzko ikuspegi bateratuan oinarritzen dira, eta erabakiak adostasunez hartzeko balio dute, zereginak taldeko kideen artean banatuz. Alabaina, garrantzitsua zera da: talde horiek hierarkiarik eta menderakuntzarik gabe funtzionatzen dutela, bozketak saihesten dituztela eta adostasunaren eta elkarri laguntzearen logika aplikatzen dutela.

Kide-taldeen helburuak mugatuak, epe laburrekoak eta oso espezifikokoak izan daitezke (adibidez, ekitaldi

baten aurka protesta egitea), edo epe luzerako eta jarraituak (Food Not Bombs mugimenduko talde bat sortzea, esaterako). Kide-taldeek benetako ahalmena, ordea, agerikoa egiten da indarrak batu eta beren irismena zabaltzeko elkarrekin lan egiten dutenean. Protesta baten kasuan, esaterako, kide-talde bat janaria prestatzeaz arduratu daiteke, beste bat komunikabideez, beste bat eskuorriak egiteaz, eta beste bat pankartak egiteaz. Ekin-tzarako eremua are gehiago zabaltzen badugu, antzeko helburuak dituzten kide-taldeek tokiko eta nazioarteko sareak sor ditzakete. Hala, ekintza koordinatuagoa eta eskala handian izango litzateke, nahiz eta taldeek era independentean funtzionatu. Sare horiek behetik goranzko egitura bat osatuko lukete, eta egitura hori erabat kontrajartzen zaio mugimenduaren korrante nagusian hain ohikoa den goitik beherako hierarkiari.

Laburbilduz, kide-taldeek izugarriko ahalmena dute. Borroka jakin batean inplikatu nahi dutenentzako bideak izateaz gain, aktibismo-rako kolektibo malgu eta eraginkorrak dira, bai eta menderakuntzarik eta hierarkiarik gabeko harreman sozialen adibideak ere. Elkarri laguntzea eta adeitasuna sustatzen dute, eta indibidualtasuna errespetatzen dute.

Indarrak batu eta besteen laguntza bilatu

Gramsci is Dead (Gramsci hilda dago) liburuan, Richard J. F. Day autoreak Leslie Feinberg aktibista transaren hitzak

aipatzen ditu. Feinbergen arabera, pertsona transen komunitate desberdinak elkarrekin solidario izateko modurik onena “bestearen zapalkuntzaren aurka borrokatzea”²⁰ da. Dayk berriz aipatzen du Feinberg, eta bere hitzak gehitzen ditu:

Helburua ez da “komunitate bakarra izaten ahalegintzea” (*Sittlichkeit*), baizik eta komunitate asko lotzea; kontua ez da liderrak “topatzea”, baizik eta onartzea denak garelako liderrak, “gu garelako espero genituen pertsonak”. Ahalmen hori ez da teorikoa soilik, eta hori argi geratzen da munduko zirkulu aktibisten jardunari erreparatzen diogunean. Borroka desberdinen arteko lotura zehatz eta praktikoak egiten saiatzen ari dira, eta gure arteko bereizketak gainditzeko zeregin garrantzitsuari heldu diote, erantzukizun hori estatuaren organo baten esku uzteko tentazioari men egin gabe²¹.

Kontuan izanda zein den animalien eskubideen aldeko mugimenduaren egoera, Dayren ideia bereziki aproposa da. Aurreko kapituluetan aipatu dudako bezala, animalien eskubideen aldeko mugimenduan, aktibismoaren parte handi batek ikuspegi oso mugatua dauka. Hori gainditzeko, indarrak batu eta besteen laguntza bilatu behar dugu. Horrez gain, loturak sortu behar ditugu komunitateen artean, Feinbergekin eta Dayk aipatzen duten moduan. Ez da batere errealista pentsatzea noizbait justizia sozialaren aldeko mugimendu bakar bat izango (edo nahiko) dugula —ez dut uste horrelako mugimendu bat eraginkorra izan daitekeenik—, baina beste borrokek errespetatzen

dituzten borrokak izan ditzakegu, eta batera lan egin dezakegu mundua hobetzeko. Hori lortzeko, borroka guztiak helburu honetan oinarritu behar ditugu: jendeari ikusaraztea zer menderakuntza- eta zapalkuntza-harreman dauden kapitalaren atzean. Menderakuntza-sisteman eta sistema horrek sortzen dituen zapalkuntza-motetan jarri behar dugu arreta, nahiz eta kolektibo guztiek ez dituzten era berean sentitzen zapalkuntza horiek. Garrantzitsua da zapalkuntza sozialaren harremanak gogoan izatea eta zapalkuntzaren sustriaiak jomugan jartzea. Hori eginez gero, ikuspegi eta lehentasun desberdinak dituzten taldeek elkarrekin konektatuko dute, elkarri lagunduko diote eta desberdintasunak alde batera utziz lan egingo dute. Horrez gain, komeni da denbora hartzea geure burua eta besteak informatzeko eta, hala, loturak ikusteko hainbat zapalkuntza-moten artean. Lan bateratua, gainera, lagungarria izan daiteke gure mugimenduetan presente dauden arazoetako batzuk konpontzeko; bereziki klasismoa, sexismoa, arrazismoa eta espezismoa. Era horretan lan eginez, animalien eskubideen aldeko aktibista zuhurrek aukera izango lukete mugimenduak hamarkadetan zehar bere buruari eman dion ospe txarra alderantzizatzeko eta beste borroka batzuetan izan duen irudi negatiboa aldatzeko.

Urrundu talde handietatik; utzi idoloak gurtzeari; hasi galderak egiten

Animalien eskubideen aldeko mugimenduan —gizartean gertatzen den bezala—, pertsona ospetsuak goستن dira, batzuetan itsuki goستsi ere. Prentsak arreta handia ematen die pertsona horiei, eta jainkoak balira bezala goratzen ditugu. Horietako askok errespetua merezi dute, eta beren aholkuak kontuan hartu beharko genituzke; alabaina, animalien eskubideen aldeko mugimenduko pertsona askok burua galtzen dute mugimenduko “pertsona famatu” batzuek hitz egiten dutenean. Pertsona horien ideiekiko eta ekintzekiko errespetuagatik balitz, ados, ulergarria da; haatik, pertsona hori “famatu” gisa identifikatzea da, besterik ez. Aipatu izan dut ezen, Peter Singer kritikatu izan dudanean, jendea haserretu egin zaidala. Ez dira sumindu nire kritiken edukiagatik, baizik eta animalien eskubideen aldeko mugimenduaren aita kritikatzan ari nintzelako. Askorentzat, Singerrek ezin du akatsik egin; ez bere iriztiagatik, baizik eta bere historia eta ospeagatik. Ikuspegi hori zentzugabeki hierarkikoa eta patriarkala da. Zergatik errespetatu behar dugu norbait iraganean egin zituen ekarpenengatik, gaur egun hartu duten posizioa zalantzarria bada (animalien kontsumoa eta bibisekzioa defendatzea, adibidez)? Erantzuna erraza da: ez dugu pertsona hori zertan errespetatu.

Feinbergekin dioen bezala, gu gara espero genituen pertsonak: liderrak izan gaitezke, aktibistak izan gaitezke, mugimenduak behar dituen pertsonak izan gaitezke. Ez

dauka zentzurik besteek behar dugun aktibismoa egin dezaten itxarotea, edo lana erakunde dirudunen eta horiekin bat datozen famatuen aktibismo korporatibo eta profesionalaren esku uztea. Gure jakintzatik, esperientziatik eta ikuspegitik lan egiten hasi behar dugu menderakuntza zalantzan jarriko duen mugimendu sutsu eta bizia sortzeko. Gure jakintzan, intuizioan eta esperientzian oinarritzeak bestelako ondorioak ere baditu: geure buruari galdetu behar diogu nortzuk dauden agintean. Kritikotasunez aztertu behar dugu mugimenduko aktibismoa osatzen duen ezagutza, eta ez dugu ezer itsu-itsuan onartu behar. Pentsamendu kritikoa eta analisia, geure buruari eta besteei buruzko galdera konplexuak egitea eta autoritatea zalantzak jartzea funtsezko baldintzak dira modu berrietan aurrera egiteko. Ez genituzke gizartearen jainkoak goratu behar, ez eta jainko horiei gure lider izaten utzi ere. Guk baka-rrik dugu ahalmena lortu nahi dugun mundua eraikitzeko. Ezin dugu zeregin hori beste batzuen esku utzi.

Erabili internet

Azken urteetan, balio handiegia eman zaio Internetaren ahalmenari; hala ere, aktibismorako tresna erabilgarria da, eta aktibista garaikideek ez lukete baztertu behar. Komunikatzeko kostuak hainbeste murrizten dituzenez, ia edozeinek erabil dezake informazioa zabaltzeko, antolatzeko eta jendea sentsibilizatzeko. Foroek, posta-zerrendek eta txatek tresnak ematen dituzte komunitateak sortzeko,

ekintzak antolatzeko eta irismena zabaltzeko. Gainera, aktibistentzat lagungarriak dira bai espazio “errealetan”, bai espazio “birtualetan”. Komunikabideetan trebeak direnek podcastak, bideo-blogak, YouTuberako bideoak edo beste komunikazio-mota batzuk egin ditzakete askoz ere erabiltzaile gehiagorengana iristeko. Kidesun-talde bateko kide bazara eta testu onak egiten badituzu, Internetera igo ditzakezu beste batzuek ere erabil ditzaten. Era berean, Internet erabil dezakezu material hezigarria sortzen duen edo sentsibilizazio-lana egiten duen kidesun-talde bat topatzeko. Internet erabiltzeko aukerak amaigabeak dira. Tresna boteretsua da, eta ez genuke ahaztu beharko.

Jende askok uste du lan informatikoa zaharkituta dagoela eta ez duela eragiteko ahalmenik; alabaina, nire esperientziak irakatsi dit hori ez dela horrela. Duela urte batzuk, beganismoari buruzko liburu bat idatzi nuen nire bikotekidearekin batera. Ondoren, berak eta biok foro bat eta podcast bat sortu genituen, eta beganismoarekin lotutako sentsibilizazio-lana egiten hasi ginen Interneten. Bi urteren buruan —eta oso diru gutxirekin—, sareko irratsaioa uste genuena baino askoz gehiago hazi da eta mundu osoko milaka entzule irabazi ditu. Entzule asko begetarianoak edo orojaleak ziren irratsaioa entzuten hasi zirenean, baina beganismoaren aldeko mezu koherentea entzun ondoren, sarritan idatzi digute beganismora salto egin dutela kontatzeko. Aldi berean sortu genuen komunitate birtuala ere hazi egin da: ia bi mila kide ditu orain. Jendea biltzeko puntu gisa balio du, eta, hari esker, bilerak eta aktibismoa antola ditzakete “mundu errealean”. Gainera, sarean

elkartasuna, kidesuna eta adiskidesuna topatzeko ere balio du. Hori guztia aipatzen dut ez nire lorpenengatik harro agertu nahi dudalako (egiatan, ez dira hainbesterako; beti pentsatzen dut nola izan gaitezkeen eraginkorrakoak), baizik eta erakusteko zer egin dezakegun diru gutxirekin eta ahalegin apur batekin. Egia esanda, ez daukagu gainontzekoek ere ez duten gaitasun berezirik. Diru askorik ere ez daukagu, eta, garai hartan, esperientzia handirik ere ez. Hala ere, ekarpen bat egin genezakeela sentitzen genuen, eta ordenagailuekin nahiko trebeak garenez, beganismoa sustatzeko ahal genuena egiten saiatu ginen, ahal genuen ondoen. Badakit munduan podcast, foro eta posta-zerrenda ugari daudela jada, baina horiek Internetek ematen dituen aukeretako batzuk besterik ez dira. Modu gehiago daude Internet aktibismoaren eta komunitate aktibisten zerbitzura jartzeko; zure irudimenak zehazten ditu tresnaren mugak.

Zeregin amaigabea

Faxismoari buruzko saiakera ezagun batean, Umberto Eco idatzi zuen “askatasuna eta askapena amaierarik gabeko zereginak”²² direla. Ezin dugu espero beste batzuek askatasuna eta askapena lortzeko lana gugatik egitea. Horren ordez, gure esku dago ahal duguna egitea lortu nahi dugun mundua eraikitzeko —ez bakarrik animalien aldeko aktibismoari dagokionez, baita guztion askatasuna lortzeko ere—. Ez badugu ulertzen gure askatasuna besteen askatasunarekin lotuta

dagoela, zapalkuntzaz eta menderakuntzaz betetako mundu batean bizitzen jarraituko dugu. Arazo sozialak harreman sozialen porrotak dira. Arrakastatsu izateko, gure mundua osatzen duten harreman sozialak aldatu behar ditugu, kapitalaren harremanak eta beste menderakuntza- eta hierarkia-forma ez-beharrezko batzuk barne. Liburu honetan azaldu dudak bezala, kapitala moralgabea da. Ez ditu ez gizakien ez animalien bizitzak aintzat hartzen, aberastasuna ematen dutenean izan ezik. Kapitalaren moral-falta salatu behar dugu gure mugimenduetan, eta geure buruaren eta besteen balioa azpimarratu behar dugu. Kapitala arrazoi etikoengatik arbuatu behar dugu, eta hierarkiarik, menderakuntzarik, zapalkuntzarik eta sufrimendu gordinik gabeko mundu baten ideia artikulatu behar dugu. Horretarako, banatzen gaituzten mugetatik harago joan, gure arteko antzekotasunak bilatu, eta zapalkuntza sistemikoa dela ulertu behar dugu. Soilik horrela egin dezakegu aurrera. Badakigu beste mundu bat eraikitzea posible dela: hori lortzen saiatu behar dugu.

Jendea sentsibilizatzea, gure harreman sozialak aldatzea eta mundu hobea egitea prozesu luzea eta zaila izango da, baina ez daukagu beste aukerarik. Gramscik adimenaren pesimismoa eta borondatearen optimismoa aipatu zituen: sarritan, mundua oso beltz ikusten dugu, eta gauzak hobetzeko aukera gutxi ditugula iruditzen zaigu. Alabaina, punturen batetik hasi behar dugu; ezin dugu amore eman helburua handiegia eta zailegia delako. Mundua aldatu nahi badugu, zeregin hori gure bizitzan eta aktibismoan aplikatu behar dugu lehenbizi. Hierarkiarik eta menderakuntzarik gabeko mundu batean bizi nahi badugu, mundu

hori sortzen hasi behar dugu orain; bestela, arbuiazen ditugun zapalkuntza-dinamika berberetan harrapatuta geratuko gara. Ezin ditugu gure balioak eta printzipioak sakrifikatu uste dugulako hori eginez “etorkizun” perfektua lortuko dugula magikoki. Gure printzipioek eta balioek orain gidatu behar gaituzte. Komenigarritasunagatik, pragmatikotasunagatik edo politikagatik gure printzipioen aurka egiten dugun guztia atzerapausoa da mundu hobea lortzeko bidean. Jende askok uste du ikuspegi hori idealista dela; gizakiek ere sufritzen dutenez, ezin dugula printzipio horiekin koherenteak izan; idealismoaren kostuak handiegia direla; eta sufrimendua amaitzeko ahal duguna egitera mugatu beharko genukeela. Ideia hori ulertzen badut ere, arriskutsua dela iruditzen zait. Axola zaigunari uko egiten badiogu zerbait hobea lortzeko esperantzan, joko arriskutsu batean sartuko gara, zeinean gure idealak eta praktikak ez datozen bat. Horren ordez, Bookchinek proposatzen duenari jarraituz, lan neketsua egin behar dugu: loturak ezarri, jendea sentsibilizatu eta menderakuntzaren oinarrian dauden sustrai komunak azaleratu. Le Guinen eleberriko Shevekek dioen bezala, “egin dezakezun bakarra zera da: iraultza izan”.

Ez dago beste aukerarik.

NOTAK

I. kapituluaren oharrak

- 1.- NIBERT, David Allan (2002). *Animal Rights/ Human Rights*. Rowman & Littlefield Publishers.
- 2.- Ibid., 4. or.
- 3.- BBCk laburtutako 2006ko ikerketa baten arabera (<http://news.bbc.co.uk/2/hi/science/nature/61088414.stm>), egungo arrantza-zifrekin jarraituz gero, arrain-haztegien stocka berrogeita hamar urtean agortuko litzateke.
- 4.- MARX, Karl (1978). "The german ideology: Part 1", *The Marx-Engels Reader* liburua 2. edizioan (ed. Robert C. Tucker). New York eta Londres, W.W. Norton and Company.
- 5.- Ibid., 155. or.
- 6.- ALTHUSSER, Louis (1971). "Ideology and ideological state apparatuses". *Lenin and Philosophy and Other Essay*. New York eta Londres: Monthly

Review Press.

- 7.- MARX, Karl (1978). "The German Ideology: Part 1".
- 8.- Ibid., 173. or.
- 9.- NATIONAL PUBLIC RADIO (2007abuztuaren 14a). Poverty in America. (<http://www.npr.org/programs/specials/poll/poverty/>)
- 10.- GRAMSCI, Antonio (1971). Selections from the prison notebooks. New York, International Publishers.
- 11.- WALLERSTEIN, Immanuel (1991). "The Ideological Tensions os Capitalism: Universalism versus Racism and Sexism". Race, Nation, Class: Ambiguous Identities (ed. Etienne Balibar eta Immanuel Wallerstein). Londres, Verso.
- 12.- HRIBAL, Jason (2003). "Animals are part of the working class: A challenge to labor history". Labor History (44), 435-453. orr.
- 13.- Paradoxikoki, inork ez du argudio hori erabiltzen hartz batek pertsona bati eraso egiten dionean edo krokodiloek edo marrazoek jendea jaten dutenean.
- 14.- Horrek ez du esan nahi sistema ustiatzaile guztiek jatorri bera dutenik. Emakumeen kontrako zapalkuntzak baditu beste aurrekari batzuk, jende arrazializatuaren kontrako edo gizakiz besteko animalien kontrako zapalkuntzez gain. Zapalkuntza bakoitzaren historia desberdina da, baina kapitalismoak guztiak erabili ditu.

II. kapituluaren oharra

- 1.– Cf. CAMPBELL, Collin T.; CAMPBELL, Thomas M. (2006). *The China study: The most comprehensive study of nutrition ever conducted and the startling implications for diet, Weight Loss, and Long-Term Health*. Dallas: Benbella Books, 4. or. [Alderatu lan honekin puntu honi lotutako azterlan asko eta jatorrizko ikerketa kobentzigarria ezagutzeko].
- 2.– FRANCIONE, Gary L. (2000). *Introduction to animal rights: Your child or the dog?* Filadelfia, Temple University Press, 6. or.
- 3.– Ibid.
- 4.– Bai, benetan. Maiz entzuten ditugu horrelakoak, eta merezi du erantzutea.
- 5.– TORRES, Bob; TORRES, Jenna (2005). *Vegan freak: Being vegan in a non-vegan world*. Tofu Hound Press, 30. or.
- 6.– Merezi du konturatzea hemen “gizakia” jarriko bagenu “txerria” jarri beharrean, ezingo genukeela egiaztatu gizaki horrek mina sentitzen ote duen. Filosofoek “adimenen arazoa” deitzen diote horri: ezin ditugu besteen esperientzia subjektiboak zuzenean hauteman, baina ematen dituzten ebidentziak hain dira adierazgarriak (gizaki zein txerrien kasuan) kobentzitzen gaituztela azalaren gainean altzairu gorria jartzearen esperientzia mingarria ez dela batere sentsazio atsegina.
- 7.– FRANCIONE, Gary L. (2000). *Introduction to*

- animal rights: Your child or the dog? Filadelfia, Temple University Press, 8-9. orr.
- 8.– Ibid., 9. or.
- 9.– Ibid., 96. or.
- 10.– Baliteke zeure buruari galdetzea zer dela eta nagoen animalien instrumentalizazioaren kontra, baina, halere, maskotekin bizi naizen. Bada, nahiz eta uste dudan maskota bat izatea ustiatzailea dela, urtero, milioika eta milioika animalia eutanasiatzen dituzte txakurtegietan gizakien kapritxoek eta moden eta arduragabekeriaren ondorioz. Gizaki batzuek animalia horietako batzuk etxean hartzeko baliabideak ditugu, eta horixe egiten dugu. Hala ere, animaliak haztearen eta sal-erostearen aurka nago, baita animaliak edukitzeko modu gehienek kontra ere.
- 11.– Ibid., 99. or.
- 12.– CLEAVER, Harry (2000). Reading Capital Politically. Anti/Thesis eta AK Press, 82. or.
- 13.– Ibid.
- 14.– Marx, sarritan, truke-balioari “balio” deritzo, beste barik, baina nik nahiago dut beste autore batzuek egin duten moduan, “truke-balio” terminoa erabiltzea merkantzia baten bi alderdi desberdin horien arteko bereizketa argia egiteko.
- 15.– MARX, Karl. “Preface to A Contribution to the Critique of Political Economy”, liburu honetan: TUCKER, R. C. (1978) The Marx-Engels Reader, 2. Ed. New York eta Londres, W.W. Norton and Company, 4. or.

- 16.– Pasarte hori ezagutzen baduzu, zalantzarik gabe, ezagutuko dituzu Marxek determinismo ekonomikora, dikotomia arriskutsu eta prezipitatueta eta antzeko gauzeta jotzen duela dioten eztabaidak ere. Debate horiek liburu honen helburuetatik at daude, baina Marxen irakurketetatik abiatuta, nire iritzia zera da: badela, gutxienez, argudio sendo bat, elkarren arteko baldintzatze eta berdintasunik gabeko (desorekatua) baten alde, non pisu handiagoa jarri baita ekonomiaren aldean. Hori, ordea, ez da ulertu behar determinismo ekonomikorako joeratzat eta horrek dakartzan arazotzat.
- 17.– CLEAVER, Harry (2000). *Reading Capital Politically. Anti/Thesis* eta AK Press.
- 18.– MARX, Karl (1978). *Capital, Volume I* liburu honetan: TUCKER, R. C. (1978) *The Marx-Engels Reader*, 2. Ed. New York eta Londres, W.W. Norton and Company, 321. or.
- 19.– *Ibid.*, 322. or.
- 20.– CLEAVER, Harry (2000). *Reading capital politically. Anti/ Thesis* eta AK Press, 71. or.
- 21.– NOSKE, Barbara, (1997). *Beyond boundaries: Humans and Animals*. Black Rose Books.
- 22.– HRIBAL, Jason (2003). “Animals are part of the working class: A challenge to labor history”. *Labor History* (44).
- 23.– *Ibid.*
- 24.– *Ibid.*
- 25.– *Ibid.*, 436. or.

- 26.– Ibid.
- 27.– NOSKE, Barbara (1997). Beyond Boundaries: Humans and animals. Black Rose Books.
- 28.– Ibid., 18. or.
- 29.– Ibid., 18-21. orr.
- 30.– Ibid., 20. or.
- 31.– UNITES EGG PRODUCER (2007ko martxoaren 2a). US Egg Industry (http://www.unitedegg.org/usegginindustry_generalstats.aspx)
- 32.– Gehienetan, “hezkuntza” deritzo arrautzak kontsumitzea zein osasungarria den esateari. “Haurren doktrinamendu” terminoa zehatzagoa litzateke, batez ere doktrina hori testuliburuetan irakurtzen dutela kontuan hartuta.
- 33.– UNITES EGG PRODUCER (2007ko martxoaren 2a). Us Egg Industry (http://www.unitedegg.org/usegginindustry_generalstats.aspx)
- 34.– UNITES EGG PRODUCER (2007ko otsailaren 20a). http://www.uepcertified.com/docs/2006_UEPAnimal_welfare_guidelines.pdf
- 35.– Ibid
- 36.– Horietako 8.800 milioi haragiaren industriarako eraildako oilaskoak dira, ikerketa honen arabera [NATIONAL AGRICULTURAL STATISTICS SERVICE (2007). “Poultry - Production and Value 2006 Summary”. Washington, DC: United States Department of Agriculture]. Erailtzen diren gizakiz besteko animalien kopuruei buruz gehiago jakiteko, kontsultatu honako artikulua hau: [NATIONAL AGRICULTURAL STATISTICS SERVICE

- (2007). “Livestock Slaughter”. Washington, DC: United States Department of Agriculture].
- 37.– Kopuru horiek AEBko Nekazaritza Saileko Marketing Zerbitzutik (United States Department of Agricultural Marketing Service) datoz. (<http://marketnews.usda.gov/portal/lg>)
 - 38.– ECONOMIC RESEARCH SERVICE (2007ko abuztuaren 27a). “Background Statistics: U.S. Beef and cattle industry”. United States Department of Agriculture. (<http://www.ers.usda.gov/news/BSECoverage.htm>)
 - 39.– “Broiler” deritzen oilaskoak kontsumora bideratzen dituzten eta 13 aste baino gutxiago dituzten izakiak dira (beste oilasko batzuk, ordea, arrautzen produkzioa bideratzen dituzte).
 - 40.– ECONOMIC RESEARCH SERVICE (2007ko abuztuaren 27a). “Background Statistics: U.S. Beef and cattle industry”. United States Department of agriculture. (<http://www.ers.usda.gov/news/BSECoverage.htm>)
 - 41.– UNITED STATES BUREAU OF LABOR STATICS (2007ko abuztuaren 30a). “Industry Injury and Illness Data 2005”. United States Bureau of Labor Statics. (<http://www.bls.gov/iif/oshusum.htm>)
 - 42.– MATTHEWS, Kymberline Adams (2006ko otsailaren 18a). “Whistleblower on the kill floor: The Satya interview with Virgil Butler and Laura Alexander”. Satya Magazine (<http://www.satyamag.com/feb06/butler.html>)
 - 43.– Ibid.

- 44.– EISNITZ, Gail A. (1997). Slaughterhouse: The shocking story of greed, neglect, and inhumane treatment inside the U.S. meat industry. Prometheus Books, 85. or.
- 45.– Ibid., 80-81. orr.
- 46.– Ibid., 82. or.
- 47.– Ibid., 85. or.
- 48.– Ibid.
- 49.– Ibid., 87-88. orr.
- 50.– FRANCIONE, Gary L. (2000). Introduction to animal rights: Your child or the dog? Filadelfia, Temple University Press.
- 51.– Ibid.
- 52.– ROWLANDS, Mark (2002). Animals like us. Ed.: Colin McGinn, Practical Ethics Series. Londres, Verso.
- 53.– GREEK, C.R; GREEK, J.S. (2002). Sacred Cows and Golden Geese: The human cost of experiments on Animals. Continuum International Publishing Group.
- 54.– ROWLANDS, Mark (2002). Animals like us. Ed.: Colin McGinn, Practical Ethics Series. Londres, Verso.
- 55.– BERNSTEIN, Mark H. (2004). Without a Tear: Our tragic relationship with animals. Urbana eta Chicago: University of Illinois Press.
- 56.– GREEK, C.R; GREEK, J.S. (2002). Sacred Cows and Golden Geese: The human cost of experiments on Animals. Continuum International Publishing Group.

- 57.– BERNSTEIN, Mark H. (2004). Without a Tear: Our tragic relationship with animals. Urbana eta Chicago, University of Illinois Press.
- 58.– GREEK, C.R; GREEK, J.S. (2002). Sacred Cows and Golden Geese: The human cost of experiments on Animals. Continuum International Publishing Group.
- 59.– Ibid., 61. or.
- 60.– Ibid.
- 61.– PIPPIN, John J. (2005).”The need for revision of pre-market testing: The failure of animal test of cox-2 inhibitors”. Washington, DC, Physicians Committee for Responsible Medicine.
- 62.– Ibid.
- 63.– GARTNER, John. (2007ko otsailaren 23a). “Vioxx suit faults animal test”. Wired Magazine (<http://www.wired.com/news/technology/medtech/o,68260-0.html>).
- 64.– Physician’s Committee on Responsible Medicinerako txostenean, animalien laginekin Vioxxerako izandako arazoei buruzkoan (“The need for revisions of pre-market testing: The failure of animal test of COX-2 Inhibitors”), John J. Pippin, MD, FACC doktoreak testak egiteko hainbat bide potentzialtzat aipatzen ditu, zeinak “egungo esperimentuek eta gaur egungo irizpen klinikoek baino askoz datu hobek emango lituzketen”, zehazki, honako hauek: giza farmakologia klinikoa, mikrodosien teknologia, in vitro eta in silico probak, giza ama zelulen teknologia, eta

farmakogenomika. Alternatiben azterketa zehatza liburu honen helburutik haratago egongo litzateke, baina irakurleak animatzen ditut Greek eta Greek-en liburua irakurtzera (Sacred cows and golden geese), animaliekin egiten diren esperimentuak eta bibisekzioa ordeztzeko aukerei buruzko informazio gehiago izateko.

- 65.– FRANCIONE, Gary L. (2000). Introduction to animal rights: Your child or the dog? Filadelfia: Temple University Press, 38. or.
- 66.– Ibid.
- 67.– Ibid.
- 68.– Ibid.
- 69.– FRANCIONE, Gary L. (2000). Introduction to animal rights: Your child or the dog? Filadelfia, Temple University Press.
- 70.– Ibid.
- 71.– CHARLES RIVER LABORATORIES. (2007ko martxoaren 15a). Research models & services. US catalog.
- 72.– FRANCIONE, Gary L. (2000). Introduction to animal rights: Your child or the dog? Filadelfia: Temple University Press, 35. or.
- 73.– BERNSTEIN, Mark H. (2004). Without a Tear: Our tragic relationship with animals. Urbana eta Chicago, University of Illinois Press, 133. or.
- 74.– Ibid.
- 75.– MASON, Jim. (2005). An unnatural order: Why we are destroying the planet and each other. New York, Lantern.

76.– Ibid., 262. or.

77.– Ibid., 263.

III. kapituluaren oharrak

- 1.– HEIDEGGER, Martin. (1997). The question concerning technology and other essays. Harper Collins.
- 2.– Egia esan, maitatuak ez diren txakur gehienak kalean edo zakurtegietan amaitzen dute, eta bertan eutanasiatuak izan ohi dira. Abandonatzen dituzten txakur batzuk B motako nekazaritza-merkatariiek erosten dituzte, eta esperimentazio-konpainiei saltzen dizkiete. Hori oso ondo dokumentatu da HBOren Dealing dogs dokumentalean.
- 3.– Ikaragarria da, eta al baitari gehienek, seguru asko, uko egingo liokete, baina al baitari presturen bat aurkituz gero, ez dago legez kanpoko ezer egitearen kontra. Areago, milaka maskota osasuntsu baina abandonatu hiltzen dituzte egunero txakurtegietan. (Mila esker Gary L. Francioneri lege kontuak argitzeagatik).
- 4.– ZEZIMA, Katie. (2007ko martxoaren 24a). “Rat poison found in food linked to 14 animal deaths”. The New York Times.
- 5.– SELVIN, Molly; GODMAN, Abigail. (2007ko martxoaren 30a). “A dog’s life: What’s it worth? Moves to raise the legal status of pets may lead to damage awards. But there are other issues”. Los

- Angeles Times.
- 6.- FUDGE, Erica. (1990). Animal, focus on contemporary issues. Londres, Elephant Books.
 - 7.- FRANCIONE, Gary L. (2000). Introduction to animal rights: Your child or the dog? Filadelfia: Temple University Press.
 - 8.- KROPOTKIN, Piotr. (1990). The conquest of bread. Londres, Elephant Books.
 - 9.- Ibid., 55-56. orr.
 - 10.- Gure jabetza erabiltzen dugu, noski, geure burua mantentzeko, egunero lan egin ahal izateko, baina hori ez da kapitala erabiltzea onura ekonomikoak sortzeko.
 - 11.- Hori nahiko nabarmena da indioilarraren kasuan. Bizi naizen tokian, New Yorkeko estatua iparraldean, indioilar basati ugari daude, eta jendeak hegazti eder eta maitagarri horiek eta horien kumeak ikus ditzake basoan eta larretan. Etxekotutako indioilarrei, hain handiak eta lodiak izanik, mugitzea zaila egiten zaie, eta erabat ezberdina den espezie batekoak dirudite.
 - 12.- UNITED STATES DEPARTMENT OF HEALTH AND HUMAN SERVICES. (2007ko martxoaren 20a). "Federal agencies Take Special Precaution to keep " Mad cow disease" Out of the United States". (<http://www.hhs.gov/news/press/2001press/01fsbse.html>).
 - 13.- PARKER, Vicki Lee (2007ko martxoaren 30a). "It began with chicken feathers". NC, State University Technology Incubator. (<http://techincubator.ncsu>).

- edu/news/BioResourceInternational_jan07.htm).
- 14.– FRANCIONE, Gary L. (2000). Introduction to animal rights: Your child or the dog? Filadelfia, Temple University Press.
 - 15.– Ibid., 55. or.
 - 16.– Ibid., 54. or.
 - 17.– NIBERT, David Allan (2002). Animal Rights/ Human rights. Rowman & Littlefield Publishers.
 - 18.– NATIONAL ANIMAL INTEREST ALLIANCEren atariko web orria (2007ko urtarrilaren 20a)(<http://www.naiaonline.org/>). Jatorriz, Will Potterren blogean aipatua 2007ko urtarrilaren 12an. (<http://www.greenisthenewred.com/blog/>)
 - 19.– POTTER, Will (2007ko urtarrilaren 12a). Green is the new red izeneko bloga. (<http://www.greenisthenewred.com/blog/>).
 - 20.– FEINSTEIN, Dianne (Kaliforniako senataria) (2007ko abuztuaren 28a). Inhofe-Feinstein Introduce Bi-Partisan Animal Enterprise Terrorism Act. (<http://www.feinstein.senate.gov/public/index.cfm/press-releases?ID=7929fb29-7e9c-9af9-73c1-c7b5d599def3>).
 - 21.– POTTER, Will (2007ko martxoaren 15a). “Analysis of the Animal Enterprise Terrorism Act”. (<http://www.greenisthenewred.com/blog/aeta-analysis-109th/>).
 - 22.– Ibid.
 - 23.– Ibid.

- 24.– Gehiegikeria dirudi horrek, baina nahikoa dugu NAI Aren edo antzeko taldeen argitalpenei erreparatzea, konturatzeko pertsona askok uste dutela animalien eskubideen aldeko aktibismoa arriskutsua dela.
- 25.– SCHUSTER, Henry (2007ko uztailaren 17a). “Domestic terror: Who’s most dangerous? Eco-terrorist are now above ultraright extremist on the Fbi chart”. CNN.com (<http://www.cnn.com/2005/US/08/24/schuster.column/>).
- 26.– BOOKCHIN, Murray (1980). *Toward an Ecological Society*. Montreal, Black Rose Books.
- 27.– KROPOTKIN, Piotr (1998). *Mutual aid: A Factor of evolution*. Londres, Freedom Press.
- 28.– BOOKCHIN, Murray (1980). “Marxism as bourgeois sociology”. *Toward an Ecological Society*. Montreal, Black Rose Books, 203. or.
- 29.– Ibid.
- 30.– BOOKCHIN, Murray (2005). *The ecology of freedom: The emergence and Dissolution of Hierarchy*. AK Press, 134. or.
- 31.– Ibid., 135. or.
- 32.– BOOKCHIN, Murray (1980). “Toward an Ecological Society”. *Toward an Ecological Society*. Montreal, Black Rose Books.
- 33.– Ibid., 59.
- 34.– BOOKCHIN, Murray (2005). *The ecology of freedom: The emergence and Dissolution of Hierarchy*. AK Press, 68. or.
- 35.– Ibid., 102. or.

- 36.– Ibid., 123. or.
 37.– Ibid.
 38.– Ibid., 112. or.
 39.– Ibid., 143. or.
 40.– Ibid., 153. or.
 41.– Ibid., 89-90. orr.
 42.– BOOKCHIN, Murray (1980). “Toward an ecological society”. Toward an ecological society. Montreal, Black Rose Books, 65.
 43.– BOOKCHIN, Murray (2005). The ecology of freedom: The emergence and Dissolution of Hierarchy. AK Press, 435. or.
 44.– Ibid., 439. or.
 45.– Ibid.
 46.– MASON, Jim (2005). An unnatural order: Why we are destroying the planet and each other. New York, Lantern.
 47.– Ibid., 163. or.
 48.– MACHAN, Tibor R. (2004). Putting humans first: Why we are nature’s favorite. Lanham. Maryland, Rowman and Littlefield.
 49.– Ibid., 25. or.

IV. kapituluaren oharrak

- 1.– FEATHERSTONE, Liza; HENWOOD, Doug; PARENTI, Christian (2007ko abuztuaren 28a). “Action will be taken: Left antiintellectualism and its discontents”. (<http://www.leftbusinessobserver.com>)

- com/Action.html).
- 2.– “Animalien eskubideen industria” terminoa Daniel Peyserrek sortu zuen. (2007ko maiatzaren 27a). “The animal rights industry reflections on the exploitation of nonhuman suffering”. (<http://pandora.nla.gov.au/pan/57145/20080326-1551/www.abolitionist-online.com/issue7.html>).
 - 3.– GRANDIN, Temple. (2006ko urriaren 26a). “Humane Animal Handling and Slaughter” hitzaldia Toronton, Delivering Humane Food in Canada kongresuan, Canadian Coalition for Farm Animals-ek aurkeztua. (<http://www.humanefood.ca/templegrandin.html>).
 - 4.– Temple Grandinen webgunea (2007ko maiatzaren 22a). (<http://www.grandin.com/temple.html>)
 - 5.– PETA (2004ko maiatzaren 22a). Peta Proggry Awards. (<http://www.peta.org/feat/proggry/2004/index.html>).
 - 6.– FRANCIONE, Gary L. (1996). Rain without thunder: The ideology of the animal rights movement. Temple University Press.
 - 7.– MARCUS, Erik (2005). Meat market: Animals, Ethics and Money. Ithaca, New York, Brio Press, 81. or.
 - 8.– WISE, Steven M. (2003). Drawing the line: Science and the case for animal rights movement. Perseus Publishing.
 - 9.– Ibid., 234-35. orr.
 - 10.– MARCUS, Erik (2005). Meat market: Animals, Ethics and Money. Ithaca, New York, Brio Press.

- 11.– FRANCIONE, Gary L. (1996). Rain without thunder: The ideology of the animal rights movement. Temple University Press.
- 12.– Ibid., 36-38. orr.
- 13.– WALSH, Gareth. (2007ko maiatzaren 13a). “Father of Animal Activism Backs Monkey Testing”. Times Online / The Sunday Times (<http://www.timesonline.co.uk/tol/news/uk/article650168.ece>).
- 14.– Charity Navigator (2007ko maiatzaren 25a). Humane Society of the United States (<http://www.charitynavigator.org/index.cfm/bay/search.summary/orgid/3848.htm>).
- 15.– “Arizona Proposition 204: An Initiative Measure Proposing Amendment to Title 13, Chapter 29” (204. Arizona Proposamena: 13. Tituluaren 29. Kapituluako emendakina proposatzeko neurketa-ekimena), Arizonako estatuak estatutuak berrikusi eta 13-2910.07 atala gehitu zuen, animalien konfinamendu kruek eta ez-humanoari buruzkoa. (<http://www.azsos.gov/election/2006/Info/PubPamphlet/english/Prop204.htm>)
- 16.– THE HUMANE SOCIETY OF THE UNITED STATES (2006). “An Hsus Report: The Economic Consequences of Adopting Alternative Production Systems to Gestation Crates”. Washington, DC, The Humane Society of the United States, 1.
- 17.– Ibid., 2. or.
- 18.– THE HUMANE SOCIETY OF THE UNITED STATES (2007ko ekainaren 20a). Statement of

- Principles and Beliefs (http://www.hsus.org/about_us/statements/principles_and_beliefs.html).
- 19.– BREWER, John (2002). “Half-Truth at Whole Foods”. San Antonio Current. (<http://www2.sacurrent.com/news/story.asp?id=55868>).
 - 20.– SATYA MAGAZINE ed. (2007ko ekainaren 8a). Satya aldizkariaren editoriala (<http://www.satyamag.com/>).
 - 21.– Animal Compassion Foundation aldizkariaren webgunearen ataria. (2007ko maiatzaren 15a) (<http://animalcompassionfoundation.org/>).
 - 22.– WHOLE FOODS MARKET (2007ko maiatzaren 15a). “Whole Foods Market: Issues & Actions: Animal Welfare”. (<http://www.wholefoodsmarket.com/issues/animalwelfare/index.html>).
 - 23.– SINGER, Peter; MASON, Jim (2006). *The Way We Eat: Why Our Food Choices Matter*. Emmaus, Pennsylvania, Rodale Books.
 - 24.– Ibid.
 - 25.– Cf. DOWIE, Mark (1995). *Losing Ground: American Environmentalism at the Close of the Twentieth Century*. Liburu honekin alderatu mugimendu ekologistari hau nola gertatu zaion azterketa sakona lortzeko.
 - 26.– SINGER, Peter; MASON, Jim (2006). *The Way We Eat: Why Our Food Choices Matter*. Emmaus, Pennsylvania, Rodale Books, 181. or.
 - 27.– Ibid.
 - 28.– FRANCIONE, Gary L. (1996). *Rain without*

- thunder: The ideology of the animal rights movement. Temple University Press, 37. or.
- 29.– HEDGES, Chris (2007). *American Fascists: The Christian Right and the War on America*. Free Press.
 - 30.– PETA (2007ko urtarrilaren 27a). State of the Union Undress. (<http://www.peta.org/feat/stateoftheunion/f-stateoftheunion.asp>).
 - 31.– PETA (2005). Peta Proggy Awards, Stronger Backbone (2006ko abenduaren 15a) (<http://www.peta.org/feat/proggy/2005/winners.html#backbone>)
 - 32.– MCCASLIN, John (2006). “Inside the Beltway”. *The Washington Times*, Nation/Politics.
 - 33.– Pat Buchananen bizitzaren eta haren ikuspegi politikoaren laburpen on bat hemen aurki daiteke: http://en.wikipedia.org/wiki/Pat_buchanan.
 - 34.– BURNHAM, Gilbert [et al.] (2006). *The Human Cost of the War in Iraq: A Mortality Study, 2002-2006*. Bloomberg School of Public Health.
 - 35.– Francionek hori bera aipatu zuen hemen: [FRANCIONE, Gary L. (1996). *Rain without thunder: The ideology of the animal rights movement*. Temple University Press, 8. or.], baina gauzak aldatu badira, okerrago daude gaur.
 - 36.– Cf. Liburu honen [SINGER, Peter; MASON, Jim (2006). *The Way We Eat: Why Our Food Choices Matter*. Emmaus, Pennsylvania, Rodale Books] 18. Kapitulua.
 - 37.– Niretzat oso erraza izango litzateke puntu honetan

aipatzea Singerrek infantizidioa sustatu zuela oso ezinduta dauden haurren kasuetan. Horrek irizpide anbiguoak eskatzen ditu bizitza batek bizitzea noiz merezi duen zehazteko, eta, gainera, gai erabat konplexua da; izan ere, “ezgaitasunak” eta ezgaitasuntzat hartzen duguna testuinguru kulturalaren araberakoa da, erlatiboa.

- 38.– Edo beharbada, Jainkoa Peter Singer bera izango da.
- 39.– ALTHUSSER, Louis (1971). Ideology and ideological state apparatuses. Hemen aipatuta: Lenin and Philosophy and Other Essay. New York eta Londres, Monthly Review Press.
- 40.– Jensenek liburu honetan proposatutako terminologia erabiltzen ari naiz: [JENSEN, Robert (2005). The Heart of Whiteness: Confronting Race, Racism, and White Privilege San Francisco: City Lights]. Jensenek hauxe idatzi zuen: “‘zuria’ erdialdean jarri nahi dut, baina ez hori baloratzeko edo arau gisa ezartzeko. Justu kontrakoa. Zuriak eta zuria ez denaren gaiari heldu nahi diot, nagusitasun zuriaren deprabazioa argitara atera eta suntsitu beharreko zerbait bezala identifikatzeko. Alde horretatik, uste dut ‘zuria/zuria ez dena’ dikotomiak borrokaren izaera politikoa markatzen duela; izan ere, ‘zuriak ez diren pertsonak’ joera dute nagusitasun zuria eramateko zuriak ez diren komunitate anitzetako kulturetara” (3).
- 41.– BOOKCHIN, Murray (2005). The ecology of freedom: The emergence and Dissolution of Hierarchy. AK Press.

- 42.– Halere, gizon zuri pribilegiadun batzuei entzun izan diet haserre zeudenean hori bera argudiatzen duten arrazializatutako pertsonekin edo “eskubide gehiegi” eskatzen dituzten emakumeekin.
- 43.– Jensenen arabera, *The Heart of Whiteness* liburuak honela definitzen du supremazismo zuria: “Gizarte ‘supremazista zuria’ da europar zuriek ez-zurien gainean duten berezko supremazismoaren ideologian oinarritutakoa. Ideologia hori bera erabili izan zen herrialdea sortu zuten indigenen eta afrikarren aurkako krimenak justifikatzeko. Halaber, ideologia horrek zuritu egin du etorkin ez-zurien legezko eta legez kanpoko ustiapena, eta gaur egun erabiltzen da arraza-desberdintasunak zuritzeko gizarte honetako aberastasunaren banaketari eta ongizateari dagokionez” (4).
- 44.– LAZARTE, Daniel (2007ko urtarrilaren 25a). “My Beef with Vegetarianism”. *The Nation*. (<https://www.thenation.com/article/archive/my-beef-vegetarianism/>).
- 45.– CHOMSKY, Noam (2005). *Chomsky on Anarchism*. Oakland (California), AK Press, 222. or.
- 46.– SHEILA HAMANAK eta TRACY BASILE “Racism and the Animal Rights Movement” *Satya Magazine*, (<http://www.satyamag.com/jun05/hamanaka.html>) (2007ko ekainaren 27a)
- 47.– MICHAEL ALBERT, *Remembering Tomorrow: From SDS to Life after Capitalism, a Memoir* (New York Seven Stories Press, 2006), 141. or.

- 48.– Ibid.
- 49.– Cf. Carol J. Adams, “The Sexual Politics of Meat: A Feminist-Vegetarian Critical Theory (Continuum International Publishing Group, 1999) eta The Pornography of Meat (Continuum International Publishing Group, 2003).

V. kapituluko oharra

- 1.– LEGUIN, Ursula (1974). The Dispossessed. New York, EOS, 310. or.
- 2.– BOOKCHIN, Murray (1999). Anarchism, Marxism, and the Future of the Left: Interviews and Essays, 1993-1998. San Francisco, AK Press, 321. or. (Letra etzana Torresek gehitu dio).
- 3.– Aipagarria da, halaber, ikuspegi hori soziologiaren arloan oso zabalduta dagoela, nahiz eta eztabaida daitekeen zein punturaino den soziologia arrakastatsua kontu hauetan.
- 4.– GOLDMAN, Emma (1917). Anarchism: What It Really Stands For. (http://dwardmac.pitzer.edu/Anarchist_archives/goldman/aando/anarchism.html)
- 5.– ANONIMOA (2005). You can't Blow up a Social Relationship: The Anarchist Case against Terrorism. (<https://libcom.org/article/you-cant-blow-social-relationship-anarchist-case-against-terrorism>).
- 6.– BOOKCHIN, Murray (1995). Social Anarchism

- or Lifestyle Anarchism; An unbridgeable Chasm. (<https://libcom.org/article/social-anarchism-or-lifestyle-anarchism-unbridgeable-chasm-murray-bookchin>).
- 7.– Ibid.
 - 8.– Ibid.
 - 9.– Ibid.
 - 10.– JOY, Melanie (2002). *Psychic Numbing and Meat Consumption: The Psychology of Carnism*. San Francisco (California), Saybrook Graduate School and Research Center.
 - 11.– RECLUS, Elisèe (2007). *On Vegetarianism; the Great Kinship of Human and Fauna*. Jura Media, 4. or.
 - 12.– <http://freegan.info> webgunearen arabera, “Freeganak dira ohiko ekonomian eta baliabideen kontsumoan ahalik eta gutxien parte hartzeko bizi-estrategia alternatiboak erabiltzen dituzten pertsonak. Freeganak komunitatean, eskuzabaltasunean, lankidetzan sozialean, askatasunean, lankidetzan eta partekatzean inplikaturik daude, eta aurka egiten diote materialtasunean, antipatia moralean, lehiakortasunean, konformismoan eta diruzalekerian oinarritutako gizarteari. Freegan askok uste dute beganismoa puritanoegia dela, produktuak animalia-jatorrikoak ez izatea baitu helburu, baina ez baitu ezer esaten merkantzien ekoizpenaren beste alderdi negatiboei buruz.
 - 13.– Koloreen izenok nik neuk asmatutakoak izan ahal direla uste duzu? Eman begiratu bat honi: <http://>

- www.toybot.com/prius/color.html. Izen original gehiago ezagutuko dituzu bertan.
- 14.– <http://peta.com/404.html> (jatorrizko enfasia).
 - 15.– HALL, Lee (2006). *Capers in the Churchyard: Animal Rights Advocacy in the Age of Terror*. Darien (Connecticut), Nectar Bat Press, 73. or.
 - 16.– FABBRI, Luigi (2001). *Bourgeois Influences on Anarchism*. Tucson (Arizona), See Sharp Press.
 - 17.– Vlasak “60 Minutes” programan agertu zen 2005eko azaroan. Egin zituen iruzkinetako batzuk entzun ditzakezu CBSko albisteen web orrian: <http://www.cbsnews.com/stories/2005/11/10/60minutes/main1036067.shtml>
 - 18.– STARHAWK. *Affinity Groups*. (<http://www.starhawk.org/activism/trainer-resources/affinitygroups.html>)
 - 19.– Ibid.
 - 20.– DAY, Richard J. F. (2005). *Gramsci Is Dead: Anarchist Currents in the newest Social Movements*. Londres, Pluto Press, 189. or.
 - 21.– Ibid.
 - 22.– ECO, Umberto (1997). “Eternal Fascism; Fourteen Ways of Looking at a Blackshirt”. (http://www.themodernword.com/eco/eco_blackshirt.html)